

I. LIBURUKIA

ARARTEKOAREN TXOSTENA
EUSKO LEGEBILTZARRARI
1990. URTEA

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.


Papel erreziklatua.

I.S.B.N.: 84-87122-20-5. Liburu Osoa.

I.S.B.N.: 84-87122-21-3. I Liburukia.

L.G.: BI-1532-91.

L.G.: BI-1533-91.



ARARTEKO

I LIBURUKIA

EUSKO LEGBILTZARRARI
TXOSTENA
1990

AURKIBIDEA

I ATALA. ARARTEKOAREN AURKEZPENA	13
II ATALA. ARARTEKOAREN IHARDUERA NAGUSIAK	19
2.1. EKINTZAK	21
2.2. OFIZIOZKO IHARDUERAK	28
III ATALA. KEXEN LABURPENA SAILEN ARABERA	33
3.1. LEHENDAKARITZA ETA JUSTIZIA	35
A) Sarrera	35
B) Kexen aukeraketa	36
3.2. BARNE SAILA	45
A) Sarrera	45
B) Kexen aukeraketa	46
3.3. HERRI OGASUNA	51
A) Sarrera	51
B) Kexen aukeraketa	52
3.4. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA	59
A) Sarrera	59
B) Kexen aukeraketa	60
3.5. KULTURA ETA TURISMOA	74
A) Sarrera	74
B) Kexen aukeraketa	75
3.6. LAN ETA GIZARTE-SEGURANTZA	76
A) Sarrera	76
B) Kexen aukeraketa	76

3.7.	OSASUNKETA ETA KONTSUMOA	78
	A) Sarrera	78
	B) Kexen aukeraketa	80
3.8.	INDUSTRIA ETA MERKATARITZA	100
	A) Sarrera	100
	B) Kexen aukeraketa	101
3.9.	NEKAZARITZA ETA ARRANTZUA	101
	A) Sarrera	101
	B) Kexen aukeraketa	102
3.10.	GARRAIOAK ETA HERRI-LANAK	103
	A) Sarrera	103
	B) Kexen aukeraketa	103
3.11.	HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIROA	105
	A) Sarrera	105
	B) Kexen aukeraketa	105
3.12.	ERA GUZTIETAKO GESTIOAK	118
	A) Sarrera	118
	B) Kexen aukeraketa	119
IV ATALA. ESTADISTIKA	121	
4.1.	OHAR OROKORRAK	123
4.2.	JASOTAKO KEXAK ADMINISTRAZIOEN ARABERA	128
4.3.	SAILEN ARABERAKO ESTADISTIKA	130
4.4.	LURRALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA	135
4.5.	PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA	136
4.6.	ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA	139
4.7.	HIRITARRENTZAKO ARGIBIDE BULEGO ZERBITZUAREN ESTADISTIKA	140
4.8.	DIAGRAMAK	145

V ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK JARRITAKO ERRESISTENTZIA ETA ERAGOZPENAK	175
5.1. ARGITASUNAK EPEAREN BARRUAN EMATEKO BEHARRA BETE EZ DUTENAK	178
A) Eusko Jaurlaritza	178
B) Foru Aldundiak	179
C) Udalak	179
5.2. GOMENDIO ETA AHOLKUAK BETE EZ DITUZTENAK	180
5.3. ERREKERIMENTUEN EREDU EZBERDINAK	181
VI ATALA. IRADOKIZUN ETA GOMENDIOAK	183
6.1. JAKINERAZPEN FORMALA GARANTIA MODUAN ETA IRAKASLEGOAREN ORDEZKAKETAZ	185
6.2. BIDE GABEKO DIRUSARRERAK ITZULI BEHARRAZ ETA AUTOKITAPENEN INPUGNAZIOAZ	187
6.3. EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALKUNTZAZ ADMINISTRAZIO LOKALETAN	190
6.4. ZERBITZU PUBLIKOEN ERABILTZAILEAK ETA HAIEN ESKUBIDEEN DEFENTSAZ	192
6.5. HIRITARREN ESKUBIDEAK ETA GOGAIKARRITZAT EMANDAKO JARDUJERAZ	195
6.6. ETXEBIZITZA DUIN ETA EGOKIA EDUKITZEKO ESKUBIDEAZ	197
6.7. HIRIGINTZARI BURUZKOAK ARGITZEKO BEHARRAZ	200
6.8. ADMINISTRAZIOAREN GELDITASUNA. ISILTASUN ADMINISTRATIBOA ETA ADMINISTRATUEN ESKUBIDEEN USTEZKO IRAUNGIPENAZ	202
VII ATALA. AZKEN ONDORIOAK	207
ERANSKINA ARARTEKO ERAKUNDEAREN ANTOLAKETA ETA ARIBIDEARI BURUZKO ERREGELAK	213
II LIBURUKIA.	
ERTZANTZAREN ETA UDALEN ATXILOKETA EGOTZEI BURUZKO TXOSTENA	

I ATALA

ARARTEKOAREN AURKEZPENA

Berez inor ez da ezer. Besteren baten esku dago orobiraren izaera.

José Miguel Barandiarán

Bi urte pasa dira dagoeneko Eusko Legebiltzarrak 1989ko martxoaren 2an eginiko Osoko Bilkuran Ararteko izendatu, eta esanahi handiko egun batean, martxoaren 8an hain zuzen, karguaz jabetu nintzenetik.

Ordutik hona denbora labur baina trinkoa igaro da. Seguraski ni ez naiz pertsonarik egokiena, lan honetatik aparte ez bait naiz egon, bitarte horretan egin direnen on-gaitzak alderdikierarik gabe epaitzeko. Bai esan dezaket, ordea, ahaleginak egin ditudala, nere bihotz guzti-guztia horretan jarriz, Ararteko Erakunde hau sortu zuen legeak nere bizkar utzi dituen eginkizunetan.

Bigarren txosten honi nagokiola, zilegi bekit, orozgain, Administrazio publikoan antzeman ditugun makurrak nabarmentzen, eginaren-eginaz gaitz sendaezin bilaka ez dakizkigun. Isiltasun administratiboaren abusuzko erabileraz ari naiz nagusiki, haren mendekoari kalte handia egiten bait dio, eta, bidenabar esan dezagun, Erakunde honek ere jasan behar izan bait du Administrazioaren erantzunik eza, sail batzuei zuzendu dizkiogun eskabide ugariak lekuko.

Nolanahi ere, bigarren lanurte honetako kezkabiderik ageriena osasuna zaintzeko eskubidea, eskubide funtsezkoa eta hiritar guzti-guztiei dago-kiena, kolokan jartzen duten halako akats batzuek oraindik ere badiraute, nere karguaz jabetu nintzenetik berrogei egunetara egin nuen lehen agerraldian salatu nituenetik iraun ere, ikustea izan da.

Ospitaleek beren eginkizunetan bete-betean aritzerik izan dezaten beharrezkoak diren sendagile espezialisten hutsaz ari naiz batik bat; halaber, ospitalera sartu eta ebakuntza kirurgikoak noiz egingo zain daudenek jasan beharreko atzerapen luzeek, eta, azkenik, lehen mailako osasun laguntzak gizon-emakumeen mailara ekartzeaz.

Ez litzateke zuzena izango aurrera ere egin dela isiltzea, arauen esparruan batez ere, baina bihotz mingarri da neretzat hain kontu handiz erabiltzekoa den gai horretan, salatu ditugun akatsek bere hartan dirautela adierazi beharra, ezen, Saileko arduradun nagusiak akats horiek zuzentzeko egindako ahaleginak eta guzti, gora handiko oztopo tekniko-administrati-boak aurkitu bait ditugu.

Ingurugiroaren hondamena Erakunde honen kezkarik funtsezkoeneta-ko bat da oraindik, sinesturik bait gaude arazo hori konponbidean jartzea

Administrazioaren ardura ezezik, hiritarrena ere badela. Era berean, jardue-
ra gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen ugalketak ere biziki
kezkatzen gaitu, batez ere zaratak, neurri handi batean, gizalege apur batez
konpontzeko moduko arazoa bait da.

Hirigintzaren antolakuntza, lurraren erabilera, eta etxebizitza, lehen
mailako ondasuna, ezinbestekoa edozein hiritarrek bere eskubideez baliatze-
rik izan dezan, horra hor oraindik berdindu gabe dauzkagun zorrak, gure
herria luze-zabalez txikia izanik elkarren artean lur gutxi banatu behar bait
dute biztanleek.

Gora-behera guzti hauek eta beste asko, 1989. urteko txostenean azal-
du genituenak, gaur Legebiltzarraren eskuetan jartzen dugun txosten ho-
netako ataletan ere agertuko dira, administrazio publikoek arreta berezia
emango diotelakoan.

Kexabideetako askoren idazkerak, bere itxura eta funtsagatik, hobeto
ulertarazi dizkidate Camoens-en bertsoak:

*A gente Biscainha, que carece
De polidas razões, e que as injurias
Muito mal dos estranhos compadece.*

(*Os Lusíadas*, IV kantua, 11)

(Bizkaiko herriari, ez bait du findua
mintzoa, eta nekez eramaten bait du
arrotzen laidoa.)

Esan beharra dago herri hau, ez bait da enbor bitxi bat Europako
mendebaldean, Telesforo Aranzadiren hitzak erabiltzearren, sekulan ez dela
endogamikoa izan, eta bere nortasuna eta berezitasunak bere hizkuntzan
oinarrizten baditu ere, besoak zabalik izan dituela beti kanpoko kultur joe-
rentzat. Espainia osoa gorpuzten duen berezko aniztasun horren barruan,
hizkuntz aniztasunak guztion kultur ondarea izan behar luke, eta, aitzitik,
hizkuntz gatazka piztua da, alderdikieriarik tamalgarrienaren zamaz piztu ere.
Hizkuntz normalkuntzarako bidea, bide luze eta bihurria izanik, eskuzabal-
tasunak eta elkarrizketak mugatu beharko lukete, helburu onera eramango
bagaitu.

Arartekoak, aukera izan duen guztietan, erizpide horietxek erabili ditu
hizkuntz auziak konpontzeko, baina arartekaritzak huts egin duenean, inda-
rrean dagoen legeriari heltzera mugatu da bere ebazpenak ematerakoan,
lege horiek, hala nola bi hizkuntzen ofizialkidetasuna eta hizkuntz normal-
kuntzarako prozesua, ezin bait daitezke paper erre izaten geratu.

Gizartearen elkarbizitzarenganako ardura bizia oin harturik, ausartzen
gara txosten honen bukaerako atalean Euskararen Erabilpenaren Normal-
kuntzarako Legea arau bidez garatzea ezinbesteko beharra dela ohartaraz-
tera, hartara auziak garbituko bait dira, bai eta arautu ere Administrazio
lokalean bi hizkuntza ofizialen erabilpenak pizten dituen arazo korapila-
tsuak.

Erakundearen bizitzaren bigarren urte honetan, gure gain hartutako
egitekoei zuzen erantzuteko behar dugun jende taldea osatzen jarraitu dugu.

Honi dagokionez, nere eskerrik beroenak eman beharko dizkiot, berriz ere, Jesús M.^a Arteaga nere Ondokoari bere balio handiko lankidetzagatik, baina ez horregatik ahaztuta utzirik Faustino López de Foronda, urte hasieran gure artera etorri zen Lege Aholkularitza Buruaren laguntza handia, ez eta Alex Andia, ondoren etorri zena. Urteak aurrera egin ahala, Fernando Vázquez eta, azkenik, Josune Echeberria etorri zitzaizkigun. Nere eskertza, orobat, Erakunde honen lantaldea osatzen duten gainerako langileei ere heldu erazi nahi diet.

Oro har hitzeginda, esan daiteke Erakundeak joan den urte honetan egin duen lana onurazkoa izan dela, baina, nola ez, hobegarria ere bai. Hari honetatik, erantsi dezadan edozein kritika jasotzeko prest dagoela Arartekoa; are gehiago, esango nuke kritika guztiz beharrezkoa dela, besteak beste erakunde orok gogoratu beharreko bat badelako: hots, hiritarren zerbitzuan daudela, eta, beraz, hiritarrek haren lanaz duten eritziari adi egon behar dutela.

Hasiera-hasieratik, hiritarren funtsezko eskubide eta askatasunak babesteko gure eginkizun garrantzitsu honetan, Erakunde honek jarraibide garbi bat finkatu du azaldu zaizkion auzi guztietarako: beti, ahal den neurrian, elkarrekin onezkoak egiteko bideak bilatzea. Lortu ditugunak onerakoak izan direla esan dezakegu, eta gure gizartea osatzen duten askok beren konfidantza agertu diote Ararteko honi, tankera pribatuko gatazketan bi alderdiek arartekari izateko eskaria egiteraino.

Nolanahi ere den, gizarteko gizatalderik behartsuenen egoera izan da Ararteko honen kezka nagusia, eta kezka horren ondorioz ofiziozko hainbat ekintza burutu ditugu, haien artean, atxilotuentzako udalen eta Ertzaintzaren kalabozoetara eginiko bisitaldiak; horrenbestez, esan dezakegu udal atxiloketa zentruak ez dituztela betetzen, salbuespenak salbuespen, atxilotuta daudenen eskubiderik oinarrizkoenei zor zaien begiruneak ezartzen dituen baldintzak. Horrek konpromezu sendo bat eskatzen die herri-aginteei giza duintasunerako hain tamalgarria den egoera hori zuzentzeko.

Ez dut ukatuko, inondik ere, lan nekezak bizkarreratzen zaizkigula bazuetan, baina haietan nere izatearen alderdirik gizatiarrena iraultzen saiatzen naiz, bai eta, zergatik ez, Justicia de Aragón den nere lankide eta adiskide min Emilio Gastonek dioena imitatzen:

*Yo puedo comprender todas las sombras
porque soy abogado de los bosques.*

*(Itzal guztiak uler ditzaket,
basoen abokatua bait naiz.)*


ARARTEKOA
JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE

II ATALA

**ARARTEKOAREN IHARDUERA
NAGUSIAK**

2.1. EKINTZAK

Bigarren urtealdi honetan hobekuntza gero eta handiagoa izan du Ararteko Erakundeak giza-baliabideei zein baliabide materialei dagokienez, eta bere esku utzitako konpetentzia eta zereginak betetze-bidean burutu beharreko jarduna, oro har, indartzeko aukera eskaini dio horrek.

Baldintza hobeago horiek batetik eta zertutako lan dinamikak berak bestetik, programa zabal bat garatzeko erraztasunak eskaini dituzte, dela protokolozko ekitaldien esparruan —non ugaritu egin bait dira beren munta zela eta interesgarrientzat jo izan direnetarako joanaldiak—, dela erakundeen arteko lan harremanen esparruan.

Horri dagokionez, lehendik ezarrita zeuden harremanak sendotzeko eta berriak ezartzeko egindako ahalegina azpimarratu beharra dago, bai euskal Administrazio publikoaren baitako instantzietatik harremanei dagokienez, bai giza eskubideen babesaren aurrean bereziki sentsibilizatuta dauden eta ikerketa juridikoan jarduten duten edo eragin handiko jardun soziala duten nazio mailako zein nazioarteko erakunde eta entitateetarako harremanei dagokienez.

1990 urtean zehar Erakunde honek burutu zituen ekintza instituzionalen arteko nagusienak azalduko ditugu jarraian. Honako hauek izan ziren:

— **Urtarrilak 16.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoak protokolozko bisitaldia egin zion Juan Manuel Eguiagaray jaun txit gorenari, berori Euskal Autonomi Elkarterako Gobernuaren Ordezkarri izendatu zutela eta.

— **Urtarrilak 19.** Vitoria-Gasteiz. Erakundearen titularrak bilera bat egin zuen Javier Saenz de Buruaga, Eusko Jaurlaritzako Droga gaietarako Idazkari Nagusi jaun txit argiarekin; bilera horretan izan ziren, halaber, droga-menpekotasunaren eraginpean daudenen senitartekoek Euskal Autonomi Elkartean sortuak dituzten elkarteen zenbait ordezkarri ere.

— **Urtarrilak 23.** Bilbo. Arartekoaren Ondoko den Arteaga jaunak zabaldu hitzaldia eman zuen Bizkaiko Etxeko Andreen Elkarteen egoitzan, Erakunde honen esku jarritako konpetentzia eta zereginen inguruan.

— **Urtarrilak 31.** Bizkaiko campusa (Leioa). Arartekoak, Ondokoa berearekin zela, elkarrizketa bat izan zuen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektore den Emilio Barberá jaun txit gorenarekin.

Erakunde honek gure Autonomi Elkarteko hezkuntz jardunaren baitako instantzia desberdinen arduradunekin aldiaren behin izaten dituen kontaktuen barruan sartzen da bilera hori.

— **Otsailak 5.** Madrid. *Los Zuloaga, una dinastía de artistas vascos* obraren argitarapena zela eta, horren aurkezpena gonbidatu zuen Arartekoa Juan Carlos Erregek. Zarzuelako jauregian burutu zen ekitaldi horretan Zuloaga familiaren ordezkari batek hartu zuen parte, bai eta liburuaren egileek eta gai horretako zenbait adituk ere.

Biharamonean, Vitoria-Gasteizko Ajuria Enea jauregian, José Antonio Ardanza, Lehendakari jaun txit gorenari aurkeztu zitzaion aipatutako obra hori; ekitaldi horretara ere gonbidatu zuten Erakundearen titularra.

— **Martxoak 13.** Arartekoaren Ondokoa den Jesús M.^a Arteaga Izaguirre jauna Santa Cruz de la Palmara joan zen, "II Reunión de Adjuntos a los Defensores" bileran parte hartzeko. Batzuen zein besteen intereseko diren gaiak garatzeko aldiaren behin burutzen dituzten eta beren zereginak burutzeko orduan ageriko erabilgarritasun praktikoa eskaintzen dieten bilkuren barruan kokatzen da lan egun hori.

— **Martxoak 28.** *Eusko Legebiltzarrerako Txostena, 1989* -ren aurkezpena. Arartekoak eta Erakundearen Ondokoa lehenengo singladura urtean zehar Erakundeak burututako jarduna biltzen duen urteko txostena eman zioten Legebiltzarreko Lehendakari den Jesús Eguiguren jaun txit gorenari.

Txostena jaso ondoren, eta sailkatu eta izapideetarako onartu zelarik, berori Legebiltzarreko Giza Eskubideetarako Batzordera bidaltzea erabaki zuen Mahaiak, eta batzorde horretako lehendakariak apirilaren 26an egingo zen bilkurarako gai-zerrendan sartu zuen. Gerora, bi erakundeen arteko harremanak araupetzen dituen arautegiaren arabera, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran aurkeztu zen urteko txostena, maiatzaren 11n.

— **Martxoak 31.** Eusko Legebiltzarraren eraketaren X. urteurrena zela eta burututako ospakizun instituzionalean parte hartu zuen Arartekoak.

— **Apirilaren 5etik 7ra.** Zaragoza. Oraingo honetan El Justicia de Aragón erakundeak antolatu zituen "V Jornadas de Defensores del Pueblo" bilkurak burutu ziren. Urtero egiten dira bilkura horiek, Defensor del Pueblo delakoa eta autonomietako defendatzaileak elkartzen direlarik bertan. Erakunde parlamentario horien buru dihardutela egiten duten lanari dagozkion gaiak ukitzen dira, guztion artean, era aberasgarrian. Aipatu beharra dago Portugaleko Provedor de Justicia delako Angelo de Almeida Riveiro jaun txit gorenak ere parte hartu zuela, gonbidatu gisa.

"V Jornadas de Defensores del Pueblo" horiek burutzen ziren egunetan Aragoiko zenbait autoritatek hartu zituzten partikularrak, hala nola Aragoiko Diputazio Nagusiko Lehendakari den Hipólito Gómez de las Rocas jaun txit gorenak, Zaragozako Diputazioko Lehendakari José Marco Berges

jaun txit gorenak, edota Aragoiko Korteetako Lehendakari Juan Bautista Monserrat jaun txit gorenak.

– **Apirilak 19.** Madrid. Euskaltzaindiaren ordezkariak eta Erakunde honen titualarrak osatutako delegazioa Justizia Ministrari Enrique Múgica jaun txit gorenarekin elkarrizketatu zen.

– **Apirilak 24.** Vitoria-Gasteiz. Eusko Legebiltzarrak argitaratutako zenbait obraren aurkezpenean izan zen Arartekoa, gonbidatu gisa.

– **Apirilak 26.** Arartekoak *Eusko Legebiltzarrerako Txostena, 1989* -ren azalpen orokorra egin zuen Giza Eskubideetarako Batzordearen aurrean, bertan talde parlamentarioak izan zirelarik.

– **Maiatzak 4.** Laudio. “Gesto por la Paz de Euskal Herria” koordinakundeak antolatutako mahainguru batean parte hartu zuen Erakundearen titularrak, “Diálogos por la Paz” zirelakoen barruan.

– **Maiatzak 11.** Arartekoak Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkuraren aurrean 1989ko txostena aurkeztu eta horren laburpena azaldu zuen; ondoren, legez ezarrita dagoen prozedurari jarraiki, Arartekoak aretoa utzi eta talde parlamentarioen saioei eman zitzaion hasiera.

– **Maiatzak 15.** Vitoria-Gasteiz. Gurutze Gorriaren, CEAR-en (Comisión Española de Ayuda al Refugiado) eta ACNUR-en (mundu guztian errefuxiatuak defendatzeko Estatu Batuen erakundea) ordezkari eta delegatuak bildu ziren Arartekoa eta Erakundearen Ondokoa Eusko Legebiltzarraren egoitzan. Bilkura horretan, Espainian bizi diren errefuxiatu talde desberdinek jasaten dituzten legeen eta laguntzen alorreko arazoak azaldu zituzten aipatutako erakunde horien ordezkariak.

Bilkuraren ondoren Eusko Legebiltzarreko Lehendakariak hartu zituen delegatuak.

– **Maiatzak 16.** Bilbo. Eusko Jaurlaritzako Osasunketa eta Kontsumo Saileko Kontsumo Zuzendariak antolatutako Restituto Zorrilla irakasle jaunaren *El consumo del ocio* obraren aurkezpen ekitaldian izan zen Arartekoaren Ondokoa den Arteaga jauna.

– **Ekainak 6.** Arkaute. Ertzantzaren Akademia bisitatu zuen Arartekoak, eta Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Burua zen Juan Lasa jaun txit gorenarekin eta Saileko beste arduradunekin elkarrizketatu zen.

– **Ekainak 8.** Santiago de Compostela. José Cora Rodríguez jaun txit gorenak Valedor do Pobo kargua hartzeko burutu zen ekitaldian izan zen Erakundearen titularra (Galiziako Autonomi Elkartean Arartekoaren pareko kargua da hori). Galiziako Autonomi Elkarteko goreneko autoritateak ez

ezik, bertan izan ziren Defensor del Pueblo delakoa eta autonomi elkarte desberdinetako defendatzaileak ere.

– **Ekainak 17 eta 18.** Jendearentzat interesgarri izan daitekeen Erakundeari buruzko informazioa argitaratu zen prentsan: zein diren bere zereginak, jardun esparrua eta Arartekoaren aurrean erreklamazioak formulatzeko bete beharrekoak.

– **Ekainak 23.** Donostia-San Sebastián. Kriminologia Euskal Erakundeak antolatutako nazioarteko symposiumaren bukaera ekitaldian parte hartu zuen Arartekoak, honako lemapean: “El hombre y la mujer voluntarios en instituciones de internos: menores, adultos y centros de acogida a drogadictos”.

– **Uztailak 10.** Bilbo. UNESCOk Alfabetatzearen Nazioarteko Urtearen barruan sustatutako kanpainaren barruan Euskaltzaindiak antolatutako LETRAKIT erakusketa ibiltariaren aurkezpenean izan zen titularra.

– **Uztailak 11.** Madrid. Arartekoaren eta Defensor del Pueblo delakoaren erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinaketa informatikorako hitzarmena ezartzeko protokoloa izenpetu zen; Kataluniako Síndic de Greuges delakoaren eta Defensor del Pueblo-ren artean lehenago ezarritakoaren antzekoa da hitzarmen hori.

Gai honen haritik, azpimarratu beharra dago defendatzaileen bulego gehienetan informatizatu direla dagoeneko lan sistemak —eta gero eta gehiago—, eta aurrerapauso kualitatibo garrantzitsua ekarri duela horrek erakunde horien arteko informazio trukaketari dagokionez; bizkortasun handiagoaren iturri izan da, eta, azken batean, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua era nabarian hobetzea ere berarekin ekarriko du.

– **Abuztuak 31.** Donostia-San Sebastián. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak Euskal Autonomi Elkarteko agintariei urtero eskaintzen dien errepezioan izan zen Erakundearen titularra, Miramarreko jauregian.

– **Irailak 11.** Donostia-San Sebastián. SOS DEIAk Gipuzkoan duen zerbitzuen koordinaziorako zentrua bisitatu zuten Arartekoak eta Ondokoak.

– **Irailak 21.** Atun. Erakundearen titularrak eta Ondokoak, Joxemiel Barandiaran jaunari egindako bisitaldiaren barruan, *Eusko Legebiltzarrerako Txostena*, 1989 delakoa eman zioten ikerlari ospetsuari.

– **Irailak 23.** Donostia-San Sebastián. Kultura Ministrari Jorge Semprún jaun txit gorenak Donostiako Nazioarteko Zinema Jaialdiko ekitaldi ofizialen programaren barruan eskainitako errepezioan izan zen Arartekoa.

– **Irailak 25.** Bilbo. Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen eta Garapenerako Sailak ekonomiaren inguruko kazetaritzaren alorrean anto-

latutako lehenengo sariketako sari-emanketan parte hartu zuen Erakundearen titularrak.

– **Irailak 26.** Donostia-San Sebastián. Donostiako Nazioarteko Zinema Jaialdiaren XXXVIII. Edizioan antolatutako ekitaldi ofizialen barruan, filme baten proiektzioan eta ondorengo errezepzioan izan zen Erakundearen titularrak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburu Joseba Arregui jaun txit gorenak gonbidatuta.

– **Urriak 5.** Bilbao. “La Fundación” delakoak gonbidatuta, Jesús Eguiguren jaun txit gorenari eta Bilboko Udaletxeko Hezkuntzako Zinegotzi Eduardo Uriarte jaunari bortxakeriarik ezaren alde izandako dedikazioarengatik eta egindako lanarengatik eskainitako omenaldian izan zen Erakundearen titularra.

– **Urriak 11.** Vitoria-Gasteiz. Euskal Herriko “Amnistía Internacional” delakoaren delegazio bat elkarrizketatu zen Erakundearen titularrarekin, lehenengo kontaktu informatibo gisa. Munduan giza-eskubideekiko babesak gaur egun bizi duen egoerari buruzko zenbait alderdi ukitu ziren elkarrizketa horretan.

– **Urriaren 24tik 27ra.** Bolzano (Italia). Egoitza Austrian duen “Ombudsmanaren Europako Erakundea”k Bolzanoko, Behe-Tiroleko eta Trentoko probintzia autonomoetako ombudsmanen laguntzaz antolatutako “Ombudsmanaren Europako II Konferentzia”n parte hartu zuten Erakundearen titularrak eta Ondokoak. Bolzano, Trento eta Innsbruck hirietan burutu ziren lan-bilkurak.

Europa guztiko ombudsmanen arteko parte handi bat bildu zuen 1990eko edizio hori aukera interesgarria suertatu zen esperientzien trukatetarako eta aurrerantzerantz begira Europako gainerako ordezkariekin lankidetzeta harremanak gauzatzeko.

– **Azaroak 22.** Donostia-San Sebastián. Ongi etorrizko hitzaldia eman zuen Arartekoak Euskal Kriminologia Erakundeak antolatutako “III Jornadas Penitenciarias Vasco-Navarras” jardunaldien hasiera-ekitaldian.

– **Azaroak 24.** Hondarribia. Hondarribiako Udalak Euskaltzaleen Biltzarrarekin eta Euskaltzaindiarekin batera Claudio Otaegiren omenez antolatutako ekitaldian izan zen Arartekoa.

– **Abenduak 3 eta 4.** Zaragoza. “Jornadas de Derecho Aragonés” jardunaldietan izan zen Arartekoa. Jardunaldi horietan Aragoiko El Justiciaren erakundeak eta Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Zaragoza, Aragón y Rioja delakoak —batera— argitaratutako *Derecho público aragonés* obraren aurkezpena egin zen.

– **Abenduak 5.** Arartekoak espainiar Konstituzioaren XII. urteurrena ospatzeko Madrilgo Gobernuak Euskal Herrian duen Ordezkaritzan burutu

zen ekitaldian hartu zuen parte, Juan Manuel Eguiagaray jaun txit gorenak gonbidatua.

— **Abenduak 14.** Bilbo. Euskal Herriko “Asociación Pro Derechos Humanos” elkarteak antolatutako arrazakeriari eta xenofobiari buruzko jardunaldien amaiera-ekitaldian parte hartu zuen Arartekoak.

— **Abenduak 28.** Vitoria-Gasteiz. Eusko Legebiltzarreko Lehendakari izendatu berri zen Joseba Leizaola jaun txit gorenak hartu zituen Arartekoa eta Ondokoa.

Ekintza horietako batzuk nabarmendu egin nahi nituzke, traszendentzia handikoagoak direla eta; hain zuzen ere, martxoan Santa Cruz de la Palman burututako “III Reunion de Adjuntos” delakoa, Defensor del Pueblo erakundearekin informatikaren alorreko lankidetzarako sinatutako hitzarmena eta Bolzanon (Italia) burututako “Ombudsmanaren Europako II Konferentzia”n Arartekoak parte hartu izana.

“III Reunión de Adjuntos a los Defensores del Pueblo”, Santa Cruz de la Palman (1990eko martxoaren 13an)

Iazko martxoaren 13an Santa Cruz de la Palman izan zen Artekoaren Ondokoa den Jesús M.^o Arteaga jaun txit argia, “III Reunión de Adjuntos a los Defensores del Pueblo” bilkuran parte hartzeko. Batzuen zein besteen intereseko diren gaiak garatzeko aldian behin burutzen dituzten eta beren zereginak burutzeko orduan ageriko erabilgarritasun praktikoa eskaintzen dieten jardunaldien barruan kokatzen da bilkura hori.

1989ko apirilean Sevillan burutu ziren “IV Jornadas del Defensor del Pueblo y Comisionados Parlamentarios” jardunaldietan erabakitakoa betez burutzen dira jardunaldi horiek. Hiru egin dira ordudunik: lehenengoa Gasteizen, 1989ko maiatzaren 25ean; bigarrena Zaragozan, urte bereko irailaren 14ean, eta orain aipatzen ari garen hau, azkenik, 1990eko martxoaren 13an, Santa Cruz de la Palman.

Edukiei buruz hitz egin aurretik, aipatu beharra dago aurrekoetan bezalaxe honako honetan ere asistentzia handia izan zela oso, herri-defendatzaile direlako erakunde ia guztiak izan bait ziren bertan, estatu mailakoa zein autonomietakoak.

Informatikaren arloan, atzeratueneko erakundeak informatizatzebidean gertatzen ari den aurrerakada konstatatu zen. Horren haritik, eta guri dagokigunez, lehenagotik Defensor del Pueblo erakundearen eta Kataluniako Síndic de Greuges delakoaren artean ezarritakoaren antzeko lankidetzahitzarmena ezartzea eskatu zion Arartekoak Defensor del Pueblo berorri. Hurrengo hiletan zertu zen hitzarmen hori, aurrerago zehaztuko dugun eran.

Era berean, elkarrekiko informazio trukaketa erakundeen jardunaren mesedetan izan deneko kasuak aztertu ziren; kontaktu horiek mantentzea garrantzitsua dela atera zen guzti horren ondorioztat.

Interes orokorreko gai amankomunen atalean defendatzaileek kexen arloan izapidetutako espedienteetako agiriak bide jurisdikzionaletik eskatzen direnean hartu beharreko jarrera aztertu zen; orain arte bakoitzak zein erizpideri jarraiki izan dion azaldu zuten bertan zirenek.

Era berean, gomendioen segimenduari buruzko gaia ere izan zen aztergai. Agerian geratu zen jarrera aktiboa mantentzearen komenigarritasuna, gomendioa jasotzen duen Administrazioa —berori bete dezan— behar bezala kontrolatzearren, hain zuzen ere.

Estatu mailako Defensor del Pueblo delakoaren ordezkariak nazioarteko azken bilkuren berri eman zioten batzordeari, eta, zehazkiago, Ombudsmanaren Europako Erakundeak 1989ko urrian egin zuenaren berri.

Justicia de Aragón delakoaren Aholkulari Buruak konfirmatu egin zituen “V Jornadas de Defensores del Pueblo” jardunaldietarako egunak; apirilaren 5ean eta 6an burutuko ziren, Zaragozan, gai-zerrenda honako hauek sartuko zirelarik: ingurugiroa, hirigintza, itsasertzak eta lurraren antolakuntza, eta kontsumitzaileen eskubidea, etxebizitzari dagokionez.

Azkenik, laguntzaileen arteko bilkura hauen izaera teknikoa azpimarraitu zen; lau hiletik behin izango dira aurrerantzean ere.

Defensor del Pueblo erakundearekin informatikaren alorreko lankidetzarako eta koordinaketarako sinatutako hitzarmena (1990eko ekainak 11)

1990eko uztailaren 11n izenpetu zen Madriden Arartekoa eta Defensor del Pueblo delako erakundearen arteko lankidetzeta eta koordinaketa informatikorako hitzarmena ezartzeko protokoloa. Kataluniako Síndic de Greuges delakoaren eta Defensor del Pueblo horren artean lehenago ezarritakoaren antzekoa da hitzarmen hori, aipatu denez.

Gorago azaldu dugunez, laguntzaileek 1990eko martxoaren 13an Santa Cruz de la Palman burututako bilkuran egin zen hitzarmen hori ezartzeko eskabidea, eta herri-defendatzaile gehienek bulegoetan burutzen ari den informatizatze gero eta handiagoaren ildotik doa. Guzti horrek, aurrerapauso kualitatibo garrantzitsua ekarri du erakunde horien arteko informazio trukaketari dagokionez. Eta bizkortasun handiagoa ekarriko du eta, azken batean, baita herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua era nabarian hobetzea ere.

Ombudsmanaren Europako II. Konferentzia (1990eko urriaren 24tik 27ra)

Iazko urriaren 24tik 27ra bitartean, Ombudsmanaren Europako II Konferentzian parte hartu zuten Arartekoak eta Ondokoak, Bolzanon (Italia). Egoitza Austrian duen Ombudsmanaren Europako Erakundeak antolatu zuen konferentzia hori, Bolzanoko, Behe-Tiroleko eta Trentoko probintzia autonomoen laguntzaz. Bolzano, Trento eta Innsbruck hirietan burutu ziren lan-bilkurak.

Europa guztiko ombudsmanen arteko parte handi bat bildu zuen 1990eko edizio hori aukera interesgarria suertatu zen esperientzien truka-ketarako eta aurrerantzera begira Europako gainerako ordezkariekin lanki-detza harremanak gauzatzeko.

Konferentzia horren barruan, bertako agintariak hartu zituzten hara joanak ziren guztiak, eta Arartekoak eta Ondokoak Donostiako Alkatearen agur mezu bat eman zioten Trento hiriko Alkateari, elkaturik bait daude bi hiri horiek.

2.2. OFIZIOZKO IHARDUERAK

Txosten honek bere barnean hartzen duen denbora tartean, Ararte-koak jarduera ohargarria burutu du ofizioz hasitako ekintzen ondorioz, hau da, Erakundearen beraren ekimenez.

Arartekoa sortu zuen 3/1985 Legeak, 11. artikulua a) idaztarian ezartzen duenez, Erakunde honek "herritar bati nahiz herritar talde bati doazkion eta bederatzigarren atalean esandako erakundearen egintza edo jo-kabideak garbitzeko arakaketak hasi eta egin" ahalko du.

Bestalde, aipatutako legearen 17. artikulua, berriz, bere lehen pun-tuan beste hau dio: "Arartekoak bere berenezko bideak arauz kontrako egoeraren bat ezagutu dezanean bere arioz ekin ahal izango dio argipide-ketari".

Legezko ebazpen guzti hauek, berez dagokien bezala, Arartekoa beza-lako erakunde baten funtsezko lanak izan behar duenari buruzko halako erizpide batek sortuak dira. Ezen eta desiragarriena, Arartekoaren jarduna-ren helbururik berezkoena, ofiziozko ekintzetan jarduteak izan behar du, eta ez soilik alderdi baten eskariz.

Aipatzekoa litzateke aurtan asko gehitu direla, kopuruz bezala kalitatez ere, ofizioz hasitako ekintzak, joan den urtearekin alderatuz gero. Ekintzarik gehienak arreta handiz aukeratu izan dira, eskuarte eta giza baliabidetan mugatuta egonik, ofizioz hartzen diren ekintzek ezin dutelako eragotzi hiri-tarrek berek azaltzen dituzten kexabideei eman beharreko arreta. Beste ba-tzuetan, aldiz, ustekabeko egoerak izan dira, beren larritasun edo garran-tziagatik, ofiziozko ekintzei lotu gaituztenak.

Handizka hitz eginez, gure jarduna zortzi bidetatik abiatu da, haietako bakoitza euskal Administrazio publikoa eta gure erkidegoko hiritarrak ukitu dituzten beste horrenbeste gorabeherari dagokiolarik; hona hemen:

— Osakidetzako behin-behineko langileen koordinakundearekin zuzenean egindako gestioak, lan auzia azaldu zenean.

— Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko eraskinak haietan azaltzen diren egunetan argitara eman daitezen, eta ez hainbat hila-bete beranduago.

— Bizkaiko Foruko Trinitate basilizako harlauza erromatarra kontser-batzeko.

– Bizkaira iritsi berritako poloniar errefuxiatuentzat konponbideren bat aurkitzeko.

– NUIZaren inprimakiak normaltzeko, eta haietan emakumearen aurkako inolako bazterkeriarik ager dadin eragozteko.

– Hiru euskal hiriburuetakoko kaleetatik ibilgailuak erretiratzeari buruz TAO ordenantzetan jasotzen diren baimenak berraztertze.

– Udaletako lanpostuak betetzeko soldaduzka bukatua eduki edo salbetsita egotea eskatzen duten deialdien baldintzak zuzentzeko.

– Ertzantzako komisaldegi eta udal kalabozoetara ikuskatzeko bisitaldiak, hauen egoera faktiko eta normatiboari buruzko txostena.

Ekintza guzti hauek gizarte modernoan gertatzen diren era guztietako gorabeherekin loturik daude, eta haietan badira halako berezitasun batzuk gure herriaren nortasun propioarekin zerikusi nabarmena dutenak: lan arazo bat, lehen kasuan; bigarreanean, Administrazioaren jardunaren akats bat, hiritarren babesik eza eragin dezakeena; hirugarreanean, aldiz, ondare historiko-artistikoaren kontserbazioa; laugarreanean, jende etorkinak eragindako arazoa, Europako beste zenbait herrialdetan bezain larria ez izan arren, kontutan hartu beharreko garrantzia bereganatzen ari dena; bosgarreanean, ordea, emakumearen edozein diskriminazio mota baztertzeko atsedetik gabe egin behar den borroka; Administrazioaren behartze indarrak dituen mugak, seigarreanean; zazpigarreanean, edozein arrazoi dela eta soldaduzka edo ordezkoko gizarte-zerbitzua egin ez duten gazteen diskriminazioa borrokatzeko ahalegina; eta azkenik, hiritarren eskubideak detentzio zentru politzialetan.

Segituan, ofiziozko ekintza bakoitza aztertzeari helduko diogu, Osakidetza behin-behineko langileen lan auzitik hasita.

Osasunbide alorrean lan harremanen egoera okerrera zihoala ikusirik, Arartekoak behin-behineko langileen koordinakundeari eta Osakidetza zuzendaritzari bilera batzuetara deitzea erabaki zuen arartekaritarik egiterik ba ote zegoen aztertze asmoz.

Jakina den bezala, 1990eko lan eskeintza publikorako baldintzen inguruan adostasunik ez egotea zen koordinakundea eta Osakidetza zuzendaritza elkarren aurka jarri zituena, eta aspalditik egiten ari ziren lan etenak mugagabeko huelga bilakatu ziren joan den urteko apirilaren 9tik hasita hil horretako 27ra bitartean.

Gauza ezaguna da gatazka hau oso gogorra izatera iritsi zela inoiz. Hartan, adierazi behar dut, hainbat langile talderen interesak, sindikatu bakoitzaren jarrera ezberdin eta elkarren aurkakoak, elkarren arteko lan eskubideak, langileen huelgarako eskubidea, eta, azken finean, gaisoen beren eskubideak ere nahasirik zeuden, inoiz ere, gaiso hauen eskubide horiek kaltea jaso zutelarik.

Honelako gatazkek neurtu egiten dute arartekaritza egiteko daukagun gaitasuna, eta halako galdekizun batzuk mahairatu ere egiten dituzte, gaur

egun oraindik konpondu gabe daudenak, baina, hala ere, bazterrean utzi behar ez direnak; horregatik, Arartekoakasmo sendoa du elkarbizitzari kalte larriak ekartzearainokoak diren gatazka guztietan parte hartzeko.

Oso bestelako kontua da, ordea, Bizkaiko Foru Aldundiak Aldizkari Ofizialeko eraskinak haietan azaltzen zen eguna baino zenbait hilabete beranduago argitara eman eta banatzean hartua zuen jarduera okerrak planteiatzen zuena. Jarduera horren eraginez gertatzen zen eranskineko alea eskuragai zegoenerako, haietan argitaratzen ziren akordio eta arauen aurkako kexabiderik edo errekurtsorik aurkezteko epe guztiak amaituta zeudela.

Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundira jo zuen, berau baita Aldizkariak moldizatzen dituen inprimategiaren jabea, eranskin-aleak ale nagusiaren eguna baino beranduago moldizatu eta bana zitezten lortzeko.

Beste gorabehera larri bat, datozen urteetan eskuartearen berriz hartu beharko duguna, etorkin eta errefuxiatuena da. Arazoa ez da gure herri honetan bakarrik azaltzen, oro har Europa guztian gertatzen ari bait da.

Gogoratuko denez, familia talde batzu akanpaturik zeuden Bizkaian, zehazkiago Arrigorriaga eta Gallartan, 1990eko maiatzaren 25az geroztik, baina herri haietako udal agintariek kanpora erazi zituzten akanpada librea debekatzen duen Eusko Jaurlaritzaren arautegi baten babesean.

Pertsona haiek onartu gabe zeukaten errefuxiatu izaera, eta, horregatik, legez kanpoko atzeritartzat hartuak zeuden. Legez kanpoko etorkinak izanik, eta bizilekua bertan hartzeko baimenik ez zeukatenez gero, ezin zuten osasun laguntzarik jaso, kasu larrietan izan ezik. Halare, Gurutze Goriarren laguntza merituzkoari eskerrak, jende hauek halako dirubide eta osasun zerbitzu batzuk jaso ahal izan zituzten. Baina laguntza horiek ez ziren nahikoak eta, gainera, aldi baterakoak baino ezin ziren izan.

Zertzelada hauek bultzaturik, Ararteko Erakundeak erabaki zuen halako gestio batzuk aurrera eramatea: argitasunak jasotzeko lehenik, lekuan bertan, gainera; hala, bada, Gornizko Arrien kanpinean zeuden 66 pertsonen bisita egin, eta haien bizimodua larria zela eta aterpe eta bizibide behar gorian zeudela ikusi zen. Geroago, Bizkaiko Gurutze Goriarekin harremanetan jarri, eta zenbait enpresak eginiko lan eskeintza batzuk ere bideratu egin ziren.

Nolanahi ere, arazo honi ezin egingo diogu ihes etorkizunean, pertsona gutxiena izan arren, gizarte bezala dugun elkartasuna neurtuko duelako.

Bestelako ekintza bat, aldiz, gure ondare historiko-artistikoaren kontserbazioari loturik dago. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiko kultur agintariek halako gestio batzuk egin behar izan genituen Foruan (Bizkaian), Trinitate basilizan (San Gregorio izenez ezagunagoa gaur egun) 1912an aurkitutako harlauza erromatarra bere onera ekartzeko.

Aurkitu zenez geroztik basiliza barruan egon da, eta ur bedeinkatua-
ren ontzi bezala erabiltzen da. Ereñoko marmore gorri egina dago, eta kare-
dun harria izanik, denboraren eta giroaren eraginez hondatzen ari da. Ondare balio handiko pieza da, eta kontserbatzea komeni da era horretakoak oso bakanak direlako gure artean.

Behar adina aldiz ez da errepikatuko, nere eritziz, gure herriaren kultur ondarearen kontserbazioa ziurtatzeko ahaleginei azkar eta egoki lotzea beharrezkoa dela, gure iragana gure orainaren zatia ere bait da.

Beste ekintza batean, NUIZerako arautegia arretaz aztertu ondoren, Arartekoak txosten bat bidali zien hiru foru aldundiei, ahal zen neurrian, hiru lurralde historikoetan erabili izan diren autokitapen-inprimakien egitura hobetu erazteko asmoz.

Kontzertu Ekonomikorako Legearen medioz foru aldundiek NUIZari buruzko arauak amankomuneko esparruan aplikatu behar dituztela jakitun ginelarik, aipatutako kontuak zergaren alderdiari baino ez zegozkion.

Hala, bada, zordunari errendimenduen eta kentzekoen kokapena aurkitzen laguntzeko moduko laukitxo berriak ipintzeko proposamenak besterik ez ziren gehienak.

Dena den, sujetu pasiboak izendatzeko erabilitako hitzei buruzko gomendio argi bat egin zen, gure ustez emakumearentzat diskriminazioa izan zitekeelako aitorlea eta ezkontidearen arteko bereizketa egitea, behintzat bi ezkontideak errendimendu hartzaileizanda aitorpen batua egitea erabaki zutenen kasuan.

Azkenik, autokitapenerako ereduak batzea komeni zela ere eman zen aditzera, hiru lurralde historikoetako edozeinetan erabili ahal izateko modukoak izan daitezten.

Beste ekintza batera paseaz, Bilboko biztanle batzuek Erakunde honetara jo zuten euren ibilgailuak TAO aldean aparkatuta egonda udal garabiak kale publikoetatik erretiratu zituela eta protestatzeko, arazo horretan Udalak jokaera zorrotzegia hartzen zuela argudiatuz.

Kexabide honetatik abiatuta, hiru lurralde historikoetako hiriburuetakoa TAO ordenantzen arauak elkarri egokitzeko aukera aztertzea pasa ginen ofizioz, ibilgailuak kale publikotik erretiratzeari dagokionez zehazkiago.

Hiru ordenantzak desberdinak zirela eta, gainera, bidezaintza, zirkulazio eta kale-errepideetako segurtasunari buruzko legeria eraberrituaren arabera moldatu gabe zeudela ikusi ahal izan zen.

Arartekoak gomendio bat egin zuen, alegia, udal ordenantzan argi eta garbi bereiztu behar zela, alde batetik, zeintzu kasutan bidezkoa den garabiaz ibilgailuak erretiratzea ondareen gaineko behartze-neurri moduan, zirkulazioari edota denbora-kontrola duen aparkamenduari eragozpen larriak eragiten dizkion arrazoi garbia dagoenean bakarrik hartu bait daiteke neurri hori; eta bestaldetik, argi eta garbi bereiztu behar zirela neurri administratiboak eta behartze-indarrak baliatzen diren neurriak, azken hauen artean bait dago garabiaz ibilgailuak erretiratzea.

Hiru udal ordenantzak elkarren desberdinak zirenez gero, gomendioek ñabardura eta xehetasun desberdinekin egin ziren hiru hiriburuetakoa bakoitzarentzat.

Bestalde, 1989. urteko Erakundearen txostena aurkeztean Legebiltzarren Giza-Eskubideetarako Batzordean talde politiko batzuetako ordezkariak Arartekoari azaldutako kezka gure gain harturik, arreta berezia eskeini zaie administrazio publiko desberdinetako langile-erroldeetako lanpostuak jabetzan betetzeko deialdiei, lehiakideen artean diskriminaziorik gerta ez dadin soldaduzka edo ordezko gizarte-zerbitzua bete beharrekiko egoeraren ondorioz.

Hala, bada, Arartekoaren eskariz, soldaduzka beteak edukitzearen baldintza kendu egin da Orrio, Astigarraga eta Zegamako Udalek egindako lan-

postu deialdi batzuetan, eta aipagarria da hiru erakunde lokal hauek Arar-tekoaren gomendioei eskeini dioten aldeko harrera.

Azkenik, Ertzantzaren komisaldegien eta udal kalabozoen egoera azter-tu dugu, hiritarrak bertan egoten bait dira detenituak berriro askatu edo epaituak izan daitezen aginte judizialei entregatzen zaien arte. Bertara hur-bildu eta detentzio zentru horien egoera aztertu dugu, jakinez, ez dela na-hikoa irtenbide faktikorik, baizik eta irtenbide normatiboetara jotzea beha-rrezkoa izango dela dauden hutsune nabariak bete ahal izateko, txosten honen II liburukian agertzen den ikerketan xehetasun handiagoz azaltzen dugun legez.

Gainerakoan, Erakundeak gure egoeraren alor korapilotsu zenbaiti bu-ruzko banakako ikerlan sakonak burutzeko asmoa du, gorabehera batzuei merezi adinako zorrotzasunez ekiteko. Etorkizun hurbilean lotuko gatzazkio sail horri, gure giza zein material mailako baliabideek, ahulak izanik ere, au-kerak ematen diguten neurrian, eta Euskadi osatzen duten hiritarrek gehien-bat sentitzen dituzten nahikundeekin bat eginik.

III ATALA

**KEXEN LABURPENA SAILEN
ARABERA**

Txostenaren atal honetan kexa adierazgarrienak agertuko dira arloz-arlo, hauek sailkatzeko erabili den erizpidea kexen ebazpenerako eskudun izan den euskal administrazio ezberdinen saila izan delarik. Kexen azalpena egiterakoan irakurlearentzat interesik ez zuen guztia baztertu dugu, eta horrela ez da erreklamanteen datu pertsonalen aipamenik egiten, honek praktikan ez bait du garrantzirik, benetan inportantziarik duena azaldutako auzia da, askotan aurkeztu duen pertsonari ez ezik administratu talde handi bati eragiten bait dio.

Hala eta guztiz ere, merezi du aipatzeak zenbait elkarte, erakunde eta entitatek azaldu dituzten auziak, Erakundearen artekaritza eskatu dutenak, giza-oihartzun handikoak izan dira eta.

Atal honen helburua Erakundearen jokabidea ahalik eta zehatzen agertzea da, iharduteko prozedura, baliabideak eta azaldu diren auziei eman zaien irtenbideei dagokionez hain zuzen.

Gehienetan amaitutako espedienteak dira, baina oso interes berezia zuten espediente gutxi batzuk sartu dira, txosten hau erredaktatzeko unean bukatuta ez zeudenak.

3.1. LEHENDAKARITZA ETA JUSTIZIA

A) Sarrera

Atal honetan 26 kexa jaso ditugu guztira, hau da, aurkeztu diren guztietatik % 8.

Kexagai izandako administrazioei bagagozkie, honelaxe banatu dira kexa horiek:

— Eusko Jaurlaritza	15
— Aldundiak	4
— Udalak	7

Atal honetan pisurik gehien duten kexak funtzio publikoaren inguru-koak dira oraindik ere, alde batera utzirik irakaskuntza eta osasunbidearen alorretakoak, azken hauek bere atal berezietan bildu bait dira. Parte hartze-
ra eraman gaituzten arazorik ugariena honako hauek izan dira: funtzio publikora sartu nahi dutenek betebeharreko baldintzak, ordainkizunen arteko-
ren bat ez ordaintzea, eta lekualdatzeko lehiaketak.

Aparteko aipamena merezi dute herri-administrazioetan euskararen erabilpenaren normalkuntzak eta Administrazioa sartzeko hautaprobetan ematen zaion balioak. Udal esparruan, esaterako, udal ordenantzen bitartez arautzen dira, batzuetan, aplikatu beharreko lekuaren berezitasunak kontutan harturik.

Justizi Administrazioaren jardunari dagokionez, gure Erakunde hau sortu eta arautzen duen 3/85 Legearen 9.2 artikuluari jarraituz, eta Defensor del Pueblo delakoari buruzko Lege Organikoaren 13. artikuluari begira, Ararteko honek Estatuko Defensor del Pueblo-ri bidali dizkio auzitegi batzuen giza zein baliabide mailako eskasiagatik edota interesatuen beren jardun ezagatik atzeratu edo geldierazitako auziak bizkortzeko egindako ke-xak, Defendatzaileak, bere aldetik, Ministraritza Fiskalera edo Botere Judizialeko Kontseilu Nagusira bidal ditzan.

B) **Kexen aukeraketa**

Zerbitzu berezietan ari den funtzionariak eta hirurtekoak jasotzeko eskubideez (804/89)

Alegatzailea, funtzionaria izanik Insalud zerbitzuan, gerora Osakidetza-Servicio Vasco de Salud delakora transferitu bait da, zerbitzu berezietan aritzeko egoera administratibora igaro zen Gasteizko Udaleko zinegotzi izendatu zutenez gero.

Estatuaren Administrazioako funtzionarien egoera administratiboaren Arautegiko III ataleko 10. artikulua babesean —730/86 Erret Dekretua, apirilaren 11koa—, erreklamatazaileak aintzinasunagatik sortutako atzerakinak onartu eta zerbitzu berezietan aritu bitartean atzerakin horiek egiazki aplikatzea eskatu zion Osakidetza Arabako Zuzendaritzari.

Eskaera hori Osakidetza-Servicio Vasco de Salud delakoaren Zuzendari Nagusiaren 98/89 zenbakiko ebazpenez ezetsi zen, Gizarte-Segurantzaren osasun erakundearen zerbitzutan dagoen langilegoaren barruan, sendagintza alorrekoak ez direnek beren arautegi berezia, 1971eko uztailearen 5eko aginduz arautua, dutela adierazirik.

Aipatutako agindu horrek bere 34. artikuluan ezartzen duenez, ezedenzia berezia gertatuz gero, dagokionari aitortuko zaio, ondorio guztietarako, aintzinasunagatik sortutako atzerakinak kontutan hartuak izateko eskubidea, ez ordea horiek jasotzekoa, esandako egoera horrek iraun bitartean.

Interesatuak goradeia egin zuen esandako ebazpenaren kontra, eta aldi berean Arartekoari aurkeztu zion auzigaia.

Arazoa aztertu ondoren, honako ondorio hau ateratu zen: Gizarte-Segurantzaren osasun erakundearen zerbitzutan dagoen langilegoaren barruan sendagintza alorrekoak ez diren estatutu juridikoari buruzko aginduak, 1971eko uztailearen 5ekoak, zerbitzu berezietan aritu bitartean inolako ordainik jasotzeko eskubidea aitortu ez arren, egokia da haren ordez edo haren modu berean abuztuaren 2ko 30/84 Legea, funtzio publikoaren berrikuntzarako neurriei buruzkoa, aplikatzea, eta, beraz, guztiz legezkoa da apirilaren 11ko 730/86 Erret Dekretuan bildutako eskubideak aitortzea; beronen

10. artikuluaaren arabera, "aitortuta egon arren, dagozkion aurrekontuen kontura jaso ezin diren hirurtekoen dirusariak langilea zerbitzu aktiboan duen Sailak ordaindu beharko ditu kontzeptu horren gisa".

Egin beharreko gestioak Osakidetzaren Zuzendaritzarekin egin ondoren, azkenik aitortu egin zitzaion kexadunari zerbitzu berezietan aritu bitartean aintzinasunagatik sortutako ordainkizunak jasotzeko eskubidea.

Gure gestioen emaitzaren berri erreklamatzailerari emanik, espedientea artxibatu egin zen.

Ustekabean azterketa batera joan ezin izateaz (845/89)

Alegatzaileak, Euskal Irrati-Telebistak deitutako erredaktore-esatari lanpostu baterako azterketara aurkezteko zegoenak, aldi baterako ezin ibiltzeko moduan utzi zuen lesio bat izan zuela eta, lanpostu horretarako hauta-proba teorikoak beste egun batean egiteko eskubidea zuela uste zuen. Era berean, haren eritziz, bere eskariaren aurkako erabaki batek deialdiko lehia-kideen arteko berdintasun eskubidea hautsiko zuen.

Erakundeak txosten bat eskatu Euskal Irrati-Telebistaren langilego saileko nagusiari, eta honek erantzun zuen eskatzaileak beste egun batean azterketa egiteko eskariari ezetz erantzutea erabaki zela lehia-kideen arteko berdintasun printzipioari eustearren; izan ere, hark, esana, bestela jokatzuz gero, hautaprobek, baztergarriak izanik, bi desberdin izan beharko zuten, horrela berdintasun printzipio hori hautsita gerta zitekeelarik. Orobat, azaldutako kasuaren antzeko beste batzuetan hauta-mahaiaren erabakia zalan-tzarik gabe horixe bera izan zela ere jakinerazi zuen.

Erakundeak ez zuen antzeman inolako bidegabekeriarik Euskal Irrati-Telebistaren jarreran, ohizkoa bait da Administrazioak edo haren mendeko sailek egiten dituzten lanpostu deialdietan hauta-mahaiak beretzat hartzea deialdiaren baldintzak ulertzeko eskubidea, bai eta alde aurretik ikusitako egoerei buruz on deritzaizkion erabakiak hartzea ere. Ildo horretatik, hartutako erabakia zuzenbidearen araberakoa zen, eta ez zituen inola ere kalte-tzen Konstituzioak edo Autonomi Estatutuak bermaturiko eskubideak.

Arartekoaren txostena kexadunari bidali ondoren, espedientea artxibatu egin zen.

Erosteko ahalmena galtzearen truke pagamendu ez pilagarri bat jasotzeko eskubideaz (416/90)

Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionari batek pagamendu ez finkagarri bat eskatu zion erakunde horri etorkizun ziren urteetarako, erosteko ahalmenean izandako gutxitzearen truke, martxoaren 31ko 3/1989 Erret Dekretuak aipaturiko aurrikuspenak aplikatuz. Eskubidea ez zen onartu, eta horregatik eskatzaileak Ararteko Erakundera jo zuen.

Beharrezko argibideak jaso eta gorago esandako dekretua aztertu eta gero, ondore modura atera zen kexadunak esaten zuen pagamendua, UGT

eta CC.OO. sindikatuek Gobernu zentralarekin negoziatu zutenak, Administrazio zentralako funtzionarioek jasandako erosteko ahalmenaren gutxitzea ordaintzekoa zela, Aurrekontuen Legean jasotako soldata igoera urteko IPC delakoa baino ia bi puntu txikiagoa bait zen.

Alabaina, akordio hori ez zen Euskal Herriko Administrazio autonomi-koko funtzionarietzat aplikatzekoa, haien soldatek izandako igoerak Administrazio zentralarentzat lanean dauden funtzionarioenak baino handiagoak izanik, euren erosteko ahalmena ez zegoelako gutxituta, eta, beraz, azken hauek jaso zuten aparteko pagamendua ezin zuten jaso, horretarako arrazoirik ez zegoelako.

Gainera, pagamendua jasotzeko ustezko eskubidea aitortzeak bidegabekeria bat izango litzateke Erkidego Autonomoko gainerako funtzionarioen aldean, euskal instituzioetatik batek ere ez zuelako ordaindu pagamendu hori; izan ere, pagamendu hori egiteko esparrua ez zen langilego honena, bere sistema berezia bait du: Euskadiko Foru Administrazioiko Langilegoaren Lan Egoera Arautzen duen Akordioa (ARCEPAFE delakoa).

Arartekoaren txostena erreklamatzailari bidali eta espedientea artxiatu egin zen.

Hala ere, bi egun beranduago, kexadunak beste idazki bat zuzendu zion Arartekoari, emandako ebazpenarekin berak planteiatu zuen arazoa ez zela konpontzen adierazteko. Haren eritziz, salaketaren ardatza Lehendakartzako Diputatuaren aldetik ahalmen usurpazioa ustez gertatua zela zen, bere garaian honek ebatzi bait zuen azaldutako eskaria, eta ez Diputatu Nagusiak, eskaria azken honi zuzendua egon arren.

Erakundeak gogorarazi egin zion erreklamatzailari Gipuzkoako lurraldeko Gobernu eta Administrazioari buruzko 3/1984 Foru Arauaren 28. artikulua a) atalaren arabera, Foru Aldundiko langileen ordain erregimenari buruz ebaztea, langilego, antolakuntza eta zerbitzu orokorren alortako betekizun orokorrak bere gain hartuak dituen saileko titularra den foru diputatuari dagokiola.

Euskarari dagokionez hartutako akordioak ez betetzeaz (543/89)

Erakunde honetan Barakaldoko Etxepare taldearen kexa bat jaso genuen, Udalbatzar horrek euskarari dagokionez hartutako akordioak betetzen ez zirela salatuz, eta hori bistan zegoen, alegatzaileek ziotenez, udal bandoak, prentsa iragarkiak, eta are gehiago herri-bideetako informazio seinaleetan gaztelera hutsez idazten bait zen.

Erakundeak gestioak egiten hasi eta frogatu zen aipatu Udalbatzarak 1988ko ekainaren 30eko ohizko bilkuran, honako akordio hau hartu zuela:

“(…)euskara ohizko hizkuntza gisa berreskuratzeak, kalean bezala ohizko bizitzaren alderdi guztietan ere (komunikabideetan, erakundeetan, enpresetan, etab.) ofizialki aitortzea eta onartzea eskatzen du. Horretarako, Kultura eta Gazteriarako Argibide

Batzordeak bere aldeko ebazpena eman duelarik aho batez erabaki dira honako puntu hauek:

1. Euskarak derrigorrez agertu beharko du inprimaki mota guztietan (errotulu, orri, iragarki, idazki eta abarretan)..."

Ararteko honek, lan horrek Barakaldo moduko hiri batean eskatzen duen ahalegin handiaz oharturik, iradokizun gisa gomendatu zion Udalbatzarrari ahaleginak egin daitezela, ahal den neurrian, aipaturiko akordioak bete daitezen, inoren sentimenduak ez zauritzearren eta hiritarren elkarbizitza ahalik eta hobea lortzearren.

Arrasateko Udalaren hizkuntz politikari buruzko salaketaz (488/90)

Arrasateko Udaleko PSE-PSOeko bost zinegotzik, aurtengo urriaren 8an, kexa idazkia aurkeztu zuten, zuri bide gisako dokumentazioa erantsita, euskaraz ez jakiteagatik zinegotzietatik eta herritarrek jasaten duten bazterkeria salatzearren, eta, zehazkiago, honako hauek salatu zituzten:

1. Haien ustez arauak hartara behartzen duten arren, Arrasateko Udalak ez du erabiltzen bi hizkuntzetan idatzitako komunikazio eta jakinerazpenik hiritarregana jotzeko, euskara hutsean agertzen bait dira, hizkuntza hori ez dakiten eta "Administrazioarekiko harremanak elebidunak izatea" nahi duten hiritarren kalterako.

Udalaren edozein komunikazio edo jakinerazpen erdaraz jaso nahi dutenek izena eman beharko dute, eta errolda bat osatuko da izena ematen dutenekin; salatzaileen ustez, hori "pertsonek bizitza pribatuaren kaltegarri larria" da, funtsezko eskubide bat hausten bait du, eta "umiliatu beste helbururik ez du, eta, azken finean, errolda horretan izena emateari uko egitea beste erreakziorik ez du eragiten".

2. Udalbatzarraren bileretan euskara erabili ohi da mintzaldietan, baina zinegotzien esanak ez dira itzultzen gaztelaniara, mintzaldi bakoitzaren ostean beste zinegotzietatik espreski eskatzen ez badiote udal itzultzaileari; Alkategoa, gainera, ukatu egin da euskara erabiltzen den bakoitzean arau gisa itzulpena agintzera, udalkide batzuek hala eskatu duten arren.

3. Arrazoi horrexegatik, udalbatzarraren bileretara joaten diren herritarrek ezin dute eztabaidaren berri eduki euskaraz ez badakite, hizkuntza horretan zinegotzietatik egiten dituzten mintzaldi guztiak ez direlako gaztelaniara itzultzen.

Salaketa egin duten zinegotzien ustez, jokabide horrek Konstituzioaren 14. artikulua dakarren berdintasun eta bazterkeriarik ezaren printzipioa hausten du, berdin Konstituzioaren 23. artikulua, arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea babesten duena, orobat, Autonomi Estatutuaren 6.3 artikulua, hizkuntzagatik inor baztertu ezingo dela dioena, bai eta Euskaren Erabileraren Normalkuntzarako 10/82 Oinarrizko Legearen hitzaurreko

hirugarren lerroaldiaren izpiritua eta 4. artikulua ere, gaztelaniarekin batera ofiziala izan arren, euskara ez jakiteagatik ezin daitekeela inor baztertu esaten bait du.

Egindako ikerketak

Kexa jaso eta hurrengo egunean, Arartekoak berak telefonoz hitz egin zuen Arrasateko Alkatearekin, jasotako izkribuaren nondik norakoa jakinezteko eta salatutako puntu guztiei buruzko dokumentazioa eskatzeko.

Dokumentazio hori urriaren 15ean jaso zen, ondoko hauek erantsita zituela: Udalak erabiltzen zituen inprimaki administratiboen ereduak kopia; Aginte-Batzarrak irailaren 17an 2.712.640 pezeta balio zituen aldi-bereko itzulpenerako tresna bat erosteko proposamenari uko egiteko hartutako erabakiaren ziurtagiria; egunkari artikuluen fotokopiak, ustez gertatzen zen hizkuntz bazterkeriaren inguruan sortutako eztabaidari buruzkoak, eta euskara normaldu eta Administrazioaren jardueran erabiltzeko plangintzari buruzkoak; udalbatzarraren eta zenbait argibide-batzorderen batzar-agiri eta deialdien kopiak; eta, azkenik, Arrasateko euskararen egoerari buruzko ikerlan zabal bat.

Aztertutako arauak

- Giza Eskubideak Babesteko Europako Itunaren 14. artikulua.
- Espainiako Konstituzioaren 3, 14 eta 23. artikulua.
- Euskal Herriaren Autonomi Estatutuaren 6. artikulua.
- Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko 10/82 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa.
- Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretua, euskara Euskadiko Erkidego Autonomoko herri-administrazioetan erabili eta normaltzeari buruzkoa.
- Uztailaren 11ko 1.690/1986 Erret Dekretua, erakunde lokalen populazio eta lurralde-mugapena onartzen duena.
- Azaroaren 28ko 2.568/86 Erret Dekretua, udalbatzarren antolakuntza, funtzionamendua eta lege-erregimenaren Arautegia onartzen duena.
- Apirilaren 15eko 8/87 Legea, Kataluniako udal eta toki erregimenari buruzkoa (5. artikulua).
- Uztailaren 21eko 5/88 Legea, Galiziako erakunde lokalen hizkuntza ofizial moduan galiziera erabiltzeari buruzkoa (1. artikulua).
- 1981 eta 1989 arteko jurisprudentzia konstituzionala (batez ere Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeari buruzko ekainaren 26ko 82/1986 konstituziozkotasun azia).

Arazoaren planteiamendua

Sarrera

Auziaren gakoa zera da: euskara Euskal Herriko Erkidego Autonomoko hizkuntza koofiziala izanik, herri-aginteez —gure kasuan Arrasateko Udalak— kanpoko (herritarrekiko) zein barruko (funtzionarioekiko) harremanetan eta udalaren aginte eta ikertze sailetan euskara erabiltzeko eskubidearen erabilera bateragarri egin eta haren mugak ezartzea. Hori guztia, halako hizkuntza bat (euskara gure kasuan) ez jakiteagatik inor baztertu ezin delako printzipioari jarraitzeari eta hori hiritarraren babesik eza ez gertatzeari dagokienez.

Kexa hobeto ulertu ahal izateko, beharrezkoa da Arrasateko udalerriren egoera soziolinguistikoa zer nolakoa den zehaztea. Kexa bultzatu duten zinegotziek emandako datuen arabera, “Azken Udal Erroldaren arabera, Arrasateko hiritarrik gehienek ez dakite euskaraz (% 42,73) edo ez dakite ondo (% 15,45)”.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Euskararen Erabilera eta Normalkuntzari buruz emandako 250/86 Dekretuak Erkidego Autonomoko udalerririk herrialdeka banatu eta euskaldunen kopuruaren arabera sailkatzen ditu; eta Arrasate VIII Taldean (Deba Garaian) kokatzen du, alegia, euskaldunen kopurua % 60tik % 80ra bitartekoa den eskualde bateko erakundearen artean (12.4 artikulua).

Arrasateko Udalak eskuratutako dokumentazioa ikusita, nabarmena da Udaltzatarrak euskara suspertzeko duen nahia, eta horretarako euskara ikasteko dirulaguntzak eman nahi die hiritarrei, eta batez ere funtzionarioei, haren eritiz hizkuntz egoera diglosiko batean aurkitzen garelarik, beharrezkoa bait da euskararen erabilera maila guztietan suspertuz egoera hori gainditzea.

Hiritarrekiko harremanetarako inprimaketan euskararen erabileraz

PSE-PSOEren zinegotziek eta Arrasateko Udalak eskeinitako dokumentazioa aztertuta, ondoretzat ematen da udaltzatar horrek inprimaki elebidunak erabili ohi dituela hiritarrekiko harremanetan, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian bezala Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen dituen bere akordioen iragarkiak ere bi hizkuntzetan agertzen direla idatzita.

Hari honetatik, 10/82 Legearen 8-2 artikulua ezartzen du “Euskal Herriko Autonomia-Elkartean herri-agintariez eskuhartu dezateneko egin-tza guztiak, eta bai ardulararitza-mezu eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan egon beharko dute, doakienek berariz Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizialetatik bat aukeratu dezatenean salbu”.

Beraz, bi hizkuntzetan idatzita emateko araua salbuetsi ahal izateko, behar-beharrezkoa da hiritarrek Erkidego Autonomoaren bi hizkuntza ofi-

zialetatik, hau da, euskara eta gaztelaniaren artetik bat askatasunez aukeratzea.

Aurrera jarraitu baino lehen, aipa dezagun hiritar bat jakinerazpen administratiboak hizkuntza batean ala bestean egitea aukeratu beharrean jarzteak ez duela hausten pertsonaren intimitate eskubidea, Konstituzioaren 18.1. artikulua bermatzen duena, ez eta 16-2. artikulua ere, inor "bere ideologia edo sinesteak" aitortzera behartu ezin daitekeela ezartzen duena; eta ondorio horretara iristen gara, zeren eta hiritarrak biztanleen udal erroldan agertzeko Administrazioari eman behar dizkion datuen artean hizkuntza ofiziala (gure kasuan, euskara) zenbateraino dakien ere galdetzen bait zaio, erakunde lokalen populazio eta lurralde-mugapenaren Arautegia onartzen duen 1.690/1986 Erret Dekretuaren 65. artikulua, eta Erregimen Lokalaren 7/85 Oinarrizko Legearen 17.1 artikulua babespean.

Udalak hiritarregana jo duenean haren adierazpenak hizkuntza batean edo bestean jasotzea aukeratu dezaten adierazteko, esanez gainera inolako aukerarik egin ezean adierazpenak euskaraz egingo direla, euskararen aldeko jarrera hartu du, euskara gaztelaniaren aurretik jarriz, baina horregatik inola ere legea hautsi gabe; are gehiago, jokaera hori euskara idatzia Administrazio publikoen harremanetan normaltzea eta euskara ere hiritarren zerbitzura jartzea bilatzen duen neurri bat dela esan liteke (Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko 10/82 Oinarrizko Legearen 3. ebazpen gehigarria, eta Euskeraren Erabilera eta Normalkuntzari buruzko azaroaren 25eko 250/86 Dekretuaren 1-2. artikulua).

Egoera soziolinguistikoa kontutan harturik, hau da, biztanleriaren erdiak gutxienez euskara badakiela, eta, bestalde, euskara erabili eta ikastera biltzatzearen Udalak hartutako neurriak azterturik, gure eritziz Arrasateko Udalak haren adierazpenak gaztelaniaz jaso nahi dituzten hiritarren errolda egiteko hartu duen erabakiak ez dakarkie hiritarrei inolako hizkuntz bazterkeriarik, bazterkeria hori bakarrik gertatzen bait da herri-aginteen jokabideak arrazoizko zuribiderik ez duenean, bilatzen den helbururako arrazoikoa ez denean, edota eragindako ondorioak gehiegizkoak direnean, eta kasu honetan honelakorik ez da gertatzen, beren testuinguru soziolinguistikoan aztertuz gero.

Azkenik, interesgarria izango da aipatzea Auzitegi Konstituzionalak ekainaren 26an emandako 82/1986 zenbakiko sententzia, bere oinarri juridikotako batean honako hau ezartzen bait du: "*herri-aginteeek hizkuntza ofizialeko bat bakarria erabiltzeko burubidea erakundeak berak bere erabakiz har lezake*, edota, bestela, hiritarrak eskatzen duenean, halaxe araututa baldin badago, baina erabilitako hizkuntza ez dakiela balio osoz alega dezakeen eta interesatuta dagoen inoren eskubideen kalterako gertatzen ez bada". Bestela esanda, Auzitegi Konstituzionalak berak onartzen du herri-administrazioek "beren erabakiz" hizkuntza ofizialeko bat bakarria erabiltzea, baldin eta "inongo hiritarren eskubideen kalterako ez bada", hauxe bait da bi eskubideen arteko topagunea.

Honaino azaldutako guztia dela bide, Ararteko honek ondoretzat ematen du Arrasateko Udalak indarrean dagoen arautegia bete egin duela, orain arteko jakinerazpen eta adierazpenak bi hizkuntzetan idatzita egin dituelako; eta, bestalde, Udalaren idazkiak gaztelaniaz nork eta euskaraz nork

jaso nahi dituen jakitearren hiritarren errolda administratibo bat prestatu eta aukerarik egiten ez dutenei adierazpenak euskaraz egingo zaizkiela ezarzteak ez duela hausten indarrean dagoen legeria.

Udalbatzarraren bileretan euskararen erabileraz

Gaur egun indargabeturik dagoen 1.111/79 Erret Dekretuak bere 5. artikuluan ezartzen zuen "erakunde lokalen sail kolegiatuen eztabaidetan gaztelania edota udalbatzar bakoitzaren lekuko hizkuntza ohizkoa erabili ahalko direla. Azkenengo hau erabiltzen duenak, edozein udalkidek edo idazkari fedemaileak eskaturik, gaztelaniaz laburtu beharko du bere mintzaldia, eskatzen den moduan edota batzar-agirian jasotzeko erabakitzen den moduan".

Aitzitik, indarrean dagoen Udalbatzarren antolakuntza, funtzionamendua eta lege-erregimenaren arautegiaren 86.2 artikularen arabera (250/1986 Erret Dekretua), "eztabaidetan gaztelania nahiz Erkidego Autonomo bakoitzaren hizkuntza koofiziala erabili ahalko dira", baina ez du ezartzen, aurreko dekretu indargabetuaren alderantziz, batzarkideak bere mintzaldia gaztelaniaz laburturik emateko obligazioa.

Konstituzioaren 23.1 artikulua arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea aitortzen die zinegotziei, eta eskubide hori egiatan gauza dadin bermatzen du. Guri orain dagokigunez, honek esan nahi du Udala behartuta dagoela euskaraz egindako mintzaldien berri edukitzeko behar direnak jartzeko hizkuntza hori ez dakiten zinegotzien esku. Bistan da aldebereko itzulpena litzatekeela arau horren izpirituari hobekien jarraitzen dion bidea, baina horrek ez du esan nahi Arrasateko Udalaren jarrera, hau da, euskaraz eginiko mintzaldiak eskariaren arabera bakarrik itzultzea, Konstituzioaren 23.1 artikularen kontra doanik, eman daitezkeen irtenbideen arteko bat bait da, denetan egokiena ote den ala ez eztabaidatzekoa den arren.

Udal dokumentu eta aktetan euskararen erabileraz

Herritarren eskubideak Udalbatzarren antolakuntza, funtzionamendua eta lege-erregimenaren arautegiaren 227. eta hurrengo artikuluetan jasoak daude, eta, nagusiki, udalbatzarraren bileretara joatea, publikoak direnez gero, eta, Alkateak baimena emanaz gero, bilera amaitutakoan galderak edo eskeak egitea dira.

Legeak galde-eskeak aipatzen dituenean, gai jakin zehatzak darabilzki gogoan, eta ez aztergai-zerrendan eztabaidatutako puntuei buruzko adierazpenak, hauei buruz herriaren ordezkari diren zinegotziek bakarrik hitz egin bait dezakete. Horregatik, gure ustez bileretara joateko eskubideak ez dakar berekin udalbatzarraren eztabaidak itzultzeko obligaziorik. Eta, gainera, PSE-PSOeren argudioa azken bururaino eramanez gero, burugabekeria batera iritsiko litzateke: hau da, aski litzatekeela udalerrri batean euskaraz ez dakien biztanle bat, beti ere itzulpena egin behar izateko.

Gure eritziz informazioa jasotzeko eskubideak ez du kalterik jasaten udalbatzarraren bilerak euskaraz egiteagatik, herritarrek batzar-agirietara jo dezaketelako iragarki-taulan argitara ematen direnean, eta, era berean, udal sailen (eta, jakina, udalbatzarraren) erabakien ziurtagiriak eta kopiak eska ditzaketelako, Udalak iragarki ofizialak bi hizkuntzetan plazaratzeko obligazioaren kalterik gabe, hala ere.

Zeharka, aurkeztutako kexabidean zalantzatan jartzen da Udalbatzarraren, Aginte-Batzarraren eta Argibide-Batzordeen batzar-agiriak bi hizkuntzetan barik euskaraz bakarrik idatzita egotea legezkoa ote den ala ez.

Euskal Herriko Erkidego Autonomoaren legeriaren barruan ez dago puntu hau bereziki arautzen duen ebazpenik; horregatik, ordezko arau gisa, Estatuaren Administaritzak ezarritako legeria aplika lekiok kasu honi, zehazkiago Udalbatzarren antolakuntza, funtzionamendua eta lege-erregimenaren arautegia, eta hara zer ezartzen duen honek bere 86.1 eta 110.1 artikuluetan:

86.1 artikulua: “Bileren *deialdiak*, aztergai-zerrendak, mozioak, banakako botuak, eta argibide-batzordeen erabaki-eskeak gaztelaniaz edo Udalbatzarraren *Erkidego Autonomoko hizkuntza koofizialean idatziko dira*”.

110.1 artikulua: “86.1 artikuluan hizkuntzen erabilerari dagokionez ezarritakoa aplikatu ahalko zaio batzar-agirien idazketari (2)”.

Interesgarria izango da, baita ere, puntu honen inguruan gaztelania ez beste hizkuntza koofizial bat aitortua duten beste erkidego autonomoek, Kataluniak eta Galiziak alegia, ezarrita daukatena:

– 5/1988 Legea, uztailaren 21ekoa, erakunde lokaletan galiziera hizkuntza ofizial moduan erabiltzea arautzen duena:

1. artikulua: “1. Galiziako erakunde lokalen *bileren deialdiak*, aztergai-zerrendak, mozioak, banakako botuak, argibide-batzordeen erabaki-eskeak eta *batzar-agiriak galizieraz idatziko dira*”.

“2. Aurreko idatzian erabakitakoaren kalterik gabe, esandako erakundeek beste hizkuntza ofizialean ere idatzi ahalko dituzte”.

– 8/1987 Legea, apirilaren 15ekoa, Kataluniako Udal eta Toki Erregimenari buruzkoa:

5. artikulua: “1. Katalana Kataluniako hizkuntza berezia izanik, haren Administrazio lokalaren hizkuntza ere bada. Erakunde lokalek beren ekintza administratiboetan katalanez idazten duten dokumentazio guztiak balio ofiziala izango du”.

“2. Erakunde lokalen aginte-sailen bileretarako *deialdiak*, aztergai-zerrendak, batzar-agiriak, eta haien jarduerak eragindako gairontzeko idazki eta dokumentazioa *katalanez idatzi ahalko dira, inolako itzulpena egiteko beharrik egongo ez delarik*”.

“3. Aurreko idaztiak ezarritakoa batzar lokaletako kideek beren eskubideak beteaz eginiko ahozko zein idatzizko ekintzei ere aplikatu beharko zaie”.

Aipatu ditugun arau autonomikoez argi eta garbi ematen dituzte balio osokotzat galizieraz edo katalanez soilik idatzitako udalen batzar-agiri eta bilera-deialdiak, eta, beraz, erizpide horretxeri jarraituz, eta bere koofizialtasuna dela medio euskara idatzizko zein ahozko adierazpenetarako erabiltzeko aukera babestuta dagoenez gero, ondorio moduan esan beharko da Euskal Herriko Erkidego Autonomoko erakunde lokalek beren batzaragiri eta bilera-deialdiak soilik euskaraz egitearen aurka ezer ere ez doala; hau, berriz esango dugu, hizkuntzei aitortutako koofizialtasunak berak duen ondorio logiko bat da.

Auzitegi Konstituzionalak ekainaren 26an emandako 82/1986 zenbakiko sententzian Konstituzioaren aurkakotzat jotzen zen Eusko Jaurlaritzak eginiko Euskeraren Erabilpena Arauzkatzeko 10/82 Oinarrizko Legearen 8.3 artikulua, herri-aginteei onartzen ziena “Administrazio Lokalaren esparruan euskara hutsa erabiltzea, udalerriaren ezaugarri soziolinguistikoen arabera, hiritarren interesak kaltetzen ez direnean”; eta Konstituzioaren aurkakotzat jotzen zen, hain zuzen ere, gaztelaniarekin gertatzen ez den bezala, euskara jakitea ez delako derrigorrezkoa Estatuko inongo lekutan, eta haren eritziz arau horretatik ondorio horixe atera bait zitekeen.

Horregatik, eta ondorio moduan esango dugu batzar-agiriak eta bilera-deialdiak euskara hutsean idaztea ez doala legearen kontra, eta, hizkuntza hori jakitea derrigorrezkoa ez izanik, agiri ofizialak euskaraz idazteak bermatu behar duela euskalduna ez izatea balio osoz alegatzen duen zinegotzia ez dela diskriminatzen eta, ere berean, haren eskubideak ez direla kaltetzen. Eta horrelakorik gerta ez dadin, Arrasateko Udalak behar diren neurriak hartu beharko ditu zinegotzi horiek, hala eskatzen dutenean, itzultza eta epe egokian izan ditzaten deialdiak, batzar-agiriak eta gainontzeko dokumentazioa, ekintza publikoetan egiatan parte hartzeko eta beren hautesleak Arrasateko Udalean ordezkatzeko eskubide konstituzionalak kalterik jasango ez badu.

Kexa hau hauteskunderen prekanpainian aurkeztu zenez gero, Arartekoari egokia iruditu zitzaion hauteskunde garaia eta botatzeko eguna igarotzen utzi, honi dagozkionen berri emateko.

3.2. BARNE SAILA

A) Sarrera

18 kexa jaso dira honetan, iritsi diren guztietatik % 5,5 beraz, eta honela banatzen dira:

— Eusko Jaurlaritza	10
— Aldundiak	0
— Udalak	8

Barne Sailean sartu beharreko kexarik gehienak zirkulazioan zigorrak ezartzeko eskubideari buruzkoak izan dira. Erakunde zigortzaileak isuna ezartzeko erabilitako argudioak zalantzan jartzen dituzten kexadunen kasuan, Trafikoa, Zirkulazioa eta Errepideetako Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuaren 76. artikulua ezartzen du trafikoa zaintzeko ardura duen agintaritzaren agenteek egindako salaketak, kontrako frogarik aurkeztu ezean, fede emaileak izango direla, agenteek salatu diren gertakariari buruzko ahalik eta froga gehien aurkezteko beharra badute ere.

Bestela esanda, kontrako frogarik ez dagoenean, eta hori lortzea oso zaila izaten da gehienetan, zigorra ezarri duten agintaritzaren agenteen bertsioa izaten da nagusi.

Administratu guztiengan eragin berezia dute hiribarruetako aparkamenduari buruzko arautegien inguruko kexek. Aparkamenduari buruzko udal ordenantzetako arauen alderdi material eta formalak ez betetzeak dakartzan ondorioak era guztietakoak dira. Hala, bada, Irungo Udalerriko trafikoa arautzeko ordenantza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko tramitea bete ez izanak baldintza hori bete bitartean atzera erazi zuen haren aplikazioa.

Alderantziko kasua da hirietan lerro bikoitzean —batzuetan nahitaez— aparkatzeko ohiturak trafikorako dakartzan arazoei buruzko kexek salatzen duten kezka.

Azkenik, kexa batzuk Ertzaintzako kide batzuen funtzionari egoeraren ingurukoak dira, leku-aldatzeei buruzkoak, ordainkizunei buruzkoak, etab.

B) **Kexen aukeraketa**

Abiada gehiegizkoaren aurkako zigorraz eta gidariaren nortasuna ager-tu beharraz (813/89)

Gasteiztar batek Arartekoari bidalitako kexa idazki batean salatzen zuen Vitoria-Gasteizko Udalak zigorra ezarri ziola Zirkulazio Arautegia hausteagatik, gehiegizko abiadura gainditzeagatik bera Gasteiztik kanpora zegoelarik. Halaber, Konstituzio Auzitegiaren 219/88 sententzia ere aipatzen zuen.

Auzoa aztertu ondoren, ikusi zen kexadunak aipatzen zuen Konstituzio Auzitegiaren sententzia ez zela aplikatzekoa berak aurkezturiko kasuan.

Sententzia hartan ezartzen zenaren arabera, bidezaingo alorreko agintaritzaren ez zen gidariaren nortasuna agertzeko froganeurriak hartzeko beharretik libre geratzen, areago zigortutakoak adierazi zuelarik nortzuk ziren seguraski egun hartan ibilgailua gidatzen zuten hiritarrak.

Erreklamatazilearen kasuan, proposatzen zuen frogak egun hartan ibilgailuko gidaria bera ez zela ziurtatzeko helburua zuen, baina ez zuen inolako daturik ematen lege-haustea egin zuen benetako gidaria nor zen frogatu ahal izateko.

Horregatik, Zirkulazio Arautegiaren 278-2. artikuluari jarraituz, zigorra ezarri zitzaion erreklamatzailerari, ibilgailuaren titularra behartuta dagoelako lege-haustea egiten denean gidaria nor den adieraztera, eta halakorik egin ezean, gidariaren ordezkari berak ordaindu behar duelako egindako lege-hausteari dagokion isuna.

Ordenantza arautzailerik gabe Irunen TAO zerbitzua indarrean jartzeaz (502/90)

Irungo biztanle batek jakinerazi zigun hiri hartan indarrean jarri zela erdialdeko kaleetako aparkamendu mugatuari buruzko arautegi bat, udal ordenantza arautzailerik onartuta egon ez arren.

Azaldutako arazoaren larria ikusita, Erakunde honek berehala eskatu zion Udal horri kontu honi buruzko argibideak emateko, edo, besterik ezean, aipatutako gaiari buruzko dokumentazio osoa bidaltzeko, hau da: ordenantza fiskal arautzailea; bidezaingoari buruzko ordenantza, berau ordenantza fiskalaren desberdina izanez gero; TAO zerbitzua noiz jarri zen indarrean; zerbitzua nola ematen den; zerbitzua indarrean jarri izanaren eta haren arautegiaren espediente administratiboa; eta auzia argi zezakeen beste edonolako dokumentazioa.

Dokumentazio guzti hori jaso aurretik, kexadunak berriz jo zuen guregana Udalak TAO delakoa arautzen duen ordenantza onartu zuela adierazteko, eta ordenantza horretako artikuluetako bat, 19.a hain zuzen, 339/90 Erret Legegintza-Dekretuaren 81.1 artikulua kontrakoa izateagatik legez kanpoko izan zitekeela bere eritziz. Halaber, 17. artikuluari buruzko uste batzuk ere agertu zituen, bai eta aditzera eman ere Erakunde honek hartutako jokabidea gorabehera, oraindik zigorrak ezartzen zirela, eta, agidanez, garabia erabiltzera ere iritsi zela.

Udalari eskatutako dokumentazioa geroago jaso zelarik, Erakunde honen aholkulariek aztertu eta gero, Irunera joan eta Udaleko udalkide eta teknikariek egotea erabaki zen, modu horretara ikertze prozesua osatzeke.

Salatutako gertakariak egiazkoak zirela frogatu ondoren, Udalari ondoko gomendioa egitea erabaki zen:

1. Irungo hiriko kaleetan ibilgailuentzako aparkamendu zerbitzua berehala bertan behera uztea, zerbitzu hori ezartzeko legezkoa eta ezinbestekoa den tresna, udal ordenantza arautzailea onartu eta argitaratua alegia, ez edukitzeagatik.

2. Une horietan bideratzen ari ziren zigor-espediente guztiak berehala indargabetu eta ezeztatzea, bai eta administratuek ordaindutako isunen dirukopurua itzultzea ere.

3. Zerbitzu hori enpresa pribatu bati utziaz zeharka ematen denez gero, aparkamendu zerbitzuari atxekitako langileek egindako denuntziak bo-

rondatezko denuntziatzat hartu beharrekoak dira, eta ezin dute federik eman; horregatik, beharrezkoa da edo lege-hausketa udaltzainek berek egiaztatu eta dagokion isun-orrian jasotzea, edota, bestela, kargu-frogatzat har litekeen osagarritzko frogabide baten bidez behar bezala ziurtatzea aparkamendu zerbitzuari atxekitako langilegoak esandakoak.

4. 19.1 artikulua zuzentzea, aparkamendua antolatzen duen arautegia betetzen ez denean ibilgailua erretiratzeko ahalmen ia berbera ezartzen bait du kasu guztietan, kasu horietako askotan aparkamenduaren arautegia ez betetzeak ez dakarrelarik ere kalte larririk kale-errepideetako zirkulaziorako edota zerbitzu publikoaren funtzionamendurako, bi hauek bait dira Udalaren ekintzaz ibilgailuak kale publikoetatik erretiratzeko ahalmena finkatzen duten baldintzak.

Gomendio hauei erantzunez, ordenantza arautzailea erabat onartu arte ibilgailuen aparkamendu zaindu eta mugatuaren zerbitzua bertan behera uzteko Alkategok emandako agindua bidali zigun Irungo Udalak.

Erantzun hori kexadunari helarazi eta Udalari gure gomendioa onartu zuelako eskerrak eman ondoren, espedientea artxibatu egin zen.

Trafiko isun bati buruzko kexa batez (867/90)

Kotxezale batek kexa izkribu bat bidali zigun Ertzaintzak 1988. urtean jarritako isun bategatik protestatzeko.

Zegokion garaian erugabetze-eskea aurkeztu zuen isun horren aurka, bai eta, geroago, goradei eta berraztertze-eske bat ere Arabako Bidezaingo Lurralde Ordezkaritari, baina ez zitzaizkion onartu berak proposaturiko arazoibide eta frogabideak.

Kexu zen, bere eritziz Ertzaintzaren patruilak salatutakoa ez zelako egiazkoa, eta ezin zuelako ulertu nolatan ertzainen azalpen hutsak balio zezakeen, bestelako frogarik gabe, Konstituzioaren 24.1 artikulua ezartzen duen erugabetasun ustea desegiteko.

Arartekoak arazoa aztertu eta honako hau atera zuen Zirkulazio Arautegiaren 283.II artikulutik: "Arautegi honen 280. artikulua II zatian ezarritakoari jarraituz salaketak egiteko beharra dutenek egindako denuntzien aurka erugabetze-eskerik aurkeztu, eta haietan inpugnatzen bada salatutako gertakaria edo haren zertzeladaren bat, denuntziak salatzaileari bidaliko zaizkio haiei buruzko txostena egin dezan, eta salatutakoa berretsiz gero fede indarra izango du, kontrako frogarik egon ezean".

Era berean, bide beretik doaz Auzitegi Gorenak oraindik orain emandako sententzia batzuk, 5. Gelak 1988ko abenduaren 13an emandako hau, esate baterako: "Zirkulazio Arautegiaren 283. artikulua II zatia kale errepide publikoetako ibilgailuen trafikoa zaindu eta aurre-neurri moduan arautzeaz arduratuta dauden polizien aurrean gertatutako lehe-hausteen berezitasunari egokitzen zaio; kasu hauetan, salaketa deritzaiona gertakarien frogaz zuzen eta berehalakoa bait da kasu hauetan, auzibide penalean lege-hauste

nabarmena deitzen denaren antzekoa, eta lege-hauste administratiboen alorrean lehenago aipatutako Zirkulazio Arautegiaren 283. artikuluan agindutakoaren justifikabide nahikoa bait da, gertakarien lekuko izandako poliziak behar bezala berretsi eta gero errugabetasun ustea desegiten duelarik zigortzeko ahalmena duen agintearen aurrean...”.

Guizti hau dela eta, Administrazioak hartutako jarrera beti ere legearen arabera izan zela eritzi genion, eta halaxe aditzera eman zitzaion kexadunari; eta horrenbestez gure egin beharrekoak amaitutzat eman eta espedientea artxibatu egin zen.

Bastidorea aldatua izateagatik motor bat zigilatzeaz (283/90)

Motozikleta baten jabeak Erakunde honetara jo zuen bere ibilgailua in-mobilizatu ziotelako kexu egiteko.

Arazoa azterketa teknikoaren txartelaren bikoiztua eskuratzeko IAT-ITV gune batera joan zenean hasi zen. Han ikusi zuten motorraren bastidorearen zenbakiak ez zetozela bat ibilgailuaren matrikulazio arrunta egiteko egindako ibilgailuaren ezaugarrien ziurtagiriak azaltzen zituenekin. IATeko buruzagiak hilabeteko epea eman zion kexadunari arazoa konpontzeko, baina nekez egin zezakeen honek horrelakorik, esaten zuenez ez bait zuen is-tripurik jasan ez eta bastidorean eskua sartu inoiz ere.

Epea burura iritsi zenean, IATek Probintziako Bidezaingo Buruzagitza-ra parte eman, eta motorra zigilatzeke agindua jaso zuen.

Kexadunak orduan gertatutakoa Ertzaintzari salatzea erabaki zuen, eta gertakariak argitzeko bideei ekin zitzaion han, baina ondorio onik gabe. Isil-pean esan zitzaion gerta zitekeena zela Ertzaintzaren ibilgailuen arteko motorren batek arazo berbera eduki, baina zigilatuta egon gabe egotea. Orduan epaitegiari diligentziak igaro ziezazkiola eskatu zion Ertzaintzari, baina honek ez zuen horrelakorik egin indizio penalik ez zelako aurkitu.

Arartekoak argitasunak eskatu zizkion arazo honi buruz Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailari, eta honek kexadunak kontatutako gertakariak oro har egiaztatuz, eta egindako ekintza guztiak berretsiz erantzun zuen; era be-rean, ibilgailuaren ezaugarrien ziurtagiriaren kopia bat bidali zuten, non jasotzen bait ziren bastidorearen zenbakiaren trokelaren faksimila eta ibilgailuaren azterketa teknikoan lortutako faksimilaren kopia.

Bi erakuskariak alderatuz, zalantzarik ez dago kexadunaren motorrean aldaketaren bat egin zela, IATen ikuskapenean aurkitutako zenbakia zen-bait zentimetro luzeagoa eta guzti delarik.

Ertzaintzaren Zuzendaritzarekin harremanetan jarri ondoren, ziurtatu egin zitzaigun haien motozikleten artean bat bera ere ez zegoela oraingo bastidorearen zenbakia ibilgailuaren ezaugarrien ziurtagirian azaldutakoan berdina ez zuena.

Datu guzti hauek lortu genituelarik, kexadunari erantzun zitzaion, esanez gure eritzian Administrazioak hartutako jarrera zuzenbidearen arabera-koa izan zela erabat, eta, ondorioz, bere arazoa konpontzea ez zegoela gure esku. Gomendio moduan esan zitzaion, baita ere, motorra fede onez erosi zuenez gero, erreklamazioak aurrera eramane nahi bazituen hobe zuela mo-

torra saldu zionaren aurka jotzea, ibilgailuak ustezko akats izkutuak eduki-tzeagatik.

Erantzun hau Ertzaintzaren Zuzendaritza Nagusiari eta Arabako Industria Lurralde Ordezkaritzari jakinerazi, eta espedientea artxibatu egin zen.

Bonba baten leherketan zauritutako ertzain batez (162/90)

Bonba baten leherketan zauriak jasan zituen ertzain batek kexa-idazki bat bidali zigun, gertatutakoa argitzeko aurkeztu zuen aldez aurreko erreklamazioari inolako erantzunik ez zitzaiolako eman protestatzeko.

1985eko otsailaren 1ean, kexaduna Beasainen lanean ari zela, bere patruilak Basearen azalpen bat jaso zuen, herri hartako "pub" batean bonba mehatxu bat izan zutela esanez. Esandako leku horretara iritsi ondoren, susmagarria zirudien pakete bat arakutzen ari zelarik, bonbak leher egin eta eskerreko belarrian jo eta zauri larriak eragin zizkion kexadunari.

1987ko azaroaren 30ean aldez aurreko erreklamazio bat aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailari, argibidezko espediente bati ekin eta bi urte lehenago gertatutakoa argitzeko.

Ertzaintzaren Zuzendariak 1988ko urtarrilaren 27an emandako ebazpen baten bidez argibidezko espedienteari ekin, eta espedientegilea eta idazkaria izendatu egin ziren.

Harrez gero eta kexa aurkeztu bitartean, ordea, kexadunak ez zuen beste ezeren berririk eduki.

Arartekoa harremanetan jarri zen Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailarekin, eta hala jakin zuen arestian ebatzi zela espedientea, bai eta haren berri eman ere kexadunari. Halaber, aditzera eman zitzaigun biderapena atzeratzearen arrazoia espedientegileak jasotako lan kopuru handia zela, eta, diziplinazko prozedurak eragindako espedientegintza eta ikerketa zereginak hartzen ari ziren garrantzia zela bide, Barne Sailak unitate berezi bat sortu zuela poliziaren barruan, pertsonal eta baliabide egokiez hornituta, tankera horretako gorabeheren garrantziak eskatzen zituen kalitatea eta bizkortasuna eman ahal izateko.

Aipatutako espedientea argi eta garbi ebatzi ez ezik, etorkizunean espedienteetan atzerapenik ez gertatzeko neurriak hartu zirela eritzita, Administrazioak emandako erantzuna kexadunari bidali zitzaion, eta Administrazioari eskerrak emanik berandutze arazoak konpontzeko hartutako neurriengatik, espedientea artxibatu egin zen.

TAO ordenantzak eta ibilgailuak kale publikotik erretiratzeaz

Bilboko biztanle batzuek beren kexak agertu dituzte beren ibilgailuak TAO aldean aparkatuta zeudenean txartelak baimendutako epea amaitu bezain laster udal garabiak erretiratu zituelako, eskuzabal jokatzeko erizpidea inondik ere erabili gabe.

Salaketa horien eraginez halako ikerketa bat hasi zen Erkidego Autonomoko hiru hiriburu-tako udal ordenantza arautzaileak, eta batez ere or-

denantza horietan kale publikoan aparkaturiko ibilgailuak garabiaren bidez erretiratu eta ondoren udal biltegiara eramatea onartzen duten zatiak aztertzeke.

Horri buruzko txosten juridikoa osatu ondoren, hiru euskal hiriburuetako alkateekin eta zinegotzi ordezkariekin izandako bilera batzuetan kontrastatu zen.

Arartekoak zalantzatan jartzen ditu TAO ordenantzak, ibilgailuak mugaturiko aldean txartelik gabe aparkatuta daudenean edota baimendutako gehienezko epea amaitu bezain laster ibilgailuak erretiratzeko baimena ematen dutelako.

Aitzitik, 1990eko martxoaren 2ko Trafikoa, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Kale-errepideetako Segurtasunari buruzko Legearen testu artikuludunaren arabera, zirkulazioari edo zerbitzu publikoren bati oztopo larria ezartzen diotenean bakarrik erretira daitezke ibilgailuak; eta argi dago oztopo larri horiek ez direla berehala gertatzen, baimendutako gehienezko epea bost minutuz gaindintzen denean.

Horren arabera, TAO ordenantzak berezkoa ez den helburu baterako onartzen dute garabiak ibilgailua erretiratzea, zigortzeko neurri gisa erabiltzen bait dute, TAO ordenantza hausteagatik ezartzen den isun administratiboarekin batera.

Arartekoaren eritziz ibilgailuak kale publikotik erretiratzea badaezpadako neurria da, prekauziozkoa, behartze-indarra duena eta aplikatzen denean proportzionaltasunez eta "favor libertatis" dioen jarraibidea errespetatuz erabili beharrekoa.

Gainera, eta segurtasun juridikoaren jarraibideak hala eskatzen duelako, TAO ordenantzek ezin diote eman Udalari ibilgailuak erretiratzeko baimen orokor eta zabalik; alderantziz, balizko kasuak aldeztu aurretik erabat jakingarriak direnez gero, TAO ordenantzak argi eta garbi finkatu beharko du zein kasutan den bidezkoa ibilgailua erretiratzea, beti ere neurri beharzaile eta badaezpadako hau gurgildun trafikorako edota aparkamenduaren zerbitzu publikorako oztopo larriak galerazteko bakarrik, eta ez beste ezer tarako, erabiliko delarik.

Guzti horren ondorio moduan, Arartekoak gomendio batzuk bidali dizkie Donostia, Bilbo eta Gasteizko Udalei, eta espedientea oraindik trami tean dago, hiru udalen erantzunaren zain.

3.3. HAZIENDA ETA FINANTZAK

A) Sarrera

Hazienda eta Finantzak alorrari buruz aurkeztutako kexak 40 izan dira guztira, jasotako guztietatik % 12, eta ondoan adierazten dugun bezala banatu dira:

— Eusko Jaurlaritza	0
— Aldundiak	21
— Udalak	19

Estatistikarako, kexa bakar batera bildu dira Getxoko Udalaren hiri-zergaren inguruan jasotako 545 kexak.

Udal zergei dagokienez, eta Hazienda Lokaletarako Legeak araututako zerga berriak indarrean hasi izanaren ondorioz, aipagarriak dira, beren kopuruagatik, Getxoko biztanleek egindako 545 kexak, Udallerri horretan lehenagoko hiri-lur zergan —gaur eguneko ondasun higiezinaren gaineko zerga— izandako gehiegizko gorakadagatik protesta gisa aurkeztutakoak.

Lurren balio gehitzearen eta trakzio mekanikoko ibilgailuen zergak ere kexarako motibu izan dira kasu batzuetan, haietako lehenean Administrazioak zenbait lursaili buruz eginiko balorazioagatik, eta bigarreanean zerga hori ordaintzeko beharra dutenengatik.

Pertsona fisikoen errentaren zerga oraindik ere da lurralde historikotako foru aldundiek gestionatu eta bildu behar dituztenetatik kexarik gehien jasotzen dituenak.

Sujetu pasiboen inguruko gora-beherak, zergagai ez diren errentak eta autokitapenetan egindako okerrak dira parte hartzera eraman gaituzten arazorik ugarienetakoak.

Arazo horietako batzuei buruz, hain zuzen ere, ofiziko txosten bat egin eta hiru foru aldundiei bidali zitzairen, aitorpenaren inprimakiak ahal zen neurrian arrazionalizatu eta bateratzen laguntzeko asmoz.

Dena dela, Erakunde honi azaldu zaizkion auzietako asko alor honetan indarrean dagoen legeriaren aplikazioak berak eraginak dira, eta, horrenbestez, Administrazioak egindakoa berretsi egin da.

Azkenik, aipa dezagun atal honetan administrazio zergabiltzaileek gehiegitan erabiltzen dutela isiltasun administrazioaren teknika, eta, hori dela bide, administratuaren eskubideak bermatzeko tresneria guztia baliorik gabe uzten dela, hiritarra ezinbestez auzitegi ekonomiko-administratiboetara joztera edota etsi eta bere asmoak bertan behera uztera behartzen duelako.

B) Kexen aukeraketa

Ibilgailu bat kale publikotik erretiratu eta lekualdatzeagatik zergak ustez bidegabeki kobratzeaz (451/89)

Alegatzaileak salatzen zuen Donostiako Udalak bidegabeki kobratu zitzaizkion bere alabak gidatutako ibilgailu zirkulatore bat kale publikotik erretiratu eta lekualdatzearen zergak, udaltzain batek detentatuta eta ibilgailuak derigorrezko aseguruaz bazuela frogatu ezin izategatik ezarriak.

Erakundeak txostena eskatu Donostiako Udalari, eta prestatutako azterketa juridiko baten ondorioz, abenduaren 30eko 2.641/1986 Erret Dekretuaren 8. artikulua, Erantzunkizun zibilerako aseguruaren arautegia onartzen duenak ezartzen duen bezala, azaldu zen aseguruak gabe zirkulatzen duten ibilgailuak geldierazi eta biltegian utziko direla jabearen kontura, aseguru hitzartzen ez den bitartean.

Arautegiak berez esaten ez badu ere, ulertu behar da gidari bakoitzak halako betebeharrak duela inplizitoki, hots, ibilgailu horrek legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituela frogatzea; hori frogatzeko, lehenago aipatu dugun dekretuaren 11. artikulua araberan, indarrean dagoen aldiaren aseguru prima ordaindu dela azaltzen duen ziurtagiria erakutsi behar da. Ondore gisa ateratzen da aseguru ordaindu dela agiri baten bidez frogatuz gero, Administrazioak ez duela biltegian uzteagatik inolako ko-brantzarik egiteko eskubiderik.

Beste alde batetik, Zirkulazio Arautegiaren 292-3-e artikulua araberan, ibilgailua udal biltegiara eramateagatik izandako gastuak ibilgailuaren gidariaren kontura joango dira, eta lekualdatzeari dagozkion zergak berarizko ordenantzaren bitartez finkatu behar dira alde aurretik.

Ibilgailua kale publikotik erretiratu eta udal biltegiara eramateak zerga bat du, Ibilgailuen eramate eta biltegitratzea arautzen duen udal ordenantza fiskalak ezarritakoaren araberan.

Guzti honen ondorioz, Arartekoaren eritziz Donostiako Udalak zuzen eta legeak onartzen dizkion ahalmenetatik irten gabe jokatu zuen, esandako ibilgailu zirkulatorea geldierazi eta udal biltegiara eramatean, eta handik erretiratu ahal izateko ibilgailuen eramate-zerga ordaintzea eskatzean, zeren eta Erantzunkizun zibilerako aseguruaren arautegia (2.641/1986 Erret Dekretua) Zirkulazio Arautegiak dituen aginduak garatzen dituen araua bait da.

Nolanahi ere, Erakunde honen ustez bai zen, beharbada, zorrotzegia Administrazioaren jokaera. Zentzu honetan, Arartekoak idazki bat zuzenduz Donostiako Udalari, ondoan erasten den zatia zuena:

“ Ararteko honek gogora eman eta gomendatu egiten dio Donostiako Udalari Zirkulazio Arautegiaren 292-I-a artikulua aipatzen duen konponbide bera hartzea, baita motoredun ibilgailua aseguraturik eta aseguru indarrean dagoela frogatu gabe gidatzen denean ere, ibilgailua egiatan eta benetan aseguraturik egon arren; ibilgailurik ez da horrela geldieraziko ez eta biltegiara eramango beharrik ez dagoenean. Gidatzeko baimenarekin gertatzen ez den bezala, berau gidariak aldean eraman behar bait du Arautegiaren 106. artikulua horrela ezartzen duelako, inolako araurik ez dago argi eta garbi ibilgailuaren gidaria behartzen duenik aseguru edukitzera ez ezik, indarrean ere baduela frogatzen duen agiriaren bat aldean eramatera. Guzti honegatik, gure ustez honeki zertzelada batean, interpretazioak dagokion pertsonaren ahalik eta aldekoena izan behar du, eta ahaleginak egin behar dira, legearen letrari estu jarraitu gabe, neurri mugatzailezik ez hartzen”.

Gure txostenaren nondik-norakoaren berri auziko alde biei jakinerazi ondoren, espedientea artxibatu egin zen.

Udal zerbitzuez baliatzeagatik zerga desberdinak ordaintzeaz (48-61/90)

Tolosa inguruko Ibarra herriko bi biztanlek, Erakunde honi zuzendutako idazki banatan, Tolosako Udalaren jokaera salatu zuten zerga desberdi-

nak, eta ustez diskriminatzaileak, ezarriak zituelako hirian erroldatuta ez zeudenentzat, udal zerbitzuak, igerilekua eta musika eskola hurrenez hurren, erabiltzeagatik.

Arartekoak gogoratu egin zien kexadunei udal autonomia lege antolakuntzak ezarritako markoaren barruan garatu beharrekoa dela, bereziki Erregimen Lokaleko 7/85 Oinarrizko Legeari jarraituz, eta, zergei dagokienez, Gipuzkoako foru haziendak arautzen dituen uztailearen 5eko 11/89 Foru Arauari jarraituz. Egiazko auzotasun eta lurraldetasun printzipioak dira erakunde lokal bakoitzaren lurraldean ordenantza fiskalak ezartzeko oinarria eta erizpidea (ELOL, 107-2. art.).

Beraz, udal bakoitzari dagokio bere udalerrri barruan eta bere bizilagunentzat une bakoitzean egoki deritzaizkion zergak ipintzea, amankomuneko arautegi oinarrizkoaren mugen barruan beti ere; ondorioz, zerbitzu bakoitzarengatik ordainkizun desberdina ezar dezake udalerriko bizilagun direnentzat eta ez direnentzat, batzuen eta besteen zerga zamak ere desberdinak izan daitezkeelako, hala ere legearen aurrean berdinak izateko printzipioa hautsi gabe, egoera desberdinetatik abiatzen bait da.

Era berean, Arartekoak idazki bat bidali zion Ibarrako Alkateari, Era-kundean jasotako kexen berri ematearren eta inguruko beste udalerriek eskeintzen dituztenen mailako zerbitzuak eskeintzeko zenbait bide planteatzearren.

Zentzu honetan, bide horietako bat zenbait udalen artean itun edo hitzarmenak finkatzea izan daiteke, horrela elkarren artean eskeini ahal izateko halako zerbitzu batzuk, errentagarriak ez liratekeenak udalerrri bakoitzeko bizilagunen kopuruagatik edo diru baliabideengatik; Tolosako Udalarekin ere finka liteke antzeko hitzarmenen bat.

Zirkulazio isunak kontu korrontea bahituz kobratzeaz (234/90)

Bergarako biztanle batek salatu zuen bere kontu korrontea bahituz 10.500 pezeta kobratu zizkiotela bidegabeki, zirkulazio isunengatik.

Kexadunak banketxearen bidez jakin zuen bere kontu korrontean diru kopuru hori bahitua zuela, hainbat egunetan egindako zirkulazio lege-hausteketei zegozkien trafikoko isunak ustez ez ordaintzeagatik, nahiz eta haien berririk ez eduki bahiketaren berri eman zitzaion arte.

Erreklamatzailerak administrazio bidezko errekurtsua aurkeztu zion Bergarako Udalari, erabilitako bidea zuzena ez zelakoan eta derrigorrez bete beharreko prozedura arauari jarraitzen ez zuelakoan. Haren aurka hasitako espedientearen berri ez zekiela eta kargu ezberdinak ez zitzaizkiola jakinerazi alegatu, eta hutsak iraungitzeko eskatu zuen.

Bergarako Udalak ez zuen onartu errekurtsua, eta demandagileak Arartekoarengana jo zuen.

Erakunde honek argitasunak eskatu zituen erreklamatzailerari irekitako espedienteari buruz, eta halako prozedurazko bidegabekeria batzuk aurkitu zituzenez gero, Udalari bidalitako ofizio batean bildu zituen. Hona hemen:

— Ez dago ziurtaturik isuna ezartzeko Alkategoak hartutako erabaki administratiboaren jakierazpena egin ote zen.

— Ez dago ziurtaturik, era berean, interesatuak aukeran dituen errekursoen jakinerazpena egin ote zen.

— Borondatezko epearen barruko jakinerazpenak behar ez zen bezala egin ziren.

— Isunetako biei zegozkien zorrak ordainerazteko ekintza iraungita zegoen.

— Ez dago ziurtaturik premiamenduzko neurrien ez bahiketaren jakinerazpenik egin ote zen.

Halaber, Bergarako Udalak erreklamatzailerean aurka beterazlego bidez hasitako dirubilketa espedientea legearen aldetik prozedurari dagokionez okerra zela eritxita, Arartekoak administrazio bidezko espedientea berriz hasi eta alegatzaileari bildutako dirukopurua itzultzeko gomendatu zuen.

Geroago, Erakunde honi bidalitako izkribu batean, Bergarako Udalak hala jokatu zuela azaldu zuen, hau da, administrazio bidezko espedientea berriz hasiz eta alegatzaileari bildutako dirukopurua itzuliz.

Gainbalioaren zergaz eta lurraren balioaren adierazleen igoeraz (306/90)

Lasarteko biztanle batek adierazi zuen ez zegoela ados Lasarteko Udalak lurren balioaren igoerari (gainbalioari) buruzko udal zergaz egindako kitapenarekin, haren ustez gehiegizkoa eta erabat neurrigabekoa zelako. Era berean, herri bereko eta aldameneko herrietako beste biztanle batzuen aldean kalteturik sentitzen zen, haiei askoz kitapen txikiagoa egin bait zieten zahartasun bereko antzeko lokalengatik.

Erakundeak Udalarari argitasunak eskatu, eta ikusi zen 1988ko abenduaren 18an udalbatzarrak lurraren balioaren adierazleak aldatzea erabaki zuela lursailen balioaren igoerari buruzko zergari begira, indarrean zegoen hirigintz planteiamenduak lur horri ezarritako hirigintz probetxamenduaren arabera. Espedienteak lege ezarritako bideari jarraitu zion, eta azkenik onartu eta argitaratuta azaldu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 53. zenbakian, 1989ko maiatzaren 17an.

Kexadunari egindako kitapena balio taula berria behar zen bezala aplikatuz gauzatu zen. Halaxe jakinerazi zitzaion, bai eta ordaindu beharrekoa azken aldiz eskuz aldatu zenetik berriz aldatu den arte igarotako denboraren arabera zihola nagusiki, eta bi egun horietan Udalak onartuta zeuzkan lur balioen adierazleen arteko aldearen berri eman zitzaion. Horrela, zenbat eta handiagoa izan lursailen balioen arteko aldea eta zenbat eta denbora gutxiagoan igo lurraren prezioa, horixe gertatzen bait zen, orduan eta handiagoa zen azkenean ordaindu beharreko kuota.

Lasarteko Udalak bidegabeki jokatu ez zuela ikusita, espedientea artxibatatu egin zen.

Hirilur-zergaren ordainagiriaren gehiegikeriazko igoera

500 inguru kexa-idazki jaso ziren Erakunde honetan, bertan Getxoko Udaleko "hirilur-zergaren ordainagirian izandako gehiegikeriazko igoera" gisa kalifikatzen zenari buruz —egun ondasun higiezinaren gaineko zerga delakoaz—.

Bidali zitzaizkigun ordainagiriaren fotokopiak "a priori" aztertuta, ondorio hau ateratzen zen: 1989 eta 1990 urtealdietan igorritako zenbatekoetan, oro har, batzuetan besteko % 150eko igoera izan zela 1988ko ordainagiriaren aldean, muturreko zenbait kasutan 1990eko kuotak, 1988ko ekitaldikoaren aldean, % 390eko igoera ere izan zuelarik.

Hori horrela izatea ekarri zuten faktoreak zein ziren azertu zuten Erakunde honek, azken ekitaldiak banan-bana hartuta:

1989an, urte horretako aurrekontuen foru arauaren 78. atala oinarritzat hartuz, eguneratu egin ziren katastro-balioak 1988koei 1,03 koefizientea aplikatuz.

% 3ko igoera horrekin batera, % 45eko aldi baterako errekarria aplikatu zitzaion kuotari, aurrekontuen foru arau berberaren aldi baterako xedapenetatik lehenengoaren 2. atalaren babespean. Horrela, esate baterako, 1988 urtean kontribuzio kontzeptuagatik 7.485 pta. ordaindu zituen herritar batek 14.906 pta. ordaindu behar izan zituen 1989an, hots, % 99ko igoera suertatu zitzaion.

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren foru araua indarrean jartzearekin, eta horren aldi baterako xedapenetatik lehenengoan adierazitakoaren ondorioz, 1990eko urtarrilaren 1etik ekin zitzaion zerga hori Bizkaiko Lurraldean eskatzeari.

Hirilur-zergaren ezarritako oinarri zergagarriaren gaineko % 20ko zerga-neurriaren ordean katastro-balioaren gainean zuzenean zertzen den 1,25eko neurria jarri zen.

Ordurako, 1990eko aurrekontuen foru arauak habilitatua zuten berriro katastro-balioen eguneraketa, beroiei 1,07 koefizientea aplikatuz egingo zena.

Horrela, 1989an 14.906 pta. ordaindu zituen zergapeko berberak 24.553 pta. ordaindu beharra izango zuten 1990ean, hots, aurreko ekitaldian baino % 64 gehiago.

Gauzak horrela, Ararteko honek azaldu zion Getxoko Udaleri burututako zerga-iharduketa lepekoa izanik ere, kuotaren gaineko gehiegikeriazko errekarria gauzatzen zela.

Argi ageri da manu horren bidez hutsalduta gera litekeela esentzian bertan zerga hori, zeinek, araupetzen duen arauaren 3. artikuluan adierazten denez, zergabideetarako izaera urbanokotzat sailkatuta dauden ondasunen errendimenduak jasotzea grabatzen bait du, edo eskubide erreal baten ondorioz ondasun horiek erabiltzea, baliatzea edo edukitzea.

Bestalde, Administrazioa bere organuen bidez, ekonomiarako eta baliabide publikoen kudeaketarako erizpideak egonkortasunerako eta gizarte-ongizaterako erizpideei egokitzera beharturik dago, kasu honetan ageri zaigunaren gisako egoera izatez justu ez direnak baztertzen ahaleginduz.

Zalantzan jartzen da neurri horiek horren epe laburrean hartu izanaren egokitasuna, horrenbeste izanik jasotako kexak, zergen neurritz kanpoko igoera hori aplikatzean administratzaileek izan duten nolabaiteko sentsibilitaterik-eza jartzen delarik agerian.

Getxoko Udalak eskueran zuen eta du gure ustez gehiegizkoak diren aldakuntza horiek neurriren batean konpontzeko beharrezko medioa, zein ez baita zerga-neurriak tentuzko muge barruan aplikatzea baino.

Azken batean, nahiz eta ondasun higiezinaren gaineko zergaren foru arauan adierazitako katastro-balioen berrikusketarekin zergen kuoteko igoera nahiko handia jasango dutela pentsa daitekeen, Erakunde honen ustez momentu hori iritsi arte udalek kontzeptu horregatik finkatzen duten zergazorrak denboran zeharko progresibitateari buruzko gutxienezko arau batzuk errrespetatu beharko lirarteke, zergapekoen ekonomietarako traumatikoak izan litezkeen igoeretara iritsi gabe.

Ezerk ez du galerazten udalek beharrezkoa ere baden katastro-balioen berrikusketari ekitea, administratuari presio fiskal handiagoa sortu gabe horregatik, eta edonola ere modu gradual batean gauzaturik.

Getxoko Udalaren kasu konkretuan, adierazi zitzaigun, gero osoko bilkuran baieztatuko zena, zerganeurriak progresiboki gutxitzeko konprometzua hartua zutela, 1991 urtean hasita aurreko ekitaldian izandako kuotaren beharpen nabarmen batez.

Bidegabeki zerga bat bi aldiz ezartzeaz (325/90)

Arartekoari zuzendutako izkribu batean, kexadunak azaltzen zuen bizilekua Bilboko udalerritik Plentziakora aldatu ondoren, bi Udalek igorri ziotela ibilgailuen zirkulazioaren udal zerga.

Udal erakunde biei argitasunak eskatu eta gero, ikusi zen egia zela biek ezarri ziotela kexadunari, bidegabeki ezarri ere, bultzapen mekanikoko ibilgailuen zerga.

Zerga baten zorra zerga-aldiaren lehen egunean, alegia, urte bakoitzaren lehen egunean hartzen denez gero, jatorrizko udalak (Bilbokoak) zuzen kitatu zuen zerga, baina bizileku berriko udalak (Plentziakoak), ordea, bidegabeki igorri zion kexadunari, hazienda lokalak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 97. eta hurrengo artikuluek ezartzen dutenaren arabera.

Arartekoak gomendaturik, Plentziako Udalak onartu zuen oker jokatu zuela, eta ordainerazpena baliogabetu egin zuen. Era berean, eman zuen aditzera handik aurrera, udalerritik batetik bestera aldatzen diren hiritarren kasuetan, Erakunde honek emandako burubidea kontutan hartuko zela zerga bat bi aldiz ezartzea gerta ez dadin.

Kexadunari Erakunde honek egindako gestioen ondorioen berri eman eta gero, espediente artxibatu egin zen.

Arauz ezarritako formazko baldintzak ez betetzeagatik, BEZ fakturak ez onartzeaz (281/90)

Erakunde honetara zergadun batek kexa bat bidali zuen Gipuzkoako Foru Haziendak balio erantsiaren gaineko zergaren aitortpenean halako faktura batzuen dedukzioa ukatu ziolako, zergaren arautegiaren 157. artikulua ezarritako formazko baldintzak ez betetzeagatik.

Horren ondorioz, administrazio zergabiltzaileak bi likidazio osagarri bidali zituen, bata 18.740. eta bestea 17.513. pezetakoak, aintzat hartu ez ziren fakturei zegozkien bi hiruhilabetekoetan sortutako aldeak, hain zuzen.

Kexaduna ez zegoen ados horrekin, eta faktura horiek hasiera batean deskontatu eta ondoren esandako likidazio horien bitartez berriz ere eskatuz gero, azkenerako birritan ordainduko zituela adierazi zuen.

Foru Haziendari faktura ukatuak zeintzu eta zenbatekoak ziren eskatu ondoren, ziurtatu egin zen likidazio osagarrietan bidalitako dirukopuruak faktura horiek kontutan hartu ez izatearen ondorioz ateratzen ziren aldeei zegozkiela.

Kexadunari erakutsi zitzaion hartutako BEZa emandako BEZatik kentzerakoan faktura horiek kontutan ez hartzeak ez zekarrela zerga birritan ordaintzea, baizik eta hasieran ordaindutakoa berreskuratzeko aukerarik ez edukitzea.

Gehienez ere, Foru Haziendari egotz lekiok bi likidazioak zein bere aldetik bidaltzea aukeratu izana, itzuli beharreko kopurua gutxitu eta urtealdi haren bukaeran zergadunari ordaindu ordez.

Legeria inola ere hautsi ez zela eritzirik, espedientea artxibatu egin zen.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaz (455/99)

Erreklamazioa egiten duena 750 kg-tik beherako erremolke arin baten eta hori tiraka eramaten duen ibilgailuaren jabe da, eta bere ustez ez lioke Elorrioko Udalak bakoitzagatik aparteko ordainagiria bidali behar, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga dela eta.

Zentzu horretan, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga biltzen duen 7/89 Foru Arauaren 1. atalak ezartzen duenez, zerga horrek "kalebide publikoetan barrena zirkulatzeo gauza diren izaera horretako ibilgailuen titularitatea grabatzen du" (...).

Zirkulatzeo gauza den ibilgailutzat "dagozkion erregistro publikoetan matrikulatutakoa" jotzen da.

Trafikoari, zirkulazioari eta kalebideetako segurtasunari buruzko legearen 62. artikulua honako hau eskatzen du:

"Motorra duten ibilgailuak zein arauz zehazten den gehienerako pisutik gorako erremolkeak zirkulazioan jartzeko beharrezkoa izango da horiek matrikulatzea eta matrikula plakak eramatea, ezartzen den moduan egokitzen zaizkien hizki-zenbakiak agerian ditzutela".

Horrela, legean ezartzen denaren kontrako ez den guztietan haren arautegi gisa erabili beharreko *Zirkulazio Kodearen 230 III artikulua*k, honako hau adierazten du:

“*Gainerako erremolkeek eta semierremolkeek plaka bakar bat eramango dute atzekaldean, ezkerraldean zein erdialdean, trakto-reak daramanaren eduki berbera izango duena.*”

Manu horretatik argi eta garbi ateratzen da 750 kg horiez gaindi josten ez duten erremolkeei matrikula plaka eramateko obligazioa ezarri, informazioa eskaintzeari begira baino ez zaiela ezartzen, hots, aurretik tiratzen duen traktorea dela dagokion erregistro publikoan inskribatuta ageri dena, eta erremolkeak, berriz, haren identitateari buruzko informazioa eskaintzen diela gainerako gidariei.

Ondorio gisa, Erakunde honek uste du ez dela bidezko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 750 kg-tik gorako gehieneko pisua garraiatzeko baimena ez duten erremolkeengatik kobratzea, zerga hori araupetzen duen arauak zirkulatzekeo gauza diren ibilgailuen titularitatea grabatzen duen aldetik, eta azken horiek hari dagokion erregistro publikoan *matrikulatzen direnak* izanik.

Erremolke arinak ez daude matrikulatu beharrari loturik, eta zerga ordaindu beharrari loturik ere ez dute egon behar.

Esandakoa jasotzen zuen gomendio bat bidali zitzaion Elorrioko Udalari, berau gure Erkidego Autonomoko gainontzeko udaleetan hedagarri bada ere.

3.4. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA

A) Sarrera

Alor honetan aurkeztutako kexak 49 izan dira, jasotako guztietatik % 15 beraz, eta den-denak Eusko Jaurlaritzaren izen honetako sailaren aurkakoak izan dira.

Aipatzekoak dira OHOkoko zikloko hezkuntza ereduaren hautaketa eta heziketa berezia behar duten ikasleak ikastegi ohizkoetan sartzearen inguruko gora-beherak.

Funtzio publikoaren atalak leku garrantzitsua betetzen du hemen, irakaskuntzaren alorreko langilegoaren izendapenari, ordezkapenari, lekualdatetari eta ordainari loturiko arazoengatik.

Orobat, kexa batzuk jaso dira unibertsitate mailako ikasketak egiteko matrikulazioaren eta bekak emateko sistemaren inguruan. Azken honi dagokionez, dirulaguntzak banatzeko deialdien baldintzetan ezarritako errentamaila babesgarriak gainditzeagatik ematen dira ezezko erantzunak.

Eragin nabarmena dutelako, aparteko aipamena merezi dute Unibertsitate jardueraren normalkuntzaren inguruan sortutako arazoek, askotan guztiz izaera akademikokoak ez izan arren jarduera hori oztopatzeria iristen bait dira. Batzuetan, irakasle falta dela, bestetuetan irakasleek Administrazioa-

rekin dauzkaten eztabaidak direla, unibertsitate mailako irakaskuntzak kalte besterik ez du jasotzen, berez bestelako aje batzuk ere —ikas planen desegokitasuna eta instalakuntza egokirik eza— badituenean.

B) **Kexen aukeraketa**

Hautatzen den hizkuntz ereduan ikasteko aukeraz (194/89)

Guraso talde batek kexa idazki bat aurkeztu zion Ararteko Erakundeari, Galdakaoko Egia herri-ikastetxean A eredia (irakaskuntza gaztelaniaz, eta euskara ikasgai moduan) kendu dela salatzeko.

Talde horren eritziz, benetan ez zen egiazkoa hautatzen den ereduan eta ikastetxean ikasteko ustez dagoen garantia. Guraso horien arabera, Egia ikastetxean A eredia kenduta, seme-alabak eredu horretan matrikulatzeko geratzen zaien aukera bakarra Bengoetxe eskola-zentrura joatea da, baina herriaren erdialdetik ordu erdira dago, Galdakaoko auzo batean kokatuta dagoenez gero.

Erakundeak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari argibideak eskatu, eta honek bidalitako txostenean Bizkaiko Plangintzarako Lurralde Batzordeak (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Lurralde Ordezkaritzaren eta CC.OO., ELA-STV eta FETE-UGT sindikatuen ordezkaririk dituelarik) hartua zuen erabakia aipatzen zen. Erabaki horren arabera, 89-90 ikasturteetik hasita, A ereduko lerro bakarra eskeintzea erabaki zen, Bengoetxe ikastetxean hain zuzen, honek baldintza egokiak eskeintzen bait zituen, hiru lerroetarako gaitasuna duela (A, B eta D ereduak eskeintzeko aukera ematen duelarik horrela), eta garraio eta jantegi zerbitzuaz hornituta dagoelako.

Erabaki hori —Sailak bidalitako txostenaren arabera— euskalduntze prozesuaren abiada azkarrean oinarritua zegoen, ikusten ari bait da dextente murrizten ari dela A ereduaren eskaintza, eta, aldiz, gora egiten ari dela euskarazko irakaskuntzarena (B eta D ereduena, alegia), eta kasu honetan ere zentzuzkoa zela frogatu da, aurrematrikularen emaitzen ondorioz. Alde batetik, A ereduaren eskaintza eskasa zela frogatzen zen (19 ikasle guztira). Beste alde batetik, Galdakaoko udalerrirako finkatutako lerro eta eredu eskaintza nahikoa zela ikusten zen, hizkuntz eredu guztietan ikaspostuak egoiteak frogatzen zuen bezala.

Ararteko honen eritzia talde eskatzaileari jakinerazi ondoren, espediente artxibatu egin zen.

Irakasleentzako egoitza-etxeak izateko diren hamabi etxebizitza eraginetik ateratzeaz Amurrioko Udalak bideraturiko espedientearekiko desadostasunaz (301/89)

Batxilergo irakasle numerario batekin ezkonduetako Amurrioko emakumezko biztanle batek adierazi zuen ez zegoela ados irakasleentzako egoitza-

etxeak izateko diren hamabi etxebizitza eraginpetik ateratzeaz herri hartako Udalak bideratutako espedientearekin.

1962. urtean, Etxebizitzaren Erakunde Nazionalak 12 etxebizitza eraiki zituen Amurrioko Udalak utzitako lurretan irakasle nazionalentzako egoitza-etxeak egiteko.

1972. urtean, Etxebizitzaren Erakunde Nazionalak salgai jarri zituen pisu horiek, eta Udalak erosi, salerosketaren izkritura publikoan bere gain hartzen zuelarik Amurriona destinaturiko Hezkuntza eta Zientzia Ministraritzaren menpeko irakaskuntza langileentzako etxebizitzatarako jartzeko obligazioa.

1987ko abenduan, Amurrioko Udalaren batzarrak onartu egin zuen etxebizitza horiek eraginpetik ateratzeko espedienteari ekitea, izaera sozialako etxebizitzatarako uzteko. Espediente horri 1988ko martxoan eman zitzaion erabateko baimena, udalbatzarren ondasun arautegiaren 8. artikulua-ren babesean.

Erabaki horren medioz, etxebizitza horiek ez zitzaizkion utzi eskatzen zituzten irakasleei, ongintzarako erakundeen esku eta adineko pertsonen esku uzten bait ziren.

Kexa-idazkian, erreklamatzailleak alegatzen zuen Udalaren erabakiak zuzen-zuzenean hausten zituela Amurriona destinaturiko maisu-maistren eskubideak, bere egunean Etxebizitzaren Erakunde Nazionalak eta Amurrioko Udalak egindako hitzarmenaren bitartez eskuratuta zeuzkatena. Era berean, kexadunak zalantzatan jartzen zuen udalbatzarrak ahalmenik ba ote zuen esandako etxebizitzak eraginpetik ateratzeko.

Erakundeak argitasunak eskatu auziko alderdi guztiei eta, kexaren gaia arretaz aztertu ondoren, ondorea atera zuen lehen irakaskuntzako maisu-maistra nazionalak, gerora OHOk irakaslegoan sartu zirenek, zeukaten eskubidea aitortua zuela 14/1970 Legeak, aldibaterako bederatzigarren ebazpenak, hain zuzen. Honen arabera, egoitza-etxerako eskubidea ordura arte lehen mailako maisu-maistra nazional izandakoen alde geratzen zen soil-soilik. Beraz, ebazpen horri jarraituz, legeak ez die onartzen beste irakaslego batzuetakoei —eta, beraz, erreklamatzaillearen senarrari-egoitza-etxea edukitzeo eskubidea.

Beste alde batetik, orain darabilgun kasuan, egoitza-etxea edukitzeko ustez dagoen eskubidea Amurrioko Udalak Etxebizitzaren Erakunde Nazionalari erositako —eta kexagai diren— hamabi etxebizitza horien salerosketa izkrituraren klausula batetik eratorria zen. Beraz, obligazio hitzartu bat dugu hau, alderdien arteko kontratu batetik eratorria, eta ez legezko obligazio bat.

Ararteko honek aitortzen zuen, bestalde, Udalak ahalmena zuela aipatu etxebizitzak eraginpetik ateratzea tramitatu eta onartzeko, bere eritziz, komenio batean jasotako klausula izanik, legez ez baizik eta hitzarmen baten bidez ezarria, ez bait zen aplikatzekoa 605/1987 Erret Dekretua, apirilaren 10ekoa, ez eta hura garatzen zuen agindua ere, 1987ko ekainaren 4koa, maisu-maistrentzako etxeak eraginpetik ateratzeko Hezkuntza Ministraritzak eman beharreko alde z aurretiko baimena emateko prozedura arautzen dutenak.

Hortaz, ez zen ikusi Amurrioko Udalak indarrean dagoen legeria kalte zuenik, eta bi alderdiei halaxe adierazi ondoren, espedientea artxibatu egin zen.

Hezitzeko behar bereziak dauzkaten ikasleak OHOkoko ohizko zentruetan integratzeaz (403/89)

Heziketa bereziaren beharra duten seme-alaba batzuen guraso talde batek kexa idazki bat helarazi zion Arartekoari ume horiek OHOkoko ohizko zentruetan sartzeko aukera, legeak eman arren, ez zela egiatan gertatzen salatzeke.

Talde salatzaileak azaltzen zituen kausak bi ziren nagusiki: alde batetik, aditu gutxi egotea alor honetan, eta, bestetik, ohizko ikasgeletako, baina baita heziketa bereziko ikasgeletako irakaslegoak ere honelako umeen arazo berezien berri eta hezitzeko egitarauen arrakasta ziurtatzeko teknika berezien berri ez jakitea.

Gurasoek salatzen zuten egoera konplexu honen eraginez beren seme-alabak kalte psikiko larria, eta beharbada konponezina ere jasaten ari zirela.

Salatutako gertakariak direla eta, Ararteko Erakunde honek argitasunak eskatu Arabako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritari, eta jasotako idazkiaren fotokopia bidali ere egin zion.

Lurralde Ordezkaritariak bidalitako txostenak, ordea, ukatu egiten zuen esandako guraso taldeen bitartez lortutako informazioa.

Egoera aztertu ondoren, eta azaldutako arazoa kontutan harturik, Ararteko hau harremanetan jarri zen berriro bai Lurralde Ordezkaritarekin, bai talde salatzailearekin, eta bi aldeen arteko bilera bat egiteko ideia azaldu zion, Arartekoak bere burua eskeini zuelarik berari dagokion zereginerako, bi aldeek hala nahi izanez gero.

Alde biek onartu zuten proposamena, eta bilera Hezkuntza Ordezkaritzan burutu zen.

Esandako guraso taldeak idazki bat bidali zion Arartekoari bileraren emaitzaren berri emateko; ondoan datozenak, idazki horretako zati batzuk dira:

“Arabian integrazio egitarauak izan dituen lorpenak aitortzen ditugularik, azaldu genuen geure betebeharra dela legeek eta integratzearako arauak proposaturiko helburuak lortzen ez direnetan, kasu horiek salatzea.

Hezkuntzako ordezkariek gure eskeintza onartu ondoren, aldi berean halako bilera batzuk egitea erabaki zen, haietan gure ustez gai honetan gertatzen diren akatsak azaltzeko, eta elkarren artean irtenbide batera iristeko.

Onuragarria erizten diogu bileraren ondorioari eta eskertzen dizugu kasu honetan egin duzun arartekaritza; orobat, azaldu nahi dizugu arazo hauen benetako irtenbideetara iritsi ezean, salaketaren bidetik jarraituko dugula”.

Aldi baterako irakasleei ordezkapenen berri emateko prozeduraz (830/89)

Fisika eta Kimika lizentziatu batek, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan 88-89 ikasturterako ordezkoen zerrendan sartua zegoenak, Hezkuntza, Uni-

bertsitate eta Ikerketa Saila salatu zuen aldi baterako irakasle gisa ordezkapena egiteko deitu ez ziolako puntuaketa hurrenkeraren arabera hala zego-kionean.

88-89 ikasturtea igarota, harriturik ordezkapenak egiteko deitu ez zio-lako, kexaduna Ordezkaritzara joan, eta bertan adierazi zitzaion telefonoz deitu ziotela ordezkapen bat egiteko, baina uko egin ziola, eta zerrenda ba-rematu bat azaldu zitzaion, haren izenaren ondoren "renuncia" hitza azal-zen zuena.

Oker horren ondorioz, lanik egin eta Ordezkaritzarekin bere lehen lan harremana eduki ezin izateaz gain, zerrenda barematu berrian guztirako puntuazio gutxiagoz agertu zen 89-90 ikasturterako, eta, beraz, aurreko ikasturtearen aldean atzeragoko postuan.

Gauzak zertan ziren ikusita, erreklamazioa aurkeztu zion Hezkuntza Lurralde Ordezkaritari, oker hori eta hark eragindako kalte guztiak zuzen-tzea eskatzeko. Eskabidea ukatu zitzaionez gero, goradeia egin zion Hez-kuntz Administrazioiko Sailburuari, baina hura ere ukatua izan zen. Ebaz-pen bien funtsezko argudioa kexadunaren ustezko eta frogatu gabeko ukoa zen.

Erakundeak argitasunak eskatu zizkion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari kexaren gaiaz, irakasleei ordezkapenen berri emateko era-biltzen den bideaz eta tramite hori betea zela frogaturik ote zegoen.

Hezkuntza Sailburuak bidalitako erantzunean jakinerazi zitzaigun ukoa gertatua zela frogatzeko modurik ez zegoelarik, interesatuaren eskaria onar-tzea erabakia zuela Sailak, ordezkapenak eginda egongo litzatekeen pos-tuan berriz jarririk.

Alabaina, Ararteko honek gomendio bat egin zion Hezkuntza, Uniber-tsitate eta Ikerketa Sailburuari, Sailak deitzeko edozein bide erabilita ere, bide horrek beti berma dezan jakinerazpena egin dela, eta interesatuak jaso ere egin duela.

Erreklamatzaileri gure gestioen berri emanda, espedientea artxibatu egin zen.

Irakas lan bat baino gehiago egin eta osagarri bereziaren bakartasunaz (57/90)

Biasteriko Batxilergo Institutuko irakasle batek, mintegi buru eta tutore lanak egiten zituenak, kargu horietako bakar baten osagarrizko dirusari be-rezia jasotzen zuela eta horrekin ados ez zegoela adierazi zuen.

Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saitetik ar-gitasunak eskuratu eta azaldutako agiri guztiak aztertu ondoren, ikusi zen, alde batetik, kexadunaren derrigorrezko lanorduak ez zirela gehiago bi ze-reginetan aritzeagatik, eta, bestetik, legezko oztopo bat zegoela bi osaga-riak jasotzeko.

Tutoretzan, mintegi buru lanetan, edo bi zereginetan batera aritzen di-ren irakasleen lanorduak berdinak dira —astean bost ordu—, ikasturte hasie-ran Langilego eta Eskola Zentruen Gestiorako Zuzendaritzek 1989-90 ikas-turterako plazaratutako zirkularren arabera.

Zirkularrak 1.1.3.a eta 1.1.3.b puntuetan finkatzen zuen irakasleek tutoretzan edo zuzendaritzaz kanpoko postuetan aritu beharreko gutxienezko denbora, baita mintegi buru lanetarakoa ere: "...gutxienez astean bi ordu goardia egiteko, eta astean gutxienez ordubete mintegirako, sail edo azpisailerako, bi kasuetan. Gainera, tutoreek astean gutxienez bi ordu edota kasu berezi bakoitzean ezarritako orduak eman beharko dituzte tutoretza lanetan, eta mintegi buruek, aldiz, gutxienez bi ordu eman beharko dituzte astean alor berezi horren lanetarako".

Geroago, 1.2.3. zatian adierazten zuenez "ezinbesteko premiagatik irakasle batek tutoretzan eta mintegi, sail edo azpisail bateko buru lanetan aritu behar duenean aldi berean, goardiako bi orduak bigarren postuko zereginetarako erabiliko dira". Horren arabera, kexadunak bi zereginetan aritzeko derrigorrezko lanorduak ez dira haietako bakar batenak baino gehiago.

Osagarritzko dirusari berezietan dagokienez, herri-langileen ordainkizunei buruzko arautegiak (Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legeak, uztailaren 6koa; Erkidego Autonomoko Administrazioarentzat lanean ari diren Unibertsitateaz kanpoko funtzionari irakasleen ordainkizunei buruzko 177/1990 Dekretuak, ekainaren 26koa) lanpostu bakoitzari dagokion osagarri berezia bat bakarria izango dela ezartzen du. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak osagarri berezi bat besterik ezin dio ordaindu pertsona bakoitzari; horiek horrela, zeregin bat baino gehiagotan aritzen diren irakasleen kasuan, dirukopuru gehienekoa bakarrik ordaintzen du.

Behin-behineko irakaslegoa eta lan eskeintza publikoen bidez eginiko lanpostu deialdiez (59/90)

Behin-behineko egoeran zeuden OHOk bi irakaslek, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, onartu zen arte kontratu iraunkorra zutenek, beren lan egoera salatu eta lan eskeintza publikoen bidez eginiko lanpostu deialdietarako inolako itxaropenik ematen ez zitzaizela eta kexu ziren.

Dokumentazio egokia aztertu ondoren, Arartekoak idatziz jo zuen interesatuengana, beren lan egoerari aplikatu beharreko arautegi-markoa zein zen adierazteko, hau da, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea, uztailaren 6koa.

Esandako lege horrek ezartzen duenez, irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoaren berran-tolakuntzak finkatzen dituen kidego eta eskalei erreserbatutako lanpostuetan behin-behingo moduan aritzen diren langileek lehiaketa-norgehiagoka libre bidez eskuratu ahaliko dute funtzionari edo lanari izaera, haien zereginak nola sailkatu diren arabera. Lehiaketa-norgehiagoka horretan, gainera, langile horiek edozein administrazio publikotan egindako lanak baloratuko dira, gehienez ere norgehiagoka-aldian lortutako puntuazioaren ehuneko berrogeitabostez. Balorazio hori legea indarrean sartzen denetik hasita egiten diren lan eskeintza publikoetatik lehenengo hiruetan aplikatuko da.

Orobat, haren arabera, lehenagoko lerroaldiak aipatzen dituen deialdian funtzionari edo lanari izaera eskuratzen ez dutenek Erkidego Autonomoaren Administrazioan lan egiteari utziko diote azken deialdia erabakitzen denetik hasita gehienez hiru hilabete igaro baino lehen.

Legeak beste zerbait erasten du, alegia, lehenago esandakoa burutzen ez den bitartean, behin-behineko langileek ordura arteko lanpostuetan jarraituko dutela.

Ikasturtea bitartean bertan irakasle bat ordezkatu eta lekualdatzeaz (78/90)

Gabriel Miró Eskolaurreko Ikastetxeko ikasleen guraso talde baten izenean, Gasteizko emakume batek kexa idazki bat zuzendu zion Arartekoari beren seme-alaben irakasle bat ikasturtea bitartean bertan ordezkatu eta aldatu zutela salatzeke, gertakari horrek umeei kalte moral eta pedagogikoa ekar diezaikeelako. Era berean, ikasleek ikasturte hasieran izandako irakasle berberarekin ikasturtea amaitu ahal izatea eskatzen zuen.

Erakundeak argitasunak eskatu zizkion Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Iritsitako txostenak zioenez, egia zen irakaslea ordezkatu zutela ikasturtea hasitakoan. Arabako Lurralde Ordezkaririk 1989ko irailaren 13an hartutako erabakiz, irakasle hura ikastetxe berean B ereduko tutoretzaz arduratzeko edo A ereduan euskara irakasteko izendatua izan zen. Berak gora deia egin zuen erabaki horren aurka, euskaraz irakasteko edo euskarazko egitarauak aurrera eramateko eskatzen diren baldintzak betetzen ez zituelakoan. 1990eko urtarrilaren 18an, ezarritako errekurtsoa onartu, eta irakaslea bere lehengo postura itzuli zen.

Administrazioaren aldetik agintekeriarik edo zabarkeriarik ikusi ez zenez gero, denbora guztian legeari jarraituz eta prozedurazko bideei meneginez jokatu bait zen, gure txostena erreklamatzailerari ezagutarazi eta espediente artxibatu egin zen.

Eskolarako garraioaren antolakuntzaz (366/90)

Gernika-Lumoko kontsumitzailearentzako udal bulegoaren bitartez, Ararteko Erakunde honetara kexa idazki bat iritsi zen, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskolarako garraioa dohainik egiteko eskabidea ukatu zuela salatzen zuena.

Ibarrangeluko senar-emazte batzuk ziren, adin gutxiko hiru seme-alaba zituztenak; lantegi batean txandaka lan egiten zuten gero, haurtzaindegi eta jantegi zerbitzua eskeintzen zuen zentru bat behar zuten.

Beren inguruan horrelako ikastegirik ez zegoela eta, senar-emazteek umeak Gernikako Barrutia herri-ikastetxean matrikulatu eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskolarako garraioa dohain izateko eskatzea erabaki zuten.

Kexaren gaia aztertu ondoren, Ararteko honek jakin zuen ez dagoela arautegi orokorrik eskolarako garraioaren antolakuntzari buruz, eta horre-

gatik Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo zuten Sail horrek eskolarako garraio zerbitzua dohainik emateko erabiltzen dituen erizpideak zeintzuk diren jakiteko. Jaso genuen txosteneko pasarte batzuk aldatu ditugu hona, interesgarriak direlako uste bait dugu:

“ (...) Lehendabizi, aipatu behar da eskolarako garraioaren airtopena ez dela egiten, hasteko behintzat, banaka.

Herrietan batez ere barreiatuta dauden biztanleria multzo batzuen beharrak betetzeko dauden halako ikastegi batzuen kokapenagatik dela, edo Administrazioaren jardueraren araberako hizkuntz ereduaren kontzentrazioagatik dela, batzuetan gertatzen da umeak dohainik eskolatzeko eskeintza bete ahal izatearren, ikasleak ezinbestez etxetik ikastegira bidaia egin behar duela ikasi ahal izateko edota sistemak eskeintzen dituen hizkuntz ereduetao batean edo bestean ikasteko, eta osagarrizko kostu horretarako laguntza eman behar dela, bai hura ordainduz, bai, kausirik onenean, zerbitzu hori Administrazioak berak beteaz, dohainik ikasteko printzipioa egiatan mamituko bada.

Planteiamendu honi jarraituz, esan daiteke eskolarako garraioa ez dela eskolatzeko ohizko eskeintzaren plus bat, irakaskuntzaren dohaintasuna egiazkoa egin nahi duen osagarrizko zerbitzu bat baizik, bereziki ikasleak, eskolara joan ahal izateko, ezinbestez bidaia egin behar izaten duenerakoa.

Hori hala izanik, baliabide publikoen gestioan ekonomiaz eta eraginkortasunez jokatzeko erizpideen arabera, komenigarria da printzipio horri eustea, bidaia ezinbestez egiteko behar edo obligazioan oinarritzen bait da, ibilbideen aldaketagatik edo garraio eskeintza ugaltzeagatik nahitanahiez gertatuko litzatekeen arrazoigabeko gastu igoera eragozteko, berdintasun printzipioa ez kaltetzearren.

Kexadunaren kasua ez dago eskolarako garraiorako eskubidea ematen duten baldintzen artean.

Horregatik, haren eskabidea, bidezkoa izan arren, ezin da besterik gabe onartu, eta ezin ditu alda erazi txosten honen bitartez azaldu nahi izan diren jokamoldeen erizpide objektiboak”.

Ararteko honen eritziz, batzuetan desiragarria litzatekeen arren, Administrazioak ezin du jokatu erizpide objektibo edo zirkunstantzialei jarraituz, hauek guztiz baliozkoak izanagatik ere, eta zertzelada orokor eta objektibotara mugatu behar du, irtenbide egoki bat eman ahal izateko, neurri berean ez izan arren kasu berezi bakoitzean.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren jokabidean inolako okerririk antzeman ez zenez gero, Ararteko honen eritzia alde biei jakinerazi eta espedientea artxibatu egin zen.

Ikastegia banatzeko arazo batez (448/90)

Irail erdian, mutil gasteiztar batek telefonoz deitu zuen Ararteko Erakundera, matrikulatzeko eskabidea behar zen epean eta moduan aurkeztu

arren, eta, ezinbesteko baldintza izanik, berak nahiago zituen hurrenkeran hiru ikastegi aukeratu zituelarik, artean ikastegi bat bera ere banatu ez ziotelako ikasten jarraitzeko. Kezka horri, gainera, arazo bat gehitu behar zitzaion, hots, kexadunak ikasteko beka bat eskatu nahi zuela, eta horretarako matrikularen ziurtagiria aurkeztu behar zuela, baina hori egiteko epea amaitzen ari zitzaion goian azaldutakoagatik.

Hain epe laburra eta arazoaren nondik norakoak kontutan harturik, Arartekoa harremanetan jarri zen berehala Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Arabako Lurralde Ordezkariekin.

Gure gestioaren ondorioz, gaztea onartu zuten ikastegi batean, eta epearen barruan egin bete izan zuen bere matrikula.

Auzoetako eskola txikiez (457/90)

Zornotzako udalerriak irakaskuntza alorrean duen eskeintza Larrea ikastegi publikoan oinarritzen da, honek, hiru hizkuntz ereduak eta garraio eta jantegi zerbitzua eskeintzen dituelarik, udalerriko ikasleak biltzeko zentru gisa funtzionatzen bait du.

Ikastetxe horretaz gain, badira eskola batu batzuk (Astepe, Euba, Barroa eta Etxanon), lehengo auzoetako eskola txikiei dagozkienak. Herri inguruek bizirik, kemenez eta beren nortasun eta berezitasunei eutsiz jarraitu behar dutela defendatzen dutenentzat, eskola txikiak funtsezko oinarri bat dira, eta haiek desagertuz gero, umeak beren sustraiak galdu eta, ondoren, herri ingurua uztera eramaten ditu.

Arartekoari zuzendutako idazki batean, Etxanoko Eskola Ikasleen Guraso Elkarteak adierazi zuen 88-89 ikasturtea bitartean Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzari Etxanoko eskolan 2. zikloa edo erdiko zikloa jartzea eskatu ziotela, ikasleen OHOk ikasketak egiten jarraitzerik izan zezaten ikastegia aldatu beharrik gabe.

Joan den irailaren 10ean hasi ziren eskolak, Hezkuntza Ordezkaritzaren idatzizko erantzunik jaso ez arren, eta horregatik guraso elkarteak, maistra erdiko zikloa emateko prest zegoenez, harekin ados jarri eta eskolan erdiko zikloa jartzea erabaki zuen, antzeko ikastegi batzuetan izandako esperientzia onuragarriak kemen emanik.

Zenbait egun geroago, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren erantzuna iritsi zen, 2. zikloa hasteko baimena ukatzen zuela zioena.

Erakundea harremanetan jarri zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, zikloa zabaltzea ukatzeko zein erizpide erabili ziren jakiteko asmoz.

Hezkuntza Sailak bere txostenean esaten zuen Etxano herri-ikastetxeko ikasleak Larrea herri-ikastetxera aldatzeko alternatibak bi ikastetxeetan maila desberdinak biltzea zekarrela, eta horrek ez zirudiela arrazoizkoa irakaskuntzaren antolaketaren ikuspegitik begiratuta. Beste alde batetik, Etxano auzoa Larrea herri-ikastetxetik 3,5 kilometrotara dago, eta bada, gainera, ikasleak auzo horretatik ikastetxera eramateko garraio linea bat. Azkenik,

Larrea herri-ikastetxea hobeto hornituta dago, eta irakaskuntzarako baliabide gehiago eta hobeak dauzka.

Alde biek azaldutako dokumentazioa aztertu ondoren, Arartekoak ikastegien zuzendaritzari eta gestiozintzari buruzko erizpideetan alde nabaria zegoela ikusi zuen. Hala ere, erizpideak desberdinak izanda ere, hori ez da inolako agintekeriarik Administrazioaren aldetik, eta, beraz, arazoa ez da sartzetan Erakunde honen zereginen artean. Aitzitik, Arartekoak uste du bazuetan Administrazioak zertzelada orokorretara mugatu eta, beraz, ekonomiaz eta eraginkortasunez jokatzeko erizpide objektiboak heldu behar diela, eman nahi den zerbitzuaren onerako.

Ikastegia banatzeko erizpideez (205/90)

Gasteiztar batek, bi urteko alaba bat Izarra-La Estrella ikastegian zuenak, B ereduko eskolaurreko bi zentru eskatu zituen, nahiago zituen hurrenkeran, 90-91 ikasturterako matrikularako aurreinskripzioa egin zenean. Neskatoa ez zuten onartu hautaturiko zentru horietan ikasleentzako posturik ez zegoelako, eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beste hirugarren bat banatu zion, hirialde berean eta hizkuntz eredu berekoa.

Pertsona horrek kexa idazki bat aurkeztu zion Arartekoari, haren ustez berak aukeratua ez zuen ikastegi bat inposatzen ziolako aipatutako Sailak, aurreko ikasturteko zentru berean jarraitzeko aukera eman gabe.

Arazoa aztertu, eta ikusi zen, alde batetik, unibertsitate mailaz kanpoko ikastegien ikasleen onarpena 1990eko otsailaren 5ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako agindu batek araupetzen duela (EHAA, 90-02-28); agindu horren lehen artikulua ezartzen duenaren arabera, zentru berean ikasturte bat baino gehiago egiteko ez da onarpen prozedurarik errepikatu behar. Aitzitik, bai da beharrezkoa zentrua aldatzen denean, eta horixe da kexadunak egin zuena Erraimun Olabide eta Ikas-bidea zentruetan postua eskatzean, nahiz eta azkenean alaba ez zuten onartu eskabide ugari jasoak zeuzkatelako.

Beste alde batetik, Arabako Hezkuntza Ordezkaritzaren preinskripzio atalean adierazi zitzaigun kexadunaren alabaren ikastegia izandako Izarra-La Estrella zentruak bi alde berezi zituela: udalaren haur eskola, alde batetik, dagokion urtean bi urte betetzen dituzten umeak hartzen dituena; eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko eskolaurrea, 3 eta 5 urte bitarteko umeak hartzen dituena.

Bi zentru horiek, beraz, elkarrengandik bereziak dira eta bi erakunde desberdinen mende daude, nahiz eta eraikin berean kokatuta egon, eta beharbada horixe izan zen kexaduna preinskripzioa ez egitera eraman zuen arrazoa.

Azkenik, eskabideak onartzean, lehenago aipatu dugun aginduak ezarritako erizpideei jarraitzen die Hezkuntza Ordezkariek, lehentasuna eman ez eskaria lehenago egiten dutenei. Horrela, Izarra-La Estrellako eskolaurre mailako postuak eskabidea egin zuten lehenek eskuratu zituzten, haren eraginez, gainerako eskabide guztiak, bai eta epez kanpo egindakoak ere,

eredu bereko antzeko zentru hurbilenetako batera bideratu behar izan ziren.

Ikasturtea hasi eta gero matrikula ezeztatu izanaz (52/90)

Erakunde honi kexa bat helarazi zion Sarrikoko Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultateko Enpresagintzako laugarren urtean matrikulatuta zegoen ikasle batek, ikasturtea hasi ondoren adierazpen bat jaso zuelako, 1984-85 ikasturtean ikasgai bat bera ere gainditu ez zuela eta matrikula indarrrik gabe uzten zitzaiola zioena.

Esandako ikaslea 1989ko urrian matrikulatu zen Sarrikoko Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultatean, lehen ikasturtean, baina ez zuen ikasgai bat ere gainditu. Geroago, Enpresa Zientzietako Eskolan jarraitu zuen ikasten, eta diplomatura eskuratu ere bai.

1989ko urrian matrikula egin zuen Sarrikoko Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultateko Enpresagintzako laugarren urtean jarduteko. Matrikula onartu zioten, eta, horrela, egunero joaten hasi zen klaseetara, eta normaltasun osoz jardun zen ikasturtean.

Alabaina, 1989ko abenduaren 29ko dataz, fakultateko idazkaritzaren adierazpen bat jaso zuen, 1.984/85 ikasturtean matrikulatuta egonik ikasgai bat bera ere gainditu ez zuenez gero, matrikula ezeztaturik zuela zioena.

Erabaki horren aurkako errekurtsua aurkeztu zuen, eta errekurtsu hori Unibertsitatearen Errektorearen azken erabakiaren zain zegoen oraindik kexadunak Erakunde honi bere kexa-idazkia bidali zionean.

Arazoa aztertu ondoren, Ararteko honek ondoretzat atera zuen idazkaritza-buruaren eta fakultateko idazkariaren izkribuetatik matrikula ezeztatzeke motiboa ekainaren 16ko 8/76 Erret Lege-Dekretuaren 2.3 artikuluan oinarritzen zela. Izan ere, arau horrek honako hau ezartzen du:

“Lehen ikasturteko ikasle batek ikasturte bateko ekain eta irailko deialdietan ikasgai bat bera ere gainditzin ez badu, azterketa ez aurkezteko zuri bide onargarririk adierazi gabe, matrikulatuta egon den fakultate edo eskolan ikasten jarraitzerik ez du izango. Alabaina, behingoz behintzat, beste unibertsitate zentru batean ekin ahalko dio ikasketei. Eta azken zentru horretan ekain eta irailko deialdietan lehen ikasturteko asignaturarik bat ere gainditzin ez badu, orduantxe bakarrik ezingo du aurrerantzean unibertsitate mailako ikasketarik egin. Unibertsitatearen estatutuiek lehen ikasturteko ikasleentzat lehenago adierazitako karrera bakoitzeko bigarren eta hirugarren urteetako ikasleei ere aplikatzea ezarri ahalko dute.”

Ararteko honen eritziz, gogoratu beharrekoa zen arauak beren izpiritu eta helburuari nagusiki begiratu aplikatu behar direla. Hari horretatik, gure aburuz, fakultateak arau horretaz egindako interpretazioa murrizgarriegia zen, eta ez zion heltzen arauaren helburuari, ikasleak heziketa jasotzeko duen eskubideari kalte larria eragiten ziolarik. Konstituzio aurreko araua

izanik, Konstituzioak aitortzen duen heziketa jasotzeko eskubidea garantiatzeko zentzuan interpretatu beharko zen.

Guzti horregatik, Ararteko Erakunde honek gomendio bat egin zion Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitateko Antolakuntza Akademikorako Errektoreordeari, alegia, arauak interpretatzean heziketa jasotzeko eskubide konstituzionalaren aldeko interpretazioa emateko ahaleginak egin daitezela. Halaber, azpimarratu genuen kontutan hartu behar zela konponezinezko kaltea egingo litzaiokeela ikasleari, ikasturtea galduko lukeelako, horrek daramatzen ondorio guztiekin, eta dena halako arau bati oso interpretazio estu eta murrizgarria egiteagatik, ikaslearen nahiaren aldeagoko interpretazioa ere egin zitekeen arren.

Handik denbora gutxira, kexadunak berak jo zuen berriro Erakunde honetara Antolakuntza Akademikorako Errektoreordearen erabakia haren errekurtsoren aldekoa izan zela jakinerazi, eta Erakunde honen partaidetza eskertzeko:

“Uste dudanez nere arazoaren konponketan izan duzun partaidetza funtsezkoa izan dela, nere eskerrik beroenak eman behar dizkizut... Partaidetza hori gertatu ezik, nere arazoa galdurik egongo zen Administrazioaren galmendian.”

Beka bat ukatu izanaren kontrako kexabideaz (141/90)

Bermeoko biztanle batek Arartekoari adierazi zion ezinkonpondu bat zuela Euskal Herriko Unibertsitatearen Beka Departamenduarekin, guraso bietatik umezurtza izanik eta, beraz, gurasoen errenta aitorenaren fotokopiarik aurkezterik ez zuenez gero, beka bat jasotzea eragozten ziotelako, fotokopia hori eskatzen bait da beka jasotzeko eskatzen diren dokumentuen artean.

Kexadunak Euskal Herriko Unibertsitatearekin zuen adostasunik ezaren funtsa gurasoak hil ondoren bere arreba eta beronen familiarekin bizi denez gero, berauen errenta aitorenaren eskatzean datza; izan ere, hiritar hau ukatu egin da horretara, eskatzen zaiona legearen arabera ez delakoan.

Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordearekin halako gestio batzuk burutu eta gero, auzia onez konpondu zen, erreklamatazaileak Arartekoari jakinerazi dionez, eskatua zuen beka eman ziotelako azkenik.

Institutu batean ikasteko postua ukatu izanaz (458/90)

Barakaldoko biztanle batek kexa bat azaldu zigun hezkuntza alorreko administrazioak ukatu ziolako haren seme hiri hartako institutu batean ikasteko postua. Uko horren arrazoiak gurasoen dirusarrerak —bi ezkontideek lan egiten bait dute— lanbidearteko gutxienezko soldata baino lau aldiz handiagoa izatea da, horixe delarik Hezkuntza Sailak, Heziketarako Eskubidearen Funtsezko Legea garatzearen, 1990eko otsailaren 5ean emandako aginduak ezartzen duen baremua.

Arartekoak Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan egin dituen gestioen ondorioz ateratzen da —eta halaxe adierazi zaio kexadunari— kasu honetan ez dela inolako bazterkeriarik gertatu. Lehendabizi, semeari beste ikastegi bat ziurtatu zaiolako, eskatutako bera ez izan arren; eta, bigarrenik, alderdi ekonomikoalegezko arauetan kontutuan hartua dagoelako, hain zuen ere dirubiderik ez izateak heziketa jasotzea eragotzi ez dezan.

Nolanahi ere den, hezkuntz alorreko administrazioari gogorarazi egin zaio Prozedura Administratiboaren Legearen 94.3 artikulua, “ustezko ukapenak ez duela baztertuko Administrazioak erabaki adierazia emateko duen beharra” ezartzen bait du.

Ikasgela bakoitzeko ikasle kopuru gehiegizkoagatik Bizkaiko Ordezkaritzarekin izandako auziaz (485/90)

Durangoko biztanle batek bere protesta azaldu zigun lurretan (Bizkaian) dagoen haur eskola bateko D ereduko gela batean ume gehiegi —35— zegoelako; protestarekin batera, umeen gurasoak eta eskolako irakasleak gela bitan zatitu eta irakas-lerro pare bat ezartzearen aldekoak zirela ere adierazi zuen.

Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzarekin egoki ziren gestioak egin eta gero, Ararteko honek Administrazioaren aldetik inolako jarrera okerrik egon ez dela eritzi dio, esandako akatsa gurasoen beren jarrerari zor bait zaio.

Izan ere, 1.990/91 ikasturterako ikasleak matrikulatzeko epea hasi zenez geroztik, Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak adierazi zion aipatutako eskolari ikasleak ikastegietan onartzeko ezarritako legezko arauak bete behar zirela. Ikastegi hark arau horiek bete ez izatearen ondorioz sortu zen kexadunak salatzen zuen egoera, dokumentuz frogatu ahal izan denez.

Euskal Filologian diplomaturiko irakasleak gaztelania ikasgaia emateko gaitzeaz (405/90)

Arabako OHOk irakaslegoaren Prestakuntzarako Unibertsitate Eskolako zuzendariak kexa bat bidali zion Erakunde honi, eskolaurre, oinarrizko heziketa orokorra eta heziketa bereziko ikastegi publikoetako lanpostuak betetzeko bidea arautzen duen uztailaren 14ko 895/89 Erret Dekretuaren mamiarekin ados ez zegoela adierazteko.

Kexadunak aditzera ematen zuen Euskal Filologia adarrean diplomaturiko OHOk irakasleak ezin zirela gaitu, Erret Dekretu horren arabera, OHOk lehen etapan gaztelania ikasgaia emateko, irakasle horiek jasotako irakaskuntzak horretarako guztiz trebatzen zituelarik ere, zalantzarik gabe.

Era horretara, kexadunaren arabera, konparaziozko kalte bat egiten zitzaien Euskal Filologia adarrean diplomaturiko OHOk irakasleei, Frantses edo Ingeles Filologian diplomaturikoen aldean, hauek bai gaituta bait zeuden gaztelania ikasgaia emateko.

Uztailaren 14ko 895/89 Erret Dekretua Erkidego Autonomo honetan eta Nafarroakoan ordezeko ezarpenekoa izanik, espedientea Estatuko Defensor del Pueblo-ri bidali zitzaion aztertu eta zegokion txostena egin zezan.

Hala ere, Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 16. artikulua araberak, kearen mamia Erkidego Autonomo honen eskumenekoa zenez gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eman zitzaion haren berri, horri buruz zer nolako jarrera zeukan jakiteko asmoz.

Sail horrek luzaturiko txostenak zioenez, OHoko irakasle guztiak, eta haien artean Euskal Filologia adarrean diplomatutakoak ere bai, gaituta daude OHoko hasierako eta erdiko zikloko edozein jakintza alorretako irakaskuntzak emateko; beraz, ez zetorren bat kexadunarekin, honek esaten zuenean Euskal Filologiako diplomatuek ezin zutela irakatsi lehenago OHoko lehen etapa zeritzan eta gaur egun hasierako eta erdiko zikloetan banaturik dagoen horretan.

Gaztelania eta frantsesa, eta gaztelania eta ingelesa espezialitateetarako gaitutako irakasleen aldean ustez gertatzen zen konparaziozko kalteari dagokionez, Sailaren eritziz irakasle horiek ezin ziren aritu gaztelania hizkuntza eta Filologia espezialitateko lanpostuetan berez, baizik eta beren espezialitateari zegozkionetan bakarrik, haren barruan bai eman zezaketelarik gaztelania hizkuntzari buruzko irakaskuntzarik.

Gainera, OHoko Euskal Filologia adarrean diplomaturiko irakasleak euskal hizkuntza espezialitatearako gaituta egoteak ez du esan nahi gaztelania ikasgaia ezin eman dezaketelarik beren espezialitateko lanpostuan egokitzen zaien irakastorduen osagarri moduan.

Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle faltak sortutako arazoak

UPV-EHUko Filologia eta Geografia-Historia Fakultateko ikasle talde batek kexa idazki bat aurkeztu zion Erakunde honi ehundaka izenperen abalaz, fakultate horretan, euskara adarrean batez ere, zegoen irakasle falta eta, orobat, unibertsitate mailako prestakuntza jasotzeko beharrezkoak diren kultur eta akademi ekintzak aurrera eramateko ezintasuna salatuz.

Araza horiei irtenbidea emateko eman beharreko pausuak egiteko eskatzen zuten, eta, zehazkiago, "falta diren irakasle guztiak berehala kontratatu eta Unibertsitatearen funtzionamendua normaltzeko behar diren guztiak" egiteko.

Irakaskuntz agentariekin zegoen gestioak egin ondoren, ikusi zen azaldutako arazoa UPV/EHUko Filologia eta Geografia-Historia Fakultatearen esparrua gainditu ezezik, Euskal Herriko Unibertsitate osora zabaltzen zela.

Arazoa larria zen Filologia eta Geografia-Historia, Arte Ederren, Gizarte-Zientzien eta Informazio-Zientzien Fakultateetan batez ere, haietan irakasle faltak sortutako arazoak askoz ere erantzun premia handiagoa bait zuen.

Negoiazio trinko batzuk hasi ziren arazoak ukitutako alde batzuekin eta besteekin, hau da, ikasleekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin.

Lehen bilera bat egin zen ikasle koordinakundeko kide batzuekin, arazoan sartutako fakultateen ordezkari gisa, eta gatazka une horretan zertan zen eta beren erreibindikazioen alde zer nolako ekintzak burutuko zituzten ere eman zitzaigun aditzera.

Ararteko Erakundeari konfidantza aukera bat emateko eskatu zitzairen ikasleen ordezkariari, Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren artean arartekaritza lanak egin ahal izateko, eta, horrela, ikasleen asanbladei 48 orduz mobilizazio deialdia atzeratzeko eskaria egin ziezaietela eskatu zitzairen.

Proposamena onartu zuten ikasleek.

Orobat, bilera bat antolatu zen Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearekin, eta hartan beronek jakinerazi zigun Unibertsitatea zertan zegoen bai eta irakasle-langile zerrendak osatzeko zein bide jarraitu ohi den.

Beste alde batetik, beste bilera bat egin zen Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ordezkariarekin, eta hartan gatazkari zer nolako irtenbideak eman zekizkiokeen eztabaidatu zen, arazoan sartutako alderdien arteko elkargunea topatzeko ahaleginak eginez.

Aldi berean, ikasleen ordezkariarekin harremanetan jarraitu eta ordura arte egindako gestioen berri eman zitzairen.

Azkenik, Ararteko Erakundeak eta Hezkuntza Sailak agiri batean finkatu zituzten ordura arte izandako bileretan lortutako akordioak:

Esandako izkribuak honako hau zioen hitzez-hitz:

“1. Aurtengo aurrekontu-urtealdirako onartzen da irakasle lagun gehiago hartzea, 30 gehienez ere, ikasketak bermaturik ez dauzkaten Ikasle taldeentzako irakasle postuak betetzeko eta ikasle kopuruan gorakada handia izandako zentruetarako (dagozkion Departamentuen bidez).

2. Urteko lehen hiruhilabeteko honetan, Unibertsitateak personal kostuentzako baimena eskatuko dio Jaurlaritzari, kostu horietan zabaltze honi dagokiona ere sarturik. Onartzen duen I atala Unibertsitatearen sarrera-aurrekontuaren kontura joango da.

3. Aurtengo aurrekontu-urtealdian zehar, eta nolana ere Unibertsitatearen aurrekontuak eta langilego kostuak onartu ondoren, Departamentuak ahaleginak egingo ditu hogeitamar irakasle lagun horien kontratazioaren kostua Gobernuak har dezan bere gain.

4. Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko batzorde bat osatuko litzateke, Arartekoaren partaidetza, Unibertsitateko langilegorako plangintza ikertzeko.

5. Plangintza horrek oraingo langilego-zerrenda berregitura-tu beharko du, egon daitezkeen desorekak zuzendu, postu hutsak amortizatu eta kontratazio gehiago egiteko dauden premia larriak zehazteko”.

Hezkuntza Sailarekin lortutako akordio hori Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoreari bidali zitzaion Unibertsitateko Aginte Batzarraren eritzipe-
pera jar zezan 1990eko urtarrilaren 24ean egin zen aparteko bileran.

Aginte Batzarraren bilera horretan honako erabaki hau onartu zen:

“1. Zentruen premiazko txostenen arabera beharrezkoak diren irakasleak kontratatzea, C.P.U. delakoak postu bakoitza banan-banan eta bakoitzaren ezaugarriak aztertu, eta Arte Ederren, Filologia eta Geografia-Historia, Gizarte-Zientzien eta Informazio-Zientzien Fakultateetako dekanuen eritzia jaso ondoren.

2. C.P.U.k hogeitamar postuak betetzeko geratzen diren gainerakoei buruzko proposamena egitea Aginte-Batzarraren eritzipe-
ra jartzeko, dagoen informazioaren arabera eta zentruen eritzia jaso ondoren.

3. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatu dituen gainerako puntuak onartzea, Bitariko Batzordea ahalbait lasterren lanean has dadila eskatzea eta UPV-EHUren egoera ekonomiko larria dela eta aurrekontuak zabaltzeko beharra dagoela ohartaraztea”.

Egun hartan bertan Erakundeak jakinerazi zien ikasleen ordezkari-
gauzak zertan ziren.

Lortutako akordioaren puntuak zehaztearren, bilera bat egin zen Hezkuntza Sailaren eta Ararteko Erakundearen artean, Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari batzuk ere han zirela, eta hartan Errektoreak UPV-EHUaren Aginte-Batzarraren bileraren berri eman zigun.

Beste alde batetik, istilua orduan zertan zen aztertu eta hitzartutako Bitariko Batzordearen helburuak eta edukia eztabaidatu ziren.

Arazoan sarturiko fakultate batzuetako dekanoeekin eta ikasleen ordezkari-
ekin izandako bileretan ikusi zen egoera bere onera joaten hasia zela ikasgeletan.

Azaldutako kexa honen konponketan ez zen bilatu arazoari unean uneko irtenbide bat ematea; aitzitik, istilua amaitu ondoren Unibertsitatearen langilegoa xeheki, seriotasun eta zorrotzasun osoz aztertzea bilatzen zen, hartara, adierazitako Bitariko Batzordearen bitartez, langilegoa arrazionalizatu eta Unibertsitatearen benetako beharren arabera moldatu ahalizateko.

3.5. KULTURA, TURISMO ETA KIROLAK

A) Sarrera

Alor honetan aurkeztu diren kexak 11 izan dira, guztien artetik % 3, alegia. Honela banatu dira:

– Eusko Jaurlaritza	1
– Aldundiak	8
– Udalak	2

Kultura dela eta jaso ditugun kexak ondare historiko-artistikoaren babesaren ingurukoak izan dira hiru kasutan, horrek erakusten duelarik irau-nerazi beharreko edifizioak eta bestelakoak mantentzeko kezka badagoela gure gizartean. Ildo honetatik, begien bistara ekarri behar interesgarritasun historikoa duten ondasunentzako babes bereziaren eta haien mantenu eta kontserbaziorako kostuaren arteko orekari eusteko zailtasuna, areago partikularrak direnean ondasun horien jabeak, dirutan bezala dedikazioan ere ahalegin handia eskatzen duelarik.

Denbora libreari eta kirolari buruz gero eta interes gehiago badela ere aipatzekoa da, horren froga delarik kultur eta solas instalakuntza eta ekitaldien eske handia, bai eta daudenei eusteko eskaria ere.

Egokia dirudi, beraz, aurrerantzean arreta gehiago emateak bide honetan gizarteak agertzen dituen nahi eta asmoei.

B) Kexen aukeraketa

Bizkaiko Jolas Parkearen itxieraz (94-119/90)

Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak bere 1-2. artikuluan ezartzen duenez, Erakundearen zeregin nagusia hiritarrak euskal Administrazio publikoaren agintekeria eta zabarkerietatik babestea da; hala ere, ez du ahalmenik Administrazioaren ekintzak ezeztatu, indargabetu edo aldatzeko (14. artikulua), ekintza horiek, hiritarren interesen aldekoak ez izan arren, indarrean dagoen lege arautegian oinarritzen eta ezarritako legezko bidetik aplikatzen badira.

Goian esandakoak badu zerikusirik Erakunde honek Bizkaiko Jolas Parkearen itxierari buruz jaso dituen bi kexa idazkirekin, haietan erreklamatazileek Arartekoari laguntza eskatzen bait zioten esandako parkea beriz irekitzea lortu ahal izateko.

Erantzun moduan, Arartekoak aditzera eman zien erreklamatazileei haien eritziarekin bat zetorrela eta haren ustez komunitatearentzat oso atse-denleku interesgarria zela eta zerbitzu garrantzitsua eskeintzen ziola haren inguruan biltzen zen jende ugariari. Honelako zerbitzuak —hala jarraitzen zuten Arartekoaren idazkiak— Euskal Herriaren Autonomi Estatutuan bildutako helburu eta jomugekin bat datoz, Estatutuaren 9-2.b artikulua ezartzen bait du euskal aginte publikoek, beren ahalmenen esparruan, hiritarren bizimodua hobetzera zuzendutako politika bereziki bultzatuko dutela. Beste alde batetik, abiapuntu aldarrikapen honek ekintzatan gauzatu eta mamitu behar du, Euskal Herriko Administrazio publikoek, botua emateko eskubidea duten hiritarrek askatasunez aukeratutako alderdi politikoen ordezkariak osaturik, hartzen dituzten erabakien bidez.

Nolanahi ere, jolas parkearen zerbitzua derrigorrez eman beharreko zerbitzuetatik (ura, hiriko argia, zabor bilketa, kaleen zoladura, etab.) kanpo geratzen da, eta, ondorioz, hiritarrek ez dute zerbitzu horiek ematea esijitzeko eskubiderik, erabaki hori Administrazioaren borondateari bakarrik zor bait zaio.

Hortaz, Arartekoaren eritziz zuzenbidezko estatu sozial demokratiko batean herri-aginteeek hiritarrarentzako zerbitzuak hobetzen eta ugaltzen ahalegindu behar badute ere, bizimodu duina eta haren atsedean denbora egokiro betetzerik izan dezan —eta, ildohonetatik, onuragarritzat jotzen da jolas parke eta antzekoen tankerako zerbitzuak eskeintzea—, Arartekoak ere baditu bere mugak, Erakundea sortzen eta arautzen duen 3/1985 Legeak ezarrita, eta ez du legezko baliabiderik zenbait arazori heldu ahal izateko.

Arartekoaren eritzia Bizkaiko Foru Aldundiaren Diputatu Nagusiari eta Kultura Diputatuari adierazi, eta espedientea artxibatu egin zen.

3.6. LAN ETA GIZARTE-SEGURANTZA

A) Sarrera

Alor honetan sartutako kexak 8 izan dira, jaso ditugun guztietatik % 2,5, beraz. Haien banaketa honelakoxea da:

— Eusko Jaurlaritza	7
— Aldundiak	1
— Udalak	0

Alor honi buruz jaso ditugun ia kexarik gehienak autoenplegua sustatzeko dirulaguntza eskariei emandako ezezkoengatik jaso dira; batzuetan, eskatzaileek jasotako ukoaren arrazoia eskabideak aurkezteko epeak ez betetzea izan da, eta beste batzuetan, aldiz, horrelako dirulaguntzak jasotzeko baldintzak ez betetzea.

Beste alde batetik, nahiz eta Gizarte-Segurantzaren alorreko sailen kontrola 3/85 Legeak Arartekoari emandako ahalmenetatik kanpo geratu, komeni da aipu bat egitea, laburra bada ere, alegia, administratuek izaten duten ezjakintasunak sortarazten dizkien arazoak, haietako askok ez bait dakite beren lan egoerak zertara behartzen dituen Gizarte-Segurantzarekiko.

B) Kexen aukeraketa

Altos Hornos de Vizcaya, S.A.aren komenio kolektiboa ustez legez kontrakoa izateaz (252/89)

Kexadunak bere idazkian Altos Hornos de Vizcayaren komenio kolektiboa ustez legez kanpokoa zela azaltzen zuen, asteko 38 ordu kopurua

ezarri arren, ipinitako txanda sisteman, aldiz, 56 ordu eskatzen bait ziren astean. Halaber, salatu ere salatzen zuen egoera hau lan administrazio autonomikoaren eta Lan eta Gizarte-Segurantza Ministraritzaren isileko konplizitateaz mantentzen zela.

Egoki ziren argitasunak lorturik, Ararteko honek ikusi zuen alegatzai-leak aipatzen zuen komenio kolektiboa ez zela erregistratzeraz eraman ez Administrazio autonomikora, ez eta Lan eta Gizarte-Segurantza Ministraritzara, Langileen Estatutuaren 90. artikulua hala ezarri arren; hortaz, estatutuz kanpoko izaera duen itun kolektiboa zen harako hura, lan administritzak modurik ez zuelarik legeria hautsi edota hirugarrenek kalterik jasotzen ote zuten jakiteko.

Bestalde, Langileen Estatutuak, bere 35.2 artikuluan, urtean 80 ordu extra baino gehiago egiteko debekua ezartzen du; debeku hori haustea lan alorreko lege-hauste larritzat hartzen da gizarte izaerako lege-hauste eta zigorretarako apirilaren 7ko 8/88 Legearen 7.3 artikuluan, eta 50.001 eta 500.000 pezeta bitarteko isunaz zigortua izan daiteke. Horretarako, dago-kion zigor espediente administratiboari ekin behar zaio, lan ikuskatzailetzak luzaturiko lege-hauste aktaren bitartez. Lan ikuskatzailetzak espediente administratibo bidez zein beste edozein pertsonaren salaketaz —beti ere isilpekoa delarik— jakin dezake ustez lege-hausteta den ekintzaren berri. Hala ere, zail samarra izaten da gehiegizko aparteko orduak egiten ote diren jakitea, eta, ondorioz, administrazio bidez horri kontra egitea.

Hortaz, lan administrazioaren gai honetan jarduteko dauden aukerak ikusita, komenigarriena erizten zitzaion kexadunak berak salaketa egiteari lan ikuskatzailetzan, eta, bidezkoa iruditzen bazitzaion, gizarte-epaitegira jotzeari kexan aipaturiko enpresa-ituna baliogabetzea eskatzeko, bai eta bere ustez Altos Hornos de Vizcaya, S.A.n azpikontratazio sisteman gertatzen ziren okerrak salatzeke.

Arartekoaren eritzia kexadunari jakinerazi, eta espedientea artxibatu egin zen.

Lanik gabekoentzako Enpleguko Institutu Nazionalak sustatutako subentzio-motez (164/90)

Ararteko Erakundean andre bat azaldu zen, bere ustez banka pribatuko maileguentzako interes-motaren eta Enpleguko Institutu Nazionalak (INEM) sustatutako dirulaguntzetarako jarritako gehienezko kopuruen arteko disfuntzioa zena salatuz.

Kexadunak eta haren senarrak, lanik gabekoak biak, negozio bat zabaldu eta Europako Fondo Sozialaren (EFS) laguntzez baliatzea erabaki zuten. Horrekin batera, Bilbo-Bizkaia Kutzara jo zuten eskatu beharreko maileguaren baldintzak ezagutzearren. Alabaina, kexadunak INEMera jo zuenean, EFSaren laguntzez baliatzerik ez zuela esan zioten, Bilbo-Bizkaia Kutzak emandako maileguak EFSaren arauak onartzen duten gehienezko interesa baino goragokoa zuelako, honek inereseko 9 puntu pagatzen bait ditu.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte-Segurantza Sailean bidezko informazioa eskaturik, Erakunde honek ondorengo informazioa bidali zion kexadunari.

Lan eta Gizarte-Segurantzako Ministraritzak, haren menpe bait dago INEM delakoa, lanik gabeko langileentzako zenbait laguntza-egitarau ditu. Laguntza hauen artean mailegu-erakundeek —publiko zein pribatuek— emandako mailegukerik interesen zati bat ordaintzea azaltzen da, erakunde horiek aipatu Ministraritzarekin bidezko hitzarmena sinaturik badute beti ere.

Alde honetatik, 1983ko urtarrilaren 13an Lan eta Gizarte-Segurantza Ministraritzaren eta Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederakundearen arteko hitzarmena sinatu zuten, zeina 1985eko uztailaren 14ean berriztatu bait zuten gaur egun indarrean dagoen hitzarmen berria eginez.

Hitzarmen honek INEMean izen emandako eta autonomo bilakatu nahi duten lanik gabekoentzako mailegu subentzionatuak ematea jasotzen du. Mailegutik subentziona daitekeen gehieneko kopurua bi miloi pezetatakoa da, sei urtetan ordain daitekeelarik.

Dirulaguntzak maileguaren interes-motaren sei puntu hartzen ditu, baldintza gisa maileguaren interes-motak % 16 baino gorago ez jotzea eta subentzioa egin ondoren hartzaileak aurre egin beharreko interesak gehienek % 10 eta gutxienez % 8 jotzea eskatzen delarik.

Hitzarmen hau aurrezki kutxekin sinatu bazen ere, Ministraritzak onartu egin izan ditu beste zenbait erakundek emániko subentzio-eskabideak, beti ere ezarritako baldintzak bete izan direnean. Kexadunaren kasu zehatzari bagagozkio, eta hala adierazi zuen berak, Bilbo-Bizkaia Kutxatik eskuratu zuen mailegua. Lehen esandakoaren arauera, mailegu horren interesak % 16 baino gorago jo izan ez balu, eman egingo zioteten seguraski subentzioa, araua esku-zabaltasunez hartuz. Alabaina, erakunde mailegu-emailea aurrezki kutxa ez zenez, eta interesa ere eskatutakoa ez zenez, Lan eta Gizarte-Segurantza Ministraritza ez zegoen beharturik kexadunaren eskabidea onartzera, honek ez bait zituen ezarritako baldintzak betetzen.

Aurrean azaldutakoagatik, eta administrazio-erakundeak oker jokatu ez zuelakoan, behin kexadunari honen berri emanik, artxibatu egin zen espedientea.

3.7. OSASUNKETA ETA KONTSUMOA

A) Sarrera

Erakundearen planteiatutako kexetatik 77 osasun arloarekin daude lotuta, hau da, jaso ditugun guztien % 23.

Kexagai izandako administrazioei begiratu, honelaxe banatu dira kexa horiek:

— Eusko Jaurlaritzaren	66
— Aldundiak	4
— Udalak	7

Euskal Herriko Erkidego Autonomoak osasunbidearen alorrean Konstituzioak eta Estatutuak emandako ahalmenak bere esku hartu dituenetik, Erakunde honek joan den urteko txostenean aitortu zuenez, alor horretan egin diren aurrerapausuak garrantzitsuak izan dira, baina oraindik ez da lortu euskal osasunbide-sistemak dituen egiturazko eta asistentziatzako akatsak konpontzerik, eta, beraz, zerbitzu horiek eskatzen dituzten hiritarrek oraindik jasan behar dituzte akats horien kalteak.

Horren erakusgarri da alor hau, jasotako kexen kopuruari begira, bigarren lekuan egotea, hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro alorrekoen ondoren.

Baina, oraindik larriago dena, osasunbide-sistemaren funtzionamenduari beraren arazoei ezezik, Arartekoak sistema horren arduradun nagusien uzkurtasunari eta, orobat, inoiz aurka egiteari ere aurre egin behar izan die, argibideak bidaltzen gerotik gerora ibili direlako edota eginiko gomendio edo aholkuei muzin egin dietelako.

Izan ere, kexarik gehienei konponbide egokia ematera iritsiko bagara, osasun alorreko agintarien lankidetzaz ezinbestekoa zaigu, baina, tamalez, askotan zailagoa izaten da lankidetzaz hori lortzea funtsezko auzia konpontzea bera baino.

Azaldu zaizkigun arazoak aztertzen hasita, esan dezagun osasun laguntzari dagozkion gora-beherak Erakunde honen arreta eta ahaleginen beharrezkoak direla oraindik ere. Batzuetan, erabiltzaile gehientsueni dagozkien zertzeladengatik, hala nola medikuntzaren zenbait alorretan dagoen aditu falta gorriagatik, edota itzarote-zerrenda luzeengatik; beste batzuetan, ordea, unean unekoagoak izan arren, jasan behar dituenarentzat berdin larriak diren arazoengatik: esate baterako, ondorio eskaseko ebakuntza kirurgikoetan inork bere erantzunkizunik onartu nahi ez izatea, edota besterik ezean osasunbide pribatuaz baliaitu beharrak eragindako gastuen ordainketa.

Ospitalez kanpoko osasunbidean gertatutako arazoei gagozkielarik, aldez, sendagilea nork bere nahiaren arabera aukeratzeko eskubideak bereganatu du gure arreta. Osasun alorreko funtzio publikoak ere kexa ugari sortarazi ditu, era askotakoak gainera: postua aldatzeko lehiaketen baremoen inpugnazioa, hirurtekoen onarpena, behin-behinek betetako lanpostuak, etab.

Azkenik, udal eta foru aldundien esku dauden gizarte-ongizaterako zerbitzuei buruzko kexabideak ditugu. Jaso diren izkribuek honako arazo hauek aurkeztu dizkigute, besteak beste: aiton-amonak egoitzetan sartzeko eskabideak, dirulaguntza sozialak ukatu izana, soldata soziala, etab.

Amaitzeko, aipagarria da, alde batetik, hiritarrek gero eta esijentzi maila handiagoa erakusten dutela, eta, bestetik, burura eraman ahal izan diren kexen artean gehiago izan direla kexadunei arrazoia eman dietenak, arrazoia ukatu dietenak baino.

Horrek esan nahi du, argi eta garbi, osasuna oso ondasun preziatua eta, gainera, hiritar gehienentzat oso kezkabide handia izanik, ezinbestekoa dela berari dagozkion zerbitzu horretan halako hobekuntza batzuk egitea.

B) **Kexen aukeraketa**

Elbarriek etxebizitza egokitua edukitzeko eskubideaz (831/89)

Muskuluetako distrofia jarraikorrek eta bihotzaren gutxitasun iraunkorrek jotako emakume batek, % 66ko osoko elbarritasuna pairatzen zuenak, bere nahigabea adierazi zuen behin baino gehiagotan ukatua ziotelako promozio publikoko etxebizitza bat Donostiako Intxaurren auzoan.

Arazoa ikertu ondoren, eta erreklamatzaileren zertzelada fisiko eta sozialak kontutan harturik, Erakunde honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Osasun eta Gizarte-Ongizatearen Sailera jo zuen. Sail horren Zuzendari Nagusiak adierazi zuenez, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Lurralde Ordizkaritzak banan-banako txostena eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari elbarritasunagatik egokitu beharreko etxeen eskariak, horrela Donostiako Udalak babes ofizialeko etxebizitzak emateko lana errazteko asmoz.

Osasun eta Gizarte-Ongizate Sailak interesatuaren eskariak egindako txostena haren aldekoa izan zen, etxebizitza egokitua emateko baldintza guztiak betetzen zituelako eskatzaileak.

Lortutako datuak ikusita, Ararteko honek halako gestio batzuk egin zituen Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburua-rekin, ondorioz etxebizitza egokitua eman zitzaizlarik kexadunari.

Oinetako ortopedikoen egile batez eta Servicio-Vasco de Salud-Osakidetzaren eta Euskadiko Ortopedialari Elkartearen Federakundearen artean izenpeturiko hitzarmen berrira biltzeaz (844/89)

Oinetako ortopedikoen egile batek, Servicio-Vasco de Salud-Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiari fakturatzeko baimena duten ortopedia eta farmazien zerrendan sartua izateko eskatua zionak, Zuzendaritzaren erabakia atzeratzen ari zela eta horrek bere lan eta ekonomi egoera kaltetzen zuela salatu zuen.

1988. urteko bukaera arte, bezeroak berak ordaintzen zion saltzaileari zuzenean fakturaren zenbatekoa, eta gero saltzaileak kobratu behar izaten zuten Osakidetzan.

1989. urtearen hasieran, aldiz, fakturatzeko baimena zuten ortopedia eta farmazien zerrenda plazaratu zuten Osakidetzak.

Ordutik aurrera, bezeroak ez zuten zuzenean fakturarik ordaindu behar, eta ortopedia edo farmaziak berak eskatu behar zion Osakidetzari fakturaren zenbatekoa ordaintzeko.

Osakidetzaren zerrenda horretan agertzen ez zenez gero, kexadunak ez zuten baimenik kobratzeko, eta horregatik ordaina jasotzeko eskaria egin behar izaten zuten baimendutako ortopedia edo farmaziaren baten bitartez, hauek, bitartekotzatgi fakturaren % 20 edo gehiago beraientzat hartzen zituztelarik.

Gauzak hala, erreklamatzailak zerrenda horretan sartua izateko eskatu zuen, horretarako behar ziren agiri guztiak erantsita. Hainbat hilabete igaro arren erantzunik jasotzen ez zuenez gero, Arartekoarengana jo zuen.

Zenbait gestio egin zituen Erakundeak, eta egun batzuen buruan erabakiaren berri jaso zen; haren arabera, ortopedi gai bereziak saltzeko Servicio-Vasco de Salud-Osakidetzaren eta Euskadiko Ortopedialari Elkartearen Federakundearen artean izenpeturiko hitzarmen berrira kexaduna biltzea onartzen zen.

Erabakiaren berri erreklamatzailari jakinerazi eta espedienteak artxibatu egin zen.

Basurtoko ospitaleko itxarote-zerrendez (21/90)

Bilboko emakume batek kexa idazki bat aurkeztu zion Erakunde honi, Basurtoko Ospitalean alergia proba batzuk noiz egingo zain urtebetetik gora igarora zela salatzeko.

Erreklamatzailak adierazi zigunaren arabera, bere senarra, sendagaiekiko alergikoa izanik, famili-medikuaren agiri batez azaldu zen Basurtoko Ospitalean alergia probak egin ziezazkioten.

Hala eta guztiz ere, esandako probak egin behar ziren egunean joan ezinik gertatu zenez, behar bezala abisua eman eta beste ikustordu baten zain geratu zen.

Ikustorduaren berririk gabe urtebetetik gora igaro ondoren, Ararteko Erakunde honetara jo zuen.

Erakundea harremanetan jarri zen Bizkaiko Osasun Zuzendari andreakin, eta handik gutxira kexadunari esan ahal izan zitzaion zein egunetan egin beharko zituen proba horiek.

Diagnostiko zehatza egiteko zailtasunaz eta sendagilearenganako konfidantzaz (24/90)

Kasu honetako kexadunak salatzen zuen bere alabari emandako trantuan zabarkeria gertatu zela sendagileen aldetik, erditzera Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalean sartu zenean, bai eta okerrak egon zirela diagnostikoan eta ospitale-aldian emandako tratamenduan ere.

Erditze zail baten ondoren (emakumeari zesarea egin behar izan zitzaion), bere egoerak okerrera jo zuen eta UVI edo etengabeko arreta unitatera eraman behar izan zuten.

Gaisoa gero eta larriago zegoela eta, azkenik peritonitisetik operatu behar izan zuten. Ebakuntza egin ondoren, gaisoaren egoerak berriro jo zuen okerrera eta bigarren aldiz sartu behar izan zuten etengabeko arreta unitatera, hamabost egunez hain zuzen ere. Alta hartu zuenean, etxera itzuli eta egun gutxiren buruan berriz ospitaleratu behar izan zuen sabelean oinaze biziak zituela. Lau egunez egon zen ospitalean eta alta eman zitzaion egun berean oinaze handiak jasan zituen berriz, eta berriro ere erresidenciara eraman eta ospitaleratu behar izan zuen. Azaltzen zuen koardroaren arabera, hartaz arduratu ziren sendagileek heste barruak oztopatuta zituela diagnostikatu eta beste ebakuntza bat egin beharko zela aholkatu zioten.

Gaisoa nola zegoen ikusita, senitartekoak ukatu egin ziren beste ebakuntza hori egitera, eta Iruneko Unibertsitate Klinikara eramatea erabaki zuten; han, hogeitahiru egunez ospitaleraturik egon ondoren, guztiz sendatu eta alta eman zitzaion inolako ebakuntza kirurgikorik egin gabe.

Kexagaia aztertu ondoren, Arartekoak medikuntza alorreko aditu bati bere eritzi objetiboa eskatzea erabaki zuen.

Egindako txosten fakultatiboaren arabera, Arantzazuko Ama Ospitalean sarturik egon bitartean eginiko segimenduak, kontrolak, diagnostikoak eta tratamenduak ez zuten zabaikeria profesionalik agertzen inondik ere.

Prozesuaren aldi bakoitzean sortutako okerreratzeak gaisoaren koadro klinikoaren larrialdiari berari zor zitzaizkion. Une bakoitzean diagnostiko zehatza emateko zailtasunari zegokionez, gaisoak jasandako prozesuaren konplexutasunari eta kasua ikuskatu eta haren bilakaera kontrolatzeko beharri zor zitzaizela zioen txostenak.

Txosten horretan ez zen baztertzeko 1989ko urtarrilaren 2an emandako ospitale-alta behar baino lehenago eta gaisoaren arazoa zati batez bakarrik kontutan hartuz emana zela, emakumeak azaltzen zuen sabeleko oinaze koadroak egonaldi luzeagoa egitea komeni zela erakusten zuelarik. Hala ere, gerora izan zuen larritzea alta horrek eragin zuela ukatzen zuen. Orobat, txostenaren arabera, zuhurragoa izango zen larritze orokorragatik beste ebakuntza kirurgiko bati buruzko ahozko informazioa prozesuaren bilakaera ikusi eta beharrezko probak egin arte ez ematea, ondoren Iruneko Unibertsitate-Klinikan egin zen bezalaxe.

Aditu medikuaren eritziak, Arantzazuko Ama Erresidentzian eta Iruneko Unibertsitate-Klinikan hartutako jokabideak ez ziren elkarren aurkakoak, elkarren osagarriak baizik.

Txosten fakultatiboa aztertu ondoren, Ararteko honi bidezkoa iruditu zitzaion kasuaren zailtasuna, prozesuaren bilakaera, ospitalean behin baino gehiagotan alta eman eta berriz sartu beharra, gaisoaren larrialdia eta ebakuntza kirurgikoa egiteko ustezko eskaria zirela medio, gaisoak bezala senitartekoek ere zalantza, nahasmendua eta, halako momentu batean, mesfidantza sentitzea, ospitale zentrua aldatzeraino.

Hori hala izanik ere, ezin zen zabarkeria medikutzat hartu, eta, horregatik, Arartekoaren eritzia kexadunari eman ondoren, espediente artxibatu egin zen.

Auzitegien erabakiz onartutako osagarriak ordaintzean Servicio Vasco de Salud-Osakidetza berandu ibiltzeak sortutako kalteez (34/90)

Servicio Vasco de Salud-Osakidetzako sendagile batek idatziz jo zuen Arartekoarengana, honek gestioak egin zitzaizkion esandako erakundearekin, Gizarte-Segurantzako aldi baterako sendagile gisa neuropsikiatria espezialitatean egindako lanaldia aintzinasunerako onartzen zion sententzia bururara eramateko.

Alegatzaileak erreklamazioa aurkeztu zion garai hartan Bizkaiko 4. zenbakiko Lan Magistratura deitzen zenari Gizarte-Segurantzako aldi bate-

rako sendagile lanetan emandako 10 urte, 5 hilabete eta 16 eguneko bitartea aintzinasunerako onar zekizkion.

1986ko abenduaren 17an erreklamatzailearen aldeko sententzia eman zen. Gizarte-Segurantzaren Erakunde Nazionalaren legezko ordezkariak sententzia horren aurka ezarri zuen errekursoa ere kexadunaren alde ebatzi zen 1989ko urtarrilaren 30ean emandako beste sententzia batean.

Hala eta guztiz ere, Servicio Vasco de Salud-Osakidetzak ebazpen horiek ez zituela burura eramaten ikusirik, interesatuak Arartekoarengana jo zuen, berandutze horrek eragiten zizkion kalte ekonomikoak alegatuz.

Erakundeak txosten bat eskatu zion Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaren Langilego Saileko Gestio Zuzendariari. Sail horrek berandutzearen arrazoiak azaldu zizkigun:

“Haren erreklamazioaren helburua bat dator Sail honetako milaka langilek (sendagile eta osasun laguntzaile teknikoek batez ere) egindakoenarekin; erreklamazioak auzitegien ehundaka ebazpenen bidez onartuz joan dira, egundoko ahalegina egin behar izan delarik haiek antolatu eta sailkatzeko, hainbat jatorri bait zeuzkaten.

Ebazpenen mamian inolako dirukopururik onartzen ez zenez gero, lan nekeza egin behar izan da bakoitzaren zenbatekoa finkatzeko, langileak kontratatu egin behar izan direlarik zeregin hori betetzeko.

Sententzia ugariak burura eramaten hasiak dira dagoeneko, eta espero dugu zor guztiak zuhurtziatzeko epe laburrean ordaintea.”

Era berean, kexadunaren kasu berezian ebazpena hurrengo nominarekin batera burutuko zela eman zitzaigun aditzera.

Adinekoentzako egoitza batean senitarteko bat sartzearen gastuak ordaindu ezinaz (51/90)

Gaitasun organiko eta funtzionalean % 95eko gutxitze iraunkorra pairatzen duen emakume baten senitartekoen Tolosako Yurreamendi Egoitzan sartzea erabaki zuten. Egoitza horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza orokor bat jasotzen du pertsona eta hilabete bakoitzeko egiazko gastuaren zati bat ordaintzeko, halako moldez non 1989. urtean egoiliar bakoitzak 52.000 pezeta ordaindu behar bait zituen hilean.

Emakume horrek ez du inolako ondasunik eta haren dirusarrera bakarrak Gutxienezko Dirusarrerak Bermatzeko Laguntza eta Gizarte-Ongizaterako Fondoaren zahar-sari bat dira, guztira 21.000 pezetaraino iristen direnak.

Yurreamendi Egoitzaren barne-arautegiaren berri izan zuten arte, senitartekoen ordaintzen zuten emakumeak jasotzen zuenaren eta egoitzak ezarritako kuotaren arteko aldea. Arautegi horren 2.4. artikulua honako hau dio zehazki:

“...jasotzen duen zahar-saria beste dirubiderik ez badu egoiliarak, haren portzentaia bat baino ez du eman behar izango, mantenuaren egiazko kostu osoa betetzen ez badu ere, eta senitarteko edo ongileek bestelako diruzko laguntzarik eman ahal izatearen kalterik gabe”.

Artikulu hori zela medio, senitartekoek egoitzaren zuzendaritza batzarri zuzendu, eta haien gustorako erantzunik jaso ez zutenez gero, Ararteko Erakundera jo zuten.

Kexaren arazoa aztertu ondoren, Arartekoari iruditu zitzaion esandako emakumeak eta baserrian berarekin bizitako bi senideek famili unitate bat osatu zutela, emakumearen mantenurako inolako arazorik gertatu ez zelarik behin ere, Arautegi Zibilaren 142. artikulua eta hurrengoek ezarritakoa betezen zelarik. Arazoa aipatutako emakumea Yurreamendi Egoitzan sartu zutenean azaldu zen, jasotzen duen zahar-saria baino diru gehiago ordaindu behar zuelako han.

Aski dirubiderik ez duten egoiliarren kasuan, senitartekoek erantzun behar diete izandako gastuei, eta haiek ere ezinean egonez gero, egoiliarren jaioterriko udala izaten da erantzun behar izaten duena.

Oraingo kasu berezi honetan, Elduaiengo Udala horren kontra azaldu zen 1989ko irailaren 5ean egindako batzarrean, emakumearen senitartek aski ondasunik bazutela alegaturik.

Beste alde batetik, amona egoitzan onartzeko baldintza gisa zuzendaritza batzarri egoki irudituz gero senitartek haien kontura hartzea ezarri zen. Bada, gainera, agiri bat, emakumea egoitzan sartu aurretik haren bi senideek izenpetua, egonaldiaren kostuaren ordainketa haien gain hartzen dutela adierazten duena.

Esandako guztia zela bide, Yurreamendi Egoitzaren jokamoldea Erakunde honek zuzen jotzen zuela adierazi zitzairen erreklamatazileei, eta, beraz, emakumearen senitartekoek ordaindu behar ziola egoitzari zegokion dirukopurua.

Larrialdi zerbitzurik ez duten herrietako medikuen ordutegiaz (92/90)

Larrialdi zerbitzurik ez duten herrietako medikuek bete beharreko ordutegiari buruz indarrean dagoen arautegiaren arabera, mediku horiek egunaren 24 orduetan egon behar dute lan egiteko gertu.

Gauzak horrela izanik, Servicio Vasco de Salud-Osakidetzari atxekitutako mediku eta osasun laguntzaile teknikari titular batzuek, lanpostua Orozkon (Bizkaian) eta Okondon (Arabian) zutenek, idatziz jo zuten Arartekoarengana euren egoera salatzeko.

Azaltzen zutenek, badago larrialdi zerbitzuen sorrera bideratzen duen arautegi bat, eta haren bitartez halako zerbitzuak sortuak zirela dagoeneko Euskal Herriko hainbat lekutan. Horretaz gain, esaten zuten Insalud delakoari lehenik eta gero Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari esandako herrietan larrialdi zerbitzua ipintzea eskatu zirela, irtenbide moduan zerbitzu horiek Laudiok betetzen duen larrialdi zerbitzuaren barruan sartzea proposatuz.

Proposamenaren oinarri bezala ospitalez kanpoko larrialdien arretarako plangintzaren behin-behineko proiektua jartzen zuten, hartan Orozko eta Okondo herriak Laudioko goardia esparruetan sartuta bait daude.

Sail bakoitzetik jaso zituzten erantzunak zirela medio irtenbide batera azkar iritsi ahalko zela pentsarazten bazuten ere, erreklamatzailleek Arartekoarengana jo zuten, Administrazioak egoera zuzentzeko neurri berezirik ez zuela hartzen salatuz.

Arartekoak gaiari buruzko argitasunak eskatu zizkien arlo horretan ahalmena duten sailei. Eginiko gestio ezberdinen ondorioz, Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaren Zuzendari Nagusiak Arartekoarengana idatziz zuzendu, eta ondoan ematen dugun irtenbide hau proposatu zuen:

“Larrialdietarako 24 orduko arretari dagokionez, irtenbide moduan proposatzen dena Laudio, Orozko eta Okondo udalerrietako larrialdi zerbitzuak koordinatzea, eta horrekin batera asteburu eta lanegunetan sendagile eta erizainen bidezko berrindartze partzial bat martxan jartzea da.

Osagarri horiekin, udalerrri horietako medikuek urteko egun guztietan 24 orduko arreta etengabea eduki ordez, astean egun bateko goardia egin beharko dute, halako moldez non beren benetako presentzia eskatzen duten goardien ordutegia zortzi aldiz murrizten bait da aurrekoaren aldean.

Bestalde, antolakuntza berri hau martxan jarriko den egunari dagokionez, espero da 1990eko irail-urrirako egin ahal izatea, segun eta zer nolako oztopoak aurkitu eta nolako negoziaketak egingen diren inplikaturiko udalerriekin, Laudioko larrialdien arretarako zerbitzuarekin, sendagintza eta erizaintza alorreko langileekin eta sendagintzaz kanpoko langile laguntzaileekin, bai eta larrialdietan zerbitzu eta arreta egokia eman ahal izateko moduko komunikabideak eta garraia bideak lortzen badira.

Irtenbide hau aintzindaria da Erkidego Autonomoan, eta hobeak izango dira Espainiako Estatuak gainerako lekuetan dagoen egoeraren aldean”.

Osasunbide publikoaz eta sendatzeko tratamendu berezi batzuez (99/90)

Emakume batek Servicio Vasco de Salud-Osakidetzara salatu zuen ez ziolako onartu behazun-litotrizia bat egitea.

Emakume horrek harrimina zeukan behazun-xixkuan, neke handiak eragiten zizkiona, eta horregatik berataz arduratzen zen osasunbide publikoko medikuak xixkua erazteko gomendatu zion. Alabaina, emakumeak beste sendagile bati eritzia eskatu, eta honek, halako proba batzuk egin ondoren, xixkua behar bezala zebilela eta harriminak litotrizia —harriminak deusezteko kolpe-uhin bidez egiten den gorputz-kanpoko sendabidea— egiteko baldintza egokiak betetzen zituela adierazi zuen.

Beste eritzi horren medioz, eta berataz arduratzen zen sendagileak gomendaturik, kexadunak Bizkaiko Osasun Barrutiko Zuzendaritzara jo zuen litotrizia egiteko behar den agiria eskatzearren.

Hala ere, horrelako sendabidea oso ezaugarri bereziak dituzten kasuentzat bakarrik uzten dela eta ezezko erantzuna jaso zuen.

Erakundeak gaiari buruzko argitasunak eskatu zizkion Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaren Zuzendaritzari.

Erakundeari bidalitako idazki batean, esandako zuzendaritzak aditzaera eman zuen Servicio Vasco de Salud-Osakidetzak ez duela, oraingoz, litotriaziaren teknikaz baliatzerik eta ez duela inolako akordiorik sendabide hori eskeintzen duen inongo erakunde pribaturekin; hortaz, hori egiteko dagoen aukera bakarria sendabidea burutu, erabiltzaileak ordaindu, eta gastuen zenbatekoa itzultzeko eskatzea da. Halaber, txostenak zioenez, Servicio Vasco de Salud-Osakidetzak ebakuntza kirurgikoa egitea komenigarria ez izan, eta Kirurgia Orokorraren eta Liseriketa Aparatua eta Gastroenterologiaren Aholku Batzorde Teknikoak eginiko txosten teknikoaren arabera litotrizia egiteko aholkua mugatzeko erizpideak betetzen dituzten kasuetara mugatuta dauka sendabide horren erabilera. Bi txostenen ondorioak honako hauek dira:

“Gure eritzi, kolpe-uhin bidezko gorputz kanpoko litotrizia, tratamendu medikuarekin batera, harrimina deusezteko oso sendabide egoki eta eraginkorra da xixkuetan harrimin irratigardenak dituzten gaiso aukeratuekin. Litotrizia egiteko aholkua oso gutxitan ematen da, baina pentsatzekoa da teknika garatuz doan neurrian orain azaldutakoak baino kasu gehiagotan erabil ahalko dela.

Xixkuaren harrimina patologia kirurgikorik ugarienetakoa izanik, kontutan hartu beharko da teknika horren garrantzia, sendabide kirurgikoen zain daudenen zerrendei begira.

Guzti horregatik, hauxe da gure eritzia:

– Gaur egun oso serie gutxi dago behin-betiko ondorioak finkatu ahal izateko.

– Gaur egun oso gutxitan aholkatzen da (% 8-30).

– Halako zailtasun batzuk gertatzen dira, baina munta gutxi-koak.

– Beharrezkoa da osasunbide publikoak eskeintzea, pentsatzekoa bait da gizartearen eskaria gero eta handiagoa izango dela”.

Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaren Zuzendari Nagusiak adierazten zuenez, esandako txostenen arabera, teknika hori erakunde horren sarean ezartzerik ba ote zegoen aztertzen ari zen.

Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiak bidalitako txostenak aztertu ondoren, kexadunaren kasuan ez zen zabarkeriarik antzeman ez eta agintekeriari ere Osakidetzaren aldetik. Ararteko honen eritzi, arazoa da Servicio Vasco de Salud-Osakidetzak Erkidego Autonomoko biztanle guztiei halako maila eta kalitateko zerbitzu mediku batzuk eskeintzen dizkielarik, zerbitzu

medikuen maila horretan osasunbidean ezagunak izan arren osasunbide publikoak oraindik eskeitzen ez dituen tratamendu batzuk sartzen direla.

Hala eta guztiz ere, Osakidetzari bere eritzia ere eman nahirik, Arartekoak adierazi zion gehiegizko aldea zegoela xixku bat erauzi, horixe bait zen Servicio Vasco de Salud-Osakidetzak ematen zuen aukeraren ondorioa, eta gorputz kanpoko tratamenduaren artean, bigarrenak ez duelako kaltezen inolako organurik eta ez duelako ondorio kaltegarrik uzten.

Horregatik, Osakidetzak sendatzeko zerbitzu berri hori ere eskeini behar lukeela errepikatzeaz gain, Ararteko honek azaldu zuen erreklamatzaileraren kasuak arreta berezia merezi zuela uler zitekeela, eta, irtenbide moduan, Osakidetzak har zitzakeela bere gain zentru mediku pribatu batean gorputz kanpoko tratamendua egiteak sortutako gastuak.

Sendagile espezialisten faltaz eta ikustorduak ematen berandu ibiltzeaz (101/90)

Zenbait espezialitatetan sendagile gutxi egoteak berandutze handiak eragiten ditu era askotako azterketak egiteko ikustorduak ematean.

Erakundearen titularrarekin izandako elkarriketa batean, kexadunak adierazi zuen sukaldari lanpostuan hainbat orduz zutik egon behar izateagatik hankak gaizki, astun eta handituta sentitzen zituela. Joan den urteko irailaren 22an kontsultan hartu zuen doktoreak, emakume honek zainetan zituen arazoak ikusita, azterketa bat egin beharko zuela esan eta Santiago Ospitaleko odolbide-kirurgia sekziara jotzeko gomendatu zion.

Eritetxe horretan ikustordua eskatu zuenean erantzun omen zioten urrian ezinezkoa zela ematea, eta berriz eska zezala tarte baten buruan. Hainbat aldiz saiatu zen, azkenekoan maiatzean, eta gerotik gerora zerabil-tela eta jasaten zituen minak zirela bide, bere arazoa azaldu zion Erakunde honi, Osasun Sailaren aurrean arartekaritza lanak eginez azterketa egin ahal izateko itxaroaldia laburtzen ahalegintzeko.

Arartekoa harremanetan jarri zen Servicio Vasco de Salud-Osakidetzako arduradun batzuekin, eta hauek azaldu zuten oso espezialista gutxi zuela zenbait alorretan —odolbide alorrean besteak beste—, baina saiatuko zirela itxaroaldia laburtzen.

Izan ere, handik luze gabe kexadunak aditzera eman zigun Santiago Ospitaleko odolbide-kirurgi alorreko espezialistak aztertu behar zuela.

Zentru psikiatrikoetako ohe faltaz (183/90)

Emakume donostiar batek honako kasu hau azaldu zuen bere kexa idazkian. Bere amak, 79 urte zituenak, zahar-erotasun oldarkorra jasaten zuen. Hartaz arduratzen ziren doktore psikiatrikoen ustez, zainketa mediku etengabea behar zuen, baina horrelakorik ezin zuen etxean jaso. Era berean, pertsona horren etxera epaile bat joan ondoren, honek beharrezkotzat jo zuen emakume haren ama bere egoerak eskatzen zuen zentru egoki

batean sartzea, eta zegokion baimen judiziala luzatu zuen. Hala ere, ingresa ezin zitekeen egin, Servicio Vasco de Salud-Osakidetzak ohe nahikorik ez zegoela esan zuelako. Bitartean, etxeko elkarbitzita gero eta okerragora zihoan gaisoak zortutako egoerarengatik.

Kexaren gaia eta azaldutako dokumentazioa aztertu ondoren, Erakundeak halako gestio batzuk burutu zituen Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaren Zuzendari Nagusiarekin.

Gestio horien ondorioz, esandako erakundeak egin beharreko trami-teak bete zituen kexadunaren ama hil horretan bertan Palenciako Emakumeentzako Ospitale Psikiatrikoan sartu ahal izateko.

Hilabete batzuk geroago, kexadunaren izkribu bat jaso zen Erakunde honetan, gure gestioaren emaitza onengatik eskerrik zintzoenak emateko eta bere ama aldi baterako behintzat sendatua zela, eta berriz ere etxean zegoela azaltzeko.

Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaren kontura zentru pribatu batean ebakuntza kirurgiko bat egiteko baimena eman eta gero ukatzeaz (185/90)

Donostiako Gurutze Gorriaren Ospitalean eskubiko begiko lausoa kentzeko operatutako emakume batek baimena eskatu zion Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaren Gipuzkoako ikuskatzaile medikuari ebakuntza hori erakunde horren kontura joateko.

Ikuskatzaile medikuak eskaria onartu eta zegokion inprimakina (P-10) izenpetu zuen, geroago emakumeak Gurutze Gorriaren Ospitalean ingresa-tzean entregatu zuena.

Erreklamatazailearen esanetan, ebakuntza egin ondoren ospitalearen zuzendaritzak adierazi zion P-10 hura baliogabetua zegoela, eta hortaz berak ordaindu behar zituela eritetxean egoteagatik sortutako gastuak.

Arazoa eta azaldutako dokumentazioa aztertu ondoren, Arartekoak Gipuzkoako Barrutiko Zuzendariarengana jo zuen, kasua argitzeko behar ziren datu guztiak eskatzeko.

Halaxe, Barrutiko Zuzendaritzak bidali zuen txostenean honako datu hauek eskeintzen ziren:

“ Erreklamatazaileak Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaren sarearen barruko oftalmologo bat izendatua zuen arren, sistemaren gainerako erabiltzaile guztiak bezalaxe hain zuzen, ebakuntza hori egiteko baimena eman zen, % 100ean bide publikotik, hau da, inolako ordain pribaturik egin gabe, eta garai hartan erakunde horrekin izenpetuta eta indarrean zegoen akordioaren arabera egiteko baldintzaz.

Kupoaren arabera zegokion sendagileak tratatzeko ohizko arautik salbuestearen aldeko jarrera ezeztatu egin zen ospitalearen zuzendaritzak adierazi zuelako ebakuntza bide pribatutik egingo zela, sendagilearen ordainkizunaren gastuak ere eman zituelarik.

Zertzelada hori Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaren eta Donostiako Gurutze Gorriaren Ospitalearen artean indarrean ze-

goen akordioak ezarritakoarekin bat ez zetorrenez gero, ikuskatzaille medikuak legeari jarraituz jokatu zuen luzatutako P-10 hura indargabetu zuenean (baldintza moduan argi eta garbi adierazita bait zegoen «sendagileari ordaindu beharrik gabe»).

Ebakuntza artean egin gabe zegoenez gero, familiari aditzera eman zitzaion zergatik baliogabetu zen P-10 hura, eta ebakuntza Gizarte-Segurantzaren ohizko bideetatik egin zitekeela.

Une harrez geroztik Barrutiko Zuzendaritza honek ez du kasu honen berririk jaso, eta, beraz, ez zekien zer gertatua zen horrekin.

Zure idazkia jaso ondoren, Gurutze Gorriaren Ospitalearen zuzendaritzari txostena eskatu, eta hartan jakinerazi zitzaigun ebakuntza bai egin zela eta ez zela gasturik fakturatu sendagilearen ordainkizunengatik; horiek horrela, Zuzendaritza honek Barrutiko Zuzendaritzaren Gestio Ekonomikorako Azpizuzendaritzari agindu dio ospitaleak faktura aurkeztu ondoren ebakuntza kirurgikoagatik gertatutako gastuak ordaintzeari ekiteko”.

Erreklamatazileari gure gestioen emaiaren berri jakinerazi eta gero, espedientea artxibatu egin zen.

Osasunbide publikoaren gako konfidantza galdu eta eritetxe pribatu batean egindako ebakuntza kirurgikoaren gastuak ordaintzeaz (782/89)

Basauriko Udalaren kontsumitzailearen argibideetarako udal bulegoaren bitartez, Ararteko Erakunde honetan kexa bat jaso zen, non emakume batek Gurutzetako Ospitaleak, bere seme txiki bati estrabismo konbergentea zuzentzeko ebakuntza kirurgikoa egin zionak, desinformaturik eduki zuela salatzen zuen.

Kexadunaren semeak jaio zenetik jasaten zuen estrabismo konbergentea, eta urtea bete gabe hartu zuten kontsultan Gurutzetako Ospitalean. Kontsultara maiz joaten jarraitu zuen, harik eta 1988ko azaroaren 23an ebakuntza kirurgikoa egin zioten arte.

Operazioesteak handitze arazo bat ekarri zuen ezkerreko begian, keratokonjuntibitia zehazkiago. Ebakuntza kirurgikoaren azken ondorioa % -45ko exotropia bat izan zen, hau da, gaisoak begi okertze handia azaltzen zuen oraindik -baina hasierakoaren kontrako aldean, hain zuzen ere-, erdiko muskulu zuzen bien askieztasuna zuelarik, eta horregatik beste ebakuntza kirurgikoa egin behar zitzaion.

Erreklamatazileak protestatu egiten zuen umeari ebakuntza okerra egin ziotela uste zuelako, eta ebakuntzak izan zitzaizkeen arriskuen berri ez zitzaiolako eman, eta, era berean, ez ziotelako esan semea ondo geratzeko posibilitaterik ba ote zegoen, edota estrabismoa zuzentzeko beste ebakuntza bat egin beharrik egongo ote zen.

Bai erreklamatazileak berak, bai Basauriko kontsumitzailearen argibideetarako udal bulegoak kexabide bat aurkeztu zioten Gurutzetako Ospitaleko gaisoen arretarako bulegoari, baina gustoko erantzunik jaso ez, eta Arartekoarengana jo zuten.

Erakundea harremanetan jarri zen Sistema Vasco de Salud-Osakidetzaren Bizkaiko Barrutiko Zuzendariarekin kexagaiari buruzko argibideak eskatzearren.

Argibide horiek berriz eskatu ondoren, zegokion dokumentazioa iritsi zen azkenik Erakunde honetara, estrabismoa zela eta umea kontsultan noiz eta zenbat aldiz hartu zen zehaztuta; eta, Osakidetzaren Barruti-Zuzendariaren eritziz, kontsulta horiek nahikoa aukera eman zuten gaisoaren patologia antzemateko, bai eta bilakabide klinikoari eta hartu beharreko jokamoldetara terapeutikoei buruz era guztietako azalpenak jasotzeko ere.

Bitarte horretan, erreklamatazaileak medikuntza pribatuko oftalmologia aditu baten kontsultara jo, eta honek adierazi zion beste ebakuntza bat egin beharko zitzaiola umeari ikusmen akatsa konpontzeko. Ebakuntza egin ere egin zen, eta harrez gero umeak ezin hobeto ikusten du, eta gutxienezko estrabismo maila baino ez dauka, orain hartaz arduratzen den medikuaren arabera, bigarren ebakuntza batekin guztiz konpon litekeena.

Arartekoak arreta osoz aztertu zuen azaldutako arazoa, eta ondoretzat eman zuen zaila zela frogatzea sendagileak zabarki jokatu zuela, edozein ebakuntza kirurgikok arriskua dakarrelako, eta arrakasta edukitzeko posibilitatea zehazten zaila delako beti.

Dena dela, hemen darabilgun kasuan, badirudi ebakuntza kirurgikoa ez zela ondo atera, eta, ondorioz, estrabismoa ez zuzentzeaz gainera, ebakuntza ostean gaisoak azaltzen zuen okertzea kontrako aldean zegoela, hain zuzen ere.

Hori hala izanik, Ararteko honek Osasun eta Kontsumo Sailburuarengana jo eta aditzera eman zion bere eritziz umeak jasaten zuen arazoa ez zela behar bezala atenditu osasunbide publikoan, eta bai ordea pribatuan, geroago frogatu zenez.

Halaber, eta egindako ekintza medikuetatik ustez erator litezkeen erantzunkizunen kalterik gabe, Arartekoak gomendatu zion Osasun eta Kontsumo Sailburuari Servicio Vasco de Salud-Osakidetzak bere gain hartzea medikuntza pribatura jo behar izanaren gastu guztiak, bai eta ezinbestez umeari berriz egin behar zitzaion beste ebakuntzak sortu behar zituenak ere.

Sendagile pediatria ustez arbitrarioki aldatzeaz (233/90)

Lasarteko emakume batek salatu zuen bere seme-alabei jarritako sendagile pediarrarekin gustora egonda, Servicio Vasco de Salud-Osakidetzak beste sendagile pediatria bat egokitu ziela, aurretik ezer galdetu gabe.

Egindako aldaketarekin ados ez zegoenez gero, eta Osakidetzako gaiso eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrei buruzko agiririari dei eginik, erreklamatazaileak zegokion kexabidea aurkeztu zion Osakidetzaren Barruti-Zuzendaritzari, baina, berak esandakoaren arabera, kexabide hark ez zuen bere gustoko erantzunik jaso.

Erakunde honek arazo horri buruzko argibideak eskatu zizkion Osakidetzaren Gipuzkoako Osasun Barrutiko Zuzendariari, eta honek aditzera eman zuen Lasarteko haurrak herriko bi pediaren artean berriz banatu beharra zegoelako egin zela aldaketa hori.

Osakidetzaren esanetan, haurrentzako banakako txartelak egin zirenean aurreko banaketak akatsak zituela ageri zen, txartelaren titularrak hainbat onuradur[†] sartuta bait zituen, ezberdinak bai kopuru aldetik, bai norberaren ezaugarrien aldetik ere.

Umeen identifikazioa burura eramaten zen neurrian, banakako txartela ere egiten zen, bakoitzari zegokion pediatria utziz. Nolanahi ere, Lasarten gertatu zen pediatretako bati egokitu zitzaizkion txartelak arreta egokia emateko onar litezkeen baino gehiago zirela, eta nahiko desproporzioan zeudela, gainera, anbulategi bereko beste pediatriari egokitutakoan aldean.

Hori zela eta, umeak bi pediatrien artean berriz banatzea erabaki zuten osasun agintariek, osasun arreta hobeagoa eman ahal izatearren. Bigarren pediatriaren izendapena, esandako desproporzioa antzeman eta gero egindako txartelekin hasi zen.

Beraz, aldaketa hori beharrezkoa zen esandako zertzeladengatik. Gaur egun, Osakidetzaren arabera, umeen kopurua oreka gehiagoz banatuta dago bi pediatrien artean, eta, horrela, osasun arreta egokia gehiago bermatzen da.

Erakunde honek ez zuen inolako lege-hausterik ez eta zabarkeriarik ere antzeman azaldutako arazoan Osakidetzak hartutako jokamoldean, zerbitzuen berrantolakuntzari buruzko maiatzaren 19ko Osakidetzaren 10/1983 Legearen 3. artikulua ematen dituen ahalmenez baliatuz egin bait zen pediatriaren izendapena.

Ainarbeko Mankomunitateko urak fluortzeko proiektuaz (775/89)

Jendearen kontsumorako edanurak fluortzeari buruzko 49/1988 Dekretuak, martxoaren 1ekoak (EHAA, 53. zkia.) jendearen kontsumorako edanurak fluortzea derrigorrezkoa dela ezartzen du, baina uren fluortze-mailaren eta biztanleriaren hartz-osasunaren egoeraren ezaugarriek Osasunerako Munduko Erakundeak gomendatzen dituen mailak gainditu gabe.

Dekretu hori zela eta, "Eki", Euskadiko Batzorde Antinuklear Ekologistak izkribu bat bidali zion Arartekoari Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren jokaera salatzeke, esandako saila ukatzen bait zen Euskal Erkidego Autonomoko umeen aho-hortzetako osasun egoerari buruzko azterketa epidemiologikoaren aurrean inolako daturik ematera. Alabaina, sail horrek aldi berean Ainarbeko Mankomunitateko urak fluortzeko proiektua aurrera eramaten ari zen, mankomunitate horrek eskatutako dirulaguntzak emanaz hain zuzen ere.

Erakundeak Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailburuarekin harremanetan jarri ondoren, honek txosten bat helarazi zuen, ondoan ematen ditugun jakingarriak eskeintzen zituena.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta kontsumo Sailak ikerlan bat burutu zuen, 7, 12 eta 14 urteko neska-mutilen aho-hortzetako osasunari buruzkoa, adituen arabera adin horien artean betetzen bait da pertsona ba-tzen hortzen bilakabidea.

Erkidego Autonomoko OHOk ikastetxe publiko zein pribatuetakoa 4.082 ume aukeratu ziren modu aleatorioan, haietatik 1.005 Gipuzkoakoak: 7 urtekoak 335, 12 urtekoak 336, eta 14 urtekoak 334.

Lagina aukeratzean erabilitako zorrotasun zientifikoa dela medio, lortutako datuak estrapolatzeko modukoak dira.

Ikerlanaren behin-behineko lehen ondorioak Osasun Sailaren barruko den Osasun Informaziorako Euskal Sistema delakoaren argitalpenean eman ziren ezagutzera 1988ko uztaileko zenbakian. Era berean, Sailburuak eritzi publikoari aditzera eman zizkion lortutako datuak prentsaurre batean, eta halaxe azaldu ziren urte hartako uztailaren 16ko euskal prentsan.

Behin-betiko datuak 1990eko otsailean eman zituen ezagutzera Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzuak, *Documentos Técnicos de la Salud Pública Dental* sailaren 2. zenbakian, "Estudio epidemiológico de la salud bucodental infantil en la Comunidad Autónoma Vasca" izenaz.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak bultzatutako ikerlanaren berri lehenago esandako kolektiboari jakinerazi ondoren, espedientea artxibatatu egin zen.

Gurutzetako Ospitaleko itxarote-zerrendez (215/90)

Emakume bat, 1989ko ekainean begilausoa diagnostikatu eta Gurutzetako Ospitalean ebakuntza kirurgikoa egiteko gomendatu ziotelarik, ebakuntza noiz egingo ote zioten zain zegoen oraindik hurrengo urteko apirilean.

Bitarte horretan, gaisoaren egoera larri samarra zen, ezin ikusteak bidezimodu normala egitea eragozten bait zion.

Hainbeste denbora igarota zenez, eta are kezkarriagoa zena, Osakidetzak ebakuntzarako eguna jartzerik ez zuela adierazi zuenez gero, emakumearen senitartekoek Arartekoarengana jotzea erabaki zuten.

Erakundeak lehen gestio bat egin zuen Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaren Zuzendari Nagusiarekin, eta haren ondorioz, izkribu batean jakinerazi zitzaigun, alde batetik, zergatik berandutzen ari zen ebakuntzarako eguna jartzea (asko ugaltu zirela patologia larriak: erretina jausiak, tumorak, etab.), eta, bestetik, itxarote-zerrendak laburtzeko neurriak hartzen ari zirela, eta arazoa laster konpontzea espero zutela.

Hala ere, konponbide hori gertatzen ez zenez gero, Arartekoak berriro jo zuen Servicio Vasco de Salud-Osakidetzaren Zuzendari Nagusiarengana, kexaduna nola zegoen itxarote-zerrendan, eta zer nolako neurriak hartuak ziren zerrenda hori laburtzeko jakiteko.

Azkenik, Osakidetzarekin lankidetzeta hitzarmena izenpetua duen klinika pribatu batean ebakuntza kirurgikoa zein egunetan egingo zitzaion jakinerazi zion Osakidetzak kexadunari.

Anbulantzia zerbitzuaren funtzionamendu okerraz (53/90)

Minbiziak jo eta azken fasean zegoen gaiso baten senide bat Erakunde honetara zuzendu zen Basurtoko Ospitale Zibilaren larrialdi zerbitzuko ambulanzien funtzionamenduaz kexu egiteko.

Gaisoak 1990eko otsailean sartu behar izan zuen esandako eritegi horretara kateter batean morfina sartu eta, hartara, gaisotasunak eragiten zizkion oinazeak arintzeko operazioa egin ziezaioten.

Operazioa egin ostean, medikuak ahaleginak egin zituen gaisoa egun batzutan ospitalean gera zedin, errefusarik gertatzen ote zen ikusteko, baina oherik ez zegoela eta etsi behar izan zuen, eta anbulantzia bat eskatu gaisoa bere etxera eramateko. Lau ordu eta erdi beranduagora arte ezin izan zioten anbulantziarik lortu, eta bitarte guzti horretan gaisoak ez zuen inolako zainketarik izan.

Anbulantzia iritsi zen azkenik, baina bidaian, ezbeharrez, ibilgailua maturatu, eta gidariak telefonoz hots egin behar izan zuen beste bat bidal zezaten. Bigarren anbulantzia beste enpresa batena izatea gertatu zenez gero, ohatila batetik beste batera aldatu behar izan zuten gaisoa, honi eragozpen eta nekeak sorturik, jakina.

Arazoak ez ziren hor amaitu, gainera, gaisoaren etxeko atarira iritsita-koan, anbulantzian pertsona bakarra zihoanez gero, gidaria konturatu zelako berak bakarrik ezin zuela igo gaisoa haren etxera, eta hori gaisoaren emazteak behin baino gehiagotan ohartu erazi zielarik laguntzaileren bat beharko zela horretarako; horrenbestez, laguntzaile batzuk etorri arte itxaron eta gero, azkenik etxera eraman ahal izan zuten gaisoa, ospitaletik irten eta bi ordu igaro ondoren.

Bukatzeko, gugana jo zuen erreklamatzailerak kexu zen bere eskutitzean era honetako gaisoentzat etxerako zerbitzurik ez egoteagatik.

Ararteko Erakunde honek gai honi buruzko argitasunak eskatu zizkion Osakidetzari.

Osakidetzak bidalitako erantzunean, gertatutakoagatik barkatzeko eskatu zion kexadunari, bai eta aditzera eman ere ahaleginak egiten ari zirela zerbitzu okerren honelako kasuak gutxituz joateko; horretaz gainera, Euskal Erkidego Autonomo guztian gaisoen garraiorako zerbitzua ematen den modua ez dela bere gogokoa ere adierazi zuen, ia erabat alor pribatuaren eskuan bait dago, eta dagoen arautegiak eta izenpetutako komenioek ez diotelako bermatzen Osakidetzari zerbitzuaren kalitatea egoki kontrolatzeko aukera.

Osakidetzaren erantzuna kexadunari bidali eta gero, ikusirik gure alde-
tik beste ezer gehiagorik egiterik ez zegoela, kasua amaitutzat eman eta es-
pedientearen artxibatu egin zen.

*Erretiro bereziaz 1.194/85 Erret Dekretuan ezarritako onurez gozatze-
ko aukeraz (203/90)*

Gasteizko Txagorritxu Ospitaleko langile-eroldako zaindari batek erre-
tiro bereziaz 1.194/85 Erret Dekretuak eskeintzen dituen onurez baliatu
ahal izateko eskatu zion ospitale horretako pertsonal buruari. Eskabide hori
1990eko urtarrilean egin zuen, 64 urte betetzeko 6 hilabete juxtu falta zi-
tzaizkiola, esandako dekretuan ezartzen denaren ildotik. Apirila iritsi eta
erantzunik jaso gabe zegoenez gero, eta beste lankide batzuk bere egoera
berean zeudela ikusita, Arartekoari kexa bat zuzentzea erabaki zuen.

Arartekoak SVS-Osakidetzako langilegoaren lan egoera arautzen duen Akordioa eskatu zion Osakidetzari, bai eta kexadunaren espedientearen tramitazio-egoerari buruzko txosten bat ere.

Bidali zigun erantzunean, Osakidetzak adierazi zuen zergatik ezinezkoa zen esandako Erret Dekretua kasu honetan aplikatzea; hona hemen azalpen hori:

1. 1.194/85 Erret Dekretuak aipatzen duen alde zuzeneko erretiroaz baliatu ahal izateko, komenio kolektiboak hala ezartzen duelako edota dagokien langileekin berekin eginiko akordioen bidez, erretiratzeko den langilearen ordez beste bat kontratatuzera behartuta dagoen enpresa bateko langilea izan behar da.

2. Servicio Vasco de Salud-Osakidetzako langilegoaren lan egoera arautzen duen akordioan ez da jasotzen esandako araua mugarik gabe aplikatzeko beharrezko errebindikazioa.

3. Dagokien langileekin banaka-banaka akordioak egitea Eusko Jaurlaritzaren Herri-Jarduerarako Zuzendaritzak 1990eko maiatzaren 2ko txostenean finkatutako erizpideen aurka legoke, txosten horrek egin ezinezkotzat jotzen bait du esandako erret dekretua une hauetan aplikatzea. Administrazio honetan, langilego-eroldan finkoak eta aurrekontu bidez hornitua diren lanpostuetan behintzat; eta hori, esandako araua, enplegua sustatzeko neurria izanik, ezin delako lan eskeintza publikoarekin nahastu, azken honetan hutsik dauden lanpostuak azalduko bait dira.

4. Nolanahi izanik ere, kexaduna mutualista izanik 1967ko urtarrilaren 1.a baino lehen 2.621/86 Erret Dekretuaren 2.1 ebazpen iragankorrera biltzerik badu, % 8ko kenketa jasango duelarik 65 urte betetzeko falta zaion urte bakoitzeko. Kasu honetan, langileak prima bat jasotzeko eskubidea izango luke, lan egoera arautzen duen akordioaren 21. artikuluan itunduta bait dago, eta Osakidetzak ez da ukatzen eskubide hori aitortu eta dagokion zenbatekoa ordaintzera.

Goian azaldu dugun jokabidea zuzena izan arren, bidezkotzat jo genuen Erakunde honetan Osakidetzari gomendatzea erretiratzeko adinetik hurbil dauden erakunde horretako langileen artean aipatu erret dekretuaren aplikazioaren inguruan sortutako itxarokizunak garbitzea, tankera honetako gorabeherarik berriz ere sortuko ez bada.

Horiek horrela, Arartekoaren eginbeharrekoak honela amaitutzat eman, eta espedientearen artxibatu egin zen.

Osakidetzak laborategiko teknikari espezialista lanpostu bat betetzeko erabilitako baremoaz (631/89)

Kexa honetan laborategiko teknikari espezialista lanpostuak betetzeko deialdian Osakidetzak erabilitako baremoa zen protestagai.

Baremo horretan, baloratzen eta puntuatzen ziren merituen artean sartzten ziren Gizarte-Segurantzaren osasun erakundeetan, teknikari espezialista lanpostuari dagozkion zeregin bereziak egiten emandako zerbitzuak, kategoria profesionala edozein izanik. Praktikara eramanda, honek esan nahi zuen laborategietan lan egitea egokitu zitzaien erizaintza laguntzaileek oso aukera egokia zutela, laborategiko teknikari espezialista titulua lortuz gero, barne promozioz teknikari espezialista lanpostuetarako lehiatzeko.

Alderantziz, kasurik gehientsuenetan gertatzen den bezala, teknikari espezialista funtzioa sorturik ez daukaten ospitale unitate batean lan egitea egokitu zitzaion erizaintza laguntzaileak aukera gutxiago zeukan, teknikari espezialista titulua lortu ondoren, barne promozioaren bidetik aurrera egiteko.

Gure eritziz, hautaprobek Euskal Funtzio Publikoaren Legean ezarritako aukera berdintasun, meritu eta gaitasun erizpideak hausten zituzten, klinikako laguntzaile batzuei bai, baina beste batzuei, ordea, ez zitzaizkielako kontutan hartzen emandako zerbitzuak. Horregatik, Ararteko honek deialdia berehala bertan behera utzi, eta bi erakundeen aholkularien arteko bilera bat egitea gomendatu zuen.

Eskabide honentzako erantzun moduan, hiru hilabete beranduago eta deialdia erabaki ondoren, Osakidetzak arazoaren muinari buruz egindako azalpen batzuk besterik ez zen jaso, bai eta Ararteko honen jarduera-esparruari buruzko burutapen batzuk ere.

Arazoaren muinari emandako irtenbidea alde batera utzirik, egia dena da Osakidetzaren Zuzendaritzak ez entzunarena egin ziola gure eskariari, Erakunde honek sail autonomo horrekin izan dituen harremanetan sarri asko gertatu denaren bide beretik.

Sendagilea aukeratzeko eskubideaz baliatzeaz (338/90)

Gasteizko biztanle batek Arartekoaren bulegora jo zuen, eta bizi den zonaldean (Gamarra Nagusia) medikutza orokorreko mediku bat besterik ez dagoela eman zuen aditzera. Kexadunak, mediku honek ematen zion arretarekin konforme ez zegoela eta, beste mediku bat aukeratzea erabaki zuen eta horretarako birritan jo Arabako Osakidetzaren Osasun Alorreko Zuzendaritzaren bulegoetara, Osasun eta Kontsumo Sailaren 252/88 Dekretuko 2. artikulua babestean.

Bulego horietara joandako bakoitzean esan zioten ezinezkoa zela bere zonaldetik kanpoko medikutza orokorreko medikurik jartzea.

Osakidetzarekin harremanetan jarri ginen, eta esan ziguten kexadunak ez zuela ezezkorik jaso medikuz aldatzeko egindako eskabideari buruz, eta orobat esan ziguten, aitzitik, Osasun Laguntzarako Sailak behin eta berriro eman ziola aditzera mediku-aldaketa aukeratu nahi den sendagilearekin elkar hartuz egin behar dela.

Hortaz, kexadunak egin nahi zuen mediku-aldaketa egiteko inongo eragozpenik ez zegoenez gero, halaxe jakinerazi zion interesatuari Erakunde honek eta baita hori gauzatzeko zein pauso egin behar zituen ere, eta, jarraian, espedientea artxibatu egin zen.

Hezurretako eritasun larri batek jotako 16 urteko gazte bat azaldu zen, ama lagun zuela, Erakunde honen bulegoetan kexa bat bideratzeko.

Kexadunak zioen 1979.etik hona, urte hartan azaldu bait zitzaizkion lehen sintomak, Gizarte-Segurantzako hainbat medikurengana jo zuela Txagorritxuko Ospitalera, Santiago Ospitalera, Basurtokora, eta abarrera, eta horietako bat ere ez zela ausartu bere eritasunaren diagnostikorik egiten.

Hori ikusirik, 1987.ean familiak Nafarroako Unibertsitate-Klinikara jotzea erabaki zuen, non osteokondromatosia diagnostikatu eta sendabide gisa ebakuntza kirurgiko bat proposatu bait zioten, baina haurra hazi arte itxaron beharko zuketela adierazirik.

Urte berean Osakidetzako medikuek Madrileko Puerta de Hierro Klinikara bidali zuten, eta han ere ez zioten sendabiderik proposatu. 1989.ean berriro joan ziren aipatu lekura eta hartu zituen sendagileak atzera Iruñeko Unibertsitate-Klinikara itzultzeko aholkatu zien hango doktore espezialistak, azter zezan, oso aditua bait da honelako eritasunetan.

Hala beraz, Iruñera itzuli ziren eta urte hartantxe egin zioten ezkerreko zangoko ebakuntza, emaitza oso ona izan zelarik. Osakidetzak bere egin zituen ebakuntza horren gastuak.

Kexa hau aurkeztean kexaduna doktore berak eskuineko zangoko ebakuntza egiteko beharrean zegoen, bere eritasunari behin betiko sendabidea ematearren. Gurasoek, ebakuntzarengatik eta klinikan emandako denboragatik sortuko ziren gastuak Osakidetzak bere gain hartzeko beharrezko bolarantearen bila joan zirenean, Osakidetzak klinika harekin zuen hitzarmena hautsi zuela eta, hortaz, gastuak bere gain hartzerik ez zuela jakin zuten, euren nahigaberako.

Gurasoen eritziz, erakunde publikoak irtenbiderik eskaintzen ez zuela eta Gizarte-Segurantzako mediku baten aholkuz joan zen gazte hura Iruñera, eta jasan beharreko ebakuntza hura aurreko interbentzioarekin hasitako sendatze-prozesu beraren barruan sartzen zen. Hori zela eta, ebakuntza berriaren gastuak Osakidetzak bere gain har zitzala eskatzen zuten.

Gizabide mailan zuen garrantzia zela eta, interes handiz hartu zuen Arartekoak arazo hau, eta harremanetan jarri zen Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailbururarekin honek kexadunen eskabideari baiezkoa emateko aukera azter zezan, Erakunde honi bidezkoa iduritzen bait zitzaion.

Urte amaieran heldu zen Administaritzaren erantzuna, Osakidetzak ebakuntza horren gastuak bere gain hartzea onartzen zuela, alegia.

Berri hori gaisoaren familiari jakinerazteko telefonoz deitu genien eta esan ziguten, ebaketa jada egina zela uztailean Iruñean, arazo hari irtenbidea eman zain gehiago itxarotea ezinezkoa bait zen. Guztiarekin ere, irailan, ebakuntzaren ordainagiria eta dirua atzera itzultzeko eskabidea aurkeztu zizkioten Osakidetzari.

Gutun bat bidali genien kexadunei ordainketa, behin egin beharreko zenbait administaritza-tramite egin ondoren, Osakidetzak jakinerazi zigunez, luze gabe egingo zela adieraziz.

Hori eginik eta arazoa konpontzeko bidean zelakoan, artxibatu egin zen espedientea.

Alergia-probak beste osasun alor batetan egiteagatik sortutako gastuak itzultzeaz (351/90)

Erakunde honek Tolosako senar-emazte batzuen idatzizko kexa jaso zuen, emazteak egin behar izan zituen botika-alergiazko proba batzuei buruz.

Kexadunak zioenez, eskabidea egin eta sei hilabete iragan zirenean, probak egiteko eguna jarri zioten, baina ezin izan ziren burutu, azterketa ezezkoa izanez gero haietaz arduratuko zen sendagile internistarik ez zegoelako.

Hori zela eta, lau hilabete beranduago egin behar izan ziren beste osasun alor batetan.

Kexadunak, mediku-probak egiteko bere emazteari lagunduz egindako bidaia guztien gastuak atzera itzultzeko eskatu zion Osakidetzari.

Hain zuzen ere, 19.130 pta. itzultzeko eskatzen zuen, bai bidaia eta dietengatik, bai senarrak bere lantokian baimenak eskatu izanagatik jaso ez zituen soldata eta lantsariengatik ere. Osakidetzaeren Gipuzkoako Barrutiko Zuzendaritzak ezezkoa eman zion eskabideari. Erabaki horren aurka kexadunek aurretiazko erreklamazioa aurkeztu zuten, baina orduan ere ezezko erantzuna jaso zuten.

Arartekoak sortutako gastuak atzera itzultzeari buruzko zirkularren berri eskatu zion Osakidetzari, eta berehala eman ziguten.

Erakunde honek Osasunerako Nazio-Institutuaren Zuzendaritzaren 6/86 zirkularreko 6, 7 eta 8 Instrukzioak aztertu eta gaisoaren bidaia zein dieta-gastuak atzera itzuli behar zirela ikusi zuen, andre honek autobusez (7.2. Inst.) eta bere probintziaz kanpoko hiri batetara (8.1. Inst.) egin bait zituen bidaiak. Halaxe jakinerazi zitzaion Osakidetzari. Gainerako gastuak, aldiz, ez ziren atzera itzultzekotzat jo.

Osakidetzak gaisoaren dieta eta bidaia-gastuak ordaintzea onartzen zuela erantzun zuen, halere jakinerazten zuelarik honelako kasuetarako bide zuzena ez zela gastuak atzera itzultzea prestazio-eskabide izeneko bestelako administrarritza-sistima baizik, arinago egiten bait ditu bere bideak.

Hainbestenarekin, erantzuna bidali genien kexadunei esanez ez zela bidezkoa soldata murriztapenengatik izandako gastuak atzera itzultzea, ez eta lagundu zionarenak ere, gaisoak inoren laguntza behar zuenik ez bait zegoen klinikoki egiaztaturik eta datu hori medikuak egindako eta mediku-ikuskaritzak onartutako bolantean ere ez bait zen azaltzen.

Era berean, zegozkion gastuen dirua (gaisoaren bidaia eta dieta-gastuak) berreskuratzeko jarraitu beharreko bidea jakinerazi genion.

Honela arazoa ebatzirik gelditzen zelakoan, espedientea amaitutzat jo eta artxibatu egin zen.

Erreabilitazio beharrean zen gaiso batez (383/90)

Uztailaren lehen egunetan Erakunde honek gaisorik eta erreabilitazio beharrean zen Bergarako agure baten gutuna jaso zuen.

Kexadunak bere izkribuan zioenez, Eibarreko zentru hitzarmendu batetan egiten zuen betidanik bere erreabilitazioa. Atsedenaldira labur baten ondoren atzera zentru berean har zezatela eskatu zuen, baina han esan zioten, Bergaran Gizarte-Segurantzako erreabilitazio-zentru bat sortu zuten, hara jo behar zuela.

Berehala Bergarako zentruan izena eman arren, kexa aurkeztu zuen egunean ez zekien artean haren tratamendua noiz hasiko zen.

Arazoaren premiaz oharturik, Erakundeak berehala hasi zituen harremanak Osakidetzaren Gipuzkoako Barrutiko Zuzendaritzarekin, arazoari ahalik eta lasterren irtenbidea bilatzearen.

Aipatu Zuzendaritzak adierazi zigun kexadunak esandakoak egia zirela baina ez zekitelako zer zela eta ez zioten artean erantzunik eman, ezen osasun mailan Deba Garaiko eremua Arabako Barrutiko Zuzendaritzak kudeatua bait da eta, hortaz, honi bidaliko ziotela izkribua gure informazio-eska bideratzeko.

Hala, bada, uztailearen azken aldera Erakunde honek Arabako Barrutiko Zuzendaritzaren erantzuna jaso zuen, non jakinerazten bait ziguten, behin-behingo eta arazoa Bergarako erreabilitazio zerbitzuan ebatzi arte, kexadunaz Eibarreko Patronatuan arduratuko zirela.

Erantzun hau kexadunari helarazi genion eta beranduago bere familiarak adierazi zigun, azkenik, urrian hasi zela bere erreabilitazioa Bergaran egiten.

Beraz, arazoa hala ebatzi zelarik, espedienteak artxibatu egin zen.

Famili arrazoiak direla eta lantokiz aldatzea eskatzen duen Gizarte-Segurantzako funtzionari batez (399/90)

Gizarte-Segurantzako funtzionari batek, lantokia Zamorako Probintzia Ospitalean bait du eta Bilbon bizi den Eusko Jaurlaritzako funtzionari batekin ezkondua bait da, 1990.eko otsailean lantoki hutsak betetzeko egindako deia jarraiki Osakidetzaren ospitale batera etortzea eskatu zuen. Deialdi hori errekurrituta zegoenez eta, beraz, ez jakina ez zenez gero lanpostu haiek noiz emango ziren, Erakunde honetara jo zuen bere famili egoera eutsi ezinezkoari irtenbide bat bilatu nahian.

Ikusirik kexadunaren famili egoera egiazki larria zela, are larriagoa berrikan bikote hark seme bat izanagatik, Ararteko hau berehala jarri zen harremanetan osasun aginteekin egoera honi lehen bait lehen amaiera ematearren.

Erakunde honek egindako gestioen ondorioz, Osakidetzaren Pertsonalaren Gestiorako Zuzendaritzaren erantzuna jaso genuen, alegia, kexaduna urte hartako uztailearen 11ko lehiaketa ireki eta iraunkorrean deituriko lanpostu-aldaketen zerrendan sartu zutela, eta lantokia Cruces-eko Ospitalean jarri ziotela, lanean hasteko jarritako eguna 1991eko urtarrilaren 1a izanik.

Erantzun hau kexadunari helarazirik, arazoa ebatzia bait zen, amaitutzat jo ziren Arartekoaren egitekoak eta artxibatu egin zen espedienteak.

Andre batek bere amak Gurutzetako Ospitalean jasandako tratu txarra salatzeke izkribua bidali zigun.

Gaisoa presazko bidetik ingesatu zuten 1989.eko ekainaren 16an eta, kexadunak aitortzen duenez, hasieran emandako atentzioa zuzena eta ona izan zen.

Egun hartatik aurrera ez zuen inongo sendagileren atentziorik izan, kexadunak aipatu ospitaleko gaisoentzako arreta zerbitzuari kexa bat aurkeztu eta kardiologo batek ikus zezan lortu zuen arte.

Atentziorik ez emateaz gain, honako kexa hauek ere aipatzen zituen, hots, behin eta berriro eskatu arren, ez omen ziotela jarri bere amari infekzioak eragozteko koltxoï berezirik eta ez omen ziotela postura behar hainbat aldiz aldatzen. Zertzelada hauek egoera gaiztotu besterik ez zuten egin.

Haren amaren aldameneko ohean beste andre bat zegoen, larrialdi moduan ingesaturik 7 egun zeramatzana eta artean mediku batek ere hartaz arduratu gabetik; hori zela eta, kexadunak, gaisoen arreta zerbitzuari bere kexa aurkeztu zuenean beste andre honen egoera ere aipatu zuen. Kexa aurkeztu eta minutu gutxiren buruan mediku bat etorri zen hura ikustera eta orduraino jasotako tratamendu guztia bertan behera utzi zuen, handik ordu gutxitara ospitalaren alta eman ziotelarik inolako medikaziorik gabe.

Arartekoak Osakidetzari helarazi zion kexa hori eta aipatutako gertakarien berri eskatu.

Azaldutako gertakarien inguruan izandako zertzeladen berri emanez erantzun ziguten. Izan ere, kexadunak ekainaren 18an aurkeztu zion kexa Gurutzetako Ospitaleko gaisoen arreta zerbitzuari. Zerbitzu hau berehala jarri zen jardunean eta berehala eman zitzaien atentzioa bi gaisori.

Azaldutakoak zertan gertatu izan beharrik ez zuela oinarri hartuz, honela zurretzen zuen Osakidetzak: bi gaiso hauen egonaldia, pintaketa-lanak zirela eta, zenbait solairu ixtearekin batera suertatu zela, alegia, eta, hori zela eta, gaisoen eta osasun langileen ohiz besteko barreiaketa izan zela, horren ondorioz ospitale-solairuen eta hauen atentziorako zerbitzu arduradunen arteko halako deskoordinazioa gertatu zela. Amaieran barkamena eskatzen zien gaisoei izandako kalteengatik.

Orduan, Erakunde honek Administraritzak emandako erantzuna kexadunari helarazi eta Zuzendaritza Nagusiari honako gomendioa bidali zion:

“(…) zilegi bekigu J.T.A. horri gomendatzea aurrerantzean, eskuartean duguna bezalako kasuetan, ahalik eta neurri zehatzenak har ditzala, espediente hau sorrerazi zuena bezalako gertakariak galerazi eta gaiso guztiek osasun laguntza egokia izateko eskubi-dea ziurtatzearen (...)”.

Honela Arartekoak egin zitzakeen guztiak eginik zirelakoan, espedienteak amaitutzat eman zen.

Tolosako San Cosme y San Damián Klinikaren arazoa, eta Osakidetza sinatutako ospitale-kontzertuak (266/90)

Tolosako San Cosme y San Damián Klinikako ordezkariak keza bat aurkeztu zuten Ararteko Erakundeak, esandako klinika jasaten ari zen egoera larria azaltzen zuena, enplegua erregulatzeko espediente bi izan ondoren, zentrua behin betirako itxi behararen aurrean aurkitzen bait ziren.

Aditza eman zuten, Osakidetza izan omen zuen arazoa hobetzeko aukera 1989an, iraupen erdi eta luzeko egonaldia atenditzeko hogeit hamar kontratatuzko hitzarmena izan balu. Osakidetza aurretik sinatu zuen antzeko hitzarmen bat Tolosako beste klinikarekin, Santa M^a de La Asunción delakoarekin, 90 ohe partzialki erabiltzeko, alegia.

Osasunketa eta Kontsumo Sailburuarekin harremanetan jarri eta gaia azaldu zitzaionean, aditza eman zuen, osasun arloa INSALUetik Euskal Autonomi Komunitatera eskualdatu zenean, bazirela kontzertuak Tolosako bi osasun zentruarekin, hau da, Santa M^a de La Asunción eta San Cosme y San Damián delakoekin.

Gauzak horrela, eskualdeko osasun arreta zentru bakar batetan koordinatzeko beharra azaldu zen, hori zela medio, zerbitzuaren planteamendu bateratzailea alegia, ospitale publikoak dituzten beste eskualdeetan ematen den moduko asistentzia bermatzen bait zen. Bi zentruen artean aukeratzeko orduan, haien zerbitzu emanketa, neurriak, egitura aldeko faktoreak, etab., kontutan harturik, ikusi zen gomendagarriagoa zela Santa M^a de La Asunción delakoa aukeratzeko. San Cosme y San Damián Klinikaren aktibitatearen garapenak berak beharpen nabarmena erakusten omen zuen, 37 ohetik 13,5 besterik ez bait ziren okupatutakoak.

Erakundeak igorri egin ziren aipatu informazioa San Cosme y San Damián Klinikako ordezkariari, eta hauek erantzun zuten ez zetozeela bat Osasunketa eta Kontsumo Sailaren eritziarekin, zeren Tolosa eskualdeko hiritar/ohe ratioa Gipuzkoa osoko baxuena omen bait zen, kontutan harturik ehun bat gaiso Donostiako epealdi luze eta erdirako zentruetan atenditzen zituztela, eta ohe-okupazioa neurtzen zuen indizea, 1988 urtekoa, ez omen bait zen adierazgarria, urteko lehenengo zazpi hilabete besterik ez bait ziren kontutan hartu.

Txosten hau idazteko unean, Osasunketa eta Kontsumo Sailburuak eskatu zaion informazioa, San Cosme y San Damián Klinikako ordezkariak azaldutako argudioei buruzkoa, bidal dezan zain dago Erakunde hau espediente artxibatuzko.

3.8. INDUSTRIA ETA MERKATARITZA

A) Sarrera

6 izan dira sail honi buruz jasotako kekek, iritsi zaizkigun guztietatik % 2, alegia.

Honela banatu dira:

– Eusko Jaurlaritza	5
– Aldundiak	0
– Udalak	1

Instalakuntzen eta ibilgailuen kontrol eta fiskalizazioaren alorrean Administrazioak egiten duen lanaren kontrakoak izan dira kexa gehienak. Igo-gailuen derrigorrezko ikuskapenen inguruan ere gertatu dira.

B) Kexen aukeraketa

1988ko uztaileko eurite ezohizkoagatik Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzaren zenbatekoarekiko desadostasunaz (746/89)

Gasteizko bizilagun bat, Laudion komertzio baten jabea, kexu zen 1988ko uztailean gertatu zen ezohizko euriteagatik itzuli beharrik gabeko dirulaguntza moduan jasotako kopurua aski ez zelako lokala berreraikitzean izandako gastu guztiak betetzeko.

Erakundeak argitasunak eskatu zizkion Industria eta Merkataritza Sailari. Jasotako txostenaren arabera, abuztuaren 4ko 213/1988 Dekretuak, 1988ko ezohizko euritea zela eta aparteko neurriak arautzen zituenak ezarritakoari jarraituz, zuzena zen Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza. Dekretu horrek kaltea jasotako aktibo finkoen balioaren % 20ra arteko dirulaguntza, itzuli beharrik gabekoa, ezartzen zuen, Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak emandako edo eman beharreko zenbatekoa kenduta.

Ararteko honek ondoretzat eman zuen inolako bidegabekeriarik ez zela Administrazioak egindakoa, oso bestelako kontua bait zen, eta gainera Arartekoak erantzun beharrik gabekoa legeak bete beharri ez dagokiola, Eusko Jaurlaritzak eman beharko lituzkeen dirulaguntzen zenbatekoa zein izan beharko lukeen ebaztea.

3.9. NEKAZARITZA ETA ARRANTZUA

A) Sarrera

Atal honetan sartutako kexak 4 dira, jaso ditugun guztien artetik % 1,5 besterik ez. Kexagai izandako administrazioei begiratuz, honelaxe banatu dira kexa horiek:

– Eusko Jaurlaritza	0
– Aldundiak	2
– Udalak	2

Atal honetako kexak baserrietara edo herrietatik kanpo dauden nekazal eta abel esplotazioetara argindarra eta ura hornitzeko zerbitzuaren za-

balpenaren ingurukoak izan dira nagusiki, ezen eta askotan atzeratu egiten bait dira hariak edo urbideak zeharkatu beharreko lurak okupatu behar direlako, baina batzuetan ezinezkoa delako ikutu beharreko lurren jabeekin akordio batera azkar iristea, balioespenean edota jabegoa kentzeko prozesuaren beste edozein puntutan adostasunik ez egoteagatik.

Erantsi horri esplotazio horien kokapenak berak eragindako oztopoak, haien azpiko lurren erliebe gorabeheragatik eta hornidura edo azpiegituraren zentruetatik urrun egoteagatik.

B) **Kexen aukeraketa**

Argindarra ezartzeko lanen hasieraren atzerapena (621/89)

Urduñako baserri bitako bizilagunek kexu-idazki bat aurkeztu zioten Arartekoari, bertan Bizkaiko Foru Aldundiak nekazal eremuan argindarra sartzeko egitasmoa onetsi zuenetik lau urte joanak zirela eta, zegokion eskabidea auzeratu eta eskatutako zenbatekoa ordaindu zuten arren, artean ere argindarrak gabe jarraitzen zutela adierazita.

Erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Diputatuarengana jo zuen kexabidearen xedeari buruzko argibideak jasotzeko asmoz.

Eta Arartekoari bidalitako txostenean aditzera ematen denez, bazen Urduñako Udalerriko Montaleon eta San Pelaio auzoak argindarrez hornitzeko airetiko linea elektriko bat eta transformazio zentru bat ezartzeko egitasmoa.

Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Energia Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak 1983ko urriaren 3an eman zuen baimena delako egitasmo horretarako, eta Sociedad Hidro-electrica Iberica, S.A.ri (Iberduerori) eman zitzaion egiteko ardura.

Ikututako lursail partikularretatik pasatzeko beharrezko baimenak lortzeko sortu ziren zailtasunak zirela eta, 1986ko otsailaren 27an enpresa ezartzaileak egitasmo ofizialak ikututako 1, 4 eta 6. zenbakiko lurzatiak okupatzeko beharra deklara zedila eskatu zuen.

Jasotako datuon aurrean, Arartekoa Iberduerorekin jarri zen harremanetan telefonoz eta bertan jakin erazi zioten epaikizun zegoen desjabetze espedientea jadanik erabakia zegoela eta arazoa, beraz, laster konpontzekotan zegoela.

Ondoren, Erakundeak kexadunei auzia zertan zen aditzera eman eta espedientea behin-behinean artxibatu zen.

Handik hilabete batzuetara, Arartekoa kexa ezarri zutenekin harremanetan jarri zen egoeraren berri jakin nahian, eta erantzun gisa, artean lanak hasi gabe zeudela, eta Iberduerok ez zuela horietaz ezer jakin erazi jaso zuen.

Iberduerorekin telefonoz harremanetan jarri ondoren, jakin zuen Erakunde honek desjabetu beharreko lurzatiaren jabearen jarrera besterik ez zela izan lanen hasieraren atzerapena eragin zuen arrazoia, eta beraien ustetan lanak laster egongo zirela amaituta.

Izan ere, handik gutxira kexadunek argindarra ezarria zegoela jakin erazi zioten Arartekoari, bai eta beren esker ona ere agertu "bertan behera zegoen eta irtenbiderik gabe zirudien" gai horretan erakutsitako arduragatik.

3.10. GARRAIOAK ETA HERRI-LANAK

A) Sarrera

Alor honi buruz jaso ditugun kexak 11 izan dira guztira, alegia, guztietatik % 3. Honela banatu dira:

– Eusko Jaurlaritza	6
– Aldundiak	3
– Udalak	2

Eusko Trenbideak konpainiak kexagai izaten jarraitzen du, batez ere bidaiarien eman handieneko orduetan bagoi gutxi daudelako, eta, beste batzuetan, familia ugari koei edo pentsiodunei merkapenik egiten ez dielako.

Alor honetan kexak jaso dituzten beste batzuk garraio-txartelaren kategoria desberdinak emateko moduari buruzkoak izan dira.

B) Kexen aukeraketa

Hiriko autobusetan jarritako makina zulatzaileak "bonobus" txartela ez onartzearen ondorioez (437/90)

Erakunde honetan kexa idazki bat jaso zen, Donostiako hiriko autobusetako gidariak autobus barruan jarrita dagoen makina zulatzaileak "bonobus" txartela okertuta egonez gero onartzen ez duenean hartzen duten jokamoldea salatzen zuena.

Hori gertatzen denean, bidaiariak beste bilete baten dirukopurua ordaintzen ez badu, ibilgailua uztea eskatzen zaio, erreklamatzeko eskubiderik ez duelarik.

Indarrean dagoen arautegia, eta zehazkiago esanda, 1984ko uztailaren 19ko Kontsumitzaileak Babesteko Legean bildutako arauak aztertu eta gero, Ararteko honek txosten batean eman zuen bere eritzia, alegia, "bonobus" txartelean jarritako baldintza abusuzkoa zela, eta, azken finean, erabat eta berez baliogabea.

Hainbat aldiz eritziak elkarri eman eta gero, Arartekoak gomendio bat egin zion Donostiako Alkateari, baldintza hori txarteletatik kendu, eta "bonobus" okerrak berrien ordeztatzeko behar zirenak praktikan jartzeko, eta, inoiz baten ere, gidariak berek baliozta dezaten dagokion biletea eskuko zulagailuarekin.

Handik gutxira Donostiako Tranbia Konpainiaren Zuzendari Kudeatzailearen izkribu baten bidez jakinerazi zitzaigun honako hau:

“1990eko abenduaren 15ean, konpainia honetako Administrazio Batzarra bildu eta, besteak beste, Erakunde horretako idazkia aztertu zuen; ondorioz, esandako baldintza kendu, eta zuzendari-tzak behar diren bitartekoak jarriko ditu erabiltzaileek bonobus hondatuak aldatu eta dirurik eduki ezean ibilgailua utzi behar ez dezaten.

Erakunde horretako idazkia jaso genuenean bonobus berrien lehen emanaldia bagenuenez gero, eta haietan oraindik baldintza hori agertzen delarik, jakinerazten dizugu behar diren aginduak eman dizkiogula gure hornitzaileari 2. emanaldian, otsail bukaera edo martxo hasieratik aurrera alegia, baldintza hori ager ez dadin”.

Arartekoak egindako gestioen ondorioen berri erreklamatzailari eman ondoren, espedientea artxibatu egin zen.

Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos Konpainian familia ugarikoei zerbitzuak merkeago emateaz (231/90)

Erakunde honi bidalitako izkribuan, kexadunak salatzen zuen, lau seme-alabako familia ugarikoa izanik, Amaratik Hendaiara joateko, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos Konpainiaren “topoa” hartzera lehiatilara txartel bila joan zenean, hango enpleguak familia ugarikoei inolako murriztapenik ez zutela adierazi ziola.

Kexadunak 1971ko abenduaren 23ko familia ugarikoei buruzko araudira jotzen zuen, kasuan-kasuko murriztapen motak ezartzen dituzten 47 eta 48. artikuluetara hain zuzen, eta aipatu araudia aplikatzeko bidezko trami-teak egitea eskatzen zuen, eta baita egin ez zioten murriztapena ordaintzea ere, hala balegokio, eta hori, ez dirutan jotzen zuenagatik, eskubidez zego-kionagatik baizik.

Arazoa azterturik, Ararteko honek Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri-Lan Saileko Zuzendariarengana jo eta kexa sortarazi zuen arazoari buruzko informazioa eskatu zion.

Zenbait gestio egin ondoren, Erakunde honek Garraio Zuzendariaren gutun bat jaso zuen, bertan adierazten bait zitzaigun 1990ko maiatzaren 18tik aurrera, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos Merkatal Zuzendari-tzaren 16/90 zirkularraren bidez, familia ugarikoen buruontzako murrizta-pena indarrean jarriko zela. Era berean jakinarazten ziguten taloi bat bidali-ko zutela kexadunaren izenean familia ugarikoa izateagatik % 20 ordaintzeko.

Egindako gestioak eskertzeko eta hartu ziren neurriak egiaztatzeko kexadunak berak bidali zigun gutuna jaso genuenean, artxibatu egin genuen espedientea.

3.11. HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIROA

A) Sarrera

Alor honetako kexak 79 dira, jaso ditugun guztien artetik % 24.

Kexagai izandako administrazioei begiratu, honelaxe banatu dira kexa horiek:

— Eusko Jaurlaritza	17
— Aldundiak	1
— Udalak	61

Atal honen inguruan kexatzeko motibu izan diren arazoak 1989koen tankera beretsukoak izan dira.

Aipatzekoak dira ekintza gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arrisku-tsuek, ostalaritza alorrekoek batez ere, jendeari eragiten dizkion ondorio okerrak. Askotan taldeak izaten dira kexa aurkezten dutenak, jabe taldeak esaterako, gogaipeak etengabe jasateaz eta udalari eskatutako laguntza ez jasoteaz aspertuta.

Hirigintzaren alorrean ugalduz doaz oraindik arau subsidiarioetan edo bizilekuetarako egitasmo partzietan ezarritako antolamendua zalantzan jartzen duten kexak. Batzuetan, auzokideek nahi dute auzoko halako lursail bat ekipamenduetarako bideratzea eta ez etxebizitzak eraikitze; beste batzuetan, aldiz, auzokideak berak ukatzen dira haien etxetik hurbileko lursail bat auzoko halako ekipamendu baterako erabiltzera.

Arau subsidiariorik edota 1975eko Lurraren Legeari egokitutako egitasmo nagusirik ez duten udalen kontrako kexak azaltzen dira oraindik. Ordenamendu eguneraturik ez edukitzearekin bizilagunek egokitzat ez zuzentzat jotzen ez duten hirigintz-erabakiak hartzen dira, eta batzuetan arazoa Administrazio lokalaren interesen aurka iraultzen da gero, ekiteko bere ahalmenak mugaturik bait ditu beharrezko antolamendua ez edukitzeagatik.

Azkenik, multzo handi eta ugari samarra osatzen dute etxebizitzari buruzko kexak. Era guztietako eta munta handiko arazoak azaltzen dituzte: infraetxebizitzakoak, promozio publikoko etxebizitzak eskuratzeko baremo arautzaileetan puntuaziotarako kontutan hartu gabeko gutxiagotasun subjetoak, etxebizitza babestuetako eraikuntz akatsak, pisua eraikitze lanean eta erosleri ematean zuribiderik gabeko atzerapenak egotea...

Atal honek bere barnean hartzen dituen gaiak eragin zuzen eta egunerokoa daukatelarik hiritarren bizimoduan eta euren inguruan, ez da harritzekoa urtetik urtera kexa kopururik handienetakoa jasotzen duen atal izatea.

B) Kexen aukeraketa

Izoztutako produktuen denda batek eragindako eragozpenez (164/89)

Vitoria-Gasteizko emakumezko biztanle batek salatu zuen bere etxean zarata eta bibrazioak jasaten zituela izoztutako produktuen denda batek eraginda.

Horrekin batera, Vitoria-Gasteizko Udalaren gestioarekin ados ez zegoela adierazi ere egin zuen, hainbat aldiz salaketa aurkeztu arren inolako neurririk ez bait zen hartzen kaltetutako etxekideen bizimoduaren kalitateari eusteko.

Erakundearen eskariz Udalaren Ingurugiro Eremuak emandako argitasunen arabera, aipatu establezimenduari emandako lizentzian halako baldintza edo neurri zuzentzaile batzuk ezartzen zitzaizkion jarduera horri, hiri-antolakuntzarako egitasmo nagusiaren erabilerak arautzeko hirigintz ordenantza berriak finkatzen zituen mugen barruan kokaturiko baldintzak, hain zuzen ere.

Gaueko zarata ikuskatzailetzarako zerbitzuak burututako neurketa batzuen ondorioz frogatu ahal izan zen noizean behin gainditzen zirela lizentzian finkatutako mugak. Horregatik, eta jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen arautegiko 36. artikuluan ezarritakoari jarraituz, dekretu bidez hilabeteko epea ematen zitzaion esandako establezimenduari neurriak har zitzan auzokideei eragindako eragozpenak amaierazteko, eta diru-isun bat ezarri ere egin zitzaion.

Gerora, halako ikustaldi batzuk egin ziren zarata maila neurtzeko, eta soinu-zuko eragozpenik oraindik bazela ikusita, beste ebazpen baten bidez isuna ezarri eta beste epe bat eman zen okerrak zuzentzeko neurriak har zitezen.

Berrito ere beste ikustaldi bat eginik, zarata-igorpenek jarritako mugen gainetik jarraitzen zutela ziurtatu ondoren, beste zigor espediente bati ekin, eta establezimendua ixteko beharra ezarri zen.

Establezimendua itxi erazi ondoren, bere eragile elkartearen ordezkari batzuek eta Lurralde Antolakuntzarako eta Ingurugirorako Alorraren alkatorde ordezkariak egindako bilera baten medioz, zigorra bertan behera utzi eta hilabeteko beste epe bat ezarri zen esandako okerrak zuzentzeko.

Goian azaldutakoaz gain, bestalde, oraindik orain Vitoria-Gasteizko Udalak zarata eta bibrazioen igorpena eta harrera arautzen dituen udal ordenantza bat onartu du (ALHAO, 1990ko 28. zkia.), zeinetan beheratu bait dira lehenago finkatuta zeuden mugak.

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Eremuak bidalitako txostena aztertuta ondoren, Erakundeak gomendio argi bat egin zion Udal horri, establezimenduaren zuzendariarekin hartutako akordioak beterazi eta zorrozki aplikatu dadin udal ordenantza berriaren edukina.

Alegatzaileari guztiaren berri jakinerazi ondoren, espedientea behinik-behin artxibatu zen.

Etxebizitzaren Ministraritzaren 1978ko otsailaren 28ko ebazpenari ez jarraitzeagatik, Donostiako Udalaren jarduerarekiko desadostasunaz (396/89)

Erreklamatazaileak adierazi zuen ez zegoela ados Donostiako Udalarekin, Hirigintzarako Batzorde Probintzialak 1978ko otsailaren 28an Groseko zabalguneko 26. eta 32. etxemultzoen bersaillkapena baliogabetu eta Uda-

lari beste bersaillkapen proiektu bat agintzeko hartutako ebazpenari ez ziolako jarraitu esandako Udalak.

Bersaillkapen proiektua ez tramitatzek kalte egiten zion alegatzaileari, goian aipatutako etxemultzoetan lursail baten jabe bait zen.

Kexaren gaia aztertu ondoren, baieztatu egin zen Udalak halako ebazpen batzuk hartuak zituela Groseko zabalguneko aipatu etxemultzoak bersaillkatzeari berriz ekiteko. Azkenik, 1990eko maiatzaren 9an, Udalak dekretu bidez onartu zuen ekinbide sistema aldatzeko espedienteari ekin, eta bersaillkapenerako proiektua tajutzea diziplinarteko talde bati eskatzea.

Bersaillkatzeko prozesuari ekin zaionez gero, kexaren gaia konpondu dela eritzita, kexadunari adierazi, eta espedientea artxibatu egin zen.

Iturri publikoaren horniziorako urbide baten hausturaz (822/89)

Mendozako emakume batek Arartekoarengana jo zuen herriko iturriaren hornizioa ematen duen iturburuko urbidea hautsia zela salatzen auzimoz.

AMVISA, Gasteizko Udal Uren Sailarekin harremanetan jarri eta gero, adierazi zitzaigun arazoa ez zela bakarrik urbidea hautsia zela, baizik eta, gainera, iturria hornitzen duen iturburuko urak ez zituela betetzen edangarritasun baldintza egokiak.

Era berean, jakinerazi zitzaigun arazoa konpontzekotan zela alde bien artean. Alde batetik, Nekazal Eremuak bere gain hartzen duen iturriko urbidea konpondu eta hobetzea, eta AMVISAK ur hornizioa osasungarritasun eta edangarritasun baldintza egokietan egitea.

Erreklamatzaileri gure gestioen berri eman eta espedientea artxibatu egin zen.

Lanabesetarako txabola bat legearen aurka zabaltzeaz (230/90)

Kexadunak nekazaria eta Mendizorrotzean (Donostian) nekazal hustiaketa baten jabea zela azaldu zuen. Horretarako, bi lizentzia eskatuak zituzkion Donostiako Udalari, bat lanabesetarako txabola bat eraikitzeke, eta bestea lurrak mugitzeko. Udalak lehena onartu baina bigarren lizentzia ukatu egin zion. Erreklamatzailiak obrari ekin zion, eta lur mugimendu bat egin zuen, bere izkribuan azaltzen zuenez, horretarako baimena txabolaren obra onartzen duen lizentzian inplizitua zegoelakoan. Udalaren lizentziaz hartutako neurriak hustiaketarako behar zituen nekazal tresnak gordetzeko nahikoak ez zirela ikusirik, beste lizentzia bat eskatu zuen txabola zabaltzeko; bitarte horretan, txabolaren obrak, zabaltzekoak barne, aurrera zihoazen.

Geroago, txabola zabaltzeko lizentzia ukatzen ziotela adierazten zion jakinerazpen bat jaso zuen.

Onartuta egon ez arren kexadunak obrei jarraitzen zenez gero, Donostiako Udalak hirigintz diziplinaren bideari ekin eta obrak bertan behera uzteko eta eginda zeuden onartu ezinezko obrak botatzeko agindu zion.

Emandako epean Udalaren agindua bete ez zuenez gero, Udalak txabola bota erazi eta zigor espedientea ireki zion erreklamatzaileri, 75.000 pezetako isuna ezarrita.

Auziaren funtsean hirigintzari buruzko zilegitasun arazo bat ikusi zen, eta ez nekazaritzarako eta haren sustapenerako arauei buruzkoa, alegatzaileak azaltzen zuen bezala. Ildo horretatik, Donostiako hiri antolakuntzarako egitasmo nagusiak "Naturgune" helburua ezartzen dio kexari dagokion aldeari, eta bereziki babestu beharreko lekuzat jotzen zuen; horregatik, Lurraren Legearen 86-2. artikulua babesean, ezingo da helburu edo izaera aldatzen dioten edota babestu nahi den balio berezia kaltetzen duten jardueretan erabili.

Kexadunari gure ikerketaren ondorioaren berri emanik, ikuspegi formaletik begiraturaz Donostiako Udalaren ekintza guztiak legez ezarritako hirigintz prozedurari jarraitzen ziotela ebatzita, espedientea artxibatu egin zen.

Babes ofizialeko etxebizitza bat ukatzeaz (31/90)

Kexadunak bere izkribuan esaten zuen 1988ko uztailen Intxaurrendoko babes ofizialeko etxebizitza bat emateko eskatu eta itxarote-zerrendan geratu zela harrez geroztik.

Zenbait hilabete geroxeago, alokera-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitza batzuen promozioa zela bide, beste zerrenda bat plazaratu zen Donostiako Udalean, baina bertan ez zegoen kexadunaren izena.

Argibideak eskatu zituen Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzan, eta han jakinerazi zitzaion etxebizitza behar izatearen justifikaziorik ez izateagatik zegoela zerrendatik kanpo. Horregatik, 1989ko abuztuan goradeia egin zion Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuari, baina ezezko erantzuna eman zitzaion azaroan.

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailera telefonoz hots egin zuelarik, bertan aditzera eman zitzaion hiru helbide desberdin edukitzeagatik kendu zutela zerrendatik; erreklamatzailak, aldiz, helbide bakarra baina hiru izendapen desberdin zituena zela baieztatzen zuen.

Horren ondoren, eta bere aldeko irtenbiderik aurkitu ez zuenez gero, Erakunde honetara jo zuen.

Arartekoak, halako gestio batzuk egin eta gero, jakin zuen erreklamatzailak egitan eskatu ziola lehenagoko batean Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari, Gipuzkoako Ordezkaritzaren bitartez, babes ofizialeko etxebizitza bat, jabetza-erregimenean.

Eusko Jaurlaritzak zuzenean sustaturiko etxebizitzak izan arren, Donostiako Udalak, sustapen publikoko eta babes ofizialeko etxebizitzaren esleipena arautzen duen 90/88 Dekretuaz baliatuz, beraien arteko % 50 eskatu zituen alokeran uzteko asmoz. Eta etxebizitza horietatik 91 eman zitzaizkion, Sailburuaren aginduz.

Gainontzeko 117 etxebizitzak banatzearen, jasotako eskabideen artean halako aukeraketa bat egin zuen Donostiako Udalak, erreklamatzaila 134. postuan geratu zelarik.

Zerrenda hori jendearentzat ikusgai jarri zen, hiritarrei on zeritzaizkien kexabideak egin zitzaten, eta geroago kexabide horiek Etxebizitza Ordezkaritzara bidali ziren, eskabide batzuetan antzemandako akats batzuei buruzko txosten bat erantsita. Besteak beste, kexaduna zerrendatik kanpo uztea proposatzen zen, etxebizitza behar izatearen zuribiderik ez zuelakoan; izan ere, bere eskabidean erreklamatzailerak adierazi zuen 30 m²ko pisu batean bizi zela, eta beraz promozioan eskaturiko baldintzak (senitarteko bakoitze-ko 10 m²tik behera edukitzea) betetzen zituela, baina, hala ere, Donostiako jabego-erregistroaren ziurtagiri baten arabera, haren etxebizitzaren gainazala 51 m²koa zen, eta, horrela, promoziotik kanpo geratzen zen.

Etxe baten salerosketa dela medio Erandioko Udalarekin izandako auzi batez (50/90)

Kexadunak Erakunde honetara jo zuen bere senitarteko batzuekin batera Erandioko Udalerrian dagoen etxe huts baten jabea dela azaltzeko.

Etxe hori eraikita dagoen lursaila eraikitze trinkoko hirilur moduan sailkatuta zegoen.

Kexadunak jakin zuen prestatzen ari ziren antolamendu-arau subsidarioetan lursail horren sailkapena aldatzea proposatzen zela aldameneko etxeei halako zabaltoki bat utziko zien plaza bat jartzeko asmoz. Hori dela eta, Udalera jo, eta han adierazi zitzaion etxea erosteko prest zeudela haren lursailak ordura arte izandako sailkapenaren araberako prezio batean.

Hasieran asmo on hori azaldu arren, orubearen salneurriari buruz akordio batera iristea ezinezkoa gertatu zen, oso handia bait zen bi alderdien eskeintzen arteko aldea.

Beste alde batetik, esan dugun etxea inguratzen duen lurraren jabea Fundacion Escuelas Jado delakoa da, erreklamatzailerak eta bere senitartekoek prekario moduan daukatelarik jabetza hori. Lur hori IMEBISA enpresak hartu du oraindik orain Bilboko metroaren obrak egiteko, dirudienez, jabeen baimenaz baina prekariodunen baimenik gabe.

Arartekoak arreta handiz aztertu zuen arazo hau, eta azkenik eritzi zion Udalak ez zuela indarrean zegoen legeria hautsi. Hori adieraztearren gutun bat bidali zitzaion kexadunari, zeinetan aditzera ematen bait zitzaion, gainera, etxea erosteko salneurriari buruzko akordiorik lortzeko eragozpenak zirela bide, Udalak jabegoa kentzeko espedientea ireki zezakeela.

Horrela, arazoa bukatutzat eman, eta espedientea artxibatu egin zen.

Bilboko auzo baterako bide-sarrerarik ezaz (74/90)

Bilboko La Asunción auzoko biztanle talde batek Arartekoarengana jo zuen auzo horrek bide-sarrerarik ez zuela salatzeko.

Adierazi zutenenez, Udalarekin gestio ugari egin ondoren arazoa konpon-tzen saiatzeko, sarbideak egiteko plangintza bat azter zezatela lortu zuten. Bideak hartu behar zuen lurra dohain utzi eta gero, proiektua onartzen zela

adierazi zitzaien. Azkenik, obrak hasi ziren, baina baita berehala gelditu ere, horren arrazoirik jakinerazi ez zitzaielarik.

Arazaari inolako konponbiderik eman gabe denbora igarotzen ari zenez gero, Arartekoarengana jo zuten Udalarekin gestioak egin eta obrak ahalbait lasterren hasi zitezten.

Bilboko Udalarekin harremanetan jarri ondoren, erantzun zitzaigun berandutze horren arrazoiak honako hauek zirela:

Sarbidea egiteko proiektua, 1986an onartua, ezin izan zen burura eramane proiektuak hartutako lurrez baliatzerik ez zegoelako eta garai hartan indarrean zegoen antolamenduak ez zuelako aurrikusten sarbide hori.

Geroago, antolamendua aldatu zenean sarbidea erantsi egin zen. 1989ko apirilean beste proiektu bat idatzi zen, 4,5 m.ko zabalerako bide bat, galtzadak eta espaloi guneak osatua, eta galtzadak iristen ez zituen lekuetan eskailerak sarturik.

Alkategoak 1989ko irailaren 3ko dekretu batez onartu zuen proiektua, eta berehala ekin zitzaien obrak esleitzeko eginbehar legalei.

Eskeintzak aurkezteko epea amaitu ondoren, enkantea hutsik geratu zen inolako eskeintzarik azaldu ez zelako; horregatik, Udalak kontratista hautatzeko beste prozedura bati ekin behar zitzaiola erabaki, eta zuzeneko kontratazioa egin zen.

Gutunazalak 1990eko urtarrilean ireki eta gero, obrak egitea V. Urruticoechea, S.A. enpresari esleitu zitzaion.

Erantzun hau kexadunari jakinerazi, eta obrak berriz hasteko oztopo administratiboak konponduta zeudela eta sarbideak berehala burutuko zirela eritzita, espedientea artxibatu egin zen.

Eusko Jaurlaritzak etxekide elkartearen kuota ez ordaintzeaz (89/90)

Portugaleteko La Florida etxe-taldeko jabe elkartearen lehendakariak Erakunde honetara jo zuen Eusko Jaurlaritza, elkarte horretako etxebizitza baten jabe izan arren, gastu amankomunetarako ezarritako hileroko kuota ordaintzera ukatzen zela adierazteko.

Esandako etxebizitza hori maizter batek bete, eta hasieran bere gain hartu zuen elkartearen kuotaren ordainketa, baina handik gutxira utzi zion ordaintzeari. Horiek horrela, kexadunak behin baino gehiagotan jo zuen Bizkaiko Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Lurralde Ordezkaritzara, baina honek ez zuen zorrik onartzen, maizterrearekin izenpeturiko hitzarmenaren arabera berau bait zen etxekideen gastuak ordaindu behar zituena.

Euskal Administrazioak behin eta berriro ezezko erantzuna ematen zuenez gero, erreklamatzailak Arartekoarengana jo zuen konponbide bila.

Ararteko honek, arazoa aztertu ondoren, eta La Florida jabe elkarteak arrazoi zuela eritzita, gomendio bat bidali zion Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailera, funtsezko zatian honako hau zioena:

“... Beste alde batetik, Solairukako Jabetzaren Legearen 95. artikulua ezartzen du etxebizitzaren jabea behartuta, dagoela eraikinen mantenuak, bere zerbitzuek, tributu eta zergek eragiten dituzten gastu orokorretan parte hartzera.

Hortaz, esandako etxebizitza horren titularra izanik, Eusko Jaurlaritza behartuta dago eraikinaren mantenu egokiak eta amankomuneko zerbitzuek eragindako gastu orokorrei aurre egiteko.

Eusko Jaurlaritzak betebeharrak hori dauka jabe elkartearikiko, nahiz eta maizterren eta Eusko Jaurlaritzaren artean halako kontratuzko harreman bat egon, zeinen 3. klausularen arabera onuradunaren kontura baitoaz etxebizitzaren zerbitzu amankomun edo bereziek eragindako gastu guztiak.

Kontratu horrek, bi alderdien arteko legea osatzen duenak, ez du inolako eraginik hartaz kanpoko hirugarrengogan, jabeen elkartarengan esate baterako.

(...) Ondorioz, Arartekoak uste du kexaren konponbidea legeria zorrozki beteta etorriko dela, horrek esan nahi duelarik Eusko Jaurlaritzak ordaindu behar dituela jabeen elkarteari zor dizkion kuotak. (...)”

Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, erantzun moduan, Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkarari esandako zorra Portugaleteko La Florida Jabe Elkarteari ordaintzeko emandako aginduaren kopia bidali zuen.

Arazoa horrela konpondu zelarik, espedientea artxibatu egin zen.

Obretarako baimen bat indarrean dagoen hirigintz arautegiaren aurkako auzitegiaren (90/90)

Kexadunak, Mungiako Intxausti Eresgile kaleko jabe elkartearen administratzailea zen aldetik, Erakunde honetara jo zuen berearen aldameneko etxe batean ustez legez kanpokoak ziren obra batzuk egiten ari zirela salatzeko. Zehazkiago, obra hori teilatua 2,5 metro altxatzekoa zen, ganbara batzuk eraikitzearen.

Kexadunak bai Mungiako Udalera, bai Bizkaiko Foru Aldundira jo zuen zuzentzeko neurri egokiak har zitezten, baina ez zuen bere nahien aldeko erantzunik jaso.

Arartekoak gai honi buruz egindakoari buruzko txostena eskatu zion Mungiako Udalari emandako baimena zilegizkoa ote zen ala ez argitu ahal izateko.

Udalak bidalitako espedientea eta Mungiako planeamendu arau subsidiarioen testua aztertu eta gero, Erakunde honek ikusi zuen arau subsidiarioetan, hirilurreko eraikuntzarako ordenantzaren hamahirugarren arauak ezarritakoaren arabera, argi eta garbi adierazten dela eraikinen teilatuak: “... bi eratakoak izan daitezkeela: lauak eta isuridunak. Teilatu isuridunetan, gailurra 2,5 metrotara egongo da gehienez ere erlaizaren mailatik”.

Beraz, argi dago kasu honetan emandako obra baimenak hirigintz arautegiari erabat jarraitzen diola, eta, horren ondorioz, obra hori zilegizkoa izango da baimenean ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Azalpen hauek erantzun moduan erreklamatzailerari bidali, eta espedientea amaitutzat eman ondoren artxibatu egin zen.

Hirigintz alorreko zigor-espedientea (118/90)

Bilboko biztanle batek Erakunde honetara jo zuen ondoan adierazten ditugun gertakariak azaltzeko:

1986. urtean, Bilboko Udalak, kexadunaren jabetzako etxebizitza bat kokatuta dagoen eraikina oso egoera okerrean zegoela ohartuta, hilabeteko epea eman zien haren jabe elkarteari beharrezko konponketa lanak egiteko.

Ikusirik 1987ko ekainean oraindik lan horiek hasi gabe zeudela, Udalak zigor espedientea ireki zion eraikinaren jabeei, eraikina egoera onean edukitzeko betebeharrak ez arduratzeagatik, eta, horrekin batera, lanak egitera behartuta zeudela gogorarazi zien.

Urte hartako urrian, kexadunak eta beste auzokide batek idazki bana bidali zioten Udalari, agindutakoa auzokideen arteko desakordioagatik ez zela bete adieraztearren, eta Udalaren esku jartzearren obrak egiteko haiei zegokien kuotaren neurrian.

1989ko abuztuan, Udalak aditzera eman zion jabe elkarteari zigor espedientearen jartzaileak 300.000 pezetako isuna proposatzen zuela, eta hamabost eguneko epea ematen zien obrak burutzeko.

Erreklamatzailleak eta bere auzokideak isunaren aurkako errekurtsioa ezarri zuten, Arautegi Zibilaren 1.137, 1.138 eta 1.150 artikuluetan babes-turik, gainerako auzokideen zabarkeriagatik haiek zigorrak jaso behar ez zutelakoan.

1990eko otsailean, Udalak erabaki zuen azkenik 300.000 pezetako isuna ezartzea Bilboko eraikin horretako jabeei, hilabeteko epea emanik obrak burutzeko, eta jabeek egin ezean berak eginaraziko zituela oharteraziz.

Arartekoak jasotako kexa, gauzak horretan zeudela iritsi zen. Azaldutako arazoa arreta handiz aztertu ondoren, Erakunde honi eritzi zitzaion Bilboko Udalaren jokabidea guztiz legearen araberkoa zela, erreklamatzaillearen borondate ona nabaria izan arren, ezin daitekeelako ahaztu konponketa behar duten osagaiak —fatxadak eta etxegainak— amankomunak direla, eta titularrak, hau da, jabe elkartea dela, beraz, haien egoera on zein txarraren erantzulea.

Beste kontu bat da elkarte horretako kideen arteko harremanei dago-kiena, baina Erakunde honen aginte-esparrutik kanpo geratzen denez gero, bide zibiletik konpondu beharrekoa da, bide horretan erreklamatzailleak egoki deritzaiona erreklama diezaiekeelarik gainerako jabeekideei.

Ondorio honetara iritsita, azalpen hauek bidali zitzaizkion erreklamatzailleari erantzun moduan, eta amaitutzat eman zen espedientea.

Planeamendu arau subsidiarioak onartu eta gero lursail baten sailka-pena aldatzeaz (182/90)

Erreklamatzailleak kexa idazki batez jo zuen Erakunde honetara, Gorliz udalerriko planeamendu arau subsidiarioetan, Udalak 1989ko otsailean onartu eta gero, bere jabetzako lursail bat parke publiko moduan sailkatuta

azaltzen zela salatzeko, ordura arte lursail hori landetxe gisa azaltzen bazen ere.

Lurraren Legearen 41. artikulua ezarritakoari jarraituz, kexabide bat aurkeztu zion Gorlizko Udalari, lursailaren sailkapena aldatzeko adinako interes publikorik ez zegoelakoan; horren arabera, sailkapenaren aldaketak zekarkion galera ekonomikoagatik kalteordain bat eman eta jabegoa kentzeko espedientea ireki beharko zitzaion.

Kexabide hori geroago ezetsi egin zuen Gorlizko udalbatzarrak, eta horregatik laguntza eske Arartekoarengana jotzea erabaki zuen erreklamatzailerak.

Erakunde honek arreta handiz aztertu zituen gertakarien kontakizuna eta bai erreklamatzailerak, bai Udalak ere bidalitako dokumentazio guztia; eta Udalaren jokamoldea beti ere egokia izan zela eritzi zitzaion, Lurraren Legean eskatutako tramite guztiak bete zituelako. Arazoaren gakoari gagozkiolarik, ezin ahaz daiteke, alde batetik, Lurraren Legearen testu bateratuan ezarritakoaren arabera, Udala dela planeamendu arauen bidez lurra sailkatzeko eginkizuna duena, eta eginkizun horretan bere kasa joka deza-keela; baina gai hori Ararteko Erakunde honen ahalmen-esparrutik kanpo geratzen da; eta, beste alde batetik, jabegoa kentzeko espedientearen lursaila bere balioaren arabera tasatu behar zenez, ez dago inolako galera ekonomikorik, lursailaren balioaren aldaketa ekonomikoa baizik.

Guzti hau horrela adierazi zitzaion kexadunari eta Udalari, eta espedientea amaitutzat eman ondoren, artxibatu egin zen.

Hiri-antolakuntzarako egitasmo nagusia berriztatzearen ondoren lursail baten eraikitze-eredua aldatzeaz (406/90)

1983ko Laudioko hiri-antolakuntzarako egitasmo nagusiak programatu gabeko lur urbanizagarri gisa sailkatzen zuen kexadunaren jabetzako lursail bat, multzokako etxebizitza erako bizigune moduan erabiltzeko helburua emanik.

Hiri-antolakuntzarako egitasmo nagusia 1989an berriztatu zenean, lursail horren sailkapena aldatu zen, hiri-lur izatera igaro bait zen; baina probetxamendu urbanistikoa murriztu zitzaion, dentsitate gutxiko bizigune gisa finkatzeko hirialde bihurtu bait zen, familia bakarreko etxebizitzak egiteko.

Kexadunak aldaketa horren aurkako alegazioa aurkeztu zuen 1989ko irailean Laudioko Udalean, ulergaitza bait zen bere ustez, iruditzen zitzaio-lako lursaila oso kokagune egokian zegoela multzokako etxebizitzetarako erabilerak bere hartan jarraitzeko. Baina Udalak alegazioa ez onartzea erabaki zuen 1990eko apirilean.

Horiek horrela, Arartekoarengana jo zuen, arazoa aztertu eta Udalaren erabakia aldaerazteko asmoz, edo, gutxienez, kalteordainen bat jasotzeko eskubiderik ba ote zuen azter zedin.

Laudioko Udalarekin harremanetan jarri eta aditzera eman zitzaigun haren jokamoldea egokia izan zela beti ere, eta erreklamatzailerak ez zuela inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik, Lurraren Legearen testu bateratuaren 87. artikulua ezarritakoaren arabera.

Erakunde honek arazoa zertan zen aztertu ondoren, ez zen inolako akatsik aurkitu Udalaren ekintzan, haren jokabideak beti ere legeari jarraitu bait zion, eta malgutasun handiz jokatu ere egin bait zuen erreklamatazilearen kexabidea zegokion epez kanpo onartzean. Esandako lursailaren erabilerara aldatzeko erabakia zuzena ote den ala ez epaitzeko arrazoirik ez dago, Lurraren Legeak lurra sailkatzeko eta erabilerak eta eraikitze-ereduak aldatzeko ahalmena Udalen nahierara uzten bait du.

Beste alde batetik, Lurraren Legearen 87. artikulua kasu guztietarako ezartzen du lursailen erabileraren antolaketak ez duela kalteordainik jasotzeko eskubiderik ematen, halako baldintza batzuetan izan ezik, alegia, ondarea kalteatu izana, planeamendua aldatu izana hura burutzeko ezarritako epeak baino lehen, eta lursailen eta eraikuntzen antolakuntza finkatzen duen egitasmo partzial, berezi edo hirigintza alorreko ekinbide programaren bat egotea. Horregatik, Erakunde honek ulertu zuen erreklamatazileak ez zuela kalteordainik jasotzeko eskubiderik, baldintza horiek betetzen ez zirenez gero.

Eritzi eta azalpen hauek kexadunari eta Udalari adierazi ondoren, espedientea itxi egin zen.

Herri-plazan ikuskizunak ospatzeaz (687/89)

Hondarribiko Gipuzkoa Plazako auzo elkarteak plaza horretan ospatzen diren ikuskizunak direla eta erreklamazioa aurkeztu zuen Ararteko Erakundearen.

Azken urteotan, kexadunek behin baino gehiagotan jo zuten Hondarribiko udalbatzarrera ahoz zein idatziz beren kexak azaltzeko, esandako plaza ikuskizunak ospatzeko neurri handiko tablada bat instalatzeak dakartzan arazoak (estetika, ingurugiro, garbitasun eta segurtasunari dagozkienak).

Erakunde honek, bere aldetik, auzi honetaz elkarrizketa bat eduki ondoren, Hondarribiko Alkateari gomendiozko idazki bat bidali zion, helburu horrekin jarritako instalazioaren egokitasuna azter zezan, kaltea jasandako auzokideen erreklamazioak ikusita.

Geroago, erreklamatazileek berriz jo zuten Erakunde honetara, beren kexa errepikatzeke, Kultura Kontseiluko kideekin izandako elkarrizketen ondoren; haietan, ziotenez, ahozko akordio batzuetara iritsi zen, aipatzen zituzten kalteak ahal zenean behintzat arintzeko.

Erakunde honek beste gomendio idazkia bidali zion Hondarribiko Alkateari eskatuz salatutako egoera behinik-behin konpontzeko behar ziren aginduak eman zitzala aurtengo urterako programaturiko ikuskizunei dagokienez, eta hemendik aurrera herri horretako jaien antolaketak hiritarren arteko egonezina ahal den neurrian ekidin eta hiritarren elkarbizitza bake-tsua bultzatzeko behar diren erabakiak har daitezela.

Indarrean dagoen zaratei buruzko udal ordenantza aplikatzeko eskariaz (282/90)

Errenteriako udalerriko bi biztanlek eskatu zuten indarrean zegoen zaratei buruzko udal ordenantza haien etxebizitzako auzokideen elkarrearen ur ponpagailuaren tresnek eragindakoei aplikatzeko.

Udalaren zerbitzu teknikoek zegokion neurketa egin ondoren ziurtatu zen motoponpagailuek eragindako soinu mailak indarrean zegoen zarata eta bibrazioei buruzko udal ordenantzak onartzen zuen gehienezko muga gainditzen zuela.

Beste alde batetik, Ararteko honen eritziz aipaturiko presio ponpa horien konponketa eta mantenua ez zegozkien auzokide elkarteari, Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 26.1 a) artikulua ezartzen duenez, udalerriek, bakoitzak bere aldetik edo elkaturik, edateko ura etxeetara hornitzeko zerbitzua eman beharra dutelako. Uler daiteke, beraz, agindu horrek ezartzen duen obligazioa ez dagokiola bakarrik hornimendua etxearen oinean egiteari, baizik eta administratuaren etxebizitza bertaraino ere luzatzen dela.

Ondorioz, Ararteko honi bidezkoa iruditu zitzaion Errenteriako Udalerriari gomendatzea, esku artean zituen proiektuetako bat burutu zezala ahalik lasterren udalerriko etxe guztiek ura zerbitzua izateko, eta bide batez zaratak desagertarazteko neurriak har zitzala.

Etxe bat botatzeko lanetako segurtasun ezaz (496/90)

Emakume bat agertu zen Erakundean, bera bizi den aldameneko etxean, Gasteizko alde zaharrean, etxe bat botatzeko egiten ari diren lanen eta ondorengo berreraikuntzaren ustezko segurtasun eskasa salatzen.

Arartekoak, bere ikerketa lanen barne, botatze lanak egiten ari ziren lekura bertaratu zen, eta ondoren Gasteizko Arkitekto, Aditu Peritu eta Fornearen Elkartearen laguntza eskatu zuen, aipatu lanen egoerari buruzko adituen txosten teknikoa eman zezan.

Bidalitako txostenak baieztatu egin zuen lanak segurtasunerako gutxienezko neurriak hartu gabe burutzen ari zirela, eta horregatik etxea amiltzeko arriskua zegoela, horrek ondasun higiezinetan ezezik, are okerrago, pertsonen baitan ere, ondorio larriak izan zitzaizkela.

Erakundeak arazoa aztertu ondoren, Lurraren Legearen 181. artikulua eta Hirigintzaren araudiaren 10. artikulua jarraituz, udalak dira eraikuntzen segurtasun baldintzak bete daitezela agintzeko arduradunak, eta are gehiago, egoera hau dagokion lan baimenaz baimendutako eraispin lan batean izanda. Udala, beraz, behartuta dago lanen ikuskaketa egitera, duten egitasmo teknikorak egokitzen diren egiaztatuz.

Guzti horregatik, Arartekoak, gaiaren larritasuna zela medio, eraikuntzen eta pertsonen segurtasuna bermatzeko, beharrezko neurriak ahalik eta azkarren har zitzen aholkatu zion Gasteizko Udalari.

Gasteizko Udalak onartu egin zuen aholkua, eta Erakundera bidali zuen txosten batean ikututako eraikuntzen segurtasun baldintzak zuzentzeko harturiko badaezpadako neurrien berri ematen zuen.

Kexaduna gure izapideen ondorioen jakinean ipini, eta agiri multzoa artxibatu egin zen.

Eraberritzeko lan baimena ukatzeaz (191/89)

Kexadunak, Donostiako auzo batean bizi denak, Donostiako Udalak haren jabetzako etxe bat berritzeko derrigorrezko lan baimena, bai eta argi, ur eta fatxada amaitzeko beharrezko baimenak ukatu zizkiola eta, Arartekoaren partaidetza eskatu zuen Udal horrekin zuen auzi horretan konponbide bat aurkitzen saiatzeko.

Udalaren jarrerak 1964eko irailaren 30ean onetsitako 28. eta 54. poligonoetarako zatikako egitaamoan ezarritakoari heltzen zion, eta eraikuntza hori "ordenamendutik kanpo" uzten du. Kexadunak, berriz, Zatikako Egitasmo hori, besteak beste, "eraginik gabeko eta zaharkitu"tzat jotzen zuen, praktikan, beraz, ez duelarik inolako "beterazte ahalmenik" bere eritziz; horrekin batera, Lurraren Legearen 60. atalean ezarritakoari eusten zion, hots, ordenamendutik kanpo gelditzen diren etxeetan zenbait mantentimendu lan egitea agertzen duenari; eta halaxe adierazi zuen 1988ko otsailaren 16ko udal erabakiaren aurka urte bereko martxoaren 25ean ezarritako berraztertze eskean.

Erakunde honek Donostiako Udalarari auzi honi buruzko txostena eskatu zion; halaber, auzigai den etxean agertu, eta Erakunde honen lege aholkularitzaren txosten juridiko zehatza eginerazi zuen.

lkerketa guzti horiek egin ondoren, hirialde horretarako plangintzak delako etxe hori ordenamendutik kanpo uzten zuela egiaztatu genuen, haren zati bat, erdia zehazkiago, zatikako egitasmoari dagozkion mugetatik kanpo gelditzen delako, esparru libre gisa kalifikatua dagoen lekuan hain zuzen, eta etxearen gainontzeko zatiak zedarrien arteko tarteei buruzko araudia ez eta baimendutako gehieneko altuerari buruzkoa ere betetzen ez dituelako.

Beste alde batetik, kexadunak egin nahi zituen lanek gainditu egiten zuten indarrean dagoen Lurraren Legearen 60. atalak ezarritakoa; artikulua horrek ordenamendutik kanpo dauden eraikuntzen errejimen juridikoa arautzen du, horrelako zertzeladetan dauden etxeek beren osagaien egoeratik espero daitekeen baino gehiago irauten ez dezaten.

Aipatutako guztiagatik, Udalak ez zuela axolagabekeriak edo aginteke-riaz jokatu, eta baimena ukatu eta lanak eten zituen udal erabakia indarrean dagoen legediarekin bat zetorrela ulertu zuen Arartekoak, eta hala jakin erazi zitzaizen alde biei. Horiek horrela, espedientea artxibatu egin zen.

Etxebizitza bloke baten eraikuntzari buruzko eztabaidaz (117/89)

Irungo biztanle batzuek Arartekoarengana jo zuten kexatzeko asmoz, bizi diren auzoko esparru libre bakarrean Udala etxebizitza bloke bat eraikitzeko baimena ematekotan dagoelako. Esparru libre hori, gainera, orain indarrean dagoen zatikako egitasmoak eskola-ekipamendurako uzten duela arrazoitzen dute auzotarrek.

Arartekoa Irungo hirigintza alorreko zinegotziarekin eta udal arkitek-tuarekin jarri zen harremanetan. Udalaren ustetan, bada egitasmo partzial bat, egungo beharrezanetara egokitzea komeni dena, lehenago industrialde-

tzat hartzen zen esparru hori orain, ordea, hirialdetzat hartzen bait da. Udalak beharrezko ikusten zuen hiriko zenbait alderen artean lokarri moduko bide bat egitea, eta, adierazi zuen, inguru horretan etxebizitzak eraikitzearen erabakia Udalean ordezkariak daukaten alderdi guztiek aho batez hartu zuten. Adostasun bera azaldu zen, ondoren, esandako auzoko bizilagunen artean, kexatzaileak salbu.

Aztertu beharrekoak aztertu ondoren, Arartekoaren eritziz, Udalaren jardueran ez zen inolako okerrik somatu, eta, horregatik, espedientea artxibatatu egin zen.

Etxebizitza batean filtrazioak egoteari buruzko kexaz (81/90)

Kexadunak, Bilbon bizi denak, Arartekoarengana jo zuen bere etxebizitzaren eraikuntz-kalitatearen akatsen berri emateko, filtrazio ugariak bait zituen. 1985eko urtarriletik salatu zuen egoera hori Bizkaiko Etxebizitza eta Ingurugiro Lurralde Ordezkarietan eta Bilboko Udalean, bere kexabideei jaramonik egin ez ziotelarik.

Arakatu beharrekoak arakatuta, eta hirigintza arloko agintariekin eta etxebizitza hori eraiki zuen enpresarekin zegozkion gestioak egin eta gero, arazoak bide onera jo zuen, kexadunak arrazoi zuela onartu bait zen.

Izan ere, duela bost urte eraikitako etxea izanda ez zegoen salatu zen bezalako egoera bat onartzerik, ez eta Etxebizitzarako Administrazioak erakutsi zuen eragin-kortasun eza ere. Halaz eta gustiz ere, aipatzekoa da Etxebizitza Zuzendaritzak hitz egitearen alde agertu zuen jarrera, arazoa konpontzeko bide bat zabaldu bait zuen.

Etxebizitza Zuzendaritzak aditzera eman zuenez, enpresa eraikitaileak agindutako lanak ez bazituen burutzen eta akatsak (hezeguneak eta kondentsazioak) zuzentzen, Etxebizitza Zuzendaritzak berak beharrezko ziren ordezkio betetzale bide guztietara joko zuen, behar bezala buru zitezten.

Arartekoak onartzeko modukotzat jo zuen momentuz erabaki hori, eta horren medioz, espedientea behinik-behin artxibatzea erabaki zuen; beti ere, bide horretatik arazoa konpontzerik ez balego, atzera zabaltzekotan.

Kirol elkarte baten ekitaldiek eragindako zaratei buruzko kexez (186/90)

Tolosako hiritar bat kexu zen herri horretako kirol elkarte batetik zetozen zaratek eragiten zizkieten kalteengatik. Hiritarrak berak Arartekoari horren berri eman ondoren, zegozkien gestiobideei ekin zitzaion, hala aipatu kirol elkartearekin, nola arazoaren konponbidean zerikusia zuten erakundeekin: Gipuzkoako Aldundia eta Tolosako Udalarekin, hain zuzen ere.

Gipuzkoako Aldundiak adierazi zuenez, salatutako elkarte horrek eragindako gogaipenak aspaldikoak ziren, eta Tolosako Udalak, Ertzaintzaren Argiketa Taldeak eta Foru Aldundiak berak ere salatuak zituen, bai eta horien aurka jo ere.

Ekintza horien ondorioz, elkarteko ordezkari batek baimen eskari bat aurkeztu zion udalbatzarrari, elkartearen ekitaldiak legeztatu asmoz. Espe-

dientea Foru Aldundiaren Hirigintza, Arkitektura eta Etxebizitza Sailera bidali zen kalifikatu eta neurri zuzentzaileak ezartzeko. Aurkezturiko egitasmoa ikusita, dokumentazio gehiago azaltzeko eskatu zitzaaien aurkezleei, bai eta jakin erazi ere, halaber, eskabide hori hiru hilabeteko epean bete ezean, Prozedura Administratiboaren Legearen 99. atalari jarraituz, espedientea iraungitatzat jo eta ekintzak artxibatu egingo zirela.

Epe hori igaro eta eskaturiko agiriak aukertu ez zirenez gero, foru agindu batek iraungitatzat eman zuen espedientea, eta ondorioz, delako elkarte hori baimenik gabe geratu zen, hango ekitaldiak klandestinitzat eta amaierazi beharrekoztatzat jo zitezkeelarik, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak behin eta berriro agertu duenaren arabera.

Aldundiak bere idazkian zehazten zuen, orobat, Tolosako Alkateak lokala ixteko ahalmena duela, Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen araudiaren 39. atalean oinarrituta, nahiz eta gehienez sei hilabeteko epea eman daitekeen legeztapena eskatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere idazkian eman zizkigun zehaztasun horiek Tolosako Alkateari berari bidali zitzaizkion, eta horrenbestez Arartekoak bere egitekoa amaitutzat eman, eta espedientea artxibatu egin zen.

Legeak aipatzen ez duen zertzelada baldintza bategatik babes ofizialeko etxebizitza bat ukatzeaz (136/90)

Kexa idazki bat jaso zen Erakunde honetan Donostiako Udalak 1988ko uztail eta 1989ko abuztuan, hurrenez hurren, eskeini zituen jabetzapeko eta alokerako babes publikoko etxebizitzetako bat eskuratzeko asmoz hiri hartako emakume batek egin zuen eskariaren inguruan.

Emakume hori 70 urte izanik eta igogailu gabeko etxe bateko seigarren pisuan bizi arren, zertzelada hori ez zen kontutan hartu puntuazioa ateratzean, eta horregatik baztertu zuten bi eskariak egin zituenean.

Ararteko honek egiaztatu zuen zertzelada hori ez zela jasotzen legean eta, beraz, ez zela hausten inolako legerik. Nolanahi ere, aplikatu behar den legeriak hutsune batzuk dituenez, eta hutsune horiek arautu beharrekoak direnez gero, arazo honi buruzko gomendio bat egin diogu Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari.

3.12. ERA GUZTIETAKO GESTIOAK

A) Sarrera

Atal honetan sartu ditugun kexak beren mamiagatik honaino azaldu ditugun alorretakoren batean sartu ezin direnak dira; Arartekoaren bizitzaren bigarren urte honetan 58 izan dira guztira, hots, jasotako kexa guztietatik % 9,4.

Kexa hauek azaltzen dituzten arazoak, berez edota partikularren artekoak direlako, 3/85 Legeak Arartekoari ematen dizkion ahalmenetatik kan-

po daude, baina oso larriak, garrantzitsuak edota giza ikuspegitik pisuzkoak izanik, Erakunde honen arreta eta arartekaritza merezi izan dute. Beste batzuetan, Erakunde honen lana administratuei Administrazioarekiko beren harremanetarako aholkuak ematea izan da, batez ere eskubideen aitoprenari dagokionez. Batera zein bestera, bere egitekoa betetzera mugatu ez zik, Erakundeak ahaleginak egin ditu eskatu duten guztiei beren kasua konpontzeko biderik egokiena zein zen seinatzeko.

B) **Kexen aukeraketa**

Alargun-sari bat eguneratzearen arazo batez (630/89)

Emakumezko pentsiodun batek kexa idazki batez salatzen zuen Gizarte-Segurantzaren Erakunde Nazionalak erantzunik bat ere ez ziola ematen 1989. urteari zegokion bere alargun-sariari buruzko argitasunak eskatu zizkionean.

Alegatzaileak behin baino gehiagotan jo zuen erakunde horretako Bizkaiko Lurralde Ordezkariarengana idazki ziurtatuen bidez, eta beste hainbat aldiz bera joana zen hango bulegoetara, baina inolako erantzunik jaso gabe, eta horregatik erabaki zuen Ararteko Erakundera jotzea.

Zegozkion gestioak egin, eta haien ondoren pentsiodunak izkribu bat helarazi zuen arazoa onerako konpondua zela, hau da bere alargun-saria eguneratua zegoela adierazteko.

Pobrezia poltsak egoteaz eta gizartearen laguntza ezberdinez (169/90)

Kexa asko aurkezten zaizkio Ararteko honi, Administrazioaren ekintza bat edo beste salatu gabe, aginte publikoek azkar eta kemen osoz aurre egin beharreko pobrezia poltsa kezkarriak daudela azaltzen dutenak.

Horren ildotik doa 169/90 kexa, Gurutzeta auzoko biztanle batek bere familiak jasaten zuen egoera larriagatik laguntza ekonomikoa eskatzeko egin zuena.

Kasua aztertu ondoren, Ararteko honek argibide ugari bidali zizkion erreklamatzailerari bere egoeratik eskura zitzakeen laguntza mota ezberdinei buruz, bai eta zein erakundetara jo zezakeen ere. Zehazkiago, lehen-lehenik bere udaleko gizarte-laguntzailearengana jotzeko gomendatu zitzaion, honek, kasua aztertu ondoren, beharrezko argitasunak eman eta zegokion eskaria egingo bait zuen, zeren eta honelako laguntzak nork bere udalean eskatu behar bait dira.

Gasteizko Udalak antolatutako ekintza batean jasandako istripuagatik Udalaren erantzunkizun zibila eskatzen duenaz (204/90)

Erreklamatzailerak ahoz bere kexa azaldu zion Erakunde honi, bere alabak kolpe handia hartu zuelako eskubiko begian, txanpan botila baten kor-

txoak emana, Gasteizko zaindariaren omenezko jaietako Zeledonon jeitsieran zegoelarik.

Hasiera batean, hartaz Gurutze Gorriaren sendategian arduratu ondoren, San José Poliklinikara eraman zuten eta han erretina jausia zuelako operatu behar izan zuten.

Erreklamatzaillearen esanetan, zauritutakoak jasan zuen istripua Udalak antolatutako jai baten barruan gertatu zenez gero, Udalak erantzunkizun zibila zuen, eta kalte eta hondamenengatiko ordaina eskatzen zuen horregatik.

Kasua aztertu ondoren, Erakunde honek ikusi zuen egiazki gure legezko erabakiek kontutan hartzen dutela zerbitzu publikoen funtzionamenduari eraginez gertatzen diren kalteengatik Administrazioak partikularrei kalteordaina emateko aukera.

Hala eta guztiz ere, Administrazioak erantzunkizuna izango badu, ekin-tza administratiboak eta eragindako kalteak zuzenean loturik egon behar dute. Hemen dagokigun kasuan, kaltea Udalak antolatutako ekintza batean gertatu zen, baina ezin har daiteke Udala haren zuzeneko eragiletzat.

Erreklamatzaillearen alabak jasan zuen zauriaren eragilea beste partikular bat izan zen, eta erantzunkizun zibila haretxena izanik, hari bakarrik eska lekiokete kalteordainik.

Guztiz horregatik, ondorio moduan, Arartekoak atera zuen Udalak bere ekintzen edo berarekin zuzeneko zerikusia dutenen ardura hartu behar dela, baina ez, ordea, hiritarren ekintza bakoitzarena, berauek edozein lekutan eta edozein unetan egonda ere.

Sestaoko Astilleros Españolesen Enplegua Sustatzeko Fondoak eginiko nominetako okerrez (825/89)

Alegatzaileak, Sestaoko Astilleros Españolesen Enplegua Sustatzeko Fondoan inskribatua zegoenak, halako oker batzuk antzeman zituen Fondoak eginiko nominetan. Nonbait, oinarri arautzailearen kalkuluan sortuak ziren oker horiek, eta horregatik, kopuruak ziurtatzeko asmoz, zegozkion hilabeteen aseguru sozialen osagarriari buruzko ziurtagiri bat eskatu zuen.

Beste alde batetik, zenbait hilabetetako NUIZearen egindako atxekipenaren kalkuluan ere akatsak bazirela ikusi zuen.

Bere eskariak inolako erantzunik jaso ez zuenez gero, beste bi erreklamazio aurkeztu zituen geroago, erantzunik jaso ez zutenak hauek ere, eta horregatik kexa idazkia egin zion Arartekoari.

Erakundeak halako gestio batzuk egin ondoren, interesatuak eskuratu zuen eskaturiko ziurtagiria eta zegozkion zuzenketak egin ziren berak nahi zuen modura; halaxe adierazi zuen alegatzaileak berak Arartekoari zuzendutako izkribu batean.

IV ATALA

ESTATISTIKA

4.1. OHAR OROKORRAK

1990eko hamabi hilabeteak bitartean, 2.677 izkribu jaso ziren Ararteko Erakundearen, eta Erakundeak berak beste 3.798 izkribu bidali dizkie bai administrazio desberdinei eta bai hiritarrei, Erakundearen sarrera eta irteera erregistroan jasotako mugimenduek erakusten duten bezala.

	Sarrerak	Irteerak
1990. urtea	2.677	3.798
1989. urtearekiko ehuneko gehikuntza	% 71	% 75

Gonbarazioa egin ahal izateko, 1989. urteko datuak hamabi hilabetearen tartearan arabera estrapolatu dira, Erakundea urte horretako martxoan sortu bait zen.

Aurtengo datuak 1989koekin alderatuz gero, ikusten da administrazio publikoetatik bezala hiritarrendik iritsitako izkribuak gehitu egin direla, % 71an hain zuzen ere, horrek erakusten duelarik Ararteko Erakundea apurka-apurka finkatuz doala eta bere irudia zabalduago dagoela eta eza-gunagoa egin dela hiritarren artean eta Administrazioan bertan ere.

Erakunde honek hiritarrei eta administrazio publikoei bidali dizkien izkribuak ere ehuneko hainbateko gehiketa garrantzitsua ere izan dute, % 75 ikusten denez, horrek Erakundearen jarduna eta, ondorioz, zereginen kopurua eta etengabe egindako ahaleginak ere nabarmen ugaltu direla aditzera ematen duelarik.

Hil bakoitzean irten diren izkribuak, batzaz beste, 223 izan dira, eta sartu direnak, aldiz, 317, batzabesteko berdin samarra osatu dutelarik urte osoan, udako hilabeteetan izan ezik; esatekoa da, baita ere, gehikuntza handi samarra gertatu dela azaro-abenduetan, Getxoko udalerriko biztanleek ondasun higiezinaren gaineko udal zergaren gehiketa handia Ararteko Erakunde honi salatzeko hasi zuten kanpainiaren eraginez, batik bat.

Hilabetea	Sarrerak	Irteerak
Urtarrila	110	206
Otsaila	144	229
Martxoa	197	167
Apirila	149	201
Maiatza	244	318
Ekaina	216	289
Uztaila	232	294
Abuztua	98	187
Iraila	152	236
Urria	213	250
Azaroa	504	470
Abendua	418	951
1990. urtea	2.677	3.798

(Ikus 1 diagrama 145 orrialdean)

1990. urtean, Euskal Erkidego Autonomoko hiritarrek, banaka zein taldeka bildurik, 1.159 kexa aurkeztu dizkiote guztira Arartekoari.

Jasotako kexak: 1.159

– Defensor del Pueblo-ri bidalitakoak	107
– Era guztietako gestioak	58
– Onartu gabeko kexak	118
– Euskal administrazio publikoei buruzko kexak	876
– Aurkeztutako kexak, guztira	1.159
– Onartuak	1.041
– Onartu gabeak	118

(Ikus 2 eta 3 diagramak 146 eta 147 orrialdetan)

Kexa guztiak ez dira kontutan halakotzat hartu, zeren eta aukeraketa baten ondorioz Arartekoaren eskumenekoak ez baizik eta Estatuko Defensor del Pueblo-ren eskumenekoak direnak baztertu bait dira: honelakoak 107 izan dira guztira. Esatekoa da, honelako kasuak gertatzen direnean, Arartekoak berak bidaltzen dizkiola Defensor del Pueblo-ri kexa-idazki horiek, bai eta kexadunari horren berri adierazi ere, hortik aurrera egin beharreko guztietarako Defensor del Pueblo-rengana jo dezan.

Beste 58 kexa izkribu ere ez dira kontutan hartu ez bait ziren euskal administrazio publikoen aurkako salaketei buruzkoak, baina, hala ere, zen-

bait gestio egin ondoren Erakunde honi azaltzen zitzaion asmoa bete edo zalantzak argitu ahal izan dira.

Azkenik, beste hirugarren talde bat aipatzearren, badira era bateko edo besteko arrazoiengatik onartu ez diren kexak, 118 guztira, ondoan ematen dugun taulak erakusten duen bezala:

Onartu gabeko kexak eta arrazoiak

– Maila pribatuko kexak	41
– Auzibidera eramandako kexak	23
– Urtebetetik gora iragandakoak	15
– Kexabide adm.-bidetik aurkeztu gabekoak	18
– Erakundearen eskumeneko arazo ez direnak	13
– Beste zenbait	6
– Kexadunaren legimitaterik eza	1
– Defensor del Pueblo-k bere gain hartutakoak	1
– Guztira	118

(Ikus 4 diagrama 148 orrialdean)

Kexa horietatik 41ek, maila pribatuko arazoak planteiatzen zizkieten Arartekoari, euskal administrazio publikoaren gehiegikeria eta axolagabekeriaren aurkako babesle izateko bere gain hartu duen eginkizunetik kanpo zeuden, beraz.

Beste 23 kasutan, kexa ez da onartu bertan azaldutako auziari buruzko epai finkoa eman delako, edota arazoa auzibidez konpontzekotan da-goelako. Beste 15 aldiz, ordea, hiritarrak kexa eragin duen gaiaren berri izan eta urtebete baino gehiago igaro delako, hori arrazoi aski delarik kexa bat ez onartzeko (19-3.artikulua). Eta beste 18 kasutan kexa ez da onartu, kexadunari adierazi zaiolako ezer baino lehen dagokion Administrazioari aurkeztu behar diola kexabidea, kexaren mamiaren berri izan dezan.

Jasotako izkribu eta salaketen artetik aukeraketa hau egin ondoren, esan dezakegu 1990. urtean 876 kexa aurkeztu direla, guztira, euskal administrazio publikoen aurka (hauetatik 545, Getxoko hiritar batzuek Bizkai-ko Udal horrek 1989ko hirilur zergaren ordainagirien zenbatekoan eragindako gehikuntza handiaren aurka Ararteko Erakunde honi salaketak aurkezteko hasitako kanpainia baten ondorioz jasotako kexak dira).

Datu estatistikoak behar den zuzentasunez ulertuko badira, esan dezagun Getxoko Udalaren kontra aurkeztutako 545 kexa guztiak bat bakarra izan balira bezala kontutan hartuko ditugula aurrerantzean.

Izendapenari gagozkiolarik, bestalde, esaten direnak hobeto ulertaraztearren, zuzen-zuzena ez izanik ere, "Eusko Jaurlaritzaren Administrazioa" deituko diogu Euskal Erkidego Autonomoko Administrazio publikoari.

A) 1990. urtean jasotako kexak

Ararteko Erakundearen jarduna neurtu ahal izateko, interesgarria da beti ere, beste erreferentzi puntu baten moduan, parlamentu ordezkari bakoitzari bidalitako kexekin alderatzea guk jasotakoak. Begien bistan dago datu horiek erlatibizatu egin behar direla, osoko biztanle kopurua erkidego autonomiko batetik bestera aldatzen direlako ez ezik, autonomietako defendatzaile bakoitzaren ahalmenak ere desberdinak direlako, eta badirelako beste hainbat berezitasun eta zertzelada, azaltzen jarriz gero luze joko ligu- ketenak.

	Kexak
Defensor del Pueblo	29.381
Síndic de Greuges de Catalunya	1.801
Defensor del Pueblo Andaluz	1.985
Diputado del Común	1.340
Justicia de Aragón	1.238
Ararteko	1.159
Valedor do Pobo	1.159

* Erakunde honek 1990. urtea bitartean ekin zion bere lanari, eta horregatik urte horretako sei hilabeteko datuak baino ez dira hemen azaltzen direnak.

B) 1990.ean 10.000 biztanleko jasotako kexak

Interesgarria da, era berean, 1990. urtean Arartekoak 10.000 biztanleko jasotako kexa kopuruaren berri edukitzea, eta Estatuko Defensor del Pueblo-k eta beste erkidego autonomikoetako defendatzaileek biztanlego beraren arabera jasotako kopuruarekin alderatzea.

Erakundea	Zenbat kexa	Biztanlegoa	Kexak 10.000 B.ko
El Justicia	1.238	1.196.454	10,35
D.C. Canario	1.340	1.557.533	8,60
D.P. Español	29.381	39.541.497	7,43
S. Greuges	1.801	6.124.923	2,94
Ararteko	615	2.157.598	2,94
D.P. Andaluz	1.985	7.019.285	2,82
Valedor do Pobo	744*	2.896.801	2,57

* Urtebeteko tartearen arabera estrapolatutako datua.

(Ikus 5 diagrama 149 orrialdean)

Goiko zenbaki horietan ageri denez, 10.000 biztanleko 2,85 kexa jaso ondoren, Arartekoa taularen erdikaldeko leku batean aurkitzen da, propor-

tzioari begiraturaz kexa gehiago jaso bait ditu Defensor del Pueblo Andaluz eta Valedor do Pobo direlakoek baino. Kexen proportziozko kopurua, bestalde, Sindic de Greuges-ek jasotakoan antzekoa da; erakunde hau, gainera, oso erreferentzia baliagarria izan daiteke, urte gehiago direlako lanean hasi zela, eta bere lurraldean oso onartua izatera iritsi delako.

Aipatzekoak dira Justicia de Aragón deritzana, urtez urte errepikatzen den joera batean, eta Diputado del Común Canario delakoa; nolana ere, haien kexa kopurua nolabait molda liteke, halako neurri batean behintzat, kexak zenbatu eta sailkatzeko erabilitako moduagatik.

C) Defensor del Pueblo erakundeak Euskal Erkidego Autonomotik jasotako kexak

Ageri da gehitu egin direla Euskal Erkidego Autonomoko hiritarrek Estatuko Defensor del Pueblo-ri aurkeztu dizkieten kexabideak. Pentsatzekoa da Ararteko Erakundea sortzearen ondorioz kexatzeko eskubideaz baliatze-ko kontzientzia suspertu dela euskal hiritarren artean.

Defensor del Pueblo erakundeak Euskal Erkidego Autonomotik jasotako kexa guztietatik 107, ia % 10 beraz, Ararteko Erakundearen bulegoaren bitartez bideratuak izan dira.

Defensor del Pueblo-ri bidalitako kexa kopurua urteka eta lurralde historikoka

	1983	1984	1985	1986	1987	1988	1989	1990
Araba	134	109	78	89	78	61	156	104
Gipuzkoa	410	291	160	139	103	89	110	183
Bizkaia	594	435	268	298	248	224	262	882
EEA	1.138	838	506	526	429	374	528	1.169

(Ikus 6 diagrama 150 orrialdean)

Portzentaiatan eta zenbaki absolututan, Euskal Erkidego Autonomoko hiritarrek Defensor del Pueblo delakoari bidalitako kexabideak nabarmen gehitu dira 1989. urtearen aldean, geroago azalduko dugun arrazoi dela medio. Beste erkidego autonomoetako biztanleek aurkeztutako kexabide kopuruarekin ere halako gehikuntza bat gertatu da. Horiek horrela, EEako hiritarrek Defensor del Pueblo-ri bidalitako kexabide kopurua % 2,5etik % 3,9ra igaro da, 1986an bezala mailarik handienean jarri delarik.

Kexa kopuruaren gehikuntza, nagusiki Bizkaian kokatzen den hori azaltzeko, aurkeztu diren kexa kolektiboetara jo behar dugu. Kexa horiek autonomi komunitate ezberdinen ehiza eta arrantza egiteko lizentzien koor-

dinaketarekin, eta 1985. urte geroztiko talde pasiboen pentsioekin daude lotuta. Kexa horien kopurua lurralde historikoen arabera sailkatuta hauxe da:

- Alava: 40 kexa
- Bizkaia: 684 kexa
- Gipuzkoa: 79 kexa

Beraz, 1990. urtean Defensor del Pueblo-ri bidalitako kexen kopuru osoari kexa kolektiboen kopurua kentzen badiogu, ikusten da aurkeztu den kexa kopurua (345) 1989. urtean aurkeztutakoa baino dexente txikiagoa dela, esaterik badago, ondorioz, hauxe izan dela EEako hiritarrek kexa gutxien aurkeztu duten urtea dela.

Defensor del Pueblo-ri aurkeztutako kexen artetik euskal Erkidego Autonomiko biztanleek bidalitakoen portzentaia urteka

	1983	1984	1985	1986	1987	1988	1989	1990
Estatuko	% 3,7	% 3,4	% 3	% 3,9	% 3,5	% 2,7	% 2,5	% 3,9

4.2. JASOTAKO KEXAK ADMINISTRAZIOEN ARABERA

Jaso diren kexarik gehienak, guztietatik % 53 zehazki, Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren aurkakoak dira; ondoan datoz udalen aurka aurkeztutakoak, % 34, eta, azkenik, kexarik gutxien eragin dituztenak lurralde historikoetako Administrazioa izan da, guztien artetik % 13 jaso bait ditu.

	Zenbat	%
— Eusko Jaurlaritza	176	53
— Udalak	111	34
— Aldundiak	44	13
	331	100

(Ikus 7 diagrama 151 orrialdean)

Zer nolako joera azaldu den aztertzen badugu, esan dezagun hiru puntutan igo direla Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren aurkakoak, puntu

batean, aldiz, aldundien kontra aurkeztutakoak, eta 4 puntutan gutxitu direla, ordea, udalen kontrakoak.

Foru Aldundien aurkako kexak

Hiru foru aldundien kontra aurkeztutako kexabideetatik, gehienak Gipuzkoako Aldundiaren kontrakoak izan dira, ondoren daude Bizkaiko Aldundiaren kontra aurkeztutakoak, eta azken lekuan Arabakoaren kontrakoak.

Kexak Foru Aldundien arabera

	Zenbat	%
Gipuzkoa	17	39
Bizkaia	15	34
Araba	12	27
GUZTIRA	44	100

(Ikus 8 diagrama 152 orrialdean)

Kexak udalen arabera

Udalen kontra aurkeztu diren kexen artetik, aipatzekoa da Bizkaiko udalen aurka aurkeztu direla gehienak, ondoren Gipuzkoa, eta azken lekuan, eta neurri txikiagoan, Arabako udalen aurkakoak daudelarik.

Ikus dezagun ondoan udalerrri batetik bestera nola banatzen diren jaso ditugun udalen aurkako kexak:

Araba

Vitoria-Gasteiz	12
Laudio	2
Koartango	1
Legutiano	1
Eltziego	1

Bizkaia

Bilbo	17
Barakaldo	4
Portugalete	3
Santurtzi	3

Basauri	2
Durango	2
Getxo	2
Urduliz	2
Zornotza	1
Barrika	1
Berango	1
Bermeo	1
Berriz	1
Elorrio	1
Erandio	1
Ermua	1
Gorliz	1
Leioa	1
Mungia	1
Urtuella	1
Plentzia	1
Trapaga Aran	1
Zaratamo	1

Gipuzkoa

Donostia	8
Tolosa	7
Hondarribia	5
Eibar	5
Irun	3
Errenteria	3
Lasarte-Oria	2
Oiartzun	2
Arrasate	1
Beasain	1
Bergara	1
Lizartza	1
Olaberria	1
Ordizia	1
Zumaia	1
Orio	1

(Ikus 9, 10 eta 11 diagramak 153, 154 eta 155 orrialdetan)

4.3. SAILEN ARABERAKO ESTADISTIKA

Kexabideak sailen arabera nola sailkatzen diren aztertzean, 1989. urtean azaldutako joera erakusten dutela ageri da. Hala, bada, kexarik gehien jaso duten sailak honako hauek dira, hurrenez hurren: Hirigintza, Etxebizi-

tza eta Ingurugiroa; Osasunketa eta Kontsumoa; eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa. Ikus dezagun hobeto ondoan azaltzen dugun taulan:

Saila	Zenbat kexa	Jaso	%
Hiri.Etxe.Ingu.	79		24
Osasunketa	77		23
Hezkuntza	49		15
Herriogasun Saila	40		12
Lehendakaritza	28		8,5
Barne Saila	18		5,5
Kultura	11		3
Garra.-Herrilanak	11		3
Lana	8		2,5
Industria	6		2
Nekaza.-Arran.	4		1,5
	331		100,0

(Ikus 12 diagrama 156 orrialdean)

Aipatzeko datu batzuk badira (kontutan hartu behar da, hala ere, taula estatistiko honetan ez direla sartzen Getxoko Udalaren kontra ondasun higiezinaren udal zergan izandako gorakadarengatik aurkeztu ziren 545 kexak): Herriogasun Sailean jaso diren kexen ugalketa handia, guztietatik % 8 izatetik % 12 izatera igaro bait dira; Osasunketa eta Kontsumoa alorreko kexak gehitzeko joera, ia Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroa alorrean aurkeztutakoak adina izatera iritsi bait dira; eta, azkenik, azaldutako kexak sail gehiagotan banatzeko joera orokorra.

Kexak azpisailen arabera

Jarraian, kexak azpisailetan sailkaturik azaltzen dituen taula bat dugu, nahiko argigarria jasotako kexabideen nondik-norakoa zehazkiago ezagutzeko.

— Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila	79
— Hirigintza	37
— Etxebizitza	27
— Ingurugiroa	12
— Elebitasuna	1
— Besterik	2

– Osasunketa eta Kontsumo Sails	77
– Zerbitzua ospitaletik at	20
– Funtzio publikoa	19
– Gizarte-ongizatea	12
– Ospitale zerbitzua	11
– Elebitasuna	1
– Besterik	14
– Hezkuntza Sails	49
– Funtzio publikoa	20
– Matrikulak	8
– Jarduera akademikoa	7
– Bekak	6
– Eskolako garraioa	1
– Besterik	7
– Herriogasun Sails	40
– NUIZa	18
– Udal zergak	9
– Zizkulazio zerga	3
– Gainbalio zerga	2
– Elebitasuna	1
– BEZa	1
– Besterik	6
– Lehendakaritza	26
– Funtzio publikoa	19
– Elebitasuna	2
– Hauteskundeak	1
– Besterik	4
– Barne Sails	18
– Bidezaingoa	5
– Poliziaren ekintzak	3
– Funtzio publikoa	3
– Elebitasuna	2
– Besterik	5
– Kultura Sails	11
– Ondare histo.-artistikoa	3
– Aisialdia	3
– Elebitasuna	1
– Kirola	1
– Besterik	3

– Garraioak eta Herrilanak	11
– Eusko Trenbideak	3
– Garraioa	3
– Herrilanak	3
– Besterik	1
– Lan Saila	8
– Dirulaguntzak	5
– Besterik	3
– Industria Saila	6
– Ikuskaritza teknikoa	3
– Elebitasuna	1
– Besterik	2
– Nekazaritza eta Arrantzu Saila	4

Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexabideak sailetan banaturik

Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren kontra aurkeztutako kexabideen artetik, gehienak Osasunketa eta Kontsumo Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jaso dituzte, hurrenez hurren, jasotako kexa guztien erditik gora biltzen bait dituzte bi sailek elkarren artean, ondoan ematen dugun taulak erakusten duen bezala:

	Guztira	%
Osasunketa	66	37,5
Hezkuntza	49	28
Hiri.Etxe.Ingu.	17	9,5
Lehendakaritza	15	8,5
Barne Saila	10	5,5
Lan Saila	7	4
Garra.-Herrilanak	6	3,5
Industria	5	3
Kultura	1	0,5
Nekaza.-Arran.	–	–
Ekonomia	–	–
Herriogasuna	–	–
GUZTIRA	176	100

(Ikus 13 diagrama 157 orrialdean)

Foru Aldundien aurkako kexabideak sailetan banaturik

Azpimarratzekoa da kexabide ugari aurkeztu direla foru aldundien Hazienda alorrean, haien aurka aurkeztutako guztien erdia bait dira.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Hazienda	9	6	6	21	48
Kultura	1	6	1	8	18
Garra.-Herrilanak	—	1	2	3	7
Osasunketa	1	1	2	4	9
Lehendakaritza	1	—	3	4	9
Nekaza.-Arrantza	—	1	1	2	5
Lana	—	—	1	1	2
Hiri.Etxe.Inguru.	—	—	1	1	2
Hezkuntza	—	—	—	—	—
Industria	—	—	—	—	—
Barne Saila	—	—	—	—	—
Ekonomia	—	—	—	—	—

(Ikus 14 diagrama 158 orrialdean)

Udalen aurkako kexabideak sailetan banaturik

Gehienetan, kexa guztietatik % 55etan, hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro alorrekin zerikusia zuten auziengatik aurkeztu dira, nahiko garbi erakusten duelarik horrek Euskal Erkidego Autonomoko hiritarrek alor horren inguruan duten ardura. Aipagarria izan da, orobat, udal hazienden aurka aurkeztutako kexak, % 17 izan bait dira, ondoko taula honek erakusten duen bezala:

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Hiri.Etxe.Ingu.	6	35	20	61	55
Hazienda	2	9	8	19	17
Barne Saila	3	3	2	8	7
Lehendakaritza	1	2	4	7	6
Osasunketa	3	2	2	7	6
Nekaza.-Arran.	1	—	1	2	2
Kultura	1	—	1	2	2
Ekonomia	—	1	1	2	2
Garra.-Herrilanak	—	—	2	2	2
Industria	—	—	1	1	1
Hezkuntza	—	—	—	—	—
Lana	—	—	—	—	—
GUZTIRA	17	52	42		

(Ikus 15 diagrama 159 orrialdean)

4.4. LURRALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA

Lurralde historikoei begiratzuz, Bizkaiko biztanleak dira kexarik gehien aurkeztu dutenak, 828 zehazki (haietako 545 Getxoko Udalaren kontra ondasun higiezinaren udal zergan izandako gorakadarengatik protestatzeko aurkeztutakoak dira), ondoren Gipuzkoakoak eta, geroago, Arabakoak, 195 eta 125 kexabide aurkeztu dituztelarik hurrenez-hurren.

Kexabideen jatorria

	1989	1990	Joera
Bizkaia	288	284	% - 1
Gipuzkoa	188	195	% + 4
Araba	97	125	% + 29

(Ikus 16 diagrama 160 orrialdean)

Halaber, jatorriari begiratzuz, ageri da kexarik gehienak lurralde historikoetako hiru hiriburuetan biltzen direla batik bat, Bizkaiko Getxo alde batera utzirik; datu hau askoz nabariagoa da Araban, Gasteizek lurralde historiko horretatik jasotako kexabideen artetik % 91 biltzen bait ditu, Bilbok eta Donostiak zeinek bere lurralde historikoko kexetatik % 15 eta % 36 biltzen dutelarik, hurrenez hurren.

Azkenik, 11 kexabide gure Erkidego Autonomotik kanpo bizi diren hiritarrek aurkeztutakoak dira.

Kexabideen jatorria

	Zenbat	%
Araba		
Gasteiz	114	91
Beste udalerriak	11	9
	125	100
Bizkaia		
Bilbo	127	45
Beste udalerriak	157	55
	284	100
Gipuzkoa		
Donostia	63	32
Beste udalerriak	132	68
	195	100

(Ikus 17 diagrama 161 orrialdean)

Euskal Erkidego Autonomoaz kanpotik iritsitako kexak

Madrileko E.A.	1
Andaluziako E.A.	1
Errioxako E.A.	1
Kantabriako E.A.	2
Comunidad Valenciana	1
Txile.	1
Iparralde.	3
Balear Irlak	1
GUZTIRA	11

Kexak 10.000 biztanleko

Lurralde historiko bakoitzean aurkeztutako kexen kopurua haien errol-dan sartutako 10.000 biztanleko zatikatuz gero ateratzen den portzentaia aztertzen badugu, ageri da Bizkaiak ematen duela portzentaiarik altuena, joan den urtearen aldean gora egin duelarik; bigarren lekuan, Arabak 1989. urtekoaren pareko portzentaia azaltzen du; azkenik, Gipuzkoatik aurkeztutako kexen portzentaia txikiagoa da, ordea.

	1989	1990
Araba	% 4,3	% 4,5
Bizkaia	% 3	% 2,9
Gipuzkoa	% 3,3	% 2,7

(Ikus 18 diagrama 162 orrialdean)

4.5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA

1990. urtea amaitu ondoren, ageri da 161 kexaren biderapena burutu dela, eta beste 170 bideratzen ari direla; konpondutako kexen artetik, 37tan kexadunak zuen arrazoia, 94tan Administrazioak, eta azkenik beste 20tan bestelako irtenbidea eman da.

Kexa burutuak eta burutugabeak

	Tramit.	Burutuak	Kexa zuzen	Kexa oker	Best.
Lehenda.	13	13	2	8	3
Nekaza.-Arran	3	1	—	1	—
Kultura	7	4	1	3	—
Hezkuntza	27	22	6	14	2
Ekonomia	—	2	—	2	—
Herriogasuna	13	27	5	19	3
Industria	4	2	—	1	1
Barne Saila	5	13	4	7	2
Osasunketa	36	41	18	17	6
Lana	2	6	—	4	2
Garra.-Herril.	7	4	4	—	—
Hiri. Etxe. Ingu.	53	26	7	18	1
GUZTIRA	170	161	47	94	20

(Ikus 19, 20, 21 eta 22 diagramak 163, 164, 165 eta 166 orrialdetan)

Prozedurari buruzko estatistika: Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren kontra aurkeztutako kexabideen artean 91 burutu dira, eta beste 85 bideratzen ari dira, ebazpenaren zain daudelarik.

Nork zuen arrazoia aztertuz gero, ageri da 35 kasutan hiritarra zuzen zegoela Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren aurka zerabilzkienez argudioei dagokienez, eta hala aitortu ere egin zaio.

Guzti hau ondoan eskeintzen dugun taulak argitzen du:

Kexa burutuak eta burutugabeak: Eusko Jaurlaritza

	Tramit.	Burutuak	Kexa zuzen	Kexa oker	Best.
Lehenda.	8	7	1	6	—
Nekaza.-Arran	—	—	—	—	—
Hezkuntza	27	22	6	14	2
Ekonomia	—	—	—	—	—
Herriogasuna	—	—	—	—	—
Industria	3	2	—	1	1
Barne Saila	2	8	3	4	1
Osasunketa	31	35	18	13	4
Lana	2	5	—	3	2
Garra.-Herril.	3	3	3	—	—
Hiri. Etxe. Ingu.	8	9	4	4	1
GUZTIRA	85	91	35	45	11

(Ikus 23 eta 24 diagramak 167 eta 168 orrialdetan)

Prozedurari buruzko estatistika: Foru aldundiak

Hiru foru aldundien aurka jaso ditugun 44 kexen artetik 24 burututa daude, eta beste 20 bideratzen ari dira; behin bakarrik gertatu da arrazoia kexadunak zuela.

Kexa burutuak eta burutugabeak: Foru aldundiak

	Tramit.	Burutuak	Kexa zuzen	Kexa oker	Best.
Lehenda.	2	2	—	1	1
Nekaza.-Arran	1	1	—	1	—
Kultura	5	3	1	2	—
Hezkuntza	—	—	—	—	—
Ekonomia	—	—	—	—	—
Herriogasuna	6	15	—	13	2
Industria	—	—	—	—	—
Barne Saila	—	—	—	—	—
Osasunketa	2	2	—	1	1
Lana	—	1	—	1	—
Garra.-Herril.	3	—	—	—	—
Hiri. Etxe. Ingu.	1	—	—	—	—
GUZTIRA	20	24	1	19	4

(Ikus 25 eta 26 diagramak 169 eta 170 orrialdetan)

Prozedurari buruzko estatistika: Udalak

Udal Administrazioaren aurka jaso diren 11 kexabideetatik 46 espediente burutu dira, eta 65 ari dira bideratzen; burututa daudenen artetik 11tan gertatu da kexaduna zuzen egotea.

Kexa burutuak eta burutugabeak: Udalak

	Tramit.	Burutuak	Kexa zuzen	Kexa oker	Best.
Lehenda.	3	4	1	1	2
Nekaza.-Arran	2	—	—	—	—
Kultura	1	1	—	1	—
Hezkuntza	—	—	—	—	—
Ekonomia	—	2	—	2	—
Herriogasuna	7	12	5	6	1
Industria	1	—	—	—	—
Barne Saila	3	5	1	3	1
Osasunketa	3	4	—	3	1
Lana	—	—	—	—	—
Garra.-Herril.	1	1	1	—	—
Hiri. Etxe. Ingu.	44	17	3	14	—
GUZTIRA	65	46	11	30	5

(Ikus 27 eta 28 diagramak 171 eta 172 orrialdetan)

4.6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA

1990. urtean jasotako 1.159 kexak aztertzen baditugu, halako datu soziologiko interesgarri batzuk eskuratuko ditugu, Erakunde honengana ahoz zein idatziz jo duten pertsonen berezitasunak isladatzen dituztenak.

Daturik aipagarrienen artean honako hauek daude:

1. Kexadunen sexuari bagagozkio, jasotako kexen artetik % 62 gizon-zekoek aurkeztu dituzte, eta % 26, hau da, erdia baino gutxiago, emakume-zekoek aurkeztutakoak dira. Horiekin batera, badira beste kexa batzuk, % 11 hain zuzen, taldeek aurkeztu dituztenak (talde bereziei dagozkielarik taldeen izenean egiten direnak).

Aipatzekoa da bost puntutan igo dela taldeek aurkeztutako kexen kopurua, eta hauek izaten direla eduki konplexuagoa edo gora handiagokoa izaten dutenak.

Sexua

	Zenbat	%
Gizonenak	722	62
Emakumeenak	305	26
Taldeenak	132	12

(Ikus 29 diagrama 173 orrialdean)

2. Kexetan erabilitako hizkuntzari dagokionez, aldiz, ageri da kexa ge-

hienak, guztietatik % 96,5 zehazki, gaztelaniaz aurkeztu direla; euskaraz jasotakoak % 3 izan dira, eta hizkuntza bietan azaldu direnak % 0,5.

Hizkuntza

	Zenbat	%
Gaztelaniaz	577	94
Euskaraz	32	5
Hizkuntza bietan	6	1

(Ikus 30 diagrama 173 orrialdean)

3. Kexak aurkezteko moduari begiraturaz: jaso direnetatik % 92 kexa aurkeztu dira idatziz, eta gainerako guztiak, % 8, alegia, ahoz jaso dira Erakundearen egoitzan bertan.

Aurkezpena

	Zenbat	%
Ahoz	91	15
Idatziz	524	85

(Ikus 31 diagrama 174 orrialdean)

4.7. HIRITARRENTZAKO ARGIBIDE BULEGO ZERBITZUAREN ESTADISTIKA

Ararteko Erakundearen jardunaren jarraibide orokorretako bat Erakundera jotzeko aukera hiritar guztiei bermatzea da. Erakundea sortu eta arautzen duen legeak berak jaso du Arartekoak egoitza moduan dituen bulegoetan ahozko kexak aurkezteko ahalbidea.

Hari horretatik, Arartekoak hiritarrentzako zuzeneko atentziorako zerbitzu bat jarri du lanean, nahi duen edozeinek ahoz aurkeztu ahal dezan bere arazoa.

Ugari izan dira joan den urtean zerbitzu honen bitartez Erakundera hurbildu diren euskal hiritarrak; horrelako kasuetan, azaldutako arazoari buruzko lehen eritzi bat eman, eta ondoren idatzizko kexa batera pasatzen da erreklamazioa, haren mamia Arartekoaren ahalmenen barruan egonez gero. Beste kasu batzuetan, aldiz, kexa onartzerik ez da egon legeak Erakundearen jardunari ezarritako mugak gainditzen zirelako, edota kexadunak alde

aurretik zenbait gestio egin beharra zegoelako. Honelakoetan, posible zen neurrian, azaldutako arazoa konpontzen saiatzeko zer egin behar zuten adierazi izan zaie erreklamatzailiei.

Hala eta guztiz ere, bisitaren emaitza edozein izanik ere, hiritarrari lagunez-laguneko atentzio berezia emateko ahaleginak egin izan dira beti.

Erakundearen bizitzaren bigarren urte honetan 243 bisitaldi izan ditugu, 300 bat pertsonarenak. Bisitaldiak urtea aurrera joan ahala ugalduz joan dira, gainera, Erakundea gizartean lortzen ari den sustrai gero eta sakonagoaren erakusgarri.

Ondoan ematen dugun irudian ikus daiteke goranzko lerroa, gailur bat duelarik maiatz-ekainetan, eta halako gora-behera jarraitu batzuk geroago.

Fenomeno hau bere osotasunean azaltzen duten arrazoiak era askotakoak dira, zalantzarik gabe, baina esanguratsuena delako azpimarra daiteke apiril eta maiatzean bi momentu garrantzitsu gertatu zirela Erakundearen bizitzan eta, horren ondorioz, Arartekoa askoz ere sarriago azaldu zela komunikabideetan. Izan ere, apirilean Arartekoa Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideei buruzko Batzordearen aurrera azaldu zen bere urteko gestioaren txostena aurkeztearren. Maiatzean, aldiz, euskal kamarak eztabaidatu zuen osoko bilkura batean Erakundearen txosten hori.

Udako hilabeteekin batera gertatzen den beheraldia opor garaiari zor zaio batik bat, eta ondorengo goraldia lehenago hasitako gorabidearen jarraipena dela ulertu behar da. Abenduan, ordea, Eguberrien eragina da antzematen dena.

Jasotako bisitaldi kopuruari bagagozkio, esatekoa da haietako gehienak (200) banakakoak izan zirela, eta beste 43 taldekakoak, haietan 98 lagun etorri zitzaizkigularik; beraz, 298 lagun izan ziren guztira Erakundera jo zutenak, haien arteko bostetik bi baino gehiago emakumezkoak (121) eta bostetik hiru inguru (177) gizonezkoak.

Adin beretsukoak dira, gainera, gugana jo duten hiritarrak, eta lau adin taldetan banatu ditugu gure hemengo azalpenerako: haietatik % 42,3 35-46 urte bitartekoak ziren, eta % 24,8, aldiz, 47-59 urte bitartekoak. Bi talde hauek batera guztiaren % 67a osatzen dute, beraz. Gazteenak (34 urte bitartekoak) % 19 inguru izan ziren, eta 60 urtetik gorakoak, aldiz, % 14raino iritsi ziren.

Pertsona horien jatorri geografikoari dagokionez, ordea, badago azpimarratu beharreko zertzelada bat, eragin handia bait du puntu honetan: alegia, Ararteko Erakundea Gasteizen kokatua egotea. Kokapen horretxek azaltzen du, hain zuzen ere, bisitaldien artetik % 75 Arabatik iritsiak izatea. Bizkaitik iritsitakoak % 18 izan ziren, eta % 7, aldiz, Gipuzkoatik izandako bisitak.

Herriei begiratuz, bestalde, askoz ere nabariagoa da Erakundearen egoitza Arabako hiriburuan kokaturik egotearen eragina, jasotako bisitaldi guztien arteko % 70 inguru hiri horretatik iritsitakoak izan direlako, hori osotara, baina % 92 Arabatik jasotakoetara mugatzen bagara.

Bizkaiari bagagozkio, hiriburutik iritsitako bisitak lurralde osotik jasotakoetatik % 43 izan ziren; Gipuzkoan, aldiz, oreka gehiago egon da alderdi honi dagokionez.

Bisiten arrazoiak aztertzeraz igaroz, lau multzo handi bereiztu ditugu haietako bakoitzak osotasunean daukan pisuaren arabera.

Lehendabizikoan sartzen dira bisitaldien arteko % 60 eragin zituzten alorrak: Justizi Administrazioarekin loturiko arazoak dira, hirigintzaren ingurukoak, zergekin zerikusia dutenak eta osasun sistemari buruzkoak. Aipatzekoa da multzo honen garrantzia, gainerako beste hirurek batera baino dextente pisu gehiago bait du.

Bigarren multzoan, aldiz, % 17 ingurura iristen direlarik, heziketari, gizarte-ongizateari eta arazo pribatuei buruzko gorabeherak biltzen dira.

Hirugarren lekuan (bisitaldietatik % 14,6) etxebizitzari, barne sailari, industriari eta defentsari (soldaduzkari) buruzkoak sartu dira.

Eta azkenik, laugarren multzoan, % 9,35era iritsi direlarik, gizarte-segurantzaren, lanaren eta beste zenbaiten inguruko arazoak bildu ditugu.

Gure bisitarien maila soziokulturala oro har finkatzerik ez badago ere, bai esan daiteke, ordea, gizarteko gizatalderik behartsuenak izan zirela gehienak. Bitxitasun bezala, esan dezagun kexak beren buruz azaltzera etorri zitzaizkigun pertsona askok idatzi baino diktatu nahiago izan zutela, haien idazteko arazoak zirela medio. Oso datu esanguratsua da hau, aditzera ematen bait du Ararteko Erakundea betetzen ari dela gizarteko talderik babesgabeenetara hurbiltzeko eginkizuna.

Amaitzeko, erantsi nahi genuke Arartekoak asmoa duela, horretarako behar direnak eskura eduki bezain laster, larrialdi zerbitzu bat martxan jartzeko, holako beharra duten kasuei berehala heldu ahal izatearren. Horrela, Arartekoak euskal hiritarrari ematen dion zerbitzua hobetuz joan dadin nahi dugu.

Beste alde batetik, beharrezkoa da esatea, orobat, asko direla egunero jasotzen ditugun telefono deiak, hiritarrek beren arazo eta kexak azaltzeko egiten dituztenak; kasu askotan telefonoz ematen zaie erantzuna zuzenean, baina beste hainbat aldiz arazoa idatziz edota zuzenean Erakundearen egoitzara etorri azaltzeko gomendatzen zaio kexadunari, kasuak hala behar duela erizten bazaio.

Interesgarria da esatea telefono deiak, bisita pertsonalekin gertatzen denaren alderantziz, Bizkaitik eta Gipuzkoatik jasotzen direla gehienetan.

Erakundeak 1990ean jasotako bisitaldiak

	Zenbat	%
Banaka	200	82
Lagunduta	43	18
GUZTIRA	243	100

Zenbat bisitari

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Banaka	% 127	73	200
Lagunduta	50	48	98
GUZTIRA	177 % 59	121 % 41	298 % 100

Bisitarien jatorria

Araba	181	% 74
Bizkaia	44	% 18
Gipuzkoa	17	% 07
Extremadura	1	% 01
GUZTIRA	243	% 100

Gasteiz = bisitaldi guztietatik % 69,13 eta Arabako bisitaldietatik % 92,3

Bilbo = Bizkaiko bisitaldietatik % 43,2

Bisitarien adina

34 urtera artekoak	56	% 18,8
35-46 urte bitartekoak	126	% 42,3
47-59 urte bitartekoak	74	% 24,8
60 urtetik aurrerakoak	42	% 14,1
GUZTIRA	298	% 100,0

Ahozko kexak egin dituztenen jatorrizko herriak

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa
168	Gasteiz	19	Bilbo	2	Donostia
4	Asparrena	7	Getxo	2	Arrasate
2	Laudio	3	Gatika	2	Oñati
2	Nabaridas	2	Leioa	1	Azpeitia
1	Iruna Oka	2	Barakaldo	1	Lasarte
1	Barrundia	2	Galdakao	1	Elgoibar
1	Asparrena	2	Portugaleta	1	Lizartza
2	Beste batzuk	1	Atxondo	1	Beasain
		1	Basauri	1	Ordizia
		1	Elorrio	1	Oiartzun
		1	Zornotza	1	Aretxabaleta
		1	Urduliz	1	Irun
		1	Otxandio	1	Tolosa
		1	Arrankudiaga	1	Mutriku
181		44		17	


Extremadura 1

Bisitaldiaren arazoia, sailen arabera

Saila	%
Justizia	17,3
Hirigintza	16
Hazienda	14,7
Osasuna	11,25
Portzentaia orokorra	59,25
Heziketa	6,5
Arazo pribatuak	5,6
Gizarte-Ongizatea	4,7
Portzentaia orokorra	16,8
Etxebizitza	3,9
Barne Saila	3,9
Industria	3,4
Defentsa	3,4
Portzentaia orokorra	14,6
Gizarte-Segurantzza	2,5
Lana	2,1
Beste batzuk	4,75
Portzentaia orokorra	9,35
GUZTIRA	100,00

4.8. DIAGRAMAK

IDAZKIEN BANAKETA HILABETEZ HILABETE URTARRILAK 1-ABENDUAK 31 BITARTEKO ALDIA



	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
SARRERAK	110	144	197	149	244	216	232	98	152	213	504	418
IRTEERAK	206	229	167	201	318	289	294	187	236	250	470	951

■ SARRERAK ▨ IRTEERAK

DIAGRAMA 1

AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA




DIAGRAMA 2

KEXEN EGOERA




DIAGRAMA 3

EZEZTUTAKO KEXEN BANAKETA




DIAGRAMA 4

PARLAMENTU-ESKUDUNEI 1.990 URTEAN 10.000
BIZTANLEKO AURKEZTUTAKO KEXAK




DIAGRAMA 5

1983-1990 URTEETAN ZEHAR "DEFENSOR DEL PUEBLO"RI BIDADITAKO KEXAK







DIAGRAMA 6

ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO KEXEN
BANAKETA

EUSKO JAURLARITZA
176



UDALAK
111



FORU
DIPUTAZIOAK
44

DIAGRAMA 7

FORU DIPUTAZIOEN ARABERAKO
KEXEN BANAKETA




DIAGRAMA 8

ARABAKO UDALEN ARABERAKO KEXEN BANAKETA




DIAGRAMA 9

BIZKAIKO UDALEN ARABERAKO KEXEN BANAKETA




DIAGRAMA 10

GIPUZKOAKO UDALEN ARABERAKO KEXEN BANAKETA




DIAGRAMA 11

EUSKAL HERRI-ADMINISTRAZIOren AURKA
 AURKEZTUTAKO KEXEN SAILEKO BANAKETA




DIAGRAMA 12

JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN SAILEKO BANAKETA





DIAGRAMA 13

FORU DIPUTAZIOEN AURKA AURKEZTUTAKO
KEXEN SAILEKO BANAKETA




ARABA	9	1	0	1	1	0	0	0
GIPUZKOA	6	1	2	2	3	1	1	1
BIZKAIA	6	6	1	1	0	1	0	0

■ ARABA ▨ GIPUZKOA ▩ BIZKAIA

DIAGRAMA 14

UDALEN AURKA AURKEZTUTAKO
KEXEN SAILEKO BANAKETA



ARABA GIPUZKOA BIZKAIA

DIAGRAMA 15

KEXEN JATORRIAREN ARABERAKO LURRALDE BANAKETA





DIAGRAMA 16

KEXEN JATORRIAREN ARABERAKO
LURRALDE BANAKETA



BESTE UDALAK	11	132	157
HIRIBURUA	114	63	127

 HIRIBURUA
  BESTE UDALAK

DIAGRAMA 17

10.000 BIZTANLEKO KEXEN JATORRIAREN
ARABERAKO LURRALDE BANAKETA




DIAGRAMA 18

BUKATUTA ETA TRAMITEAN DAUDEN KEXEN
SAILEKO BANAKETA





DIAGRAMA 19

BUKATUTAKO KEXEN SAILEKO
BANAKETA EMAITZAREN ARABERA



	LEHNE-AKUL	HEZ	OGA	IND	HER	OSA	LAN	GAR	HIR
ARRAZOIRIK	2	6	5	0	4	18	0	4	7
ARRAZOIRIK EZ	10	14	19	1	7	17	4	0	18
BESTEAK	3	2	3	1	2	6	2	0	1



ARRAZOIRIK
 ARRAZOIRIK EZ
 BESTEAK

DIAGRAMA 20

ONARTU DIREN KEXEN EGOERA

AMAITUAK

161



TRAMITEAN

170

DIAGRAMA 21

BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA EMAITZAREN
ARABERA





DIAGRAMA 22


EUSKO JAURLARITZA : BUKATUTA ETA
TRAMITEAN DAUDEN KEXEN SAILEKO BANAKETA



■ AMAITUAK ▨ TRAMITEAN

DIAGRAMA 23

FORU DIPUTAZIOAK : BUKATUTA ETA
 TRAMITEAN DAUDEN KEXEN SAILEKO BANAKETA



AMAITUAK	2	1	3	0	15	0	0	2	1	0	0
TRAMITEAN	2	1	5	0	6	0	0	2	0	3	1

■ AMAITUAK ▨ TRAMITEAN

DIAGRAMA 24

UDALAK : BUKATUTA ETA TRAMITEAN DAUDEN
KEXEN SAILEKO BANAKETA





DIAGRAMA 25

EUSKO JAURLARITZA : BUKATUTAKO KEXEN
SAILEKO BANAKETA EMAITZAREN ARABERA



	LEHNE-AKUL	HEZ	OGA	IND	HER	OSA	LAN	GAR	HIR
ARRAZOIRIK	1	6	0	0	3	18	0	3	4
ARRAZOIRIK EZ	6	14	0	1	4	13	3	0	4
BESTEAK	0	2	0	1	1	4	2	0	1


■ ARRAZOIRIK

▨ ARRAZOIRIK EZ

▤ BESTEAK

DIAGRAMA 26

FORU DIPUTAZIOAK : BUKATUTAKO KEXEN SAILEKO BANAKETA EMAITZAREN ARABERA



ARRAZOIRIK	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0
ARRAZOIRIK EZ	1	1	2	0	13	0	0	1	1	0	0
BESTEAK	1	0	0	0	2	0	0	1	0	0	0


ARRAZOIRIK

ARRAZOIRIK EZ

BESTEAK

DIAGRAMA 27

UDALAK : BUKATUTAKO KEXEN SAILEKO
BANAKETA EMAITZAREN ARABERA



	LEHNE-AKUL	HEZ	OGA	IND	HER	OSA	LAN	GAR	HIR
ARRAZOIRIK	1	0	5	0	1	0	0	1	3
ARRAZOIRIK EZ	3	1	6	0	3	3	0	0	14
BESTEAK	2	0	1	0	1	1	0	0	0

■ ARRAZOIRIK

▨ ARRAZOIRIK EZ

▤ BESTEAK

DIAGRAMA 28

KEXEN BANAKETA KEXADUNAREN ARABERA




DIAGRAMA 29

KEXEN HIZKUNTZAREN ARABERAKO BANAKETA




DIAGRAMA 30

KEXAK AURKEZTUTAKO ERA




DIAGRAMA 31

V ATALA

**ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK
JARRITAKO ERRESISTENTZIA
ETA ERAGOZPENAK**

Erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 24. artikulua eskua ematen dio Arartekoari bere urteroko txostenean dagoen tokian nabarmentzeko bere ikerketa lana nolabait eragozten duten edota axolagabekeria erortzen diren funtzionari, agintari eta Administrazioaren emakida duen edo haren kontrolpean dagoen edozein enpresatako langile edo arduradunen jokamoldeak, bai eta Arartekoak eskaturiko espediente edo agiri administratiboetara jotzea eragozten edo oztopatzen duen beste edozein jokamolde ere.

Bide beretik jotzen du legeak Arartekoaren gomendioak kontutan hartzen ez direnerako eta zentzu horretan neurri egokirik hartzen ez denerako ere.

Horiek horrela, eta kasurik gehienetan funtzionarioek eta dagozkien Sai-lek behar bezala eta begirunez bete ohi dituztelarik ere Erakunde honek zuzentzen dizkien eskariak, askotxotan berandu erantzuten da, edota arazoari ihes egiteko aitzakiak edo erantzun harrigarriak ematen dira. Horren erakusgarri bitxi baina larria da, esate baterako, Arabako udalerrri bateko alkateak Erakunde honen eskariaren ondoren hartu zuen jarrera; izan ere, udalerriko biztanle batek haren aurka egin zuen kexuari ondoan hitzez-hitz aldatzen dugun moduan erantzun zion:

“Aurtengo uztailaren 20ko zure idazkiari erantzutearren, XXX jaun salatuaren aldetik inolako erantzunik jaso gabe Udal honek egin dituen pausuak zeintzu izan diren adierazten dizugu”.

Alkateak berak izenpetzen zuen idazkia.

Zera esan nahi dugu honekin: Administrazioak zuzen funtzionatzea guzti-guztion ardurapeko lana izanik, une bakoitzean erakunde publikoen aginte lekuetan daudenen ardura dela arrazoi gehiagoz.

Ondoan aipatzen ditugunak 1990. urtea bitartean Arartekoak eskutatako hasierako txostenari legearen arabera duten erantzuteko beharra bete ezezik, gerora ere eskutatako informazioa bidaltzeko eskariei entzungor egin zioten erakunde eta sailak dira, bai eta Erakunde honek egindako aholku eta gomendioei jaramon egin ez dietenak ere.

Zerrenda honetan erantzun gabeko kexa bat edo bi daukatelarik azaltzeak ez du esan nahi erakunde horiek beste inoiz ez dutenik berdin jokatu, eta, beraz, ondorioztat atera behar da laguntza ukatzeko jokamoldea erakusten dutela nagusiki.

Bakar-bakarrik, azpimarratzeko modukoa da, hainbatetan eta hainbatetan gertatu delako, Servicio Vasco de Salud-Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren jarrera okerra, ikus daitekeenez, eskariak errepikatu behar izan bait dira haiei buruz jasotakoetatik 11 kexatan.

Hemen azaltzen ditugun datuak 1991eko otsailaren 28ra artekoak dira. Interesgarri delakoan, kapitulu honen bukaeran hitzez hitz agertzen dira Erakunde honek igortzen dituen hiru errekerimentuen ereduak, lehenengo informazio eskabidea egiten denetik igarotako denboraren arabera doazena.

5.1. ARGITASUNAK EPEAREN BARRUAN EMATEKO BEHARRA BETE EZ DUTENAK

A) Eusko Jaurlaritza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari

312/90 Espedientea, Eskabide bat.

Hezkuntza Saileko Pertsonalaren Gestiorako Zuzendariari

113/90 Espedientea, Eskabide bat.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordeari

141/90 Espedientea, Eskabide bat.

Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkarari

304/90 Espedientea, Eskabide bat.

Ertzantzako Zuzendariari

283/90 Espedientea, Eskabide bat.

SVS-Osakidetzako Zuzendari Nagusiari

92/90 Espedientea, Eskabide bat.

99/90 Espedientea, Bi eskabide.

183/90 Espedientea, Bi eskabide.

215/90 Espedientea, Eskabide bat.

217/90 Espedientea, Eskabide bat.

272/90 Espedientea, Eskabide bat.

291/90 Espedientea, Eskabide bat: erantzun zain.

338/90 Espedientea, Bi eskabide.

539/90 Espedientea, Eskabide bat.

769/90 Espedientea, Eskabide bat: erantzun zain.

777/90 Espedientea, Bi eskabide: erantzun zain.

Osasunketa eta Kontsumo Sailburuari

134/90 Espedientea, Bi eskabide.

238/90 Espedientea, Hiru eskabide: erantzun zain.
342/90 Espedientea, Eskabide bat.

SVS-Osakidetzaren Bizkaiko Barrutiko Zuzendariari

221/90 Espedientea, Eskabide bat.
171/90 Espedientea, Eskabide bat.

Eusko Jaurlaritzako Garraio Zuzendariari

231/90 Espedientea, Eskabide bat.

Bizkaiko Hirigintza Lurralde Ordezkariari

411/90 Espedientea, Eskabide bat.

B) Foru Aldundiak

– Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Diputatuari

150/90 Espedientea, Eskabide bat.
173/90 Espedientea, Eskabide bat.
301/90 Espedientea, Eskabide bat.

Bizkaiko Gizarte-Ongizate Diputatuari

300/90 Espedientea, Eskabide bat.

– Gipuzkoako Foru Aldundia

Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiro Diputatuari

106/90 Espedientea, Hiru eskabide.
817/90 Espedientea, Eskabide bat: erantzun zain.

C) Udalak

– Araba

Koartango:	120/90 Esped.	Hiru eskabide.
Vitoria-Gasteiz:	165/90 Esped.	Eskabide bat.
Laudio:	406/90 Esped.	Eskabide bat.

– Bizkaia

Abanto-Zierbena:	110/90 Esped.	Hiru eskabide.
Zaratamo:	408/90 Esped.	Eskabide bat.
Bermeo:	131/90 Esped.	Eskabide bat.
Portugalete:	146/90 Esped.	Bi eskabide.
Urtuella:	170/90 Esped.	Hiru eskabide.
Ermua:	313/90 Esped.	Lau eskabide.
Getxo:	177/90 Esped.	Eskabide bat.
Gorliz:	182/90 Esped.	Eskabide bat.
	364/90 Esped.	Eskabide bat.

– Gipuzkoa

Irun:	502/90 Esped.	Eskabide bat.
Oñati:	106/90 Esped.	Eskabide bat.
Oiartzun:	207/90 Esped.	Bi eskabide.
Errentaria:	282/90 Esped.	Eskabide bat.
Hondarribia:	394/90 Esped.	Bi eskabide.
	403/90 Esped.	Eskabide bat.
Eibar:	462/90 Esped.	Eskabide bat.
Lezo:	817/90 Esped.	Eskabide bat.

5.2. GOMENDIO ETA AHOLKUAK BETE EZ DITUZTENAK

SVS-Osakidetzako Zuzendari Nagusiak

631/90 Esped.

Edukia: Laborategiko Teknikari Espezialista lanpostuak betetzeko deialdia bertan behera utzi eta baldintzak aldatzeko gomendioa.

272/90 Esped.

Edukia: Osakidetzako medikuei hiru tekoak aitortzeko gomendioa.

Bizkaiko Foru Aldundiko Hazienda Diputatuak

785/90 Esped.

Edukia: Bidegabeki atxekitako dirukopuruak itzultzeko gomendioa.

Arabako Foru Aldundiko Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Diputatuak

341/90 Esped.

Edukia: Garraioari buruzko isuna kobratzeko erabilitako zuzengabeko bidea ezeztatu eta dirukopurua itzultzea.

Bilboko Udaleko Alkateak

828/90 Esped.

Edukia: Udal Gas Lantegiak galtzadan eginiko lanen ondorioz ibilgailu batek izandako kalteak ordaintzeko gomendioa.

Errenteriako Udaleko Alkateak

282/90 Esped.

Edukia: Etxebizitza bloke batera ura hornitzeko zerbitzua Udalak bere gain hartzeko gomendioa.

Elorrioko Udaleko Alkatea

455/90 Esped.

Edukia: 750 Kg.tik beherako atoei Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga ez kobratzeko gomendioa.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Alkatea

468/90 Esped.

Edukia: Urte honi dagokion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren ordainketa onartzeko gomendioa.

5.3. ERREKERIMENTUEN EREDU EZBERDINAK

1. EREDUA

Ararteko honek igorri dizun idazkian,ekoareneko data duen horretan adierazitako epe-muga ondo betea izan eta aipatzen den zehaztapidearen aginduzko argipide-txostena iritsi ez zaigunez (ondoan doakizu eske-idatziaren fotokoia), berriro eskatu beharrean gaude, gure helburua bete dezagun eta Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen 3/1985 Legearen 26 atalak ematen dion agintepidez, aipatutako argipide-txostena atzerapenik gabe irits dakigun bidezko aginduak eman ditzazun; are gehiago, kexadunek arrazoi guztiz, ekin egiten bait diote zuzenketa-eskaerari eta Erakunde honek ezin bait du etsi eskaerak aipatzen dituen oinarritzko esku-bideak bermatzeko bidean.

2. EREDUA

Dagoeneko bi dira Erakunde honek igorri dizkizun idazkiak, etadatak dituztenak —honekin batera eransten ditugun fotokopiak—, non goian aipatu espediente-zenbakiaz tramitatzen ari den kexari buruzko informazioa eskatzen bait genizun.

Hori dela eta, ohartarazi beharrean gaude, aipatu informazioa hamabost egun barru gehienez igorri behar diguzula, hala izango ez balitz, Erakunde honen egitekoa oztopatzen ari zarela ulertuko dugularik. Jakin dezazun eta dagozkion ondorio juridikoetarako, jokabide hori Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko Legearen 24. artikuluan aurrikusten da.

3. EREDUA

Ararteko honekkoaren etakoaren datak dituzten idazkietan eskatutako informazioa igortzeko epea ondo betea denez (ondoan doazkizu haien fotokopiak), berriro eskatu beharrean gaude, gure helburua beteko badugu eta Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen 3/1985 Legearen 23 eta 26 artikuluetan xedatzen denari jarraiki, aipatu informazioa lehen bait lehen igorri behar diguzula. Hala izango ez balitz, Erakunde honen egitekoa oztopatzen ari zarela ulertuko dugu, jokabide hori aipatu legearen 24 artikuluan aurrikusten delarik.

Halaber, gogorarazten dizut esandako artikuluko horren arabera, Arartekoak bere esku duela gaia ezagutzera emateari eta Eusko Legebiltzarrari urtero aurkeztu behar dion txostenean agertzeari dagozkion erabakiak.

VI ATALA

IRADOKIZUN ETA GOMENDIOAK

6.1. JAKINERAZPEN FORMALA GARANTIA MODUAN ETA IRAKASLEGOAREN ORDEZKAKETAZ

Herri-aginteen erabakiak burura eramateko, administrazio publikoek halako prozedura administratibo bat osatzen duten ekintza multzo antolatuta bati jarraitzen diote, ekonomia, eraginkortasuna eta bizkortasunaren goiburuetan oinarriturik.

Era berean, prozedura administratiboak administratuari bere eskubideen babesa ziurtatzeko betekizuna ere badu. Alde batetik, halako gatazka batzuei aurre hartu, eta, horrela, sortu baino lehenago konpontzeko bidean jartzen ditu; eta, bestetik, aukera ematen dio hiritarrari bere eskubideak ustez kaltetzen dituzten Administrazioaren erabakien kontrako errekurtsoak ezartzeko.

Prozedura administratiboa osatzen duen katea honen denborazko azken katebegia jakinerazpena da. Jakinerazpenak badu beste betekizun garrantzitsu bat, alegia, Administrazioaren erabakia dagokion hiritarrari adieraztea, eta, horrekin batera, erabaki horrekin ados ez badago edota bere eskubideak kaltetzen dituela uste badu, haren kontra jotzeko zeintzu bide dituen ere jakinerazten dio.

Gure lege-antolamenduak jadanik galduak ditu lehenagoko garaietan erakunde publikoen jakinerazpen izkribuek zeuzkaten formalkeria eta zurruntasuna, eta, horrenbestez, mezuak ez du halako egitura berezi baten beharrik, oraindik ere Hipoteken Ararutegiko zedulekin, esaterako, gertatzen ez den bezala (291. artikulua).

Jakinerazpenetan formalkeriarik ez egoteko nagusitu den jarraibide honen arabera, ahoz ere egitea onartzen da baldin eta jasotzaileari jakinerazpenaren gutxieneko konfidantza eta sinesgarritasuna ematen badiote Administrazio publikoko agentearen jakinerazlearen izendapenak eta jakinerazpena bera gertatzen den lekuak berak; horrekin batera daude, gainera, jakinerazpena bete eta jaso dela espedientearen ziurtatzeko egin beharreko biderapenak.

Nolanahi ere, gehien-gehienetan jakinerazpenak idatziz egiten dira, horrek garantia gehiago ematen bait dio jasotzaileari, eta, baita ere, jakinerazpen orok bete behar dituen baldintzak arazorik gabe betetzeko aukera ematen bait du, honako baldintza hauek, hain zuzen ere:

1. *Adierazpena*: jasotzaileak, bereiztutako pertsonak alegia, jakinerazten denaren berri edukitzea. Halako ondorio batera eraman behar du, hots, jakinerazlearen eta jasotzailearen arteko lotura edo harremana ezagutaraztera.

2. *Jakinerazpenaren prozesua lege-antolamenduak finkatutako moduaren arabera bete dela ziurtatzen duen froga bat*: jakinerazleari interesatzen zaio jasotzaileak egiatan edo ustez jakinerazpena jaso duela ziurtatzen duen froga bat edukitzea, eta, horren arabera, honako hauek komeniko litzazkioke, nahiago den hurrenkeran adierazita:

– Jasotzaileak berria jaso duela aitortzea.

– Aurrekoaren faltan, sarrien gertatzen bait da, “ezagutzera emate” hori ezarrita dagoen eran burutu dela ezin zalantzarik edukitzeko moduan frogatzen dion tresna bat edukitzea; froga horrek ziurtatuko lioke, batetik, jasotzaileak jaso duela jakinerazpena, eta, bestetik, jaso duenean ezagutu ere egin duela.

Zentzu honetan, Prozedura Administratiboaren Legearen 8. artikulua eta martxoaren 14ko 1/1986 Erret Lege Dekretuaren 4. artikulua, administrazio, finantz, zergabide eta lan neurri premiazkoei buruzkoak alegia, ezartzen dutenez, Administrazioaren eta hiritarren arteko jakinerazpen eta adierazpenek egiazkotasuna ziurtatzeko garantiak eskeini behar dituzte, eta edozein bidetik egin ahalko dira, “idatziz jasota geratuz gero”.

Ararteko Erakundeak gomendio bat egin zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari irakasleen ordezkapenen berri emateko erabiltzen den moduari buruz, eta halaxe gogorarazi zitzaion jakinerazpen batek —baita premiazkoek ere— baliorik izango badu, legeak ezarritako baldintza guztiak bete behar dituela, bestela jakinerazpena jaso behar duena babesik gabe geratuko litzatekeelako. Hori bai, Administrazioak bere kasa hauta dezake kasu bakoitzaren arabera egokien gerta litekeen bidea jakinerazpena egiteko.

Kontutan hartu behar da halako ekintza baten jakinerazpena formaz ez badago, garantia moduan ulertu behar dela dagokionak ez duela jakinerazpenaren berri jaso, horrela babesturik geratzen bait dira jasotzaile horren interesak.

Jarraian doana Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egindako gomendioa da:

“Ararteko honek zugana, jaun txit argi horrengana, jotzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sail horretan irakasleen ordezkapenaren berri emateko erabiltzen den prozedura dela medio, horri buruzko kexa bat jaso bait dugu Erakunde honetan.

Maiatzaren zazpiko dataz bidali zenigun idazkian (irteera zenbakia: C-290) esaten zenigunez, “ordezkotza egin behar duenari telefonoz adierazten zaio” eta «norbaiti hots egin eta aurkitzen ez bada, telegrama bat bidaltzen zaio Ordezkaritzarekin harremanetan jar dadin, eta bitartean zerrendarekin aurrera jarraitzen da, ordezkari gaien hurrenkeran”.

Ararteko honen eritziz, adierazpena telefonoz egiteko jokabide horrek babesik gabe uzten du irakaslea, are gehiago lanpostu bat dagoenean jokuari, eta, gainera, ez da betetzen Administrazio Prozeduraren Legearen 79. eta 80. artikuluek diotena, inola ere justifikatu ezin daitekeelarik, eta esku-

bideei kalte egiten zaielarik, bilatzen den helburuaren babes lortzerik ez egonik.

Administrazio, jarduera bizkorrago eta eraginkorrago bihurtzearen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deitzeko edozein bide erabil dezake, baita telefonoa ere, baina adierazpena jaso dela ziur egon behar du beti. Ordea, ezingo da bide hori bakarrik erabili, horrela adierazpena benetan egiten ez bada.

Horiek horrela, Ararteko honek gomendio gisa eskatu nahi dizu ordezkotzak egin behar direnetan hemendik aurrera irakasleei egiten zaizkien deietan aipatu ditugun adierazpen akatsak konpon daitezela, Administrazio Prozeduraren Legearen 80. artikulua 1. idaztiaren edukia zorrozki errespetatuz, hau da, ondoan esaten den bezala:

“Adierazpenak ofizio bidez, gutunez, telegramaz edota adierazpena jaso dela ez ezik, adierazitako gaiaren nondik norakoa eta jasotze-eguna ere ziurtatzen dituen beste edozein bidez, eta, beti ere, dagokionaren helbidera edota adierazpenak jasotzeko beronek adierazitako lekura zuzenduko dira. Ofizioa edo gutuna erabiliz gero, 66. artikulua 3. zerbakiak aipatu bezala egingo da, espedienteari ziurtagiriaren gordekina erantsita”.

6.2. BIDE GABEKO DIRUSARRERAK ITZULI BEHARRAZ ETA AUTOKITAPENEN INPUGNAZIOAZ

Zergabilketa gestionatzeko prozeduran gero eta zabaldago dago autokitapenak erabiltzeko aukera, lehenagoko moduaren aldean, alegia, zergadunak berak aitortpena aurkeztu eta, ondoren, dagokion Administrazioak kitapen ekintza burutzearen aldean.

Jardunbide honek arrisku bat dakarkio administratuari zerga batzuen konplexutasunagatik, eta zergabilketa alorreko arauak —batzuetan elkarren aurkakoak direnak— mordoka produzitzen direlako, zuzenbidearen beste zenbait esparrutan gertatzen denaren antzera.

Zuzenbide materialaren inguruko ezjakintasunari, gainera, inpugnazioak edo berraztertzeke eskeak aurkezteko erabil daitezkeen bide desberdin eta ugariak ere gehitu behar, zergen kitapenaren aurka jotzeko arrazoia zein den.

Eta hori guztia gutxi balitz ere, zergabilketaren alorrean Administrazioak ere jotzen du askotan isiltasun administratibora, hartara benetako babesik gabe uzten duelarik, oro har esanda, zergaduna.

Gomendioei utzitako atal honetan leku bat utzi behar zaio bidegabeko dirusarrerak itzultzeari dagokionez administrazio zergabilztaileek erabiltzen duten jokamoldeari.

Alde batera utzirik errakuntza huts edo berezkoengatik edo aritmetikoengatik egindako bidegabeko dirusarreraren kasuak, bai eta ordainerazpen bikoitza gertatzen direnekoak ere, jo dezagun zuzenean zergadunek beren autokitapenetan egindako “legezko errakuntzak” direla medio gertatzen diren bidegabeko dirusarreretara.

Zergabilketari buruzko Lege Orokorren 64 d) artikulua bost urteko epea ematen du bidegabeko dirusarrerak itzultzeko eskubidez baliatu ahal izateko.

Zergabilketa alorreko Administrazioaren eritziz, hala ere, berak ez ditu legeak finkatutako epeak administratuak bezala bete behar, dirudienez. Hala, bada, ZLO horren 64. artikulua a) idaztiak dagokion autokitapenez zergabidezko zorra zehazteko beharra iraungitzeko Administrazioari bost urteko epea ematen diolarik, autokitapenengatik izandako bidegabeko dirusarrerak itzultzeko beharra duenean, ordea, Administrazioak, bere on beharrez, Kexabide ekonomiko-administratiboen prozedurarako arautegia- ren 121. artikulua ezarritako epeetara jotzen du, behin eta berriz ezesteko, garaiz kanpo aurkeztuak izateagatik ezestu ere, autokitapena aurkeztu eta urtebetetik gora igaro ondoren okerraz ohartzen diren zergadunen erreklamazioak.

KEAPA horren 121. artikulua honako hau ezartzen du: "Sujetu pasiboek egindako autokitapenen bat auzi ekonomiko-administratiboaren bidez inpugnatu nahi baldin badute, autokitapen hori bere hartan utzi ala zuzentzeko eskatu behar diete alde aurretik gestioaren ardura duten sailei. Eskabide hori autokitapena aurkeztu baino sei hilabete beranduago eta urtebete baino lehenago egin beharko dute, eta hilabeteko epean eskabide horri erantzun adierazia ematen ez bazaio, isiltasun administratiboaz bere hartan utzi dela ulertuko da".

Dena dela, arau honen gaitasuna zalantzan jarri dute behin baino gehiagotan auzitegi ugariaren ebazpenek; esate baterako, La Coruña-ko Lurralde Auzitegiak honako hau azaldu zuen 1988ko abenduaren 31ko sententzia batean:

"NUIZaren autokitapenengatik sujetu pasiboak ustez jasan duen okerra legeko okerra dela zalantzarik bat ere ez dago, azken fin-ean Zergaren Arautegiaren 130. artikulua ezarritako % 15eko kenketaren aplikazioa zehaztea esan nahi bait du, horrek aplikatu beharreko legeko arauak interpretatzera behartzen duelarik; alabaina, Administrazio zergabiltzaileak emandako ebazpena, hau da, bidegabeko dirusarrera itzultzeko eskaria epez kanpokoa izateagatik ez onartzea, ez da zuzena bidegabeko dirusarrerak itzultzeko eskubidez baliatu ahal izateko epea bost urtekoa delako, dirusarrera gertatu zen egunetik kontatzen hasita, ZLOaren 64 d) artikulua arabera. Ez doa interpretazio horren aurka 155. artikulua, itzultze-ko eskubidea onartzean prozedurari dagokionez arautegiko arauetara bidaltzen duenean, bidaltze hori prozedura ezartzeari baita- dagokio, eta ez epea zehazteari, epe hori lege finkatuta dagoelarik 64. artikulua horretxetan; artikulua hau, bestalde, ezin daiteke indar- gabetzat jo, KEAPAren 121. artikulua bidez esaterako, honek, gainera, ZLOaren 10. d) artikuluan, iraungipenerako eta aldakun- tzarako epeak ezartzeari dagokionez, arautzen den legeko erreser- baren printzipioa hausten bait du".

Bestela esanda, KEAPAren 121. artikulua ezarritako epeak Adminis- trazioa zergadunak aurkeztutako autokitapena irmotzat ematera bultzateko

epeak dira, autokitapena aurkeztea berez ekintza administratiboa ez denez gero, horregatik, balioztatu edo zuzendu behar duelako, horrenbestez auzibide ekonomiko-administratibotik inpugnatzeko aukera ematen delarik.

Hala, bada, epe horiek amaitzeak ez du galerazten bidegabeki izandako dirusarrerak itzultzeko eskubideaz baliatzeko aukera, eskubide horren epea bost urtekoa delako; gainera, ulertu behar da zerga-aitorpenak ofizioz berrikustea, Haziendaren onerako izan daitekeenean ez ezik, aitorpena egitean halako okerren bat, berezkoa zein legezkoa, dagoen guztietan ere bidezkoa dela. Bestela jokatzuz gero, Administrazioaren bidegabeko aberaste bat gertatuko litzateke, baita errakuntza berari leporatu beharrekoa denean ere.

Erakunde honi azaldutako kasuetakoren bat aipatzearren, ekar dezagun hona zergadun batek, 1987, 1988 eta 1989 urteetako NUIZaren aitorpenean erabateko elbarritasun iraunkorragatik jasotzen zuen pentsioa ezjakinean sartu zuenak, aurkeztu zuen kexabidea.

Administrazio-auzibidezko errekursoaren aurreko berraztertze eskea aurkeztu zuen, baina Gipuzkoako Foru Haziendak ez zuen onartu 1987. urteari zegokion eskabidea, "epe kanpoko" izateagatik.

Administrazio zergabiltzailea ez zen ohartu autokitapena zegokion kitapenaren bidez berretsi edo zuzendua izan arte ez zela ekintza administratiborik gertatzen, zentzu estuan, eta, horregatik, gertatugabeko ekintza baten aurkakoa zela berraztertze eske hori. Kasu honetan, gainera, egoera are bidegabekoagoa zen, konprobazioa egin eta gero ondoko bi urtealdietakoa zuzentzea onartu bait zen.

Une honetara iritsi ondoren, laburbilduz, honako hauek esatea komeni da:

—KEAParen 121. artikuluan ezarritako epeak Administrazioa zergadunek aurkeztutako autokitapenak berretsi edo zuzentzera bultzatu, eta horrela auzibide ekonomiko-administratibotik jotzeko bidea aukeran uzteko epeak dira.

—Bidegabeko dirusarrerak itzultzea eskatzeko eskubide materiala bost urteko epean iraungitzen dela ulertu behar da, hau da, Administrazioak zerga-zorra dagokion kitapenez zehazteko duen epe berean (ZLO, 64. artikulua).

Hauxe zen Espainiako legeen antolamenduaren egoera, bidegabeki jasotako dirusarreraren itzulketari buruzko arau garbi eta eraginkor baten faltan.

Irailaren 21eko 1.163/1990 Erret Dekretua, neurri handi batean Estatuko Defensor del Pueblo erakundeak tankera honetako gorabeherei buruz eginiko txostenei esker onartu dena, hutsune hori betetzera etorri da, bidegabeki jasotako zergabidezko dirusarrerak itzultzeko prozedura arautzen bait du espreski.

Haren 3. artikulua, Zergabiltzari buruzko Lege Orokorrari jarraituz, bost urteko epea finkatzen du bidegabeko dirusarrerak itzultzeko eskubidea iraungitzeko.

Aitorpen-likidazioei edo autolikidazioei eskeintzen die, gainera, bere 8. artikulua, honako hau ezartzen duena:

“Zergadun baten eritziz berak egindako aitorpen-likidazioak edo autolikidazioak bidegabeko dirusarrera bat eragin duenean, bidegabeki jasotako dirusarrera hori itzultzeko eskatu ahalko dio Administrazio zergabiltzailearen dagokion sailari.

Eskabide hori aitorpen-likidazioa edo autolikidazioa aurkeztu ondoren eta Administrazioak dagokion behin-betiko likidazioa burutu edota, bestela, dagokion likidazioaz Administrazioak zerga-zorra zehazteko duen eskubidea nahiz bidegabeko dirusarrera itzultzeko zergadunak duen eskubidea iraungi baino lehen egin behar da”.

Horiek horrela, erreferentzia horiek Zergabilketari buruzko Lege Orokorraren 64. artikularen a) eta d) idazatiek ezarritako bost urteko epeei dagozkiela ulertu behar da.

Era berean, KEAParen 121. artikulua beste era batera idatzi da, autolikidazioak zuzentzeko eskabideaz espreski edo ustez emandako ebazpenaren aurkako errekurso ekonomiko-administratibotik aurkezterik egon dadin moduan.

Azkenik, bere bigarren ebazpen iragankorrek ebazpen hau indarrean sartzean zerga-zorra zehazteko Administrazioak duen eskubidea iraungi gabe eta dagokion likidazioa behin-betiko egin gabe daukaten aitorpen-likidazio edo autolikidazioetara ere zabaltzen du Erret dekretuaren aplikazioa.

Ez dago, beraz, inolako eragozpenik erret dekretua indarrean jarri aurretik autolikidazioengatik bidegabeki jasotako dirusarrerak itzultzeko, dirusarrerak horiek egin zirenetik bost urteko epea igaro ez den bitartean behintzat.

Espero dugu erret dekretu honen arauen interpretazioak ez duela ekarriko zergadunei bidegabeki jasotako dirukopurua itzultzeko eskubidea eragozteko bide berririk, eta dekretua indarrean hasi aurretik egindako kobaketak itzuli beharra ez dela lausotuko isiltasun administratiboaren babeslekuan, zergaduna etsitzera eramaten bait du, auzibide ekonomiko administratibotik jotzeak dirua eta denbora eskatzen duela ikusirik.

6.3. EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALKUNTZAZ ADMINISTRAZIO LOKALETAN

Erakunde honetan ohartuak gara gero eta gehiago direla euskararen erabilera normaltzeko udal ordenantzak onartu dituzten udalak, eta, era berean, gero eta gehiago direla Erakunde honetara hizkuntzaren erabileraren inguruko arazoak, udal esparruko erabilerari buruzkoak batez ere, azaltzeko jotzen duten hiritarrak.

Euskarak Euskal Erkidego Autonomoko udalerrri batetik bestera duen erabilerari begiratzen badiogu, nahiko panorama desberdina ikusiko dugu, eta oso egoera soziolinguistiko desberdinak eta nahitanahiez kontutan hartu beharrekoak ere bai. Biztanlerik gehien duten herri-hiri gehienetan bi hizkuntza ofizialak batera erabiltzen badira ere, biztanle kopuru gutxiagoko hainbat udalerriren egoera guztiz bestelakoa da, haietako bizilagunen arteko harremanak bi hizkuntza ofizialeatik batean bakarrik gertatzen direlako.

Legearen ikuspegitik, gertatzen da Euskararen Normalkuntzarako 10/82 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, orokorregia dela eta ez dela iristen gatazkak konpontzeko bideak ematera ez eta Administrazio lokalak hiritarrekiko eta beste administrazio publikoekiko harremanetan bezala, barruko harremanetan ere —hauek definitzen dituztelarik haien antolakuntza eta funtzionamendua— bi hizkuntza ofizialez, idatziz zein ahoz, egin beharreko erabileraren inguruan azaltzen diren arazo ugariak arautzera.

Eusko Legebiltzarrak onartu zuenean, 10/82 Legeak aipamen zehatz bat egiten zuen bere 8. artikulua 3. idatzian Administrazio lokalaren esparruan euskarak eduki behar zuen erabilerari buruz, baina Konstituzioaren aurkakotzat eman zuen Konstituzio Auzitegiak ekainaren 26an emandako 82/1986 zenbakiko sententziaren bidez. Indargabetu zen ebazpenak honako hau zioen:

“Gorago agindutakoa hala dela ere, udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dedinean, herri-agintariek, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskara bakarrik erabili ahal izango dute.”

Beste erkidego autonomo elebidun batzuek, Kataluniak eta Galiziak hain zuzen, lege mailako arauen bidez araupetu dute euren hizkuntza ofizialen Administrazio lokaleko erabilera, eta hor daude 8/87 Legea, apirilaren 15ekoa, Kataluniako Udal eta Toki Erregimenari buruzkoa (5. artikulua), eta ekainaren 21eko 5/88 Legea, Galiziako erakunde lokalen hizkuntza ofizial moduan galiziera erabiltzeari buruzkoa.

Hiritarrek euskara erabili ahal dezaten Administrazioarekin dauzkaten harremanetan, eta, ondorioz, euskara lanerako hizkuntza gisa ere erabiltzerik egon dadin, Eusko Jaurlaritzak hizkuntz politikarako halako erizpide batzuk finkatu ditu Administrazioaren zerbitzuko langileek Euskal Erkidego Autonomoan ofizialak diren bi hizkuntzak jakitea ziurtatzeko.

Nolanahi ere, udal mailako jardueran badira beste alderdi batzuk arau bidez aski antolaturik ez daudenak, hala nola euskaraz idatzitako agirien balioa eta nahikotasuna (deialdiak, aztergai-zerrendak, ebazpenak, batzar-agiriak, alkatearen dekretuak...), espedienteen tramitazioan euskara hutsa erabiltzea, eta ildo horretatik hizkuntza bakarrean idatzitako inprimakien erabilera, sail kolegiatuen bilkurak euskaraz egiteko eskubidea, euskaraz ez dakiten zinegotziek udal arazoen berri jasotzeko duten eskubidea, hiritarrek hizkuntzagatik diskriminatuak ez izateko eta Administrazioarekin dauzkaten harremanetan nahi duten hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea, administrazioen arteko harremanetan hizkuntzetako bat bakarra hautatzea, etab.

Esan gabe doa euskara hizkuntza ofizialtzat aitortzeak lege mailako ondorio garrantzitsu eta funtsezkoak dakartzala, hizkuntza horretan idatzitako agirien balio eta ofizialtasuna, besteak beste. Dena dela, hori ez da aski, eta interpretaziora jotzera behar du, eta, horregatik, alferreko eztabaida eta gatazkarik piztu ez dadin, beharrezkoa da administrazio lokaletako euskararen erabileraren legeko arautegi batean argi eta garbi adierazi eta jasotzea.

Egoki da, beraz, bi hizkuntza ofizialen arteko harremanak araupetzea. Orobat, udalek egiten dituzten ekintza administratiboak itzultzea, gatzelania-

ra zein euskarara, beharrezkoa ote den ala ez argitzea, beti ere gizartean gutxitua dagoen hizkuntza izanik, euskara aurrera eramateak hizkuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea kaltetuko ez duen moduan.

Batera zein bestera, legegileak oso kontutan eduki beharko du azkenik hartzen den arau mailako irtenbidea edozein dela ere, udalen autonomia gutzitx errespetatu beharko duela, haretxen bitartez heldu ahalko bait zaio udalerrri bakoitzeko egoera soziolinguistikoari; hau da, udal bakoitzak finkatu ahalko du zeintzu diren hizkuntzaren alorrean bilatzen dituen helburuak, bere funtzionamendu eta antolakuntzan euskara zenbateraino erabili nahi duen, eta helburu horietara iristeko zein neurri hartu behar direla iruditzen zaion.

Azkenik, gogoratu beharrik ez dago Eusko Jaurlaritzak bere gain hartutako eginkizunen arteko bat dela une hauetan euskararen erabileran eta erreibindikazioan aintzindari diren erakunde lokalen ahaleginei laguntzea, hizkuntzaren normalkuntzarako politika baten barruan, hizkuntza hori ekin-tza eta zeregin administratiboetan normaltasunez erabiliko bada.

6.4. ZERBITZU PUBLIKOEN ERABILITZAILEAK ETA HAIEN ES-KUBIDEEN DEFENTZAZ

Gomendio honen helburua Administrazioari gure antolakuntza juridi-koan indarrean dauden arauetan oinarriturik zerbitzu publikoen erabiltzai-leet dauzkaten eskubideak gogoraraztea da.

Oso gai eztabaidatua da zerbitzu publikoak ematearen alorrean dau- den betebeharrak sozialei erantzutearren Administrazioak merkatal izaerako el- karteaz baliaitzeko duen joera, eta horrek administratuen eskubideekin inoiz sor ditzakeen interes-gatazkek.

Hala, bada, hiri-garraioa, gas hornidura, argindarra eta bestelako zer- bitzu batzuk nagusiki edo erabat kapital publikoz hornituriko enpresen bi- dez gestionatu ohi dira.

Horrela, hitzarmeneko aldeetako bat ezinbestez Administrazioa bera edota zerbitzu publikoen emakida duen enpresa bat denean, eta hain zuzen ere hitzarmenaren jasotzaile moduan erabiltzaile kopuru zehaztugabe bat duten harremanak direnez gero, askotan gertatzen da erakunde horiek al- dez aurretik eta beren kasa bakarrik ezarritako arau edo baldintza oroko- rrak izatea.

Arazoa dator hiritarrak bere esku dituen ekintzabideek oso aukera gu- txi edo batere ez dutela aurrera ateratzeko, ia beti halako interes publiko orokor baten izenean erakundeek beren nahiaren arabera hartzen dituzten arau batzuei aurre egin behar izaten dietelako.

Konstituzioaren 51. artikulua kontsumitzaile eta erabiltzaileak babes- tu, eta haien segurtasuna, osasuna eta bidezko interes ekonomikoak ziurta- tzeko bide egokiak hartzeko beharra ezartzen die herri-aginteei.

Beste alde batetik, otsailaren 27ko 3/85 Legeak, Erakunde hau sortu eta arautzen duenak, honako hau jasotzen du Arartekoari egozten zaizkion ahalmenen artean: "Horretarako gai diren ihardutze-sail eta zerbitzuekin el- kar hartuta, herritarren bidezko zuduen aldezpenerako eta arduralaritza sai-

len alderdikieririk ezaren, eginkortasunaren, erdirakortasunik ezaren, aginte-banaketaren, antolakidetzaren eta Legeei eta Zuzenari erabat men egitearen arauerako irizpideei egokitzeko aterapiderik egokienak lortzen saiatzea"; eta hori, zuzenbide pribatuaren alorrean kontsumitzailearen eskubideak kontrolatu eta fiskalizatzera erabat emanda dauden halako erakunde batzuen (KAUB-OMIC, Asociación Española de Consumidores delakoa, etab.) lan guttiz goresgarriaren kalterik gabe.

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Legeak (KEDL), 1984ko uztailaren 19koak, esandako arau konstituzionala garatzen duenak, 10.1. artikuluan ezartzen du produktu edo zerbitzuen eskeintza, promozioa edo salmentari oro har aplikatu beharreko baldintza, klausula edo itunek bete behar dituzten beharrak, administrazio publikoek eta haien menpeko erakunde eta enpresek jartzen dituztenak barne.

Beraz, hitzarmenen baldintza orokorreko babesa ez da baldintza-jartzaile pribatuen kasuetara mugatzen, ezen eta oro har Estatuaren, erkidego autonomoen, erakunde autonomoen, probintziaren zein udalerraren jabetzako enpresa publikoetara, bai eta zerbitzu publikoen emakida duten enpresetara ere zabaltzen bait da. Erakunde horiek jarritako baldintza orokorrak, 1. idazatiaren betebeharrak orokorrak betetzeaz gain, kontrol eta ikuskatzailetza administratiboaren pean ezarriak daude (10.3. art.).

Era berean, baldintza orokor horiek indargabeturik gerta daitezke, epaileak hala adierazten badu, auzitegien eritziz, Administrazioak onartuta eta haren kontrolpean egon arren, 10. artikulua 1. idazatian ezarritako betebeharrak betetzen ez direnean.

KEDLaren 10.4. artikuluari jarraituz, dagokion erabiltzaileak baldintza horien baliogabetasuna eska dezake, auzibidetik joz gero.

Lege beraren 12.2. artikulua dionaren arabera, klususula, baldintza edo itun orokortzat jotzen da enpresa batek edo enpresa talde batek haren edo haien kontratuetan aplikatzeko alde aurretik eta haien aldetik bakarrik idatzitakoen multzoa, kontsumitzaile edo erabiltzailea ezin bait du haien aplikazioa galerazi dena delako ondasun edo zerbitzua eskuratu nahi denean.

Atxekipen hitzarmen deritzanak dira, bestela esanda; alegia, edukina bi alderdien artean hitzartu ordez, haietako bakar baten borondatearen ondorio dutenak, eta beste alderdia, hots, kontsumitzaile edo erabiltzailea, edukin horri atxekitzera behartzen dutenak.

Horrela, esate baterako, ura, gasa edo argindarra hornitu edo telefono linea instalatzeko hitzarmenetan, erabiltzailea "atxekitu" egiten zaio bere izenpeaz Administrazioak alde aurretik ezarritako baldintza orokorrak dituen hitzarmen bati.

Tamalez, oraindik orain oso gutxi dira hitzarmen horietako baldintzak irakurtzeko parada hartzen duten administratuak, eta hala egiten dutenek ere ez dute gogoan hartzen izenpetzen ari diren horrek batzuetan euren eskubideei uko egitera behartzen dituela, Administrazioaren onerako, eta guttiz gauza normaltzat hartu ohi dute.

Izan ere, doktrinak erakusten duenez, Administrazioak baditu halako eginkizun orokor batzuk, ez benetako betebeharrak zentzu estuan, eta eginkizun horietan bere gogoaren arabera jokatzeko aukera zabal-zabala dauka.

Aldi berean, administratuari ez zaio aitortzen eskubide baten jabe izatea, baizik eta, gehenez ere, babes gutxi duen interes egoera bat.

Batzuetan, administratuak ez du hitzarmena izenpetzeko ekintza formala ere egiten, hori egintzat ematen bait da dena delako zerbitzuaz baliatzen den unetik.

Dena dela, esan dugun bezala, KEDLak ematen duen babesa esparru pribatuan jazotzen diren harremanetara ezezik, administrazio publikoek eta beren menpeko enpresek haien zerbitzuak erabiltzen dituztenekin dauzkaten harremanetara ere zabaltzen da.

Hitzarmenetan agertzen diren baldintzek honako hauek bete behar dituzte, besteak beste, fede ona eta trukagaien bidezko oreka, alegia. Horrenbestez hauxek geratzen dira kanpo:

— Administrazioari hitzarmena bere nahiaren arabera erabakitzeke ahalmena ematen dioten baldintzak.

— Abusuzko klausulak, hau da, kontsumitzailea neurrigabez edo berdintasunik gabe kaltetzen dutenak edo kontratuan alderdien eskubide eta obligazioen arteko desoreka ezartzen dutenak, kontsumitzaile edo erabiltzaileen kalterako.

— Kontsumitzaile edo erabiltzailearen aurrean erantzunkizunen murriztapen atsolutuak.

— Lege honetan aitorturiko eskubideei uko egitera behartzen dutenak.

Honen inguruan, Erakunde honetan kexa idazki bat jaso zen Donostia hiriko garraio zerbitzua ematen duten gidarien jokamoldeari buruz, "bonobus" izen arruntaz ezagutzen den txartela okertuta egonik eta autobusetan horretarako jarrita dagoen makinak ez onartuz gero gidariek hartzen duten jarrerari buruz, hain zuzen.

Kasu horietan, bidaiariak ez bazuen ordaintzen beste bilete bat, ibilgailutik jeistera behartzen zuten, bonobus okerraren dirua berreskuratzeko eskubidea ukatzen zitzaielarik.

Guzti horietan batera gertatzen ziren alderdi bien eskubide eta bete-beharren arteko desoreka, erantzunkizunen murriztapen absolutua, eta KEDLak aitortutako eskubideei uko egiteko beharra, zerbitzuaren erabiltzaileen kalterako beti ere.

KEDL horretan sartutako arauak zorrozki betez gero, ezarritako baldintza guztiz baliogabekoa zela ikus erazi zitzaion Donostiako Udalari, eta horregatik berehala kendu behar zela bonobus txartelatik; orobat, bonobus okerrak beste batzuen ordeztatzeko aukera eman behar zela ere gomen-datu zitzaion. Den-dena onartu zen.

Baldintza orokorrei buruzko legea, sektore doktrinagile askok eskatzen dutena, indarrean jartzen ez den bitartean, euskal administrazio publikoek, Alemania edo Suediaren biderei jarraituz, zerbitzuak emateko eta administrazioetarako harremanetarako gestio tankera berriak zerbitzu publiko bat emateak izan behar duen burubidetik apartatzen ez ote diren zaindu behar dute, zerbitzu horiek gizartearen beharrezan bat betetzeko helburua bait dute; horregatik, beren ekintzen baldintza orokorrak idatzi eta erabiltzean

indarrean dagoen legezko antolamendua osatzen duten arau desberdinetan, batez ere Kontsumitzailearen Euskal Estatutuan, Merkatal Jardueraren Antolakuntzarako euskal legean, eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Eskubi-
deen Defentsarako Lege estatalean administratuari aitortzen zaizkion esku-
bideak kontutan hartu eta errespetatu behar dira.

6.5. HIRITARREN ESKUBIDEAK ETA GOGAIKARRITZAT EMAN- DAKO JARDUEREZ

Aipagarria da kexa ugari jaso direla Erakunde honetan, hiritarrek ba-
naka zein jabe elkarteen izenean bidaliak, etxebizitzetako beheko solairue-
tan kokaturiko establezimendu publikoek, ostalaritzakoek batik bat, eragiten
dituzten gogaipenei buruz protestatzeko.

Salaketa gehienak bide beretik doaz. Auzokideek salatzen dute estable-
zimenduak eragindako zaratak nahastu egiten duela soinu-zuko giroa, osasu-
nean eragin kaltegarria duela, eta etxeko lasaitasuna hautsi egiten duela.
Aldi berean, udalei egotzen diete erantzunkizuna, horren kontrako ezer egi-
ten ez dutelako; izan ere, askotan gertatzen da musika tresnek goizaldera
arte piztuta egonda zaratak egoten direla salatu, baina udal agintari-
e egoera horiek eragotzi, zuzendu edo zigortzeko inolako neurririk ez hartzea,
eta horregatik jotzen dute Arartekoarengana, azken aukera moduan.

Ekintzetarako udal baimenei gagozkielarik, badira denboran zehar ba-
natzen diren hiru aldi: instalakuntza, zuzentzeko neurriak hartu eta inda-
rrean jartzeari dagokiona; zabalkuntza, aurkeztutako proiektuaren arabera
jarritako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna neurtzeko helburua duena;
eta, azkenik, funtzionamendua, litekeen itxiera gertatu arte delako ekintza
gainbegiratu eta ikuskatzea bilatzen duena.

Udalek lehen bialdiak bideratu eta kontrolatu ohi dituzte, arazorik
gabe oro har; aitzitik, funtzionamenduaren, gainbegiratzearen eta etenga-
beko ikuskapenaren aldia, zabalkuntzaren ondoren, ez da behar bezain sa-
rri ez eta behar adina zorrotzasunez ere betetzen.

Askotan gertatzen da, ostalaritza alorreko establezimenduetan batez
ere, establezimendua lanean hasitakoan betetzen direla neurri zuzentzaile-
ak, baina gutxinaka-gutxinaka, denbora igaro ahala, neurri horiek lasaiago
betetzen direla. Egoera hauek arautegietan araututa daude, eta hari hone-
tatik aski dugu Udaltzarren zerbitzu arautegia gogoratzea, haren 1. arti-
kuluak ezartzen duenez, udalek administratuen jardueretan polizi lanetan
esku sartzerik izango bait dute baldin eta lasaitasuna, segurtasuna, osasu-
garritasuna edo moralitasuna larriki hausten edo arriskutan jartzen badira,
horiei eutsi edota beren onera bihurtzarren.

Beharrezkoa da udalek onartzea neurri zuzentzaileak hartzea ez dela
amaitzen ekintza horretan bertan, baizik eta halako jarduera baten sailka-
penari loturik dagoen prozesu bat (prebentzioa) dela hasiera batean, eta
gero funtzionamenduaren arabera doala.

Saillkatutako ekintzen gogaipenetatik hiritarrak babestu beharra gero
eta maizago agertzen ari da jurisprudentzian eta lege doktrinatan, eta go-
gaipenak legeak ezarritako onarpen-mugetatik beherago daudenean baka-

rrik behartuta dago hiritarra horiek gizarteko bitzta moderno eta masifikatuaren beste alderdi arrunt eta ezinbesteko baten moduan jasatera.

Hala, bada, Konstituzio Auzitegiak berak eman zuen, 22/1984 zenbakiko sententzian, jurisprudenzia ulertzeko beste bide bat, alegia, soinuuzko gogaipen eta nekeak Konstituzioaren 18. artikulua bermatzen dituen pertsonaren funtsezko eskubideen, etxebizitzaren bortxaezinezkotasunaren eta intimitate eskubidearen kontrako erasoen artean sar daitezkeela.

Komenigarria litzateke jardueren alorrarekin zerikusia duten administrazio guztiek —Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek, azken hauek batez ere— kontzientzia hartuko balute hiriko ingurugiro egokia espazio berbera erabiltzera behartuta dauden ekintza desberdinak elkarren osagarri bihurtuz hasi behar dela, eta horren poderioz administrazio publikoek beren esku dauzkaten legezko tresnez baliaturik, nahi den bizimoduarekin bat ez datozen gehiegikeriak eragotzi behar dituzte derrigorrez.

Jarduerak antolatzen dituen oinarrizko arauak azaroaren 30eko 2.414/1961 Dekretu bidez onartutako Iharduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko arautegian (IGOKA) sarturik daude. Arau honek aplikazio eremu orokorra dauka, eragina duelako jarduera guztietan eta ingurugiroaren alorrean; aldiz, alor desberdinei buruzko neurri teknikoak, IGOKAk berak haietara bidaltzen bait du, alor edo jarduera bakoitzarako neurri zuzentzaileak ezartzen dituztenak dira. Esatekoa litzateke bidaltze horren bitartez udal Administrazioaren ahalmen batzuk Estatuaren edo erkidego autonomoen eskura igaro direla askotan.

Aski ezagunak dira gaur egun IGOKAk agertzen dituen hutsune eta gabeziak, haietako batzuk, xeheki aztertzeko asmorik gabe, ondoren azalduko ditugularik.

IGOKAk xeheki arautzen du lehen unea, instalakuntzarena alegia, baina nolobait ahazturik uzten du onartutako instalakuntzak geroagoko baldintza berrietara egokitzeko aldakuntzak egin beharra.

Zigortzeko edo zuzentzeko duen indarrari begira, nahiko mugatuta daude Administrazioaren ahalak, eta, ondorioz, ikuskapena egitekoak ere; 40. artikulua ezartzen duenez, “ezin daiteke inolako establezimendurik itxi erazi alde aurretik hiru isun

ezarri ez badira bata bestearen ondoren”. Beraz, inolako jarduerarik ezin da aldi baterako amaierazi zenbait zigor espediente bideratzen ez diren bitartean, eta horrek hilabete batzuetako atzerapena dakar.

Ikuspegi instituzionaletik dagoen desegokitasuna ere berdin aipagarria da, ezen eta IGOKA indarrean jarri zenetik (1961. urtetik, alegia) ez da ezertarako ere moldatu Administrazio eta erakundeen arteko ahalmenen banaketara, hainbat gutxiago gure Erkidego Autonomoari begiratzen badiogu, hemen ahalmenak Eusko Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen artean banaturik bait daude, ahalmen batzuk erakunde lokalen esku utzita eta guzti daudelarik.

Beste alde batetik, erabaki arautzaileak hain sakabanaturik egonda, komenigarria da arauok gaurkotu eta elkarri egokituko dituen testu bateratu bat prestatzea, ahal den neurriari multzoka jarri ditzan izaera orokorreko aginduak, legeria berezi ugari eta askotarikoak duen pisua ikusirik. Jakina, arau horrek lege maila eduki behar luke, era horretara zigor eta isunen in-

guruko sistema zuzentzaile guztia aldatu eta arrazionalizatuko litzatekeelarik.

Beste horrenbesteko garrantzia dauka kaltegabekotzat jotzen diren jarduerak, hau da, Administrazioaren kontrol eta biderapen burokratiko guxtiago daukatenak, zerrendatu eta haiei buruzko erizpideak finkatzeak.

Euskal Erkidego Autonomoak Estatuko legeak ezarri eta indarrean jartzeko duen ahalmena dela bide (Konstituzioaren 149.1.23 artikulua eta Autonomi Estatutuaren 11.1.a art.), Eusko Legebiltzarrak eskumena dauka lege mailako arau bat emateko, ingurugiroari buruzko ahalmen orokorren barruan sailkaturik dauden jardueren alorrean herri-aginteez izan behar duten partaidetza araupetzarren.

Ararteko Erakunde honen eritzia da hemen azaldutako alderdiak eta hurbileko edo funts bereko beste batzuk ere arautuko dituen agindu bat prestatu, bideratu eta onartzea ezinbestekoa dela kontu honetan erantzunkizuna duten administrazioen funtzionamendua buru gehiagoz eramateko, eta hiritarrari bizimoduaren kalitatea eta geure herri-hirietan elkarren osagarri bihurtu behar ditugun jarduera desberdinen erasoetatik babesteko modua bermatzeko.

6.6. ETXEBIZITZA DUIN ETA EGOKIA EDUKITZEKO ESKUBIDEAZ

Oro har etxebizitzaren inguruko kexa batzuk, etxebizitzak eskuratzeko eskubideari buruzkoak, zehazkiago esanda, jaso dira Erakunde honetan, haren kezka bizia eragin dutenak.

Etxebizitza duin eta egokia edukitzeko eskubidea Konstituzioaren 47. artikuluan jasota dago; artikulua horrek herri-aginteei egotzen die eskubide hori egiaz mamitzeko hartu beharreko neurriak ezarri eta joratu beharreko bideak jartzea. Legeria positiboa eta herri-aginteen jarduna gidatu behar dituen politika sozialeko goiburua bat dugu hau, beraz (Konstituzioaren 53-3. art.), baina ez hiritarrak esiji dezakeen eskubide publiko subjektibo bat.

Euskal Herriari dagokionez, etxebizitza alorreko ahalmenak bere esku daukanez gero (Autonomi Estatutuaren 10-31. art.), Erkidego Autonomoko herri-aginteei dagozkie egotzitako betebeharrak, batik bat Eusko Jaurlaritzari, eta, neurri txikiagoan, foru aldundiei eta udalei. Gure Estatutua ahalmen hori aipatu besterik

ez du egiten, etxebizitza edukitzeko eskubideaz Konstituzioak egiten duen aitorpena zahar-berritu gabe, Alemaniako Bavaria (106. art.), Brema (14-1. art.) eta Berlin (19-1. art.) Estatuetakoa Konstituzioek ez bezala; hauek, izan ere, gizarteak bizitzeko leku bat edukitzeko eskubidea bermatu ezezik, hiritarrentzat etxebizitza eskuragarriak eraiki eratzeko betebeharrak subjektiboak ezartzen die "Lander" direlakoetako herri-aginteei eta udalei.

Edozeinentzat oinarritzeko eta funtsezko beharra da etxebizitza edukitzea, edozein delarik hura erabili edo edukitzeko modua. Are gehiago, etxebizitza ezinbesteko baldintza da konstituzio bidez aitortutako funtsezko eskubide eta askatasun publiko asko gozatu ahal izateko, esaterako, pertsonaren eta familiaren intimitatea, etxearen bortxaezintasuna, bizilekua aukeratzeko eskubidea, bai eta askatasun eta berdintasun eskubideak ere,

zabal hartuta. Funtsezko eskubide ohizkoak alferrik galdu eta zentzurik gabe ere gera daitezke hiritarrari eskubide horietaz egiatan baliatzeko ezinbesteko baldintzak eskeintzen ez bazaizkio.

Azken urteotan etxebizitza librearen prezioak etengabe eta ezin gertzeko moduan gora egin duela ikusi dugu, bai eta Administrazio publikoak inolako neurrik ez duela hartu ere. Horren ondorioz, pisuen eta alokeren prezioa hiritarrak gehien errenten eroste ahalmena baino maila ekonomiko handiagora iritsi da.

Hori dela medio, hiritarrak behartuta gertatu dira beren dirusarreretatik portzentaia altu samar bat kentzera, kasurik onenean, hain desiratua den ondasun horren finantziarioari heldu ahal izateko, bai eta, jakina, etxebizitza edukitzea gerotik gerora luzatzen ibiltzera ere, behar den gutxienezko kapitala eduki arte, behintzat.

Administrazioa behartuta dago bizileku duin eta egokia edukitzeko eskubidea egiatan gauzatu ahal izateko etxebizitza alorreko politikabide bat aurrera eramatera. Irtenbideak, nekeza dudarik gabe, sustraitik heldu behar dio arazoari, etxebizitza librearen merkatuaren gainean eraginez tresna juridiko egokien bitartez (zergabidezko arauak, Hiri-Alokeren Legea, Lurraren Legea...); hirigintza gestionatuz eta lur eraikigarria eskeiniz, horretarako udalek nahita nahiez parte hartu behar dutelarik; hainbeste etxebizitza hutsik egoteak dagoen eskaria beteko lukeela kontutan hartuz; finantz eta kreditu publiko mailako neurriak hartuz, esaterako, etxebizitzak alokatzeko dirulaguntza subjetoak emanez, halako parametro batzuen barruan...

Gutziz eta erabat derrigorrezkoa da, beraz, Administrazioak zuzenean parte hartzea merkatuan, beharrik gehien eta dirubiderik gutxien duten hiritarrei etxebizitza babestuak eskeiniz, hartara, ahal den neurrian behintzat, infraetxebizitza eta bazterkeria galerazteko; horretarako, batzuetan etxe bakunak eta beste batzuetan etxemultzoak berregokitzeko operazioak jarri behar harko ditu martxan.

Etxebizitzaren alorreko legeria berezia aztertzeari ekiten badiogu, ikusiko dugu Euskal Herriko Erkidego Autonomoa baliatu egin dela batzuetan bere ahalmenez, promozio publikoko etxebizitzak arautzen dituen arautegi zabal bezain zorrotz bat dagoelako; alde askotatik onuragarria bada ere, esan dezagun hobetu beharreko punturik ere baduela.

Hor dugu, esate baterako, Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren 1988ko maiatzaren 6ko Agindua, promozio publikoko babes ofizialeko etxebizitzak banaketari buruzkoa (EHAAren 99. zkia., maiatzaren 24koa); honek etxebizitzak banatzeko halako erizpide batzuk ezarri zituen, alegia, etxebizitza portzentaia bat famili osaketa murrizteko taldeei (erretiratuei, famili unitategaiei...) eta beste portzentaia bat ezinduei utzi behar zaiela.

Ondoren, eta etxebizitza behararen inguruko beste puntu batzuetan sakontzearen, agindu horrek gutxienezko baldintza batzuk eta baremu bat ezarri zituen eskabideak bi kontzepturen arabera puntuatzeko:

- Etxebizitza beharra.
- Norberaren egoera.

Bada, jaso den esperientziak eta gizartearen dinamismoak komenikarri bihurtu dute etxebizitza bebestuak banatzeko erizpide horiek gaurkotu eta hobetzea.

Hari horretatik, Erakunde honek jakin du etxebizitza batzuk beren ezaugarri objetiboengatik egokitzat hartuak izan arren, ez direla egokiak haietan bizi diren pertsonen begiratuz gero. Horrela gertatu da, esate baterako, pertsona adintsuak igogailurik gabeko etxe bateko laugarren edo bosgarren solairuan bizitzea. Edo, baita ere, igogailurik gabeko etxe batean bizi den familia batek kide elbarri bat edukitzea —ez aita familiakoa ordea—, eta horregatik egunero aitak besoetan igo behar izatea senidea haien etxeraino.

Kasu horietan, promozio publikoko etxeen eskeintza murriztuta dagoenez gero, eta gaurko baremoei eutsiz gero oso zaila da horrelako familiek etxebizitza baten adjudikazioa lortzea.

Horregatik, lehenago aipaturiko arautegia aldatzeko gomendatzen dugu, etxebizitza desegokia izatea edota bizilagunen egoera, batez ere igogailurik ez egoteak eragindako arazoak bezalakoak esaterako, kontutan harturik bizitzeko baldintza eskasak eskeintzea ere aintzakotzat har dadin etxeak banatzeko baremo arautzaileetan.

Beste alde batetik, komenigarria da babes ofizialeko etxebizitzaren salerosketan erosteko lehentasuna —apirilaren 15eko 7/1988 Legeak (EHAAren 89. zenbakia, maiatzaren 11koa) eta maiatzaren 22ko 140/1990 Dekretuak (EHAAREN 152. zenbakia, uztailaren 30ekoa) arautua— Euskal Herriko Erkidego Autonomoari emateari buruzko arautegi eta ejekuzio mailako puntu batzuk hobetzea.

Interesgarria litzateke etxebizitzaren alorreko Administrazioak finkatuko balitu etxeen salerosketan erosteko lehentasuna edukitzeko eskubideari buruzko erizpide eta zertzeladak, gaur egun finkatu gabe bait daude. Horrela ez litzateke desberdintasunik ez eta konparaziozko kalterik gertatuko gaur gertatzen den bezala, zeren eta hiritar batzuek, etxebizitza bat hartzea aukeratu eta jabearekin negoziatu ondoren, ez bait dute etxearen jabe bihurtzeko aukerarik Administrazioak tanteo edo erretraktu eskubidez baliatzea erabaki duelako, eta, aitzitik, beste hiritar batzuek, beharbada egoera ekonomiko hobea izanik eta guzti, bide berbera jarraitu ondoren, babestutako etxebizitzaren salerosketa burura eraman bait dezakete. Horregatik, ez da harrizkoa hiritarrak jakineko galdera bat egitea bere buruari: zer dela eta Administrazioak erabaki du nik nahi nuen etxebizitzari buruz erosteko lehentasun eskubidez baliatzea? Zer dela eta ez du berdin jokatu egoera bereko etxekonekoarekin?

Orobat, gomendagarria litzateke tanteo edo erretraktu eskubidez baliaturik hartutako etxebizitzak banatzean beharizan soziala hartzea erizpide gisa, hau da, alokerapeko edo sarerra diferituko etxeen banaketa sustatu eta ahal ekonomikorik gutxieneko hiritarrei eskeintzea. Horrek bai justifikatuko luke erosteko lehentasun eskubidez baliatzea, helburu sozial bat beteko lukeelako, gaur egun, erizpide falta dela medio, betetzen ez duen bezala.

Azkenik, gure eritziz gehiegizko betebeharrak bat jartzen du maiatzaren 22ko 140/1990 Dekretuaren 12. artikuluan 2. idazatik azken lerroal-

diak, zeren eta, promozio publikoko babes ofizialeko etxebizitza izendapena ez duten etxeen eta etxeondoren banaketari begira, Administrazioak erosteko lehentasun eskubideak baliaturik jaso dituenean, beti ere "prezioaren ordainketa eskudirutan" egingo dela ezartzen bait du. Bide horretatik joz gero, erosteko lehentasun eskubideak duen helburu soziala alferrik galduko litzateke, eta Administrazioak beste edozein etxe sustatzailek bezala jokatuko luke, ahaztuta utzirik etxebizitza duin eta egokia edukitzeko eskubidea, Konstituzioak onartu eta aitortua, egiatan gauzatu ahal izateko baldintzak jartzeko herri-aginteez duten tresnarik garrantzitsuenetako bat finantziarioa dela.

6.7. HIRIGINTZARI BURUZKOAK ARGITZEKO BEHARRAZ

Asko izan dira hirigintza eta eraikuntzaren alorretan Administrazioarekin dauzkaten arazoak azaltzeko asmoz Erakunde honetara jo duten hiritarrek.

Arartekoaren 1989ko txostenean hiriarentzat eta haren biztanleentzat indarrean dagoen arautegiari egokitutako oinarritzko eta osoko plangintza bat edukitzea zeinen garrantzitsua den argitzen genuen. Bada, 1990ean azaldutako arazorik gehienak arau subsidiariorik edo 1975eko Lurraren Legeari egokitutako hiri-antolakuntzarako egitasmo nagusirik ez daukaten udalei dagozkie, eta hori ez da ustekabeko bat inolaz ere, baizik eta ordenamendurik ezaren, hirigintzarako proposameneren iluntasunaren eta obrabaimenak emateko borondatezko erizpideak erabiltzearen ondorioa, edo behintzat halako ustea dute salaketa egiten duten hiritarrek.

Beren plangintza zaharberritzeko lanetan beranduen dabilzan udalak Gipuzkoako Lurralde Historikokoak dira, ondoren Bizkaikoak, eta azkenik Arabakoak, azken honetan udalerririk gehienek badutelako erabat onartutako arau subsidiariorik.

Nahiz eta 1990ean gauzen egoera zertxobait hobetu 1989. urtearen aldean, beharrezkoa dugu oraindik ere udal gestionatzaileen eta honen inguruko sektore guztien ardurari dei egitea premiazko zeregin honi ahalbait lasterren hel diezaioten, horrek gizarte osoarentzat dakarren onura eta abantaila kontutan harturik. Hiru foru aldundietako hirigintza sailei gogorarazi behar zaie badutela oinarritzko plangintza osatu eta bideratzeko udalek duten ahalmena haien ordez beren esku hartzeko aukera.

Lurraren espekulazioa borrokatu alde batetik, eta bestetik hiritarrei etxebizitza duin eta egokiak eta bizitzeko moduko hiri inguru bat eskeini nahi badiete, legeak beren esku jartzen dituen tresna guztiak erabili eta hiriarren eta, oro har, hirigintzaren gestioan aitzindari izaten hasi beharko dute, ezinbestez.

Erakunde honek administrazio lokalekin izan dituen harreman ugarien bitartez agerian jarri da udalek Hirigintz Erregimenaren Berriztapena eta Lurraren Baloraziorako uztailaren 25eko 8/1990 Lege berriagatik duten kezka eta nahasketa.

Lege horrek honako hau ezartzen du: alde batetik, beren araurik gehienak derrigorrez, bete beharrekoak direla erkidego autonomoentzat, Esta-

tuaren ahalmen oso edo oinarritzkoekin bat bait datoz; eta, bestetik, gainerako aginduak, nork bete beharrekoak diren garbi ezarrita ez dagoenez gero, arau berezirik ezean erkidego autonomoek bete beharrekotzat jotzen direla.

Legegileak lurraldeetako parlamentuen bizkar uzten du zeinek bere legeria bereziaren bitartez lege hori erkidego autonomo bakoitzaren hirigintz ezaugarriei egokituagoa egitea. Are gehiago, testu arauemailea planteiatuta dagoen eran, haren arauetako batzuk ezin dira indarrean jarri haiek aurre-ra eramango dituen lege autonomikorik ez badago.

Lege berria onartu zenetik urtebete eskas igaro delarik, une egokia litzateke hau Eusko Jaurlaritzak bezala foru aldundiek ere, baina lehenak batez ere, Administrazioaren beraren baitan eta lurrarekin eta etxebizitzarekin zerikusia duten hirigintz eragileen artean sortutako zalantzak argitzeko.

Administrazio horietxei dagokie legea indarrean jartzeak dakartzan zalantza ugariak argitzeko lan zail eta neketsu, baina aldi berean derrigorrezko eta premiazkoa. Esate baterako:

– Zein den haren indar-esparru osoa, 25.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei ere ba ote dagokien legeak subsidiarioki aipatzen duen bezala; hala balitz, hiru hiriburuei ezezik, ondoko udalei ere legokieke:

Gipuzkoan: Irun, Errenteria, Eibar eta Arrasateko udalei.

Bizkaian: Barakaldo, Getxo, Basauri, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Galdakao eta Erandioko udalei.

Edota, alderantziz, arauaren indar-esparru osoa 50.000 biztanle baino gehiagoko udalei ote dagokien, hau da, Irungoari Gipuzkoan eta Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi eta Basauriko udalei Bizkaian, hiru hiriburuez gain, jakina. Eta hori ahaztu gabe 8/90 Legearen erabateko aplikazioa Euskal Erkidego Autonomoak mugaturiko inguru metropolitanoetan sarturiko udalerrietara ere zabal daitekeela.

– Urbanizatu ezineko lurretan zer nolako eraikuntza eta instalakuntzak onar daitezkeen.

– Urbanizatu, aprobetxatu eta eraikitzeke eskubidea jasotzeko epeen malgutasuna.

– Aprobetxamenduaren eredia zehazteko kalkulu-sistema.

– Zuzeneko okupazioaz horni daitezkeen lurrak lortzeko prozedura.

– Urbanizatu gabeko orube eta lurren erroldan sarturiko lursailen derrigorrezko salmentaren erregimena.

– Eta abar.

Azken finean, Administrazio autonomikoa da lege-testu batera eraman behar duten gogoetak eta proposamenak egiteko denbora tarte bat zabaldu behar duena, zalantzak garbitzeko eta lur sailkatuan jarduteko teknikak argitzeko; horrek etheen promozioa eta hiriaren garapena erraztuko ditu biztanle guztien onerako.

6.8. ADMINISTRAZIOAREN GELDITASUNA. ISILTASUN ADMINISTRATIBOA ETA ADMINISTRATUEN ESKUBIDEEN USTEZKO IRAUNGIPENAZ

Ararteko Erakundearen 1989ko jardunari buruz Legebiltzarrari aurkeztutako urteko txostenean agerian jarri zen Arartekoak jasotzen zituen hainbat eta hainbat kexabideren helburua administrazio publikoei administrazioak aurkeztutako idazki askok ez zutela erantzunik jasotzen, edota, nahiko berandu jasotzen zutela salatzea zen.

Tamalez, administrazio publikoek isiltasun administratibo ukatzailea abusuz erabiltzen dutela salatzen duten hiritarren kekek iristen dira oraindik ere.

Aurreko urteko txostenean, orobat, administrazio publikoetan oso errótuta dagoen erabilera hori deuseztea oso zailtzat jo eta arazo hori aurrerantzean ere gertatuko ez ote zen beldurra azaldu genuen.

Esan gabe doa ez dela batere erraza izango abusuzko erabilera hori desagertaraztea Administrazioaren jardueratik, eta beharbada, ezinbestez, arauak aldatzea izango da hiritarren eskubideei eusteko irtenbidea.

Hala eta guztiz ere, gaurko prozedurazko arautegiak indarrean jarraitzen duen bitartean, behin eta berriz azpimarratu beharko dugu arautegiaz baliatzean administratuen eskubideak zorrotz bermatzeko moduan jokatu behar duela Administrazio publikoak.

Administrazioak ez badu erabaki garbiak emateko beharra betetzen, askotan gerta daiteke administratuak legearen benetako babesia edukitzeko eskubiderik gabe geratzea.

Administrazioaren berezko edo isiltasunaren bidezko gelditasunaz oro har egiten ditugun gogoeta hauek inoiz kontutan hartuz gero, Arartekoari azaldutako arazo hauetxetan hartu beharko dira, alegia, Administrazioak administratuaren eskariei espreski erantzuteko duen beharra bete ez eta, gainera, gelditasun administratibo horren eraginez administratuen eskubideak ezeztatu edo epez kanpo geratzea nahi duenean.

Guztiok dakigu ordainak jasotzeko eskubideak aitortzen direnean, aitortpen horien ondorio ekonomikoak errekurtsogileek beren kexabidea aurkeztu zituztenetik iraungi gabeko azken bost urteetara atzeratzen direla, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 46.1. artikuluan eta, Erkidego Autonomoaren esparrura etorri, Euskal Herriko Herriogasun Nagusiko printzipio arautzaileei buruz indarrean dauden legezko aginduen testu bateratua onartu zuen maiatzaren 17ko 1/88 Legegintza Dekretuaren 47.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Era berean, Langileen Estatutuaren 59.2 artikulua aditzera ematen du ordainkizunak eskatzeko ekintzaren muga-epea eskaria egin daitekeen egunetik hasita urtebetekoa izango dela.

Iraungipenaren baliabide juridikoa, haren oinarria segurtasun juridikoaren jarraibideaganako begirunea izanik, neurritz erabili beharrekoa da, eta ezin du balio herri-aginteei arauak ez betetzen laguntza emateko.

Administrazioak honi dagokionez egiten duen gehiegizko erabileraren erakusgarri moduan aipa dezagun Gipuzkoako Sendagileen Bazkunde Ofizialak Ararteko Erakunde honi azaldutako kasua.

Izan ere, Insaludek hirurtekoak 70/78 Legearen arabera arautu eta eguneratzeko eskabide-inprimaki bat eman zien sendagileei betetzeko.

Inprimaki hura Insaluden erregistroan aurkeztu zen Zuzendaritzak emandako oharren arabera, eta, hala, legea noiz aplikatu eta beren nominak behar bezala noiz zuzenduko ziren zain geratu ziren sendagileak. Insaludek, hala ere, ez hirurtekorik arautu ez erantzunik ere ez zuen eman.

Sendagile batzuek auzibidetik jo zuten Administrazioaren kontra, sententzia batzuk euren aldekoak, hau da, euren nahiak onartzearen aldekoak, izan zirelarik.

Administrazioak bere beharra beteko zuelakoan auzitegitara jo ez zutenek, ostera, ikusi zuten, ahalmenak eskualdatzeko prozesua amaitu zenean, Servicio Vasco de Salud-Osakidetzak ez zizkiela aitortzen beren eskubideak, iraungita edo epez kanpo geratuta zeudela erizita.

Ondoko lerrotara ekarri dugu, hitzez hitz, Erakunde honek Servicio Vasco de Salud-Osakidetzari auzi honen inguruan bidali zion gomendioa. Hona hemen:

“Osakidetzaren idazki horrek, 90-VIII-21eko dataz, aditzera ematen du kexadunen eskariak «Insaludek ezetsi zituela, berariz adierazita edo *isilbidez, gure kasu honetan bezala*, eta zazpi urte luzez ez aitortzeak argi eta garbi erakusten du onartzeko asmorik ez zegoela, eta eskubide batez baliatzeko epea luze asko gairiditu dela, eskubide batek indarra galtzeko berau erabili gabe edo ezer egin gabe gutxienez urtebete bat igaro behar delako etenik gabe (Langileen Estatutuaren 59. artikulua)».

Ararteko honek baieztapen horrekin inondik inora ere ados ez dagoela azaltzen du argi eta garbi.

Gauza jakina da eskabideen aurrean Administrazioaren isiltasunak, salbuespenak salbuespen, izaera negatiboa duela, eta bide administratiboa agortu ondoren jurisdikziora jotzea onartzeko helburua duela.

Alabaina, azpimarratzekoa da Administrazioaren isiltasunaren figura horrek administratuaren eskubideak garantizatzeko xedea duela lehen ordenamenduan. Horiek horrela, argi utzi behar da isiltasuna ez dela ekintza bat, alegiazko ekintza baizik (Auzitegi Gorenak 1978ko uztailaren 3an emandako epaia), diktatu ez den ekintza bati aurka egiteko aukera ematen duena, administratuen onerako hain zuzen, eta «ezin dela arrazoikotzat eman Administrazioaren gelditasunaren alde ateratzen den interpretazio bat, ebazteko beharra bete izan balu baino egoera hobean jartzen bait du» (Konstituzio Auzitegiak urtarrilaren 21ean emandako 6186 zenbakiko epaia).

Horregatik, hemen azaldu zaigun auziari heltzeko funtsezkoak diren bi arau aipatu beharko ditugu: Administrazio Prozeduraren Legearen 94.1 eta 94.3 artikulua, hain zuzen ere. Prozedurari buruzko testuaren 94.1 artikuluaen arabera:

«Administrazioari eske bat egin eta honek hiru hila-beteko epean bere erabakiaren berri ematen ez badu, in-

teresatuak luzapena salatu beharko du, eta salaketa egin ondoren hiru hilabete igaro eta gero, bere eskaria ezetsi dela ulertu ahalko du, ustezko ukazio horren aurrean dagoen administrazio edo auzibidezko errekursoari ekin ahal izateko, edota *bere eskeari buruzko erabaki adierazia itxaroteko.*»

Beste alde batetik, testu arautzaile beraren 94.3 artikulua ezartzen duenez:

«Kasu batean zein bestean, *ustezko ukazioak ez du bazter utziko Administrazioak ebazpen adierazia emateko duen betebeharraren. Betebehar hori betetzen ez denean kexa bidezko erreklamazioa egin ahalko da, aginte edo funtzionari axolagabearen erantzunkizun pertsona-larentzako —halakorik baldin badago— alde aurretiko oroigarri balioa izango duelarik.*»

Beraz, legeak argi eta garbi adierazten du administratuek eskubidea dutela beren eskeari buruzko erabaki adierazia itxaroteko, eta Administrazioa behartuta dagoela erabaki hori hartzera.

Konstituzioaurreko arau horiek interpretatzeko, babes judizial efektiboa edukitzeko eskubidea hartu behar da kontutan.

Horregatik, eskubide hori behar den bezala aplikatuz gero, ondorioztatu beharko dugu Administrazioaren beharra ez betetzearen alde ateratzen den interpretaziorik egiterik ez dagoela, zeren eta isiltasun bidezko ukazio edo ezespeneraren aurka errekurso egiteko epea igaro eta gero, babes judizial efektiboa edukitzeko eskubidea Administrazioaren esku geratu, eta bertan behera utziko bait luke eskubide hori, erabaki adierazia hartzeko obligazioa beteko ez balu.

Oinarri konstituzionalei estuen jarraitu eta babes judizial efektiborako eskubidearen eraginkortasunik handiena lortzen duen irtenbidea, doktrinarik zuzenenaren arabera, ulertzea da jurisdikzioa jo daitekeela ekintza iraungitzen ez den bitartean, eta *eske edo errekurso idazkiek kontaketa eteten duen auzibidez kanpoko erreklamazio izaera dutela.*

Izan ere, iraungipenaren legeko oinarria segurtasun juridikoaren printzipioa den arren, oso modu estu eta murrizgarrian erabiltzekoa da, askotan justizia materialaren printzipioaren aurka bait doa.

Euskal Herriko Hazienda Nagusiaren Printzipio Arautzaileen ekainaren 22ko 12/83 Legearen 54.1 artikulua araupetzen du Euskal Erkidego Autonomoaren Administrazioaren iraungipena.

Arau horretan 2. idaztiak dionez, «lege berezietan ezarritakoa salbu, lege antolakuntzaren arauen arabera *etengo da iraungipena.*»

Orobat, Aurrekontuen Lege Orokorren 46. artikulua iraungipena arautzen du, eta bere 2. idaztian dionez, «lege berezietan izan ezik, iraungipena Kode Zibilaren aginduen arabera etengo da.»

Horregatik, aztertu beharko da zein den Kodean iraungipen amaierazle edo askatzailearen ekintza etenerazleei buruz ezarrita dagoen lege erregimena.

Kode Zibilaren 1973 artikulua dioenez, «ekintzen iraungipena auzitegien aurreko jardueren bidez eteten da, *hartzekodunaren auzibidez kanpoko erreklamazioaz*, eta zordunak zorra onartzeko egitimo edozein ekintzaz».

Auzibidez kanpoko erreklamazioa iraungipena eteteko faktore erabakiortzat jotzearen funtsa zera da: ezin dela eskubide bat galdu eraziz inor zigortu, baldin eta auzibidez kanpoko bidetik bere eskubidea aitortu eta betetzea eskatu badu, Zuzenbide Erromatarren «*praescriptio, petitione sola, interrumpitur*» printzipioa isladatuz.

Labur esanda, eskatzaileek eskubide osoa dute Administrazioaren erabaki adierazia itxaroteko, erabakia hartzeko obligazioa bait du, eskatzaileen eskubidea iraungi ez delarik.

Auzibidera ez jotzea eta Administrazioak erabaki adierazia itxarotea erabaki duten administratuen egoera ezin da haien kalterakoa izan.

Ez litzateke izango *legezkotasun printzipioaren arabera*, printzipio konstituzionala bait da (EK, 9.3. art.), aldi berean Administrazioari erabakitzeko obligazioa ezarri, igaro den denbora igarota ere, eta erabakia baliogabetzat jotzea normaltzat ematen den epetik kanpo hartua delako.

Epaia askotan (1977ko urriaren 3koa; 1981eko martxoaren 26koa; 1980ko uztailaren 15ekoa), Auzitegi Gorenak doktrina moduan finkatu du berandu eginiko ezeste-erabaki adieraziak berriz irekitzen dituela administrazio auzibidezko errekursoaren epeak.

Beste alde batetik, Auzitegi Gorenaren 1977ko otsailaren 17ko epaiak adierazten duenez, «kontutan hartu beharrekoa da arau batek —Administrazio Prozeduraren Legearen 94. artikulua— 2. lerroaldia— erabaki adierazia, baiestu edo ezestekoa, hartzeko eskatzen diola Administrazioari, baita ustezko desafekzioz ezestutzat eman ganean ere, dudarik gabe zentzugabekeria bait da Administrazioari halako ekintza adierazi bat har eraztea jakina denean ekintza hori bertan behera geratzeko sortu dela baliogabetzen duen akats bategatik, hau da, nabarmenki berandu egin denean».

Auzitegi Gorenaren 1983ko azaroaren 4ko epaiak honela dio: «halako erabaki batzuk, berez baliogabekoak ez izan arren, berandu hartutakoak esaterako, baliogabegarriak badira —sarritan Auzitegi Goren honek aditzera eman duen bezala—, Zuzenbidean eraginik gabekoak gerta litezke, eta hori edozein kasutan, baliogabetasun hori denboraz kanpokoak izategatik ez, baizik eta bereziki aplikatzekoa den antolamenduaren aurkakoak izategatik sortzen denean».

Izan ere, eske bat isilbidez ukatzearen aurka administrazio-uztibidez jotzeko dagoen urtebeteko epea igaro eta gero halako erabaki adierazi bat hartzen denean (Administrazio-Auzibidezko Juris-

dikzioaren Legearen 58.art.), beranduko erabaki horrek eskea onartzen bada, baina erabakia beste interesatu baten kontrakoa bada, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak baliogabetzat jo ohi du Administrazioaren idazkia.

Kasu hori gertatzen da Administrazioaren agiriak batez ere ja-bego industrialaren alorreko interes pribatuen arteko gatazka bati buruz erabakitzen duenean.

Beraz, hirugarrenen interes kontrajarririk ez dagoenez gero, Administrazioak *beranduko erabaki adierazia* hartu beharko du, Administrazio Prozeduraren Legearen 94.3 artikulua betetzearren.

Erabaki horrek, gainera, alderdien eskariak *onartzearen aldekoa* izan behar du, hau izan bait da gai honetaz eman diren epai guztien zentzua, jurisdikzio-sozialera jo duten sendagileen eskariei buruz ebatzi dutenean.

Baina, gainera, esan beharko litzateke Administrazio Prozeduraren Legearen 94.3. artikulua horrek erabaki adierazia hartzeko obligazioa ezarri ez ezik, funtzionari edo agintari axolagabearen erantzunkizuna azaldu ere egiten duela, eta horrek zerbitzu publikoen funtzionamendu okerraren alorrean kokatzen gaitu, Administrazioaren erantzunkizunari dagokionez. Hari honetatik, Auzitegi Gorenaren 1980eko uztailaren 15eko epaiak honako hau ematen du aditzera:

«Administrazioaren berandutzeak zerbitzu publikoen funtzionamendu okerra dakar, eta beranduko erabaki adieraziak interes pribatuen arteko gatazkaren titularrei kalterik ekartzen badie, erantzunkizun administratiboaren printzipioa aplikatuz ordaindu behar dira kalteak (Estatuaren Administrazioarako Lege Erregimenaren Legearen 40. art.)»

Baina ondorio dialektiko hutsetarako, Osakidetzak alegaturiko iraingipena gertatu dela onartuko balitz ere, iraingipen hori Administrazioaren geldikeriatik letorke, bere legezko betebeharrak huts egin, eta fede onaren printzipioa hautsi duelako, hau da, eskariak jaso dituen Administrazioak bere obligazioak beteko lituzkeela espero zutenen fedea; horregatik, eskea egin zuten sendagileen eskaria ez onartzea bidegabekeria materialezko ekintza dateke, eta berdintasunaren printzipioa hautsiko luke, Administrazioaren abe-raste bidegabekoa sortuz.

Guztu hau dela eta, Ararteko honek, Erakunde hau eratzen eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11 b) artikuluari jarraiki, orotarazi behar du erakunde burujabe horrek Administrazio Prozeduraren Legearen 94.3. artikulua betetzeko legezko obligazioa duela, eta erabaki adierazia hartu behar duela sendagileek eginiko eskariei buruz; eta, beroien eskarien alde eman diren epai ugariak ikusita, uste du erabaki horrek eskea egin duten sendagileen eskariak onartzearen aldekoa izan behar duela”.

VII ATALA

AZKEN ONDORIOAK

Erakunde hau sortu eta arautzen duen Legearen 32.2. atalak dioenez, urteroko txostenak eskubideen babesak Euskal Herriko Autonomi Elkartearen duen egoerari buruzko balorazio orokorra bildu behar du.

Balorazio hau egin baino lehen, Erakundearen ihardunaren eta Administrazioarekiko zein herritarrekiko eurekiko dituen harremanen azterketa zehatza egitea garrantzizkoa iruditzen zaigu.

Herritarrak, ihardunaren bigarren urte honetan zehar, Ararteko Erakundea hurbilago ikusi eta horren irudia ezagunago eta begikoago izan duela esan dezakegu, jasotako idatziak aurreko urtekoen aldean % 71 gehitu izanak horrela erakusten du.

Aurkeztutako kexuen nolakoari dagokionez, aldaketa nabaria somatu dugu. Hauek gero eta zailagoak dira eta gero eta gutxiago dira Erakundearen gaitasun ezagatik baztertzen direnak. Era berean, kexua aurkezteko moduan zehaztasun eta egokitasun handiagoak ikusi ditugu, eta gero eta gehiago dira Erakunde honetara hurbiltzen diren taldeak (sindikatuak, auzo-elkarteak, kontsumitzaileen elkarteak, jabe-elkarteak...) bere arazoei bestelako aurkezmodua emanaz, gehienetan zailtasun handieneko kexuei edo arazo orokorragoei dagokiena.

Erakundeak Euskal Herriko Administrazio publikoarekin dituen harremanei dagokienez, orohar, balorazio baikorra egin dezakegu; onarpena ona izan da, elkar-aditzean eta Erakundearen egitekoa, hots, euskal herri-Administrazioaren agintekerien eta axolagabekerien aurrean herritarrak babesteko egitekoa ulertzeko bidean aurrera egin dugu.

Hala ere, zenbait administrazioen aldetik, lehentasunez eta berehala Erakundeak eskatutako datu, agiri, txosten edo azalpen guztiak emateko legezko betebeharren atzerapenak eta hutsegiteak gertatu izan dira.

Hau zurigarriagoa da gizaki eta gauzako baliapide urriko udalerrri txikietan, erantzun egokiagoa ematea espero zitekeen beste administrazio batzutan baino. Bereziki kezkarria da herritarrari oinarritzko zaizkion eta gizarte-eragin handiko herri alor eta zerbitzu horietan gertatzen denenan, herri osasunarena izan daitekeenez, Osakidetzaaren aldetik ez bait dugu oso jarrera hartzailea eta laguntzazkoa aurkitu, izan ere, eskabide asko egin behar izan bait diogu, horietako asko oraindik erantzuteke daudenak.

1990.ean zehar Ararteko Erakundeak bere antolaketa eta iharduera sendotu ditu. Mailakako hazkuntza-prozesuari ekin zaio eta arian-arian gizaki eta gauzako baliapide berriak izendatu zaizkio. Horrela, urtean zehar, bost langile izatetik hamazazpi laguneko erroldera iritsi da.

Ararteko Erakundearen antolaketa eta aribideari buruzko arautegi organikoaren idazketa eta onarpena azpimarratu beharra dago, agiri horrek barne-ihardueraren eta Erakunde honen egituraren ihardute-sail eta arlo baikoitzari dagozkion egitekoak taiutu eta zehazten bait ditu.

Informatikako tresnak eta egitarauak ezartzeari ekin zaio eta urte berriaren lehenengo sehilabetekoan bukatzea espero dugu, eta alderdi honek Erakundearen administrazio-ihardunaren eta, azken batean, herritarrarekiko zerbitzuaren eginkortasun handiagorari eta hobekuntzari bide emango die.

Erakundeak, urtealdi berriari begira, egitasmo berriak gauzatzeko eta dagoeneko hasitako beste batzuri ekiteko itxaropena du, horien artean, zorroztasunez jokatzeko asmorik gabe, honako hauek azpimarra genitzakeela: Erakundearen irudia zabaltzen eta sortzen jarraitzea, herritarrarekiko hurbiltze handiagoa bilatzen jarraitzea, Estatuko Herri Defendatzaileen 6. Jardunaldien antolakuntza, administrazio publiko ugariekiko harremanak eta lankidetzak gehitzea, ikasketa bekak sortzea, Erakundearen ariozko ekintzak zabaldu eta horiei izakera berezia eman, axolagabekeriaz ihardun dezaten administrazioen aurrean jarrera sendoagoak agertu...

1990. urtean zehar aurrerapausu ausarta eman dugu kexen biderape-nari dagokionez, Erakundearen lanari-erroldean langile berriak sartzeak bideragarri egin duen nolakoazko aldaketa gertatu da, eta horrek, artezte-sailen zuzendaritzapean dagozkion egitekoa eta zerbitzua era egokian beteko direlako bermerik onena den talde bateratua eta eginkorra sortzeko bide eman du. Guzti horren ondorioz, kexa bakoitzaren arazoaren azterkera serioagoa eta sakonagoa izan da, erantzunak eta aholkuak teknikoagoak eta zehatzagoak izan dira, eta batez ere, gizarte-sentikortasun handiagoa nabari zen alorretan erakundearen arioz garrantziko ekintza batzu burutu ahal izan dira; besteak beste, udal expetxeen eta Ertzantzaren komisaldegien arakaketa, TAO kokalekuetan gruaz ibilgailuak kentzea, funtzio publikoan sartzeko soldaduzka eginda eduki behar zelako legez kanpoko eskakizuna, eta abar. Txosten honen 2. liburukian erasota geratu den bezela.

Erakunde honetatik legeekiko ulerkera zabala eta malgua lortzen saiatu gara, herritarrek aurkezten dizkiguten kexen aurrean jarrera hartzeko orduan, horretako legeen lehen-irizpideetan oinarriturik. Horri esker, Administrazioari neurri bidezkoagoak eta bizi dugun egoerari egokituagoak proposatzeko gai izan gara, eta guzti hori arauak eraberritzera jo beharrik izan ez dugula, beti ere zaila dena eta denborari dagokionez berehalako ondorioa duena.

Estatu demokratikoa osatzen duten funtsezko eskubideekiko erasoari buruz ez dira kexa asko jaso, gure agintepeko alorrari dagokionez behintzat. Hala ere, kexa ugari jaso ditugu ekonomi eta gizarte-politikaren arau nagusiei buruz (etxebizitza, osasuna...). Herritar guztien askatasuna eta berdintasuna benetakoa eta eginkorra izateko oinarri hauen garrantzia uka ezinezkoa denez, Erakundearentzat gai hauek benetan dira kezkarriak.

Administrazio-iharduera eraginkorrerako eskubidea, Konstituzioko 103. atalean oharmandakoa, kexa askoren gaia izan da. Administraziorik erabakiari dagozkion prestakuntza eta biderapenak gehiegi luzatzen ditu, azken erabakirako atzerapen handiak ere gertatzen direla, eraginkortasun eta bizkortasun-oinarriak hautsiz eta, nola ez, legeak jarritako bideak egiteko 6 hilabeteko gehiengo epea ere. Beste batzutan, jakinerazpenak behar bezala ez egiteak sortzen dizkie egiazko kalteak administratuen zuduei.

1989.eko txostenean jadanik salatutako administraziorik-isiltasunaz gehiegi baliatzea administraziorik-ihardunean errotutako akatsa izaten jarrai-

tzen du, herritarrari kalte handia egiten diona eta horrezaz gain babesik eza ere ekar diezaiokeena, epailarien eta epaitegien babes eginkorra lortzea galaraziz Konstituzioko 24. atala haustera ere hel daitekeelarik.

Gizarte Segurantzza eta Justizia Administrazioaren funtzionamenduari dagozkion kexek osatzen dute, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herritarrek Estatuko Defensor del Pueblo-ri bidalitakoen gehiengoa. Eta gure legeak dioenaren arabera, gai honetaz guri iritsitako kexak, aipatutako erakundeari igortzen dizkiogu berak bidera ditzan. Kezkagarria da Justizia Administrazioaren iharduna dela eta aurkeztutako kexen kopuru handia, eta Defensor del Pueblo-k bai Herri-Salataritzari zein Epai-Agintaritzako Batzorde Nagusiari bidaltzen dizkienak, kexubide moztaren arabera.

Euskal herri-Administrazioak arazo nahasia eta ezberdina du bere aurrean, eta horren aurrean ez arduratzea ezinezkoa da; aitzitik, neurri erabakigarriak hartu beharra dauka, azpimarratzekoak honako egoera hauek izango liratekeela:

– Udal-kalabozoen egoera, gehienetan gutxiengo baldintzarik ere betetzen ez dutenak, eta Ertzantzaren komisaldegi batzutan hobekuntzak ezarri beharra.

– Herri-osasunaren hutsune larriak, ebakuntzetarako denbora luzean zai egon beharra, sorostegietan eritetxetik kanpoko zerbitzua lanez gainezka dagoela, adituen eskasia, lanbidedunentzako bultzagarriak eza...

– Herri-sustapeneko etxebizitza-eskaintza urria, behar bezalako etxebizitzarik ez izateari irtenbiderik ematea galerazten duena; irabazi-mailatik askoz goragoko salneurriak izanik, herritar gehienentzat etxebizitza duina lortzea zaila izatea, eta, horrezaz gain eraikuntzarako lurrekiko ihardunik eza.

– Ingurugiroaren eta lurbazterraren arian-ariango andeapena, berriztagarri ez diren guztion ogasun direnez, eta, herritarren bizitze-mailari eraginez, gure hirietan jendearentzako tokietako hots nekagarriak kontrolatu beharra.

– Zerga batzuren izapideketa eta bilketan gertatzen diren gehiegikeriak, bereziki udal mailakoak.

Azkenik, ondorio hauek bukatu baino lehen garrantzitsutzat jotzen ditugun bi gai aipatu nahi genituzke. Alde batetik, Ararteko Erakunde Administrazioaren eta herritarren arteko bilgune bihurtzeko xedea, bere egiazkotasun eta askatasun izaerari dagokionez, eta aldeei elkarrenganetzen eta hitzarmendutako irtenbideak aurkitzen laguntzeko konfidantza giroa sortzekoa. Eta bestalde, Ararteko Erakundeak aldezen duen zuduak kexu bakar soila gainditu egiten duela aipatu, lege-erakuntza aldeztera hedatzeko, eta horrela gomendio orokorrak eginez, lege-erakuntza berritzea eta aldatzea lortzeko, txosten honen 6. atalburuan bildutako proposamenekin gertatzea gustatuko litzaigukeenez, Erakunde honek zerbitzu egin behar dieneko herritar guztien onerako.

ERANSKINA

**ARARTEKO ERAKUNDEAREN
ANTOLAKETA ETA ARIBIDEARI
BURUZKO ERREGELAK**

Arartekoak honako hau erabaki du, alegia, Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen otsailak 27ko 3/85 Legearen bigarren erabaki gehigarriak ezarritakoari jarraiki, Ararteko Erakundearen antolaketa eta aribideari buruzko erregelak onartzea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara daitezen agintzea.

I IDAZPURUA

Erabaki orokorrak

1. Artikulua

1. Arartekoa Eusko Legebiltzarrak izendatutako Ordezkaria da, Konstituzioko I Idazpuruak dakartzan eskubideak bermatzeko jarritakoa, horretarako Euskal Herri-Administrarritza ikuskatuko du, horren berri Eusko Legebiltzarrari emango diolarik.

2. Arartekoa ez da inolako aginduzko manuren menpe izango, eta burujabetasun osoz beteko ditu bere egitekoak, bere erizpidearen arabera.

3. Autonomi Estatutoak eta Erakundea arautzen duen legeak berak esleitzen dizkion egitekoak burutuko ditu Arartekoak.

2. Artikulua

1. Arartekoa Euskal Herriko Autonomi Estatutuak bere 26.6 artikuluan Eusko Legegebiltzarreko gainontzeko kideentzat ezarri dituen ukieizintasun eta iareitasun bermez onuratuko da.

2. Aurreko arauak Ararteko Ondokoari atxikituko zaizkio bere bete-beharreko eginkizunetan.

3. Eusko Legebiltzarrak agiri ofiziala egindo du, Arartekoaren eta Ondokoaren kargua eta izaera egiaztatuko dituena.

3. Artikulua

1. Arartekoak Eusko Legebiltzarraren aurrean erantzungo du eta ez beste inoren aurrean.

2. Ondokoak Arartekoaren aurrean zuzenean izango du bere gestioaren erantzukizuna.

4. Artikulua

Arartekoa eta Ondokoaren hautaketa Erakundea sortu eta arautzen duen otsailak 27ko 3/85 Legeak berak ezartzen duenari jarraiki egingo da.

5. Artikulua

1. Ararteko Erakundearen artezkaritza-lanak bere titular eta Ondokoari dagozkie haien eskumen eremuan.

2. Arartekoak bere egitekoak bete ditzan Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordearen lankidetzan izan dezake.

6. Artikulua

Arartekoak eta Ondokoak txit goren eta txit argi tratamendua izango dute hurrenez hurren, beren maila instituzionalari dagokion bezala.

II IDAZPURUA

Arartekoaz

7. Artikulua

Ararteko Erakundea arautzen duen legeak berak ezartzen dituen oinarriko eskumenez gain, Arartekoari honako hauek dagozkie:

- a) Erakundearen ordezkaritza.
- b) Ondokoa izendatzea eta kargua utzeraztea Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide Batzordearen aurretiko adostasunarekin.
- c) Eusko Legebiltzarrekin erlazio zuzena izatea bere Lehendakariaren bitartez.
- d) Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, Lehendakariordea eta Sailburuekin erlazio zuzena izatea; halaber, Batzar Nagusietako Buruekin, hiru lurralde historikoetako Diputatu Nagusiekin eta lurralde bakoitzeko hiriburuetako Alkateekin.
- e) Euskal Herriko Autonomi Komunitateko Goren Mailako Justizia Epaitegiko Buruarekin erlazio zuzena izatea; halaber, lurralde barruti bereko Ministraritza Fiskalarekin.
- f) Estatuko Defensor del Pueblo-rekin eta beste Autonomi Komunitateetako Parlamentu Ordezkariekin erlazio zuzena izatea.
- g) Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordearen bileretarako deialdiak zabaltzea, bertan aztertuko diren gai zerrendak ezartzea, eta izan litezkeen eztabaidak zuzentzea.
- h) Erakundearen iharduna ikuskatzea.

- i) Disziplina ezartzeko ahalmena erabiltzea.
- j) Langile-zerrenda egitea eta Erakundearen zerbitzura izango den pertsonala izendatu eta kargua utzeraztea.
- k) Erakundearen aurrekontua egituratzeko oinarrizko bidea erakustea.
- l) Erregela hauek ezar liezaizkioketen beste hainbat funtzio.

III IDAZPURUA

Ararteko Ondokoaz

8. Artikulua

1. Ararteko Ondokoari honako eskumen hauek dagozkio:
 - a) Arartekoari bere eginkizunetan laguntzea.
 - b) Arartekoaren ordezkotza betetzea Erakundea sortu eta arautzen duen otsailak 27ko 3/85 Legeak aurrikusten dituen kasuetan.
 - c) Aurkeztutako kexei eta ofizioz has litezkeen egintzei lotutako tramitazioa, argipidea eta azterpidea zuzentzea, Arartekoari proposatuz, kasu bakoitzean, kexen tramiterako onarpena edo ezeztapena eta beharrezkotzat jotzen diren erabakiak; halaber, egoki deritzan iharduketa, agiri eta adierazpenei bide ematea.
 - d) Gainontzeko Autonomi Komunitateetako erakunde baliokideekin koordinatzea eta haiekin elkarkidetzan ihardutea.
 - e) Urteko txostena edo Eusko Legebiltzarrari aurkez dakizkion ohiz bestelako txostenak prestatu eta proposatzea.
 - f) Erakundearen zerbitzuak, Arartekoak espreski bere gain har ez dituzanean, eta Lege Aholkularitza Buruarekin eta Administrazio eta Pertsonal Buruarekin batera eguneroko gai zerrenda koordinatu eta zuzentzea.
 - g) Ararteko Erakundearen legeak eta honako erregela hauek ezarritakoaren arabera esleitzen dakizkion gainerako egitekoak betetzea.
2. Aurkeztutako kexen tramiterako behin betiko onarpena edo ezeztapena eta azken erabakia Arartekoari dagozkio, baita Ondokoari ere, azken honek Arartekoa delegatu edo ordezkari dezanean.
3. Arartekoak ezagutu ahal izango du Ondokoari dagokion edozein kexa edo ikerketaren egoera, azterpidearen ondorioa eta emango zaion biderapena.

9. Artikulua

Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen legean Arartekoaz hitzeginen duten artikulua berak aplikatuko zaizkio Ondokoari, erregela hauetako

artikuluei dagokienez, alegia, hautagaitasun baldintzak, ahalmenak eta karguarekiko bateraezintasunak aipatzen dituzten artikuluei dagokienez.

10. Artikulua

Ondokoa Eusko Legebiltzarraren Lehendakaria eta Arartekoaren aurrean jabetuko da bere karguaz, eta bere egitekoa zintzo beteko duela zin egin eta hitza emango du.

11. Artikulua

1. Ondokoak bere kargua utziko du hauetako arrazoiren bategatik:

a) Karguari uko egin izanagatik.

b) Izendapenaren jabe izateko aldia bukatu izanagatik.

c) Hiltzea edo geroztikako ezina gertatu izanagatik.

d) Bere karguko eginbehar eta egitekoak betetzen ajolagabekeria nabarmenez ihardun izanagatik. Kasu honetan, kargua uztaezteak Arartekoaren proposamen arrazoitua eskatuko du, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide Batzordeak onartu beharko duena, beti ere izendapenerako erabilitako prozedura berbera eta beharrezko den gehiengoaren adostasunarekin, eta interesatuak eskuhartzerik izango duelarik.

e) Maltzurkeriazko lege-hauspenagatik eta epai-erabaki irmo batez kondenatu izanagatik.

f) Gero gertatutako bateraezintasunagatik.

g) Legezko euskalduntasuna edo herri eta politika-eskubide guztien osoko jabe izatea galdu izanagatik.

2. Eraberean ere, Ondokoak berez eta besterik gabe bere lekua utzi egingo du Ararteko berria bere karguaz jabe dadin unean bertan.

3. Ararteko Ondokoaren kargu-uztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

IV IDAZPURUA

Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordeaz

12. Artikulua

1. Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordea Arartekoak Era-kundearen ihardunerako duen aholkularitza-saila da.

2. Arartekoak presidituko du Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordea, Ondokoak, Lege Aholkularitza Buruak eta Administraritza eta Pertsonal Buruak osatuko dutena.

3. Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordea gutxienez hilabetean behin batzartuko da, eta bestela ere, Arartekoak beharrezko deritzon guztietan, Lege Aholkularitza Buruak idazkari bezala ihardungo duelarik.

13. Artikulua

1. Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordearen egitekoak:
 - a) Langile-zerrenda zehazteari dagozkion auziez, eta, halaber, Erakundearen zerbitzurako pertsonalaren izendapenaz eta kargu-uzteaz informatzea.
 - b) Erakundearen aurrekontuaren egitasmoa bideratzeari eta burutzeari dagozkien auziak ezagutarazi eta horietaz informatzea, baita kontu-kitapenari dagozkionaz ere.
 - c) Lanak, zerbitzuak eta hornidurei dagozkien aurrekontuez eztabaibatzea.
 - d) Arartekoari urteroko txostena edo Eusko Legebiltzarrean aurkez daitezen ohiz bestelako txostenak ezagutzera eman eta horietaz informatzea.
 - e) Erregela hauen eraldatze egitasmoaz informatu eta aholkatzea.
 - f) Arartekoak beharrezko deritzen auziez informatu eta aholkatzea.
2. Aholkulariek joaterik izango dute Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordeak egingo dituen bileretara informatzeko bada, eta beti ere, Arartekoak aldeztetik deituak. Arartekoak komenigarri deritzen pertsonak ere izango dute parte hartzerik bilera horietan, bai informatzeko, bai bertan aztertutako gaien irtenbiderik hoberena errazteko.
3. Eztabaidagaiak bilera-deialdian aukeztutako gai-zerrendan azalduko dira, eta Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordeak har ditzan erabakiak partaide guztiei emango zaie aditzera.
4. Idazkariak akta jasoko du, Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordeak egindako bilerak eta hartutako erabakiak azalduko dituena.

V IDAZPURUA

Ararteko Erakundearen egitura organikoaz

14. Artikulua

Ararteko Erakundea bere helburuak hobeto burutu ditzan bi sailetan egituratzen da: Lege Aholkularitza eta Administrarritza eta Pertsonal Zerbitzu sailetan.

15. Artikulua

1. Lege Aholkularitza, Aholkulari Buruaren zuzendaritzapean, lankidetzan arituko da Arartekoa eta Ondokoarekin, hauei beren esku dituzten betebeharreko eginkizunetan behar izan lezaketen tekniko-juridiko mailako lankidetzara eskainiz.

2. Lege Aholkularitza Buruari dagokio Ararteko Erakundearen Lege Aholkularitza antolatzea eta esleitutako txosten eta azterpideak egitea.

3. Lege Aholkularitza Buruari dagokio, halaber:

a) Kexak eta ofiziozko iharduketak bideratzea.

b) Aholkulariak hautatzeko proposamenak prestatu eta aurkeztea Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordean, hala eskatzen zaionean, Arartekoari informatu eta jarraian erabaki dezan.

c) Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordeak hartuko dituen erabakiak jasotzea eta akta erredaktatzea.

4. Bai Lege Aholkularitza Burua bai gainerako aholkulariak Arartekoak izendatu eta kargua utzeraziko die askatasun osoz, eta bestela ere, Ararteko Erakundea sortu eta arutzen duen legeak berak bere 40. artikuluan aurrikusitakoa betetzean utziko dute kargua.

16. Artikulua

1. Lege Aholkularitzak bere gain dituen eginkizunen betetze zuzenerako, sail espezialduetan egituratuko da gaien arabera.

2. Sail bakoitzaren ardurapean aholkulari bat izango da, eskatuko zaizkion azterpide eta ihardupide gestioak egiteko ardura izango duena.

3. Informazio Bulego bat izango da, Lege Aholkularitza Buruaren menpe eta Ondokoaren ikuskaritzapean izango dena, bertara etorri eta eskatzen duten pertsonen informazioa eskainiko diena, Arartekoren eskumenez eta kexa aurkezteko eraz azal ditzaketen galderak erantzunez.

4. Halaber, Dokumentazio eta Liburutegi Zerbitzua izango da Lege Aholkularitzapean, Erakundearen lagungarri dokumental eta bibliografikoa izango dena.

17. Artikulua

1. Administaritza eta Pertsonal Zerbitzua Ararteko Erakundeak bere eginkizunak betetzeko behar duen administaritza euskarria izango da. Halaber, ekonomi jaurpidearen gestioari lotutako gaiak izapidetuko ditu.

2. Arartekoak izendatu eta kargua utzeraziko dio Administaritza eta Pertsonal Buruari, eta berorri dagokio Administaritza eta Pertsonal Zerbitzua antolatzea.

3. Halaber, Administrarritza eta Pertsonal Buruari ondoko eginkizun hauek dagozkie:

a) Pertsonalari buruzko gestioa, beti ere, Arartekoa, Ondokoa edo Barne Iharduera eta Koordinakuntza Batzordeari berariz ez dagokien esku-men eremuan.

b) Erakundearen aurrekontuaren egitasmoa prestatzea eta Barne Eraentza eta Koordinaketa Batzordearen aurrean aurkeztea.

c) Ararteko Erakundearen aurrekontu-gastuetarako kredituak administratzea.

18. Artikulua

1. Erroldaritza nagusia eta artxibo sail bat izango da, Administrarritza eta Pertsonal Zerbitzupuan egongo dena.

2. Erroldaritza nagusian sarrera izango dute Arartekoari zuzendutako idazki guztiak. Halaber, Erakundeak igorritako idazki guztiek izango dute errolda-irteera.

3. Artxibo saila Administrarritza eta Pertsonal Buruaren ardurapean egituratuko da, zeinek beharrezko neurriak hartuko bait ditu dokumentuak behar bezala gorde eta babesteko.

VI IDAZPURUA

Kexen aurkezpena, argipideketa eta biderapena

19. Artikulua

1. Arartekoa eta Ondokoaren egitekoak betetzeari, eta kexen argipideketa eta biderapenari dagokienez, Ararteko Erakundearen legeak eta erregela hauek ezartzen dutena beteko da.

2. Ararteko Erakundearen kexa aurkezteak eta ondorengo onartzeak, hala gertatuko balitz, ez ditu inoiz geldiaraziko legeetan ezarrita dauden epeak bide administratibo nahiz jurisdikzionalerik errekurtsioa egiteko, ezta geldieraziko dagokion egintza edo ebazpena betetzea ere.

20. Artikulua

Arartekoak berezko dituen betekizunak egitaratzean Estatuko Defensor del Pueblo-rekin eta gainerako Autonomi Komunitateetako erakunde balio-kideekin arituko da lankidetzan, eta hori gauzatuko da Ararteko Erakundea arautzen duen legearen 36. eta 37. artikuluek ezarritakoaren arabera, azaroak 6ko 3/1985 Lege Organikoaren 12. artikulua arabera, zeinaren bi-

dez Defensor del Pueblo erakundea eta Autonomi komunitateetako erakunde baliokideen arteko harremanak arautzen bait dira, eta aipatu koordinaketa eta lankidetzaren ondorioz hartuko diren erabaki eta hitzarmenen arabera.

21. Artikulua

1. Arartekoak ez bestek, edo bere kasuan, Ondokoak, ezagutuko dituzte ofizialki isilpeko izaera izango duten dokumentuak.

2. Aipatu dokumentuak behar bezala gordeko dira Arartekoaren zuzeneko ardurapean.

3. Arartekoak erabakiko du Erakunde barruko dokumentuek "isilpeko" izaera izan dezaten erabiliko den erizpidea.

4. Ezin izango da inolaz ere aipatu isilpeko dokumentuen edukia ez Arartekoren txostenetan ez kexa aurkeztu edo berorren biderapena jarrai lezakeen pertsonari igorritako erantzunetan.

5. Eusko Legebiltzarrari igorritako txostenei dagokienez, Arartekoak zuhur jokatzuz erabakiko du isilpeko izaera duten dokumentuak aipatzea egoki den ala ez.

22. Artikulua

Arartekoak proposatu ahal izango dizkio dagokion sail, erakunde edo organismoari kexen ebazpen azkarra eta positiboa erraztuko duten elkar hartze edo akordio formulak, beti ere indarrean dagoen legediaren eremuan.

VII IDAZPURUA

Ararteko Erakundearen zerbitzura dagoen pertsonala

23. Artikulua

